


# Azpeitia

1936-1945



I. Liburukia  
Volumen I

Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa  
Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoko Garaian





*Norbaitek oroituko ditu etorkizunean  
ahantzuraren zingira honetan ito  
dituztenak (Maravillas, Berri txarrak)*

*Matxinada eta diktadura frankistaren  
errepresioa pairatu zuten azpeitiarrei eta  
Euskal Herriaren askatasunaren eta Errepublikaren  
alde borrokatu zutenei eskaintzen da liburu hau.*

Babesleak  
Patrocinadores



**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**LEHENDAKARITZA**

Bakegintza eta Bizikidetzarako  
Idazkaritza Nagusia  
*Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza*

**PRESIDENCIA**

Secretaría General para la Paz  
y la Convivencia  
*Dirección de Víctimas y Derechos Humanos*

# AZPEITIA 1936-1945

Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoko Garaian

Javier Buces Cabello

**I. Liburukia**

Azpeitia 2016



**ARANZADI**

zientzia elkarteak . society of sciences  
sociedad de ciencias . société de sciences

## **PROIEKTUAREN KOORDINAZIOA**

Juantxo Agirre-Mauleon

## **IKERLARI LAGUNTZAILEA / ELKARRIZKETAK / TRASNKRIPZIOAK / EUSKARAZKO ZUZENKETAK**

Ane Leturia Delfrade

## **IKERLARI KOLABORATZAILEAK**

Karlos Almorza, Iñaki Egaña, Jimi Jiménez, Lourdes Herrasti, Francisco Etxeberria, Cristina Martin, Ana Isabel Rodríguez, Marijose Hernández, Olatz Aranguren Juaristi, Lide Gurrutxaga Urbieto, Eurne Oñatibia Lehr.

## **ELKARRIZKETEEN EGILEAK**

Eider Conde Egia, Mikel Edeso Egia, Demetrio Elorz Lazkanotegi, Ane Leturia Delfrade, Javier Buces Cabello

## **ESKERRAK**

Ikerketa honetarako testigantza eman eta dokumentazioarekin lagundu duten guztiei, Azpeitiko Udal Liburutegiko langileei, Euskal Memoria Fundazioari, Sabino Arana Fundazioari eta Azpeitiko udal politika taldeei eskerrak.

## **AZALEKO ARGAZKIA**

*Loyola* batailoiko borrokalari azpeitiarrak (Legution, 1936ko abenduan)

**ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA.** Zorroagaina 11. Donostia-San Sebastián 20014. Tfnoa.: 943466142. [www. aranzadi.eus](http://www.aranzadi.eus)

### **Egilea**

Javier Buces Cabello

### **Maketazioa**

TamTam S.L.

### **Imprimatzen du**

Gráficas Lizarra S.L.

ISBN 978-84-944251-4-1 (O.C.)

ISBN 978-84-944251-5-8 (1. libk)

L.G. SS 152-2016

# Aurkibidea

<b>1. AURKEZPENA</b> .....	09
<b>2. BIGARREN ERREPUBLIKA AZPEITIAN: GARAI BERRI BATEN HASIERA</b> .....	13
2.1. Azpeitia, gatazka politikoaren paradigma gisa .....	18
2.1.1. Euskal nazionalismoaren goraldia eta tradizionalistekiko haustura .....	21
2.1.2. "Biurteko beltza" Azpeitian. Udaltzaren dimisioa eta batzorde kudeatzailearen izendatzea .....	24
2.1.3. Fronte Popularraren garaipena eta zinegotzi hautetsiak itzultzea .....	26
2.2. Krisi ekonomikoa eta "klaseen arteko borroka" Azpeitian .....	28
2.2.1. Sindikatuak eta laneko gatazkak Azpeitian .....	30
2.2.2. Nekazaritza inguruko mugimendua Azpeitian .....	33
2.3. Autogobernuaren defentsa .....	35
<b>3. GERRA ZIBILA HASI ZENETIK AZPEITIA ERORI ZEN ARTE</b> .....	39
I. zerrenda: Fronte Popularreko Defentsa Batzordeko kideak, Azpeitian .....	41
3.1. Eusko Gudarostearen eta Komandantzia Militarren sorrera Azpeitian .....	42
II. zerrenda: Eusko Gudarosteko borrokalariak .....	46
3.2. Mobilizatutako azpeitiarrak .....	59
III. zerrenda: Gudari eta miliziano azpeitiarrak .....	62
3.2.1. "Matxinatuen eraso" delakoaren aurkako borroka edo "anaien arteko gerra" .....	76
3.2.2. Boluntarioak edo mobilizatutako behartutakoak .....	78
3.2.3. Gerrako frontean hildako miliziano eta gudari azpeitiarrak .....	79
IV. zerrenda: Gerrako frontean hil ziren matxinatuen bandoko azpeitiarrak borrokalariak .....	82
3.3. Azpeitiko eskuindarren aurkako errepresioa .....	86
V. zerrenda: Azpeitiko Fronte Popularraren Defentsa Batzordeak atxikita edukitako azpeitiar batzuk .....	87
3.4. Errepublika-garaia amaiera Azpeitian... eta biktimak .....	88
VI. zerrenda: Erbesteratutako eta errefuxiatutako azpeitiarrak .....	92
<b>4. ERREPRESIOA AZPEITIAN ETA AZPEITIAURREN AURKA LEHEN FRANKISMOAN</b> .....	101
4.1. Enplegatu publikoak botatzea .....	108
VII. zerrenda: Urolako trenean lan egiten zuten azpeitiarrak, lanpostuetatik kendu zituztenak, "garbiketa" bidez .....	111
4.2. Errepresio ekonomikoa .....	112
VIII. zerrenda: Azpeitian ondasunak izan eta CPIBk eginiko inkautazioak jasan zituzten pertsonen zerrenda .....	112
IX. zerrenda: CPIBk eta TRRPk zigortutako azpeitiarren zerrenda .....	113
4.2.1. Azpeitiarrek Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionalen haien zigorrak berrius zituzten jarritako errekursoak .....	114
4.3. Emakumeen aurkako errepresioa. Erbesteratzea eta beste tratu txar batzuk .....	117
4.3.1. Azpeitiko lazaretoa: emakumeen espetxea .....	120
4.4. Azpeitiko espetxea lehen frankismoaldian .....	121
X. zerrenda: Azpeitiko kartzelan espetxeratutako preso errepublikar espainiarrak .....	123
4.5. Urrestillako gertaerak eta epaiz kanpoko beste exekuzio batzuk .....	126
4.5.1. Beste epaiz kanpo fusilatutako azpeitiarrak .....	128
4.6. Gerrako preso azpeitiarrak .....	129
XI. zerrenda: Langileen batalioi eta konzentrazio-esparru frankistetan sartutako azpeitiarrak .....	131
4.6.1. Auzitegi militar frankistek epaitutako azpeitiarrak .....	133
<b>5. LEKUKOTZAK</b> .....	177
<b>6. ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA</b> .....	203





# Aurkezpena 1

Azpeitia XX. mende hasieran.  
(Gipuzkoako Artxibo Orokorra, GFA / Indalecio Ojanguren)





**ENEKO ETXEBERRIA**  
AZPEITIKO ALKATEA



**JAVIER BUCÉS CABELLO**  
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO IKERLARIA

Liburu hau bezalakoak argitaratu, eta gure herriaren oroimena berreskuratzea, Azpeitiko Udalarentzat betebeharra dira; hain zuzen, herritarrek badutelako egia jakiteko eskubidea eta gure ardura da ezinbestean lan horri eustea.

Aranzadik eta Udalak argitaratutako liburu honetan datuak baino gehiago herritarrak daude, izen abizena duten azpeitiarrak. Asko sufritu zutenak, eta, tamalez, ahaztuak egon direnak. Liburu hau bera eta lerro hauek aitortza izan nahi dute, baina onartuaz, horrelako lanak lehenago egin beharrekoak zirela. 78 urte igaro dira, baina inoiz ez da berandu.

Liburu hau, neurri handi batean, galtzaileen liburua da eta galtzaileei omenaldia izatea nahi du. Gerra galdu zuten azpeitiarren liburua. Baina inoiz ezin dugu ahaztu galtzaile horiek izen abizenak zituztela, eta atxilotuak, kondenatuak, beldurtuak, enbargatuak, multatuak, zigortuak, torturatuak, minduak, zaurituak, elbarrituak, erbesteratuak, desplazatuak, seinalatuak, erailak, fusilatuak, jarraituak, isilduak, dena galdu zutenak, burua makurtarazi ziotenak... izanagatik gure herriaren onena zirela. Ezer gabe gure herriaren etsaien aurrean, faxismoaren aurrean, altxatu ziren. Boteretsuen aurka, militarren aurka, soilik gure herriarentzat justiziazko etorkizuna bilatzeko. Dena arriskatu zuten: beren etorkizun pertsonala, familia, dirua eta erosotasuna. Galtzaile horiek, Azpeitiak zuen hobereena ziren eta dira. Ez da polita eta erraza. Eta beldurrak hor dirau. Baina gure herriak izan duen onena izan dira. Eta inoiz ez zuten eta ez dute inoiz duintasunik galdu.

Nabarmena da ia urte guzti hauetan isiltasunaren memoria indarrean izan dela. Azpeitian gehiengoak isilik geratu zen; isiltasuna inposatu zen eta herritarrak isilik geratu ziren. Galtzaileen isiltasun latza. Isiltasuna zabaldu zen orduan gertatutakoaz, denak isilik geratu ziren, inoiz ezer gertatu ez balitz bezala. Baina, 1936ko Gerrak sortutako isiltasuna ezin du ahantzura izan. Isiltzea ez da ahaztearen sinonimo. Isilik dagoenak ez du ahaztu, beretzat gordetzea erabaki du. Gerra hartan gertatuko ez zioten transmititu inori, isiltasuna nagusitu zen. Isiltasuna eta sufrimendu sakona, inongo aitorten, memoria, erreparazio eta justiziarik gabekoa.

Itzul diezaiegun, beraz, jaso genuenaren zati txiki bat. Iraganeko okerrak ez errepikatzeko, historia ezagutzea beharrezkoa da. Gertatutakoaren ezagutzak pisu garrantzitsua izan behar du belaualdi berrientzat. Gure gizarteak memoria guztia ezagutu behar du gerra, mendekua, krudelkeria eta mina ekarri zituen diktadura luze baten tragedia berriro ez errepikatzeko. Inondik inora, ordutik gaur arte izandako eskubide urraketak ahaztu gabe. Hor ere ezin dugu isiltasunik onartu. Tristeza bada ere, gure historia da. Izan genuen isiltasunarekin puskatu behar dugu. Eta, Azpeitian, hemendik aurrera, ez dugu inor ahaztu behar.

Gure gizarteak ezin du beste aldera begiratu. Etorkizuna oinarri sendoekin eraikitzeke gure aitona-amonen memoria historikoa berreskuratu eta ezagutarazi behar dugu. Ezin ditugu inola ere ahaztu garai hartan gertatutakoak, eta beren sufrimenduaren aitopenaz gain, une zailtan gure herriaren alde hartutako konpromisoa aitortu behar diegu. Konpromiso horiek hartzeagatik, orain ere, gure herriaren alde lan egiteko herriarekin konpromisoak hartzen dituen herritarrak ditugu. Izan zirelako gara, garelako izango dira.



# Bigarren errepublika **AZPEITIAN**: garai berri baten hasiera

# 2.



*"Estatu Espainiarraren egituraketa berriaren aurrean, kargua uztera doan Azpeitiko hiribilduko udaletxeak, bere postua utzi aurretik, eta nazio bezala dagozkion eskubide natural eta historikoak baieztatu eta gero, Euskal Herriaren autodeterminazioaren lehen ekintza bezala Euskal Errepublika aldarrikatzen du, beste Errepublika Iberikoekin konfederatuta, euskal lurraldean Donostiako Itunean finkatutako ordenaren konplimendua borrokatzen dutenei babes indartsuena adieraziz".<sup>1</sup>*

# 1931ko

apirilaren 16an, Bigarren Errepublika iristea ahalbidetu zuten udal-hauteskundeetatik lau egunetara, eta Azpeitiko Udal berria eratu bezperan, kargua utzi zuen Udalbatzak ezohiko batzarra deitu zuen, eta bertan, goian dagoen mozio hau onartu zuten.



1 - Azpeitiaren ikuspegi orokorra. 1918. (Gipuzkoako Artxibo Orokorra, GFA/Indalecio Ojanguren).



2 - Azpeitiko plaza nagusia. 1933. (Kutxateka).

<sup>1</sup> AUA (Sig. 0273-03; Kod. 12).

Hala, beraz, Azpeitiko historia garaikidean beste aldi bat hasi zen. Eskubide historikoen, Euskal Errepublikaren eta Donostiako itunaren aldeko aldarri horrek biltzen zituen hurrengo sei urteetan euskal gizartea eta politika, eta ondorioz, Azpeitiko, eraldatuko zuten ia gai guztiak. Kontuan hartu behar da krisi ekonomikoak izan zuen hedadura eta garrantzia ere. Hilaren 16an onartutako mozioa 17an eraturako korporazio berriak berretsi zuen. Gertakariaren ezaugarriak deigarriena, garai batean monarkia eta karlismora lotutako pertsonak, programa edo helburu politiko horiei eman zieten babesa izan zen. Gerora, 1936ko uztailleko estatu kolpearen ondoren, pertsona horiek udalerriko frankista garrantzitsuenen artean izan ziren.

Karlismen eta nazionalisten arteko bat etortze horren jatorria errepublika-garaia hasieran zegoen sinkretismoa zela esan dezakegu, ordura arte oso homogeneoa izan zen gizartearen zati handi baten oniritzia baitzuen doktrinak. Azpeitian, Gipuzkoako udalerririk askotan bezala, langileen mugimendu eta alderdiek izan zuten ezarpen eskasa zela eta, errepublika-garaiko lehen udala ez zen hauteskunde-prozesu baten ondorioz sortu, 1907ko abuztuaren 8ko Hauteskunde Legeko 29. artikulua aplikatzearen ondorioz baizik. Gauza bera gertatu zen Gipuzkoako bi udalerririk batean, hauteskunde prozesurik egin ez zelarik<sup>2</sup>.

1929ko erroldaren arabera, Azpeitian 8.263 "bizilagun" bizi ziren<sup>3</sup>, beraz, 16 zinegotzi zegozkion (8.000 eta 9.000 biztanle arteko udalerririk zegoen ordezkari kopurua). Edonola ere, XX. mendean hasierako lege hori aplikatzearen ondorio nagusia udal or-

dezkarren kopuru handi bat merkataritza eta industriari lotutako pertsonak izatea izan zen. Azpeitiko kasuan gizartean eragin handia zuten pertsonak izan ziren politikara sartu zirenak beren enpresa interesen zerbitzurako.

#### **1931KO APIRILAREN 17AN ERATUTAKO UDALBATZA<sup>4</sup>**

**Alkatea:** Casto Orbegozo Embil (karlista)

**Lehenengo alkateordea:** Toribio Azcue Echezarreta (enpresaburua)

**Bigarren alkateordea:** Ciriaco Aguirre Cincunegui (nazionalista)

**Hirugarren alkateordea:** Tiburcio Lopetegui Iraeta (baserritarra)

**1. sindikoa:** Silvestre Madrazo Garcia (enpresaburua)

**2. sindikoa:** Alejandro Orbegozo Embil (nazionalista)

**Zinegotziak:** Victor Aguirre Echeverria (karlista)

Juan Jose Iriarte Odriozola "Saralle" (karlista)

Faustino Odriozola Echeverria (independentea)

Andres Echaniz Arrizabalaga (enpresaburua)

Roque Astigarraga Echaniz (enpresaburua)

Silvestre Otamendi Lasa (enpresaburua)

Jose Maria Aizpuru Aramburu (baserritarra)

Martin Oyarzabal Izaguirre (nazionalista)

Jose Maria Aramendi Estala "Pipas" (baserritarra)

Francisco Iturzaeta Aguirre (baserritarra)




**3 - Azpeitia, 1933.** (Aranzadi Z.E./Imanol Elias funtsa).

<sup>2</sup> BARRUSO BARES, P.: *El movimiento obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936)*. (1994).

<sup>3</sup> AUA (Sig. 847-05; Kod.: 217).

<sup>4</sup> AUA (Sig. 0273-03; Kod. 12).






4 - Azpeitiko zezen-plaza, 1935. (Aranzadi Z.E./Imanol Elias funtsa).

Azpeitiko gizartearen lehen ordenako beste botere talde bat eliza katolikoa izan zen, haren adierazle nagusia Loiolako santutegia izan zelarik. Nukleo horren inguruan Jesusen Lagundiak egiten zuen jardura erlijioso guztia. Gasteizko gotzaina, Mateo Mugica, 1931ko maiatzean erbesteratzea, eta batez ere, 1932ko urtarilean jesuitak desegitea, eragin handiko gertakariak izan ziren Azpeitiko gizartearen. Azken egoera horren eraginez, azpeitiar eta Gipuzkoako beste herri batzuetako jende asko gerturatu zen joan behar zuten egunean erlijiosoei agur egitera. Erlijio katolikoak tokiko politikan eta gizarte-harremantetan egiten zuen kontrol soziala erabakigarria izan zen hurrengo hauteskunde - prozesuetan, Bigarren Errepublikaren garaian, baina baita Estatutu-proposamenen etorkizunean ere. 1931ko abenduan onartutako Espainiako konstituzioaren izaera laikoak talka egiten zuen Lizarrako Estatutua bultzatu zutenek lortu nahi zuten "Gibraltar batakianista"rekin (Indalecio Prieto); era berean, jabetzaren eskubideen muga, nekazaritza-erreforma eta langileen ahalduzko kaltegarriak ziren Azpeitiko jabe handien eta industrialen interresetarako.



5 - Elizkizuna Azpeitian.  
(Aranzadi Z.E./Imanol Elias funtsa).



6 - Loiolako santutegia, 1926.  
 (Gipuzkoako Artxibo Orokorra, GFA/ Indalecio Ojanguren).

Dena den, Azpeitiko gizartean hain errotuta zeuden eta a priori Espainiako konstituzio berriak ezartzen zituen oinarriko printzipioen kontra aurrez aurre talka egiten zuten baldintza sozial horiek guztiak urteen joanarekin erlatibizatuz joan ziren, eta horri esker, garaiko eraldaketa sozio-politikoaren prozesura sartu ahal izan zen, euskal herriaren idiosinkrasia kontuan hartuta. Azken faktore hori erabakigarria izan zen, printzipio demokratiko horiek onartzeak ez baitzuen ekarri euskal gizarteak euskal herriaren askatasun eta eskubideen inguruko aldarrikapenak alde batera uztea, eta errealtate berri horretan egokitu ziren.

Azpeitian, autogobernuaren aldeko apustu tinkoaz gain, euskal nortasuna babestea izan zen tokiko politikaren ardatzetako bat, bai 1931n eraturako udalbatzan, bai 1933ko apirilko hauteskundeetan ondoriozkoan. Arlo horretan, nabarmentzekoa da funtsean euskalduna zen herri batek bertako hizkuntza aitortzeak eta babesteak zuen garrantzia. Hori dela eta, 1931n udalbatza eratu eta hiru egun eskasera, apirilaren 20an hain zuzen ere, Alejandro Orbegozo zinegotzi nazionalistak hala eskatuta, herriko kaleak bi hizkuntzetan errotulatzeko onartu zuten. Gainera, hilaren 27an, Instrukzio Publikoko ministroari telegrama bat bidaltzea adostu zuten, eskola publikoetan euskarazko irakaskuntza eskatzu<sup>5</sup>.

Era berean, Azpeitiko gizartearen eraldaketan beste faktore garrantzitsu batek eragin zuen: Egoera ekonomikoaren inguruan sortutako migrazio-fluxuak. Funtsean, Azpeitira Espainiako migratzaileak etorri ziren, baina azpeitiarrak ere joan ziren Hego Euskal Herrietik kanpora. Kanpoko langileak etorri izanak erraztu egin zuen 1932tik aurrera estatu mailako hainbat elkarte, sindikatu eta alderdi ezker-tiar Azpeitian egonkortzea<sup>6</sup>.

Unión Republicana alderdia 1932ko irailean sortu zen, UGT 1933an ezarri zen eta Izquierda Republicana, berriz, 1934an. Azpeitian doktrina horiek izandako pixkanakako hazkundea erakusten dute datu horiek. Baina langile autoktonoak erakarri bazituzten ere, erakunde horien garrantzia herrian eskasa izan zen, hauteskundeetan emaitzari dagokionez behintzat.



7 - Unión Republicana alderdiak Donostian egindako ekitaldia.  
 (Hemendik ateratako irudia: EGANA. I.: 1936, Guerra Civil en Euskal Herria).

<sup>5</sup> AUA (Sig. 0273-03; Kod. 12).

<sup>6</sup> *Ibid.*

Bertso batzuek abestuz gaurko ontan naute ekafi  
 irakurlik aialtuzeko  
 abestuko det ugari.  
 Gauza eu nola dan ez dakian  
 jakinlan nai det jafi  
 atzeritafak Euskal Efiran  
 nola zituzkigun etofi,  
 alde batera lotsegari ta  
 beste aldera erukari.  
 Nesaketa asko Euzkai etitk  
 justen dira Castila efrin  
 esko mutileri leka ezinda  
 erdaldunari begira.  
 Jura orduko atzetuta  
 bereala ezkontzen dira.  
 gero surto bat izen orduko  
 badatos guro efrin.  
 neskitzatik atzeritafak  
 sartu dira Euzkadira.  
 Oyen ondoren atzeritafak  
 Euzkadira etofi ziran  
 kaja zar bana bizkafian da  
 aterik ate ekian.  
 Lanerako ere indetik gab:  
 ofetarako auker ziran,  
 eguna lotan igaro eta  
 gun zer bilabuko gabian  
 amaia erate ondatu gaituzte  
 oraindako bitartian.  
 Atzeritafak Euzkal efrin  
 uste ona ekafi zuten  
 izatzen bana bizkafian da  
 deader egin oi zuten.  
 Ouardaol eta kaxafo danak  
 guk ditugu komponduzen,  
 sulo batakin eman eskero  
 bitrekin ubai oi suten.  
 atzeritafak lan ofetan ere  
 Euzkadin ikasi zuten  
 Lendabiziko etofi ziran  
 alperneta zar-afakin  
 irakurlik ere etzuten da  
 galta puskatutakoakin,  
 Euzkai buri utzikan eta  
 bestiak bizfarekin,  
 oraindakoan mantendu ditugu  
 guk emendako ogiak  
 orain geure aurka dabilta  
 sombrero ta gabanarekin.  
 Euzkotar danok goguan artu  
 gaste txiro baten deya  
 afasi bat jafi nai nuke  
 gastirot erukakia.  
 Herdeldunak nola dauden nagusi  
 (Euzkadin)  
 esko galdenka ari dira,  
 nola etzian eskonduta eta  
 nequibuzen dan motoga,  
 atzeritafak ara ofetan  
 Euzkadin nagusi egin dira.  
 ATXUBIYA

8 - Atxubiyaren bertsoa  
 (El Dia, 1933ko otsailak 3).



9 - 1932ko ekainaren 12an eginiko ekitaldi nazionalista. (El Día, 1932ko ekainak 14).

## 2.1. Azpeitia, gatazka politikoaren paradigma gisa

Batzuek balio kontserbadoreen gotorleku gisa erabiltzen zuten, eta euskal kulturaren paradigma gisa beste batzuek. Gainera, erregimen demokratiko berriak bizirik iraun zezan herriaren homogeneotasuna oztopo gisa ikusten zuten horien helburu bihurtu zen Azpeitia. Hala, 1931ko apiriletik aurrera, zeuden joera politiko desberdinen arreta-gune nagusietako bat izatera pasatu zen.

Urte hartako ekainean, Gorte konstituziogileetarako hauteskondeek Azpeitian emaitza oso argigarriak eman zituzten: EAJ eta tradizionalisten arteko koalizioak 1.744 boto lortu zituen, aldiz, ezkerreko indarrek 18 boto jaso zituzten. Hauteskunde-prozesu baten bidez azpeitiarren borondatea jakin ahal izan zen, oraingoan bai, eta agerikoa izan zen apirilaren 17an eraturako Udalbatzak ordezkagarritasun edo onarpen-kota altuak izan zitzakeela, nahiz eta 29. artikulua aplikazio bidez ezarritakoa izan.


Edonola ere, Azpeitiko Udalararen osaketaren eta euskal estatutuaren alde egindako jardueraren eraginez, Gipuzkoako gobernadore zibilak (Felix Galarza Gago) tokiko erakundearen jarduerak nolabait kontrolatu nahi zituen. Zehazki, 1931ko abenduan hainbat telegrama bidali zituen, zinegotzien "filiazio politikoa"ren inguruko informazioa eskatuz, eta La Nación egunkari monarkikoaren sozietate editorearen akzioak "tokiko erakunde ofizialen batek" erostearen aukera ere aipatuz<sup>7</sup>. Handik hilabetera, 1932ko urtarrilaren 25ean, Udalbatzak Jesusen Lagundia desagertzeko dekretuaren aurkako protesta indartsuena agertu zuen, eta "bizilagun guztien aho bateko eskaera aintzat hartuz", erabaki hark sortu zuen "min eta sentimendu sakona" aktan jasotzea adostu zuen. Era berean, udal-ordezkariek "konpromisoa hartzen zuten tinko eta gizotasunez izpiritu ignaziotarra mantentzeko, indarkeriazko neurri eta jazarpen guztien gainetik, Azpeitiko herria ohoratzen eta gorensten baitu"<sup>8</sup>.

Zegoen tentsio politikoa ez zen erakundearen artean soilik nabarmentzen, Azpeitiko kaleetan ere nabari zen. 1932an herriko langileen mugimenduak gora egin zuen, eta une gorena 1932ko irailaren 4an izan zuen, Azpeitian martxa errepublikanoa egin zenean. Martxa horren aurretik apirilaren 11n karlistek eta ekainaren 12an nazionalistek egindakoak izan ziren. Martxa errepublikanoak sona handia izan zuen, eta hainbat gorabehera izan ziren herrian. Itxuraz, Elizaren aurkako oihuak egin zituzten eta Jesusen Bihotzaren plaka bat kentzen saiatu ziren. Era berean, Casto Orbegozo alkatearen etxetik itxuraz martxa sozialistan parte hartu zutenen aurka ura bota zuten<sup>9</sup>. Ekintza errepublikanoa egin eta hurrengo egunean *Heraldo de Madrid* egunkariak honela zioen:

<sup>7</sup> AUA (Sig. 1317-02; Kod. 211).

<sup>8</sup> AUA (Sig. 0274-02; Kod. 12).

<sup>9</sup> AIZPURU MURUA, M.: *Antzinako Azpeititik Azpeiti berrira*. (2011).



10 - 1932ko apirilaren 11n eginiko ekitaldi karlista.  
(La Constanca, 1932ko apirilak 12)



11 - 1932ko irailaren 4an eginiko ekitaldi errepublikanoa.  
(Heraldo de Madrid, 1932ko irailak 5)


*"Errepublikak, herri borondateak definitiboki kontsolidatua, bere ekintza eremu onuragarria proportzio handian zabaltzen du (...) Gipuzkoa, Nafarroa eta Arabako erakunde errepublikarretako hiru koloreko bandera Azpeitian sartu da, ordu onean desterratutako obskurantismo jesuitiarraren aliatuen azken gotorlekuan".<sup>10</sup>*

Azpeitian 1932an deitutako ekintzetan komunikabide bakoitzak egindako irakurketa partikularrez gain, udalerriko giro politikoak ez zirudien lasaiena zenik. Adibide moduan, Pablo Barredo Fontal azpeitiarraren kasua aipa dezakegu: Azpeitian Unión Republicana alderdiaren eta gero Juventudes Socialistas alderdiaren kide-sortzaile izan arren, Pablok matxinatuen alboan egin zuen gerra, 1934tik Melillako 7. zultzaileen erregimenduan errolatuta baitzegoen. 1939an, gerra amaitutakoan, espioitzaren ustezko delitu bategatik epaitu zuten, eta Servicio de Inteligencia Especial Periférico (SIEP) izeneko zerbitzuko, Errepublikako Espioitza Zerbitzu gisa ezagutzen zeneko, kide izateaz salatu zuten. Horrekin lotuta, Pabloren aurrekari ezkertiarrei zegokionez, Informazio eta Polizia Militarren Zerbitzu frankistak instrukzio-epaitegira eraman zuen espedientean honako hau zioen:

*"... ekintza hauek eta antzerako beste batzuegatik (irakurri 1934 arteko bere militantzia politikoa) herriaren izaera erreakzionarioarengandik oso jarraitua izan zen, etsaitasun giroan aurkituaz eta bere bizitza zibila oso mugatua izanaz, bizitza ezinezkoa bihurtu zitziolarik herrian egiten zioten boikotaren ondorioz".<sup>11</sup>*

<sup>10</sup> Heraldo de Madrid, 1932ko irailak 5.

<sup>11</sup> 61629/39 urgentziako prozedura sumarismoa (AGHD).



12 - Azpeitiko Unión Republicana alderdiko presidentea, Timoteo Gomez, 1932an idatzitako dokumentua. (CDMH PS Madrid 721).

Erakunde mailako girora itzulia, irailaren 4ko martxa errepublikanoa izan eta gutxira, Gipuzkoako gobernadore zibila (Pedro del Pozo Rodríguez) Azpeitian izan zen, eta hilaren 12an udalbatzari idatzi bat bidali zion, egonaldian izan zuen "irudipen desatsegina"ren zergatia azalduz. Idatzian kontatzen zuenez, udalak ez zuen behar bezalako laguntzarik eskaini "berreste errepublikanoa"ren ekitaldietan. Gainera, ikusitako irregulartasun batzuk azaltzen zituen eta tokiko ordezkariari neurri batzuk hartzeko eskatzen zien. Besteak beste, ekitaldi - aretoan zegoen Loiolako San Ignazioaren argazkia kendu, eta Espainiako Errepublikaren enblema eta estatu-buruaren argazkia jar zezatela eskatzen zuen. Gipuzkoako gobernadore zibilak esaten zuenez, "sentimendu bidezkoa eta duina izan zitekeen arren, Jesusen Lagundia desgitearekin lotutako legezko neurrien aurkako protesta ere izan zitekeen une haietan". Era berean, Gernikako arborearen koadroa beste leku batean jartzeko eskatzen zuen, "gai horien inguruan udal horrek bere garaian esan zezakeenari kalterik egin gabe, hauteskunde - gortuzaren botoen bidez aukeratutako udalbatza batek jarduten duenean".<sup>12</sup>

Udalbatzak, idatzia irakurri ondoren, alkatearen ekimenez aktan jasoarazi zuen ez zeudela ados gobernadore zibilak egindako baieztatze batzuekin. Hasteko, adierazi zuten mitin errepublikanoaren eguean Udalak izandako jokabidea zuzena izan zela, eta Azpeitiko Unión Republicana alderdiko Timoteo Gomez presidentearen idatzia aipatu zuten hori erakusteko; izan ere, idatzi horretan, "Udalari eske-

rrak eman zizkioten emandako laguntzarengatik". Gainera, Udalak ez zuen San Ignazioaren erretratua kendu nahi. Alkatea eta hainbat zinegotzi Donostiara, gobernadore zibilarengana, joango zirela erabaki zuten, irudi hark zegoen tokian jarrai zezatela eskatzeko. Handik bost egunera, alkatea gobernadore zibilarekin bildu zen, eta gobernadoreak San Ignazioaren irudia jartzeko baimenik ez ziela emango esan ondoren, "herriko indar biziei, erakundeei eta partikularrei Udalak idatzi bat igortzeko eskatu zien, koadro berri jar zezatela esanez".

Ondoren, hilaren 12ko saioan, Udalbatzak adierazi zuen "zinegotziak 29. artikulua araberak aukeratu bazituzten ere, boto bidez aukeratutako zinegotziak adinako zilegitasunez ordezkatzeko zutela herria". Azkenik, aktan jasoarazi zuten "Gernikako arbola ez dela euskal nazionalismoaren sinboloa, baizik euskaldun guztien ideologia ordezkatzeko duela, ñabardura politikorik egin gabe".<sup>13</sup>

Argi dago erakundearen arteko tentsioa handitu egin zela erregimen errepublikanoa sendotu ahala. Gipuzkoako gobernadore zibilek (dena bost izan ziren 1931ko apiriletik 1932ko abendura arte) egindako eskakizunen aurrean, azpeitiarren ordezkariak aurka zeudela adierazten edo beste proposamen bat egiten saiatzen ziren. Jokabide haren beste adibide bat zera izan zen, Udalbatzak, Madrazo zinegotziaren ekimenez, ikurrin bat eskuratu eta Udalaren balkoian jartzea onartu zuela, gobernadoreak bandera errepublikanoa jartzeko betebeharra ezarri ondoren. Baina harremana ez zen Gobernu Zibilarekin bakarrik tenkatu, Aldundiarekiko harremanetan ere tentsioa baitzegoen. Urriaren erdialdera, Aldundiak Madrilera bilera bat egiteko deialdia egin zuen irinaren gaineko zergari eta beste gai batzuei buruz hitz egiteko, eta Udalak foru erakundeari erantzun zion ezetz, ez zirela bilera horretara joango, "29. artikulua bidez aukeratutako zinegotziak kargutik bereizteko lege proiektua zela eta Udala egoera berezian zegoelako".

<sup>12</sup> AUA (Sig. 0274-02; Kod. 12).

<sup>13</sup> Ibid.

Eta hala zen, 29. artikulua arabera eraturako Udalak desegiteko prozesua abian zen. 1933ko urtarrilaren 6an Gaceta de Madrid egunkariak aurreko urteko abenduaren 20an Espainiako Gorteek onartutako lege-dekretua argitaratu zuen, eta 20 egun ematen zituen aipatutako artikulua bidez aukeratutako zinegotziak kargutik kentzeko. Horren ordez, boto bidez aukeratutako zinegotzirik ez zegoen udalerrietan, adibidez Azpeitian, hiru pertsonak osatutako batzorde kudeatzaileak izendatu zituzten: funtzionario bat, zergadun bat eta langile bat. 30 urtetik beherakoak eta Primo de Riveraren diktaduran kargurik izan gabekoak izan behar zuten. Batzordea osatuko zuten langilea eta zergaduna aipatutako legea baino lehen eraturako sindikatuek eta taldeek aukeratu behar zituzten<sup>14</sup>.

Horrela, 1933ko urtarrilaren 25ean, Jesus Echavarri Castell-Ruiz (lehendakaria) funtzionarioa, Azpeitiko Altzari Industriaren "Agrupación de Obreros Vascos"-en zegoen langile Nicolas Elorza Aizpitarate, eta bizikletak alkilatzekeo negozio baten jabe zen Eusebio Aguirrezabal Ibarzabalek osaturiko Batzorde Kudeatzailea sortu zen. Udala Batzorde Kudeatzaile honen agindupean egon zen hiru hilabeteetan sindikatu eta erakundeen eskaerak biderkatu egin ziren. Adibide gisa, azpeitiar errepublikarrek, "Union Republicana" ko lehendakaria zen Jose Valverdearen eskutik, Azpeitiak erregimen errepublikarrari zion leialtasuna adierazteko neurri batzuk hartzeko presioa egin zuen, politikoak baino sinbolikoak izan zirenak. Zentzu honetan, plazari "errepublika plaza" izena jartzeko eskaera egin zen. Bestalde, "Sindicato de Obreros Vascos" (SOV) sindikatuak, gerora ELA-STV izena hartuko zuenak, batzordeari iada proiektatuta zeuden obrak martxan jartzeko eskaera egin zion, horrela herriko langile asko aurkitzen ziren langabezia egoera suabizatzekeo asmoz<sup>15</sup>.



13 - Jesus Echavarri Castell-Ruiz. (Uztarril aldizkaria).

## 2.1.1. Euskal nazionalismoaren goraldia eta tradizionalistekiko haustura

Bigarren Errepublika sendotu ahala eta erregimen demokratiko berriaren lege mugak ezarri ahala, nazionalisten eta tradizionalisten arteko bat etortzeetan arrakalak sortu ziren. Lizarrako Estatutuaren porrotak eragin handia izan zuen bi joera ideologikoen arteko harremanetan. Eliza katolikoari gailentasuna ematea zen tradizionalistek edozein akordio egiteko jartzen zuten ezinbesteko baldintza, eta hori ez zetzorren bat euskal nazionalismoak legeria errepublikanoari egokitutako autonomia-estatutua lortzearen alde eginiko apustu irmoarekin.

Azpeitian, bi ikuspegi ideologiko horiek lidergo politikoa lortzeko lehian ibili ziren errepublikaren garai osoan. 1931ko ekainean Gorte konstituziogileetarako eginiko hauteskundeetan eta urte hartako apirilean eraturako Udalean argi ikusi zen alde txikia zegoela bien artean hauteskunde-babesari dagokionez. Eta argi ikusi zen, baita ere, doktrina haiek ezkerreko alderdiei gailendu egiten zitzaizkiela. Hala ere, 1933ko apirilaren 23ko udal hauteskundeetan neurtu zituzten Azpeitian indarrak. Hautagai nazionalistek oso emaitza onak lortu zituzten, 16 zinegotzitatik 15 lortu baitzituzten. Beste zinegotzia azpeitiarrek aukeratutako ordezkari tradizionalista bakarra izan zen: Jose Alzuru Sampedro. Hala, eraturako hiru barrutietan, 6.481 boto lortu zituzten hautagaitza nazionalistek, 2.104 tradizionalistek eta 193 hautagaitza errepublikanoek. Azken horiek ez zuten ordezkaritzarik lortu udalean.

### 1933KO MAIATZAREN 10EAN ERATURAKO UDALBATZA<sup>16</sup>

**Alkatea:** Jose Antonio Oyarzabal Oyarzabal (Nazionalista)

**Lehen alkateordea:** Ciriaco Aguirre Cincunegui (Nazionalista)

**Bigarren alkateordea:** Antonio Olaizola Echeverria (Baserritarra/EAJ)

**Hirugarren alkateordea:** Jose Maria Aramendi Estala "Pipas" (Baserritarra)

**1. sindikoa:** Jose Manuel Aguirre Echeverria (Nazionalista)

**2. sindikoa:** Jose Alzuru Sampedro (Tradizionalista)

**Zinegotziak:** Luis Goenaga Odriozola (Baserritarra)

Demetrio Eguiguren Barrutia (Nazionalista)

Francisco Arregui Echaniz (Baserritarra)

Miguel Irureta Peñagaricano (Nazionalista)

Jose Maria Sorozabal Zulaica (Nazionalista)

Manuel Olazabal Gurruchaga (Baserritarra)

Jose Antonio Altuna Garate (Baserritarra)

Marcos Urbistondo Cendoya (Baserritarra)

Jose Antonio Arruti Garagarza (Nazionalista)

Emeterio Alberdi Aguirre (Baserritarra)



14 - Jose Antonio Oyarzabal Oyarzabal. (Uztarril aldizkaria).

<sup>14</sup> AUA (Sig. 847-06; Kod. 217).

<sup>15</sup> AUA (Sig. 0275-01; Kod. 12).

<sup>16</sup> *Ibid.* / AIZPURI MURUA, M.: *Antzinako Azpeititik Azpeiti berrira*. (2011).

630'gn. zenbakia  
XIII'gn. urtea

# ARGIA

ASTEROKA

Ondayen Munduba  
(Frangoque concertado)

DONOSTIA, 1933ko Jofaila 30      Avenida, 22 - Ufuzikilla 12503      Zenbakia 0,10. - Arpilea urteko 3,30

**AUTESKUNDEAK**

## Euzkadi osoan eskubikoak izan dira garaile

### ¡Beizama'n bost ezkertari!

Egun askotan zaletasun osoz eron bagara ere iholtz ez igandean bezela. ¡Auteskundet! ¡Nora jo-ko ote dute euskaldunak? Orixe igandeko gure zaletasuna. Baha igandeko gauean auteskunde-ondo-rena jakin genduenan egun guz-ko gure zaleztza poz biurtu zan.

Erri ikurri batean gifan garas artan An berlan aberizaleak ditan garaile 127 sutarik. Poetik zen-ien ango aberizaleak Poetik bat, bano xilik. Ez oyu bat, arpezielan alaitasuna; bityozak poez lertze-ko zorin. Orrelakooza dugu eus-kaiduna: langilea, gogorra, bano ez artoa. Aberizaleak garajpen oso-osa tran artan ez ihori mahik emango reon oyarrik. Ori da euskal- duntaren gertasuna.

Euzkadi'ko berriak, ez erri gure lakoak bano, antze jakin gonitun. Berri 27'k poverriak ziran. Gaze- tan e-koibak garaile. Goyenelan aberizaleak, gaberakoetan zarron- traleak. Ukurtzaleak nagusi Eliz arentat gurenda. Euskaldunak, au- rreko auteskundietan bezelaxe, Elizaganako beren mailasuna ager- tu gudu. Orrelaxe euskaldunak. Jarrai bide orri.

Eaberrak, oraingon ere, Julpa uterra arlu dute. Botallitak ba- tez ere. Bizkaya'n ez dute zingo- tzi bat besterik hortu. Gipuz- koon bat, Araba'n 2. Nafarroa'n 36. Onak len bano ere ezkerlar gu- txiago dagoa Euzkadi'n agertzen digu. Belar ori erein narrik say- tu dira; bano alperrik. Euskal-ba- ratan ez da lur egokirik auz orren- tzak. Euzkal-biyotzelan ez da er- nemiten. Esta erreminduko ere oraindik beintat.

Auteskunde auelan ikusi degu- na da aberizaleak eta zarronza- leak daukateia indarrik geyona Euzkalerlan. Ayek bates ere. Gi- puzkoa ta Bizkaya'ko Udalik ge- yonak aberizaleen esku gelditzen dira. Nafarroa ta Araba'n zarron- tzaleen esku. Bi erki auelan aber- izaleak egin duten korazida arri- garrta da ordea ta aurrerako itza- ropenez reon ditezke aberizaleak.

Zabalhundeak epten geyona say- tu diranak berak ditra rean ere. Al- perrikako lanik ez da Aberizaleen lanak igali ugariak emango ditu. Gaur bano byer geyago gañera, a- berizaleasunaren aryak bhoz gaztean arkitzen du leku egokis ta.

—Beizama'ko auteskunde ondere- nak arritula utzi ditu emango ez- kertarrak. Eta boste gurendarik reon ba aitafo ta Beizama'koati al- ze ta aite emantz ari dira. Beizama- ko erkaldarrak bezelakoak badira España'koak ez dute Gobeitru- koak garajpen luagarrik izan. Beizama'n zer gertatzen den ne- bitan rean gerozake. Beizama'n bide- eaiten astak badira ere, zer rean az- ko eman da gero aai dira. Batzuek emendik nai, bertak audea. Orain iguntza beaz eta jaguntza ori ihu- tiko zer ebit? Erkaldar aileria "a- diontzian Beizama'lik dutekigan auz ezkerriak Eleizari kalte ebiti- ngido dio. ¡An gutai ezki! ¡Illan- itzate zayoak emango digu oceta- ngo berri!

Eta Euzkalerriko auteskunde- tzar ezer gutai geyago esan zenera- ke. Erri bakofizean iendatu ditan zinegotriak eta beste leku batan ezartzen dituz.

España'n ere, eskuikoak gurenda ardigarrta tran dute. Ardigarrta, oso-osa tran dalaiko Eskuikoak ez kerrekoak alako bi zibe-ovri aukera tu dituzte: Eskuikoak 10.983 etn ez kerrekoak 5.968.

Gobeitnari garbi erakutzi zayo ba bere lana gaitzesen dala. Eta Comision Gestoral z'er erakutzi za- ye? Gai onelizar dalforen ailean inditatuko gero gaur ez dauka gu geyegirik eta.

Badirudi, beraz, iritzizko nazionalistak ondo hartu zituztela Azpeitiko herritarrek. Hala ere, mugimendu tradizionalistak gizarteko sektore ezberdinen babes zabala izaten jarraitzen zuten. Tradizionalisten babesle nagusiak euskal oligarkiari lotutako pertsona ospetsuak ziren, Azpeitian interesak zituztenak; adibidez, San Millan markesa, "Margariten ohorezko lehendakaria" eta Zuazola jaun-andreak. Erligioaren inguruko mobilizazio eta aldarriek ez zuten etenik izanaldi horretan, bai baitzekiten erlijioaren gaia lehentasuneko zela mobilizatuen artean. 1933ko ekainaren 11n, herriko Zentro Tradizionalistak "Erreketearen bandera bedekatu zuen" eta ehunka lagun izan ziren ekitaldi hartan. Aldarri apokaliptikoak egin zituzten Espainia babesteari buruz eta Errepublikaren aurka<sup>17</sup>.

Espainiako gorteek 1933ko ekainaren 2an Konfesio eta Kongregazio Erlijosoen Legea onartu zutenean gizarteko giroa ere gehiago tenkatu zen. Lege hori udal-errietan aplikatzeko ikastetxe katolikoak itxia eta ikastetxe horietako ikasleak sare publikoko zentroetan sartzea ekarri zuen. Udalbatzan gehiengoa zuten nazionalistek, eta legeria bete besterik ez zuten egin. Jose Antonio Oyarzabal alkatea eta Ciriaco Aguirre zinegotzia Instrukzio Publikoko Batzorde Mistoko ordezkariak izendatu zituzten lan horretarako<sup>18</sup>.


Horren ondorioz, nazionalisten eta tradizionalisten arteko tentsioa Azpeitiko Udalbatzaren eta agentari eklesiastikoen arteko gatazka bihurtu zen. Talka hura jendaurrean

15 - Argia. (1930eko apirilak 30).



16 - Ezkerretik eskubira: Antonio Olaizola Echeverria "Konfites", Roque Astigarraga, Juan Jose Eceiza "Mardure", Marcial Aramburu "Keixeta" eta Antton Amube. Azpeitia 1933. (Aranzadi z.e. / Roque Astigarraga fondoa).

<sup>17</sup> El Siglo Futuro (1933ko ekainak 17).  
<sup>18</sup> AUA (Sig. 0275-01, Kod. 12).



17 - Azpeitiko Círculo Tradicionalista. (Aranzadi Z.E./Imanol Elias funtsa).

ikusitako abuztuaren 1ean egindako San Ignazioaren jaietan. Ekitaldi erlijiosoan arduradun ziren apaizek debekatu egin zuten San Ignazioaren himnoa euskaraz kantatzea (*Inñaki Deuna*, Sabino Aranaren letra zuena). Hura ikusita, Udalak bat egin zuen EAJren Udala Batzordeak idatzitako protestarekin. "Azpeitiko apaizen buruek euskalduntasunaren aurka zuten jarrera" eta "euskararen eta gure sentimendu nazionalisten aurka egindako bidegabekeria" aipatu zituzten idatzi hartan. Horrez gain, alkatea aukeratu zuten protesta elizbarrutiko agintariari emango zion batzordeko kide<sup>19</sup>.

Ondutik aurrera eta errepublikanoen aroa amaitu arte, elizaren eta tokiko agintarien arteko tirabirak areagotu besterik ez ziren egin. Adibidez, gerra-garaian, Ciriaco Aguirre alkatea eta emaztea egunero mezataria joaten ziren 08:30etan. Behin, abadeak Ciriacori ostia sagratua emateari uko egin zion, eta Ciriaco kontu eske joan zitzaion izan zuen jarreragatik. Apaizak, antzaenez, erantzun zion ostia ematea ukatu ziola separatista eta gorria zelako<sup>20</sup>. Hainbat herritarrek urteetan zehar eman dituzten lekukotzei erreparatuta, badirudi gertaera hark ondorioak ekarri zizkiola herriari.

Nazionalisten eta tradizionalisten arteko urruntze ideologikoa erakusten duen beste adibide bat Alejandro Orbegozo Embilek 1938an Donostiako instrukzio militarreko epaitegian egindako deklarazioa da. "Matxinadari laguntzea"z akusatuta deklaratu behar izan zuen. Alejandrok EAJn zergatik afiliatu zen eta, ondoren, alderdi hori uztea zergatik erabaki zuen azaldu zuen:

*"Hogeita hamaikagarren urtera arte karlista izan zela pentsamoldez eta urte hartan Eusko Alderdi Jeltzalean sartu zela Lizarrako Estatutuaren gaiagatik. Estatutu hura elkarrekin eskatu zuten karlistek eta nazionalistek, autonomia ekonomikoa eskatzeko bai, baina Espainiatik bereizteko ez, eta berak ideia karlistak izaten jarraitzen zuten. Deklaratzailea, beste batzuk bezala, Eusko Alderdi Jeltzalera eraman zuen estatutu hark (...) eta utzi egin zuen alderdi hori, EAJk Lizarrako Estatutua utzi zuelako eta Gasteizko estatutua esaten dioten hori, estatutu laikoa eta separatista, bere egin zutelako"*<sup>21</sup>.

Azpeitiko gizartearen eraginik handiena zuen erakundearekin liskarrak izanarren, eta tradizionalistek etengabe salaketak jarri bazituzten ere, "dantzaldietan gehiegikeriak eta zirkuetan eta barraketan moralgabekeriak egiteagatik", EAJko nazionalistek ez zuten indarrik galdu eta 1933ko azaroaren 19ko hauteskunde orokorretan haiek izan ziren berriro ere boto gehien eskuratu zituztenak, bai Azpeitian, bai Gipuzkoako gainerako tokietan. Renovación Española alderdian bat eginda zeuden Espainiako eskuindarren hautagaiek 3.000 botoz gora eskuratu zituzten, baina oso urruti gelditu ziren jeltzaleek lortutako 8.150 botoetatik. Errepublikarrak, aldiz, ez ziren ehun bototara ere iritsi<sup>22</sup>. Espainiako Estatuko emaitzei esker, eskuineko alderdiek (koalizio erradikal-zedista) eskuratu zuten boterea ordea. Kolpe handia izan zen hura estatutua lortzeko nahiarentzat eta, oro har, Bigarren Errepublikak eskubide eta askatasun indibidual zein kolektiboetan aurrera egiteko.

<sup>19</sup> *Ibid.*

<sup>20</sup> MENDIZABAL ELIAS, A.: *Azpeitiarrak Espainako gerran. Asensio Zubillagaren testigantza* (2006).

<sup>21</sup> 2284/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>22</sup> AIZPURU MURUA, M.: *Antzinako Azpeititik Azpeiti berrira*. (2011).



## 2.1.2. "Biurteko beltza" Azpeitian. Udalbatzaren dimisioa eta batzorde kudeatzailearen izendatzea

Nolanahi ere, argi dago Azpeitian 1933an izandako hauteskunde hitzorduetan EAJren nazionalismoak eskuratu zuela nagusitasun politikoa, eta hitzordu horiei estatu-proiektu berriari erreferendum bidez emandako babes zabala gehitu behar zaio. Ezusteko erabaki batek eman zien Udaleko boterea Azpeitiko tradizionalistei: "Ardoaren Estatutua" delakoaren inguruan sortutako gatazkak, eta alkoholduen edari horren zergak arintzeak Kontzertu Ekonomikoa ez betetzea zekarrela.

Euskal udalerriek 1934ko uztailaren 29an euskal Kontzertu Ekonomikoa babesteko *Batzorde Iraunkorra* sortzea erabaki zuten hauteskunde prozesu baten bidez. Udal bakoitzeko zinegotziek lau ordezkari aukeratu zituzten hauteskunde-barruti bakoitzean, eta erabaki horren ondoren itzuli zuten herritarren borondatea. Gobernadore zibilek hasieratik ohartarazi zuten abuztuaren 12rako deituta zeuden hauteskundeak legez kanpokoak zirela eta ondorio penalak ekarriko zituela<sup>23</sup>. Euskal Udalek aurrera egin zuten ordea, eta Azpeitian, "Arzubia auzoko 4. eta 5. etxean" egin zuten bozketa eta ez udaletxean, udaletxea Guardia Zibilak hartu baitzuen<sup>24</sup>.

Azpeitiko epaitegiak hilaren 13an Gipuzkoako gobernadore zibilari (Emeterio Muga Díez) jakinarazi zion kargutik kendu zituztela hainbat alkate, tartean Jose Antonio Oyarzabal, eta Ciriaco Aguirrek hartu zuen kargua behin-behinean. Handik hamar egunera, abuztuaren 23an, ezohiko bilerarako deialdia egin zuten Azpeitiko Udalean, eta alkatea auzipetu eta kargutik kentzearen berri eman zuten. Horren ondorioz, Ciriacok behin-behineko alkate kargutik dimisioa eman zuen, eta gainerako zinegotziek uko egin zioten kargua hartzeari. Gertaera haren ondoren, herriko zinegotzi tradizionalista bakarra, Jose Alzuru, udaleko buruzagi jartzea proposatu zuen gobernadore zibilak. Eraso bat jasoa zuen Alzuruk irailaren hasieran, bizi zen etxearen aurka "dinamitazko bi petardo" bota zizkiotenean. Bere alderdiak oniritzia eman ondoren, Jose Alzuruk kargua onartu eta irailaren 4an osoko bilkura deitu zituen gainerako zinegotziak, baina bertan behera utzi zuten bilkura, ordezkariak falta zirelako<sup>25</sup>. Egun hartan bertan, euskal udal guztietako zinegotzi guztiak dimititu zuten, dimisio kolektiboa izan zen.



18 - Jose Alzuru Sanpedro. (Uztartia aldizkaria).

Horren ondorioz, 1934ko irailaren 28tik 1936ko otsailera arte, Azpeitiko udal ordezkariak Gipuzkoako gobernadore zibilak izendatutako batzorde kudeatzaile batek hartu zuen hilaren 23an argitaratutako dekretu-legearen arabera. Hona hemen erabaki haren emaitzak:

- Batzordeko hamahiru kideetatik gutxienez bederatzik tradizionalistak ziren, eta bat errepublikanoa.
- Hamahiru haietatik zazpi 1933ko apirilko hauteskundeetan hautagai izan ziren, eta ez zuten lortu zinegotzi izateko behar adinako babesik; beraz, batzorde kudeatzaile hartan egonda, hautestontzietan eskuratu ezin izan zuten tokiko ordezkarietako kargua eskuratu zuten.
- Haietako lau Azpeitiko zinegotzi izan ziren lehen frankismoan.

### GOBERNADORE ZIBILAK 1934KO IRAILAREN 28AN IZENDATUTAKO BATZORDE KUDEATZAILEA.<sup>26</sup>

**Alkatea:** Roque Astigarraga Echaniz (Tradizionalista. Zinegotzia 1931ko apirilean eta alkate frankista)

**Lehen alkateordea:** Pedro Azpiroz Mendiola

**Bigarren alkateordea:** Lucas Aguirre Echeverria (Errepublikanoa)

**Hirugarren alkateordea:** Prudencio Olaizola Aranguren (Tradizionalista. Zinegotzi frankista)

**1. sindikoa:** Juan Jose Iriarte Odriozola "Saralle" (Tradizionalista. Zinegotzia 1931ko apirilean eta zinegotzi frankista)

**2. sindikoa:** Martin Bereciartua Arcelus (Tradizionalista)

**Zinegotziak:** Jose Alzuru Sanpedro (Tradizionalista)

Ignacio Orbegoza Juaristi (Tradizionalista. Zinegotzi frankista)

Pedro Arcelus Epelde (Tradizionalista)

Juan Jose Iturralde Querejeta (Tradizionalista)

Jose Maria Aizpuru Aramburu (Tradizionalista. Zinegotzi 1931ko apirilean)

Ignacio Bereciartua Cendoya


Jose Antonio Campos Zubillaga

<sup>23</sup> BARRUSO BARES, P.: *El intento autonómico de verano de 1934. La actitud el ayuntamiento de San Sebastián.* (1995).

<sup>24</sup> AUA (Sig. 0275-02; Kod. 12).

<sup>25</sup> *Ibid.*

<sup>26</sup> *Ibid.*



Tengo el honor de poner en su conocimiento que, reunidos los Comités Ejecutivos de los Ayuntamientos del País Vasco, examinaron con todo detenimiento la gravísima situación porque atraviesa el país a consecuencia del sistema represivo que el poder central utiliza en contra del normal desenvolvimiento de los Concejos vascos, causando ofensas al Fuero Municipal y a las libertades administrativas reconocidas desde tiempo inmemorial en este país, y en su virtud se adoptaron los siguientes acuerdos:


- 1º. La dimisión colectiva de todos los Ayuntamientos del País Vasco.
- 2º. Dar cuenta de este acuerdo a los parlamentarios vascos y partidos políticos interesados en la defensa de los intereses del país.
- 3º. Facultar a los Alcaldes de las tres capitales para la ejecución de la dimisión colectiva el día 7 de los corrientes.-
- 4º. Que las Comisiones definitivas continúen en sus funciones para la defensa del Concierto Económico, de la autonomía de los Municipios y de los procesos y multas contra Alcaldes y Concejales."

Lo que, en cumplimiento del acuerdo adoptado, me apresuro a trasladar a Vd. para su ejecución el día 7 de los corrientes.

San Sebastian, 5 de sepre de 1934.  
 EL ALCALDE DE SAN SEBASTIAN.

*J. Juaristi*

19 - Donostiako alkateak igorritako idatzi ofiziala. (1934ko irailak 5).



GOBIERNO CIVIL  
 DE  
 GUIPUZCOA  
 SECRETARÍA  
 Negociado 1  
 Número 652

*Para su entrega a los interesados, adjuntas el número 15 credenciales de bocejales para cubrir las vacantes producidas por abandono, conforme al artículo 6 de la Ley municipal en relación con el 4º del Decreto de 16 de Junio de 1931, elevado a Ley por las Cortes Constituyentes. Firmase darle posesión acto seguido, para normalizar los servicios del Ayuntamiento. San Sebastian 24 de Sepr de 1934.*

*El Gobernador*  
*Fernando Urujo*

*Jr. Alcalde en funciones de Azpeitia*

20 - Gipuzkoako gobernadore zibilak igorritako ofizioa. (1934ko irailak 24).



21 - Roque Astigarraga, Telesforo Monzon eta Ramiro Maezturrekin. 1934 (Gipuzkoako Artxibo Orokorra, GFA/Indalecio Ojanguren).



22 - Elizkizuna Loiolan. 1934. (Gipuzkoako Artxibo Orokorra, GFA/Indalecio Ojanguren).

Hala, hurrengo 17 hilabeteetan, herritarrek aukeratu gabeko batzorde kudeatzaile baten esku egon zen Azpeitiko Udalaren kudeaketa. Batzorde hark hartutako erabaki polemikoenetako bat udal langile batzuk, nahierara, zegozkien lanpostuetatik kendu eta lanpostu haietan batzordekideen aldekoak jartzea izan zen. Hori egin zuten, besteak beste, lanpostu hauetan: Arielen zaintzailea, hiltegiako administratzailea, gauzaina, auzoetako ofizialak eta alkateak<sup>27</sup>. Gainera, aurrekontuetatik kanpo utzi zuten Gaudencio Arregui albaitari titularren soldata, eta hark kereila jarri zuen<sup>28</sup>.

Beste alor batzuei erreparatuta, nabarmena izan zen batzorde kudeatzaileak gobernadore zibilari eta Alejandro Lerroux buru zuen Errepublikako gobernuari 1934ko urriko gertaera iraultzaileen aurka egindako ekintzetan emandako baldintzarik gabeko babesa. 1934ko azaroaren 11n, Juan Jose Iriarte zinegotziak proposatuta, batzordeak dolumina adierazi zuen Marcelino Oreja eta Carlos Larrañaga "jendaila iraultzaileek" hil zituztelako<sup>29</sup>.

Alderdi sinbolikoagoi begiratuta, Udalbatzaren osoko bilkuretan eztabaidan aritu ziren hainbat hilabetez udal bandaren araudiaren inguruan. Azpeitiko "Elkarte Erljiioso eta Zibilek" eta erreketean aldeko emakumeen *Margariten* taldeak araudia aldatzeko eskatu zuten toki ireki zein itxietan jendaurrean dantza egitea debeka zezaten, eta "kalejirak egiteko ohiturarik har ez zezaten". Eskaera haiek errepublika-garaian hasieratik Azpeitiko karlisten taldeak jaietan ikusitako "moralgabekeriaren" aurka jarritako kexa ugarien ildokoak ziren. Pedro Azpiroz, Jose Alzuru eta Pedro Arcelus zinegotziak aldatetaren erabat alde zeuden, baina Roque Astigarraga eta batzordeko beste kide batzuk aurka jarri ziren eta, hala, gaia ebatzi gabe gelditu zen 1936ko otsailean agintaldia amaitu zitzaizenean<sup>30</sup>.

## 2.1.3. Fronte Popularraren garaipena eta zinegotzi hautetsiak itzultzea

1936ko otsailaren 16an eta 23an errepublika garaiko azken hauteskunde orokorrak izan ziren Espainiako Estatuan, hauteskunderako koalizioetan bildutako ezkerrearen eta eskuinaren arteko tirabira ideologikoek markatutako kanpaina bizi baten ondorioz. Gipuzkoan, 4 eserleku lortu zituen EAJK eta 2 Fronte Popularrak. "coalición contrarrevolucionaria" koalizioak ez zuen ordezkartzarik lortu. Koalizio horretan zeuden Comución Tradicionalista, CEDAn sartutako Derecha Vasca eta Renovación Españolako monarkikoak.

Azpeitian, EAJren eta eskuineko koalizioaren arteko aldea 300 boto eskasekoa izan zen (EAJK 1.763 boto eskuratu zituen eta eskuindarrek 1.478) eta Fronte Popularrak, berriz, 110 azpeitiarren botoa bakarrik eskuratu zuen. Seguru asko, iraultza-prozesu bat abian jartzeko au-

<sup>27</sup> *Ibid.*

<sup>28</sup> ETXANIZ MAKAZAGA, J.M.: *De Albéitares y Veterinarios municipales en el Valle del Iruurgi. 1861 – 1990.*

<sup>29</sup> AUA (Sig. 0275-02; Kod. 12).

<sup>30</sup> AUA (Sig. 0276-01; Kod. 12).



23 - Jose Maria Gil Robles. (Hemendik ateratako argazkia: EGAÑA. I.: 1936, Guerra Civil en Euskal Herria).

kerak sortu zuen beldurra ekarri zizkien tradizionalistek botoak, EAJren kaltetan. Nolanahi ere, badirudi Azpeitian ezkerrek jasotako babes eskasak bere horretan jarraitzen zuela; horretan ez zen aldaketarik<sup>31</sup>.

Hauteskunde orokorren ondoren, "herritarrek aukeratu" eta 1934ko irailean gaitasunik gabe utzitako udalbatza Udalera itzuli zen. 1936ko otsailaren 22an, berriz Udalean sartzeko akta onartu ondoren, bandera errepublikanoa eta ikurrina jarri zituzten udaletxeko balkoian. Ondoren, martxoan eta apirilean egindako osoko bilkuretan batzorde kudeatzailearen administrazio-lana berrikustea izan zen Udalaren lan garrantzitsuen eta, batez ere, batzorde kudeatzailearen "apetetan eta faboritismoan, beste ezertan oinarritu gabe", izendatutako langile publikoak haien lanpostuetatik kentzea. Ildo horretan, Donostiako Udalak Estatuko "botere publikoari" igortzeko asmoa zuen eskaerarekin bat egitea erabaki zuen Azpeitiko Udalbatzak. Eskaera hartan, Estatuko botere publikoari eskatu zioten xedapen ofizial bat egin zezala, zeinak batzorde kudeatzaileek hartutako erabakiak bertan behera uztea legezko egingo zuen<sup>32</sup>.

Lehen aipatu dugun langile publikoak nahierara izendatze horretan, kasu batzuk nabarmenak izan ziren; esaterako, eskolako maisuaren lanpostua horretarako titulurik ere ez zuen pertsona bati eman zioten, eta pertsona hura 1935eko urriaren amaieran izendatu aurretik, ikaskuntzako ikuskatzaile batek atzera botea zuen izendapen hura. Era berean, Jose Maria Sorozabal zinegotziak salatu zuen "langile (publiko) batzuek kargu bat baino gehiago zituztela, lan horiek egiteko gaitasuna bai, baina lanik gabe zeudenen kaltetan". Hala ere, aurreko batzorde kudeatzaileak izendatutako langileek, apirilaren 2an, Udalari eskatu zioten utz zezala bertan behera haien lanpostuak baliogabetzeko akordioa, bestela auzitara joko zutenaren mehatxupean. Hala, Udalak eskaera hari ezetz erantzun ondoren, auzitara jo zuten langile haiek eta Udalbatzak maiatzaren 12an erabaki zuen demandaren harira alderdi gisa aurkeztea<sup>33</sup>.

## DERECHA VASCA AUTONOMA

Queda constituido un grupo político con el nombre de *DERECHA VASCA AUTONOMA*, con la finalidad de llevar una activa campaña de actuación ciudadana, de labor cultural, de asistencia social y con el propósito de ingresar prontamente—previo un pacto concreto— en la Confederación Española de Derechas Autónomas.

Somos católicos y nuestra actuación estará siempre sometida a las normas pontificias, muy señaladamente en cuanto hacen referencia a las legítimas aspiraciones de las clases obreras.

Somos vascos, y lucharemos por un claro renacimiento vasco, que recoja en mixtificaciones todo nuestro patrimonio tradicional y defenderemos los intereses económicos del País por las vías de máxima eficacia.

Somos españoles, y al de los católicos de toda España irá unido de modo constante nuestro esfuerzo.

Muy en breve concretaremos en un programa mínimo los postulados de nuestra actuación, tanto en el campo de la política social como en el de nuestras aspiraciones autonómicas.

Hoy nos limitamos a dirigir al País este llamamiento, manifestación sincera de nuestro propósito.

Aspiramos a organizar una fuerza jerarquizada, que marche con pasos firmes y bien pensados, y en ella queremos encuadrar a la brava juventud del País que comulgue con nuestras ideas y que sintiendo la responsabilidad de un futuro, que para ella queremos preparar, nos ayude ocupando en toda hora un puesto de acción y de combate.

San Sebastián, diez y ocho de octubre de mil novecientos treinta y cuatro.

24 - Derecha Autónoma Vasca delakoaren sorrerari buruzko dokumentua. (Sabino Arana Fundazioa; Irujo 13-1).

<sup>31</sup> AIZPURU MURUA, M.: *Antzinako Azpeititik Azpeiti berrira*. (2011).

<sup>32</sup> AUA (Sig. 0276-01; Kod. 12).

<sup>33</sup> *Ibid.*

Azken finean, 1936ko otsailan Udalbatza lehengoratu zenetik hasi eta uztailaren 17 eta 18ko porrot egindako estatu-kolpea –Gerra Zibila leherarazi zuen estatu-kolpea– izan arte, aurreko batzorde kudeatzaileak eginiko politikak zuzentzen izan zuten lanik handiena. Baina horrez gain, izan ziren konpondu gabeko beste bi arlo ere Bigarren Errepublikaren hasieratik. Udal politikaren mugaz haragokoak ziren, baina baldintzatu egiten zuten Udal politikaren jardura: Krisi ekonomikoa eta autonomia-estatutua lortzea.

## 2.2. Krisi ekonomikoa eta “klaseen arteko borroka” Azpeitian

Espainian Bigarren errepublika hasi zen aldiari eorri zen Estatu Batuetan sortutako mundu mailako krisi ekonomikoa. Depresio Handia deitu zioten krisialdi hari. Krisialdiak Espainiako Estatura ekarri zuen ondorio latzena langabeen kopuruaren igoera geldiezina izan zen. Europa suntsitzen ari zen atzeraldi ekonomikoaren ondorioa zen hura. Une historikoan izan zen hori gainera; izan ere, herritarrek itxaropen handia zuten sistema politiko errepublikano eta demokratiko berria aldarrikatu ondoren.

Azpeitian, XX. mendearen hasieratik aurrera, baina batez ere 20ko hamarkadan, egurraren sektorean espezializatutako industria-ehuna sendotuta zegoen. Industria-fabrikak asko ugartu ziren urte haietan eta horrek langileen erolda handitzea ekarri zuen<sup>34</sup>. Krisi ekonomikoa etortzean, kalte handia jasan zuten industria-sektore hartan, eta pisu gutxiagoko beste sektore batzuetan ere bai; hala eraikuntzan, nola sektore elektrikoan. Hala ere, lanik gabeko langileen indizeak 1933tik aurrera gora egin zuen arren eta fabrikak etengabe itxi zituzten arren, krisiak Azpeitian eta, oro har Gipuzkoan sortutako triskantza, beste leku batzuetan baino txikiagoa izan zen. Are gehiago, Gipuzkoan, ez zen Azpeitia izan okerren ibilitako herria, metalurgiak eta eraikuntzak jasan baitzuten kalterik handiena, eta sektore haiek ez zuten leku handirik Azpeitian.

Bigarren Errepublika hasieran itxi zuten lehen fabrika Landa y Oyarzabalena izan zen, zabaldu eta urtebete eskasera. 1931n itxi zuten<sup>35</sup>.

1932ko ekainean, Casto Orbe gozo alkateak udalerrian zeuden 22 fabrikak aipatu zituen, baina kopurua askoz handiagoa zen *Anuario General de España* delakoan zerrendatutako lantegi txikiak ere aintzat hartuz gero<sup>36</sup>.

1934an 20 industrialde zeuden Azpeitian, eta horietatik 9 altzarien sektorekoak ziren. 8 gelditu ziren sektore horretan maiatzaren 15ean enpresan sutea izan ondoren<sup>37</sup>. Langileen eroldan 566 lagun zeuden, eta altzarien sektorekoak 380 langile ziren, fabrika haietarako etxetik lanean aritzen ziren pertsonak aintzat hartu gabe<sup>38</sup>.



25 - Eleizgaray y Cía organo-fabrika. (Aranzadi Z.E./Imanol Elias funtsa).

### 1932AN AZPEITIAN ZEUDEN FABRIKAK:<sup>39</sup>

Olaiztegui y Cía.	Dionisio Echeverri
Gregorio Segurola	Ángel Sarasua
Ramón Echeverría	Alejandro Echeverría
Jose Mari Iturzaeta	Ignacio Aranguren
Gregorio Egibar	Bonifacio Aguirre
Ladislao Segurola	Astigarraga y Cía.
Jose Peña	Javier Lapeira
Aguirre y Cía.	Francisco Sarasua
Damaso Azcue	Urbano Larrañaga
Domingo Lizarralde	Marcial Ucin
Andrés Arruti	Rafael Nazabal

### 1932AN AZPEITIAN ZEUDEN LANTEGIAK, ANUARIO GENERAL DE ESPAÑA DELAKOAREN ARABERA:<sup>40</sup>

1 pattar-fabrika	1 gaseosa-fabrika
3 eltze-fabrika	5 perratoki-fabrika
5 abarka-fabrika	1 galdaketa-fabrika
4 zerrategi	2 lixiba-fabrika
2 besaulki-fabrika	5 zumezko altzarien fabrika
3 harrobi	11 altzari-fabrika
3 zalgurdi-fabrika	2 organo-fabrika
6 zentral elektriko	4 egur-fabrika
1 hauspo-fabrika	

<sup>34</sup> IBAÑEZ, M. eta ZABALA, M.: *Azpeitiko industria-lanaren oroimena*. (2010).

<sup>35</sup> ELIAS ODRIOZOLA, I.: *Azpeitian historian zehar*. (1997).

<sup>36</sup> AIZPURU MURUA, M.: *Antzinako Azpeititik Azpeiti berrira*. (2011).

<sup>37</sup> AUA (Sig. 0275-02; Kod. 12).

<sup>38</sup> AUA (Sig. 1240-08; Kod. 214).

<sup>39</sup> ELIAS ODRIOZOLA, I.: *Azpeitian historian zehar*. (1997).

<sup>40</sup> AIZPURU MURUA, M.: *Antzinako Azpeititik Azpeiti berrira*. (2011).

Azpeitiak bazuen beste bereizgarri bat, ez bakarria, lehen ere aipatu duguna, eta zera da, zinegotzi postuetan herriko ugazabak edo haien zuzeneko familiakoak zeudela, batez ere 1931ko apirilean, 1907ko Hauteskunde Legearen 29. artikulua bidez eraturako Udaltzatan. Lehen alkateordea, Toribio Azcue Echezarreta, adibidez, udalerriko enpresaburu garrantzitsuenaren semea zen, Damaso Azcuereña. Izen bereko altzari-fabrikaren jabea zen Damaso. Udaltzata hartako beste lau zinegotzi ere merkataritza eta industriari lotutako pertsonak ziren: Silvestre Madrazo, Silvestre Otamendi, Andres Echaniz eta Roque Astigarraga. Anakronismo hura erabat aldatu zen 1933ko apirilaren 23ko hauteskundeen ondoren. Ondoren, frankismoak berreskuraturako duen praktika bat izango den arren.

13º Tercio Guardia Civil		COMANDANCIA DE GUIMBUZUA		Puesto de Azpeitia	
Relación de todas las fábricas e industrias de la demarcación de este puesto, expresiva de los datos que a continuación se detallan.					
Localidades	Nº de fábricas e industrias	Clases de ellas	Nombre de los dueños	Obreros que trabajan en cada una	OBSERVACIONES
Azpeitia	1	Muebles	Dámaso Azcue	142	XXXX
Id	1	Yute	Id id	19	
Id	1	Muebles	Ladislao Sagurola	22	
Id	1	Muebles	Pedro Goenaga	18	
Id	1	Muebles	Aguirre y Comp <sup>a</sup>	130	
Id	1	Id	Arrebiadares Azpeitianak	indefinido	
Id	1	Id	Angel Sarasua	4	
Id	1	Id	Hijos de Andres Arruti	19	
Id	1	Id	Alberdi y Comp <sup>a</sup>	15	
Id	1	Id	José Iturzaeta y Comp <sup>a</sup> S.L.	30	
Id	1	Madera y Junco	Domingo Lizarralde	38	
Id	1	Id	Dionisio Echeverría	24	
Id	1	Muebles y Junco	Azcue y Compañía	28	
Id	1	Alpagartas	Vda. de Astigarraga	40	
Id	1	Sierra mecanica	Vicente Beloqui	3	
Id	1	Fbca. Harinas	José y Andres Echaniz	11	
Id	1	Fundición de hierro	Javier Lapeira	5	a 3 días
Id	1	Id y maquinaria agricola	Marcial Ucin	8	
Id	1	Muebles	C. T. M.	12	
Id	1	Id	Ignacio Lasa	15	
				566	

*Handwritten notes:*  
 Existen independientemente sus obreros en el de 260 se dedican a trabajar para las fábricas de este pueblo, con un promedio anual para hacer unos 50000 piezas de fábrica o alpagartas de madera.  
 566  
 360  
 926

26 - Azpeitiko fabriken zerrenda. 1934. (AUA Sig. 1240-08; Kod.: 214).

Nolanahi ere, Azpeitian, krisi ekonomikoak ekarritako langabeen ehunkoa ez zen eutsizina izan, baina lanean zeudenen lan-baldintzak okertu egin ziren, lanaldiak murriztu baitzituzten eta soldatak jaitsi. Erregimen demokratiko berria langileen lan-baldintzak eta gizarteko berdintasun-falten arazo izugarria konpontzera zetorren. Hala ere, krisiak batetik, eta industrialari zein kapitalistek erreformak aplikatzeko erakutsitako erresistentziak bestetik, pixkanaka laneko gatazkak areagotzea ekarri zuten eta Azpeitian, gatazka horiek esponentzialki ugari ziren 1933tik aurrera eta, batez ere, 1934an. Probintziako gainerako lekuetan bezala, bi aro bereiz daitezke: Lehen fasea Errepublikaren hasieratik 1933ra artekoa izan zela esan daiteke eta, bigarrena, berriz, 1934tik 1936ko uztaile artekoa. Lehen fasean, laneko gatazkak eta haien ekarritako grebak eta lanuzteak ez ziren asko izan, baina 1934tik aurrera, nabarmen areagotu ziren. Azpeitian, bilakaera harekin batera, aldi berean, lurraldeko bi zentral sindikal indartsuenak behin betiko finkatu ziren: ELA eta UGT<sup>41</sup>.



27 - Damaso Azcue altzari-fabrikaren ikuspegi orokorra. (Gipuzkoako Artxibo Orokorra, GFA/Indalecio Ojanguren//Hemendik ateratako argazkia: ARTECHE, I.: Historia de Azpeitia).

<sup>41</sup> AUA (Sig. 1240-08; Kod.: 214)



28 - Damaso Azcue altzari-fabrikaren ikuspegi orokorra. (Hemendik ateratako argazkia: ARTECHE, I.: Historia de Azpeitia).

## 2.2.1. Sindikatuak eta laneko gatazkak Azpeitian

Azpeitian langileen mugimenduak errepublika-garaian izandako ezaugarri nagusia klaseen sindikatuak, edo bestela esanda, mugimendu politikoei eta corpus ideologiko jakinei lotutako sindikatuak berandu eratu zirela da. 1933ko hasierara arte, egoitza soziala Azpeitian izan eta erregistratuta zeuden sindikatu bakarrak alorreko edo ofizioetako sindikatuak ziren; haietako bat "Eusko Langileen Alkartasuna", delakoari lotutakoa. Zaharrena *Sindicato Católico de Oficios Varios de Azpeitia* zen, 1924an sortua, egoitza parrokia-etxean zuen eta 1933ko urtarilean 31 bazkide zituen. 1931ko urriaren 28an, *Agrupación de Obreros Vascos de la Industria del Mueble de Azpeitia* eratu zuten, SOVen mendeko tokiko erakundea, eta 1931n 136 afiliatu izatetik 1933ko hasieran 269 izatera iritsi zena. 1931n, Miguel Irureta Peñagaricano, ondoren zinegotzi izango zena, zen sindikatu nazionalista hartako arduradun nagusia. Azkenik, 1932ko uztailaren 4ean, *Sindicato Provincial del Mueble de Guipúzcoa*, finkatu zuten Azpeitian. Sindicato de Obreros en Madera de Guipúzcoa sindikatua ren mendekoa zen, eta 54 afiliatu zituen 1933an<sup>42</sup>. Presidentea, Felix Berruezo Azagra, Azpeitiko UGTko presidentea izan zen gero; baita Azpeitiko Izquierda Republicana alderdiaren sortzaileetako bat ere.



29 - Azpeitiko tren-geltokia. 1925. (Gipuzkoako Artxibo Nagusia, GFA/Marin funtsa).

<sup>42</sup> AUA (Sig. 847-06; Kod. 217).

Bereiz aipatzeko modukoa da UGT sindikatu sozialistari lotutako *Sindicato Nacional Ferroviario* delakoa. Urolako tren eraikitzen ari zire-lako finkatu zen sindikatu hori Azpeitian. 1932ko azaroan *Consejo Obrero del Urola* delakoa eratu zuten Unión Republicana alderdiaren Azpei-tiko egoitzan, eta Nicasio Olano Echeveguren zumaiaarra zen idazkaria<sup>43</sup>.

1933tik aurrera, Gipuzkoako joera orokorrari jarraituz, sindikatuen mugimendua kontzentratzen hasi zen Azpeitian, sindikatu "libreen" eta katolikoek kaltetan<sup>44</sup>. Ordezkatzen zuten sindikalismo abertzalean eta UGTri zegokion sindikalismo sozialistan bildu zen Azpeitiko langile klasearen gehiena, Pedro Arratibel buru zuten *Sindicato Profesional del Ramo de la Madera de Azpeitia* izan ezik. ELA eta UGT izan ziren herriko fabrika garrantzitsuenetako langileen solaskide nagusiak tokiko enpresaburuekin eta erakundeekin harremanak izateko, baina ELA sen-doago finkatu zen UGT baino, ideia nazionalistak babesten baitzuten.

Lan-gatazkei dagokienez, ez zen ia horrelakorik izan Bigarren Errepublikaren lehen urteetan, klaseen sindikatuak berandu ezarri baitzu-tuzten eta, ustez, ez baitzegoen langilerik lanik gabe. 1931ko irailaren hasieran, Landa y Oyarzabal fabrika itxi zutenean, esaterako, Casto Or-begozo alkateak adierazi zuen hilabete hartako 25ean, jada, ez zegoela Azpeitian lanik gabeko langilerik<sup>45</sup>.

1933ko otsailean, aldiz, Azpeitiko *Agrupación de Obreros Vascos* taldeak (SOVen gertuko taldea, ez zen ELA gisa eratu apirilean egin-dako Gasteizko kongresura arte) Udaleko batzorde kudeatzaileari eskatu zion jar zitzala abian Udalak egiteko asmoa zituen obrak, "herrian langile asko" lanik gabe zeudela eta haiei lana emateko. Horri erantzunez, Jesus Echavarri Castell-Ruizek (batzordeko presidentea) adierazi zuen aztertu zutela zer aurrekontu zuten, eta "aurrekontuaren kapitulu batzuetatik hamabi mila pezeta bidera zitezkeela herriko obretara, hala, langabeei lana emateko". Ekainean, sindikatu nazionalistak eskaera berdina egin zion apirilaren 23ko hauteskondeen ondoren maiatzean eratutako Udalarari. ELAko idazkaria zen Miguel Iruretak honako hau idatzi zuen: "Langile batzuk abuztutik (1932koa) lanik gabe daude, eta horietako askok seme - alabak dituzte". Eskaera haren harira, Sorozabal zinegotziak proposatu zuen anoak (razioak) eman behar zitzaizkiela familia ugariako langileei". Zinegotzi batzuek aurka egin zitoten, esanez, "hobe zela lana ematea janaria ematea baino"<sup>46</sup>.

ELAren ildo berean, UGTk ere abuztuan egin zuen Azpeitiko langileentzako lan-eskaera. Udalak konpromisoa hartu zuen Aldundiari eskatuko ziola, Azpeitian egin beharreko lanetan, Azpeitiko langileei lana eman ziezaiela, gutxienez % 50ean. Horrez gain, lanik gabe zeuden langileen zerrenda egitea ere erabaki zuen, langabeziaren arazoa konpontzen saiatzeko<sup>47</sup>. Egoera hura ikusita, 1933. urtea *Damaso Azcue* fabrikako langileen grebarekin amaitu zen. Ordaindutako oporren harira egin zuten greba<sup>48</sup>.

1934an udalerriko arazorik handienetako bat bihurtu zen langabezia Azpeitian. Horregatik, lan-poltsa bat jarri zuten abian UGTren eta ELAren zentral sindikalekin koordinatuta. Garai hartan herriko lan-gabe kopurua aldi baterako jaitsi zuen obra handienetako bat Aratz-Errekako errepedea izan zen. Langileen % 70 azpeitiarrak izateko konpromi-soa hartu zuten. Lanik gabe zeuden 108 azpeitiarrek egin zuten obra hartan aritzeko es-kaera<sup>49</sup>. Hala ere, kontuan izan behar da sindikatuek zein tokiko agintariek bereizi egiten zituztela batere lanik gabekoak eta lanaldi partzia-lak zituztenak. Sindikatuek abuztuan Udalarari igorritako txostenen harira, 1934ko uda hartan herrian zer lan-egoera zegoen jakin ahal izan zuten Azpeitiko Udalak<sup>50</sup>.

Urria izan zen lan-gataz-ken inguruan asaldu handie-neko hilabetea, *Urriko Iraultza* delakoaren ondorioz. Orduan, Espainiako Bigarren Errepubli-kako gobernu eskuineko

### Se han resuelto los conflictos socia-les de Mellin y Tenerife

El ministro de la Gobernación ma-nifestó esta madrugada que se ha re-suelto la huelga de la casa Azcúe, en Azpeitia.

30 - Damaso Azcueko langileek eginiko grebaren amaiera.  
(El Heraldo de Madrid, 1933ko abenduak 29).



31 - Aratz Erreka auzoaren ikuspegi orokorra. (Gipuzkoako Artxibo Orokorra, GFA/Indalecio Ojangueren).

<sup>43</sup> AUA (Sig. 1317-02; Kod. 211).

<sup>44</sup> BARRUSO BARES, P.: *El movimiento obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936)*. (1994).

<sup>45</sup> ELIAS ODRIOZOLA, I.: *Azpeitian historian zehar*. (1997).

<sup>46</sup> AUA (Sig. 0275-01; Kod. 12).

<sup>47</sup> *Ibid.*

<sup>48</sup> BARRUSO, P.: *El movimiento obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936)*. (1994).

<sup>49</sup> AUA (Sig. 0275-01; Kod. 12).

<sup>50</sup> AUA (Sig. 1240-08; Kod. 214).



AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA

RELACION DE LOS OBREROS PARADOS QUE EXISTEN EN ESTA VILLA

Clase de Industria	En paro	Trabajan	Trabajan
	completo	5 dias	4 dias
Pequeña metalurgia .....	1		
Construccion .....	27		
Madera .....	25	24	31
Textiles .....	3		20
Confeccion, vestido y tocado ..	1		
<b>Totales ....</b>	<b>57</b>	<b>24</b>	<b>51</b>

Azpeitia 10 de Agosto de 1.934

EL ALCALDE

José A. de Oyarzabal

**32 - 1934ko abuztuan lanik gabe zeuden Azpeitiko langileen zerrenda.** (AUA Sig. 1240-08; Kod.: 214).

Gurruchaga, Santiago Chasco, Juan Gurruchaga eta Joaquin Garces. *Ohartarazpen idatzia Francisco Olanori. Hitzezko agiraka Miguel Barreneche-ari.* "Horrez gain, "erabaki zuten, hala zegokionean, berriro aztertuko zituztela Joaquin Garces langileak izan zitzakeen erantzukizunak, orduan, gobernuaren aginduz, greba haren beraren ondorioz, kartzelan baitzegoen."<sup>51</sup>

Nolanahi ere, 1934ko urriko gertaerek, haien porrotak, eta ondoren gobernuaren eskutik etorri zen errepresioak ez zuten Errepublikak, hasieratik, krisi ekonomikoaren ondorioz izan zuen arazo larria konpondu. Ez dirudi ezer konpondu zuenik 1935eko ekainaren 25ean Espainiako gobernuak onartutako "langabeziaren aurkako legeak" ere. Jurisdikzio bakoitzeko langabeziaren aurkako politika eraginkortasunez zuzentzen saiatu ziren lege haren bidez, langabeen kopuruak zehatz kontrolatuta. 1935eko amaieran eta 1936ko hasieran batere lanik gabe zeuden langileen kopurua 1934ko abuztuko baina txikiagoa zen arren, lanaldi partzialeko langileen kopurua asko hazi zen<sup>52</sup>.

Izan ere, lanaldia murriztea izan zen Azpeitian deitutako greba gehienen arrazoi nagusia. Horren adierazgarri dira botoi-fabrikako langileek 1934ko azaroan eginiko mobilizazioak eta altzari-gintzako gremioak 1936ko uztailan deitutakoa. Honela kontatu zituen gertatutakoak Aguirre Hnos. fabrikako Antonio Loinaz langileak:

"1936ko uztailan greba egin genuen altzarigintzaren gremioko langileok, soldata igotzea eskatzeko. Lan gutxi zegoen (asteen 3 egun besterik ez), baina greba irabazi eta soldata igo ziguten. Nik 4,5 pezeta irabazten nituen egunean, eta 7 pezeta-ra igo zidaten soldata, baina asteen 3 lanegun bakarrik izaten jarraitu genuen. Hainbat egun egin genituen lanik egin gabe, eta kalean ibili ginen, akordeoiarekin lagunduta, kanta hau abestuz:

*Besteren bidez jornalak jaso  
Poztuten ditu diruak  
Nagusiak baina kulpa gehiago  
Langile enbusteroak".<sup>53</sup>*

	Paro Obrero.		Mes de Dibre de 1935	
	Comp.	Parcial	Total	
Pequeña Metalurgia	1		1	
Construccion	6		6	
Madera	18	80	98	
Textiles	6	20	26	
confección vestido y tocado	7	15	22	
<b>Totales</b>	<b>38</b>	<b>115</b>	<b>153</b>	
<u>Mes de Enero</u>				
Pequeña Metalurgia	1		1	
Construccion	6		6	
Madera	20	130	150	
textiles	6	20	26	
confeccion vestido y tocado	7	15	22	
<b>Totales</b>	<b>40</b>	<b>165</b>	<b>205</b>	

**33 - 1935eko abenduan eta 1936ko urtarrilean lanik gabe zeuden langileen zerrenda.** (AUA Sig. 1240-08; Kod.: 214).

<sup>51</sup> Burdinbidearen Euskal Museoaren artxibategia.

<sup>52</sup> AUA (Sig. 1240-08; Kod.: 214)

<sup>53</sup> LOINAZ ETXANIZ, A.: *Nire Oroitzapenak.* (2001).

## 2.2.2. Nekazaritza inguruko mugimendua Azpeitian



34 - Euzko Nekazarien Bazkunako kideak Loiolako santutegian. (Aranzadi Z.E. / Imanol Elias funtza).

1921ean sortu zen *Azpeitiko Nekazarien Bazkuna*, eta hura izan zen Azpeitiko landa-inguruan 1920tik 1933ra garrantzi handiena izandako erakundea. Erakunde hartaz gain, izan zen Azpeitian beste erakunde bat ere, probintzia mailakoa, ofizialki 1931ko azaroan eratuakoa: *Confederación Católica Agropecuaria de San Ignacio de Loyola*. Nekazarien talde hark 4.000 bazkide inguru zituen probintzia osoan, baina badirudi Azpeitian oso indar gutxi izan zuela<sup>54</sup>.

*Azpeitiko Nekazarien Bazkuna* erakundeak hamargarren urteurrena ospatu zuen 1931n, eta erakunde hark zer garrantzi izan zuen ulertzeko, aintzat hartu behar da azpeitiarren erdia baino gehiago nekazal eremuetan bizi zirela 30eko hasieran. Hala ere, Azpeitia pixkanaka industrializatu egin zenez, baserriarrek herrigunera jo zuten, etenik gabe. Hala, Azpeitian lan arloan izandako gaztzen ezaugarrietako bat kaleko eta baserriko langileen arteko talka izan zen. Kontua da, baserriarrek, lurrak ematen zizkien "irabaziez" gain, fabrikatik ere jasotzen zutela soldata. Aparteko diru-sarrera hori zutenek, langile kaletarrek baino bizi maila hobea zuten baserriarrek eta, horregatik, langile kaletarrek protestak egiten zituzten eta lana lortzeko garaian lehentasuna izatea eskatzen zuten<sup>55</sup>.



35 - Jose Maria Aramendi Estala "Pipas" emaztearekin, Pia Otaegui. (Jesux Arrizabalagak utzitako argazkia).

<sup>54</sup> AUA (Sig. 1317-02; Kod. 211).

<sup>55</sup> AIZPURU MURUA, M.: *Antzinako Azpeititik Azpeiti berrira*. (2011).

Hala eta guztiz ere, EAJri lotutako erakunde nazionalista hark lau ordezkari izan zituen 1931ko apirilean eraturako Udaltzanean, eta 1933ko Udaltzanean, berriz, zortzi zinegotzi lortu zituzten. Beraz, hauteskundeetan arrakasta izan zuten, jardueraren eremua ere zabaltzeko. Maiatzean *Gipuzkoa*'ko *Nekazariak* sortu zuten eta, ondoren, *Euzko Nekazarien Bazkuna*. Talde horretan sartu zen *Azpeitiko Nekazarien Bazkuna* ere. Era berean, Argia astekariak ezinbesteko lana egin zuen Bigarren Errepublikaren garaian euskal nekazaritzaren mugimendua hedatzeko. Helburuei dagokienez, oro har baserriarren interesak babesteaz gain, beste helburu batzuk ere izan zituzten errepublika-garaian; hala nola maizterrak ziren baserriarrei jabe bihurtzen laguntzea, landa-inguruetan eskolak sortzea, eta ekoizpen-baliabideetarako lankidetzaren sistema bat ezartzea<sup>56</sup>. Hala azaldu zuen Azpeitian zuten ordezkari gorenetakok batek, 1931n, *Euzkadi* egunkarian:

“BASERRITARAK ENTZUN

Beste langile guziari bezela elkartzeko garaia iritxi zaito, bakoitza bere bidetik dabilen bitartean ezer ez baitu. Baserri, etxelur, ondo gordetzeko, maizterrak zeratenok bizi zeraten basetxien jabe egiteko ikastetxeak bear diran tokietan jartzeko, gailuk merkeago edukitzeko, aldundian edo udalean arreta aundiagoa jartzeko. Alkartzean ez bazerate laister dituzue zuten basetxe jabee gin nairik muxumotz ta lustreatzalle, beran jatorria non dan jaingoikuak bakarrik dakian demokrata ta berdintzale oyeK” (Imanol Olaizola Kiro)<sup>57</sup>.




Praktikan, eta tokiko taldea *Euzko Nekazarien Bazkuna* delakoan txertatu ondoren, nekazarien erakundeak behin baino gehiagotan jo zuen Udaleraren errepublika-garaian, hainbat zerga kentzeko eskatzera; adibidez, sagardoari eta zerriei jarritako zergak kentzeko eskatzera. Horrez gain, hainbat aldiz erregutu zuen erakundeak ehiztarien aurkako neurriak har zitzatela<sup>58</sup>. Elkarrekin izandako borrokarik handiena, ordea, maizterren defentsa izan zen. Hasieran, Errepublikaren gobernuak sustatutako nekazaritza-erreformaren onura jaso zuten maizterrek.

Maizterrei baserrien jabetza eskuratzeko aukera ematen zieten lege haren erabat aurka jarri ziren jabe handiak; hala nola San Millan markesa. Markesaren jabetzakoa zen, hain zuzen ere, Lasao auzoko Etzezuri baserria. 1936an bota zituzten maizterrak baserrietik.

Azkenik, 1936ko ekainaren 14an, *Nekazari Eguna* ospatu zuen *Euzko Nekazarien Bazkuna* Azpeitian. Azpeitiko Udalak diruz lagundu zuen ekitaldi hura, eta doan jarri edo utzi zizkien musika-banda, zezen-plaza eta baita merkatu plaza ere<sup>59</sup>.

### 36 - Etzezuri familia. Argia, 1936.

(Hemendik ateratako argazkia: AIZPURI, M.: Antzinako Azpeititik Azpeiti berria).



### 37a - STV-ELA sindikatuko militanteen kontzentrazioa Azpeitian.

(Joseba Amenabar argazkilaria).

<sup>56</sup> AIZPURI MURUA, M.: *Los otros agrarios. Campesinos, caseríos y nacionalistas vascos*. (2013).

<sup>57</sup> AIZPURI MURUA, M.: *Antzinako Azpeititik Azpeiti berria*. (2011).

<sup>58</sup> AUA (Sig. 0275-01; Kod. 12).

<sup>59</sup> AUA (Sig. 0276-01; Kod. 12).



37b - STV-ELA sindikatuko militanten kontzentrazioa Azpeitian.  
(Joseba Amenabar argazkilaria).

## 2.3. Autogobernuaren defentsa

Nolabaiteko burujabetza berreskuratzea ahalbidetuko zuen estatutua lortu, eta euskal herritarren eskubideak eta askatasunak defendatzeari lotuta egon zen euskal udalen udal-politika neurri handi batean. 1931n, Bigarren Errepublikaren aldarrikapenak itxaropen handiak sortu zituen euskal gizartearen zati handi batean, Foruak indargabetu eta Hego Euskal Herrian legedi juridiko eta instituzional espainiarra ezarri eta handik mende batera.

Ikusi dugu lehenago, nola errepublika-garaiko lehen Udala eratu baino egun bat lehenago, kargua uztera zihoan Udalbatzak autodeterminazioaren eta Euskal Errepublika eratzearen aldeko adierazpen bat onartu zuen. Adierazpen horrekin bat egitea izan zen 1931ko apirilaren 17an 29. artikulua bidez eraturako Udalbatzak hartutako lehen erabakia, eta tokiko hamasei ordezkarietako aho batez babestu zuten berrespen hura. Maiatzaren 12an Azpeitiko Udalak bat egin zuen autonomia-estatutua lortzearen aldeko mugimendu asanblario eta municipalistarekin, eta Casto Orbegozo alkatea izendatu zuten "Udalen Batzar Orokorren" ordezkari eta alkateen batzorde iraunkorreko kide, Getxoko, Laudioko eta Zangotzako alkateekin batera<sup>60</sup>.

Ekainaren 11n Gipuzkoako udalerrien batzarra egin zuten Azpeitian, eta Eusko Ikaskuntzak idatzitako "Euskal Estatuaren Estatutu Orokorra" izeneko proiektuaren zirriborroa eztatidatu zuten. Testuak esklusibotasuna ematen zion gobernu zentralari zenbait gaitan; adibidez, elizaren eta estatuaren arteko harremanetan. Casto Orbegozok puntu hori aldatzea proposatu zuen, uste baitzuen euskal estatuak erabateko autonomia izan behar zuela elizarekiko harremanetan. Hala onartu zuen gero Lizarrako batzarrek ere. Hego Euskal Herriko 520 udalerrietatik 480k onartu zuten, eta lau euskal hiriburuetak alkateak Madrilerara joan ziren irailaren 22an proiektua aurkeztera. Bada, hain zuzen ere, elizaren eta estatuaren arteko harremanei buruzko puntuagatik errefusatu zuten Espainiako Gorteek proiektua.

Lizarrako Estatutua izenez ezagutzen zen estatutu hari ezezkia eman zioten arren, euskal probintzietako eta udalerrietako erakundeek ez zuten zeuzkaten helburuei uko egin. Hala ere, autonomia-estatutua lortzeko prozesua hutsetik abiarazi behar izan zuten, aurreko proiektua bateraezina baitzen 1931ko abenduaren 9an onartutako Espainiako Konstituzio berriak ezarritako lege-esparruarekin. 1932ko urtarrilaren 25ean, Azpeitiko Udalak, estatutu berria idazteko ardura zuen batzorde kudeatzaileak hala eskatuta, Casto Orbegozo alkatea izendatu zuten Donostian hilaren 31n egitekoa ziren batzarrean Azpeitiaren ordezkari izateko. Bileran hartan konpondu beharreko auzi nagusia zera zen, ea lau probintzietarako estatutu bakarra proposatu behar ote zen edo ea probintzia bakoitzak berea izan behar zuen. Ildo horretan, Azpeitiko Udalbatzak aho batez erabaki zuten "lau probintzietarako Estatutu bakarra"<sup>61</sup> babestea, eta jarrera hura hartu zuten euskal udalerritako gehienek ere hilaren 31n Hego Euskal Herriko lau hiriburuak egin zituzten batzarretan.

Martxoan amaitu zituen batzorde kudeatzaileak proiektua idazteko lanak, eta maiatzaren 22an Iruñean batzar orokorra egiteko deialdia egin zuten. Azkenean, ordea, ekainaren 19ra atzeratu zuten. 550 euskal udalerrietatik 354k proiektuaren aldeko botoa eman zuten, baina tradizionalistek testua "ateotzat" jo zuten, eta errefusatu egin zuten, Nafarroako udalerritako gehienek aurkako botoa eman zioten proposatutako estatutu-eredu berriari. Azpeitian, Udalbatzako kide gehienak, alkatea barne, karlismoari lotuta zeuden, baina aho batez egin zuten bat proiektuarekin<sup>62</sup>.

<sup>60</sup> AUA (Sig. 0273-03; Kod. 12).

<sup>61</sup> AUA (Sig. 0274-02; Kod. 12).

<sup>62</sup> *Ibid.*

# EUSKAL ORRIA

## Erlijioa ta lege-zarra

Gogo bizia egon da gero, Eusko-Ikaskuntza'k egindako Estatutua irakurri det eta samindurik ikusi ore bai nola aundienetako galan. Erljio galan. Uta aundit bat egin dulela. ¿Ofela bele dute Euskalefiko Udal edo Ayuntamientoen naja? Bero gain utzi egite ori eta zer eman digute? ¿Ez al-dakite Euskalefiko Udal gelnak kristafak dirala? Orain eztago beste bioterik Iruña'n gogor itzezin balizk.

Zer esanik eztago eskubikoiak etzai-gula atsegin izan aritu duten erabak'a, ta baita ere zer esanik eztago eskubikoiak etzaiotela, sugufa aunditu, bada ez dute begirune aundiarekin ikusi. Ta orduan jakin aletke lan ori zehentzako egin ote duten?

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa ta Nafarroa'ko probintzietan daoen Lege-zarra'ren aldeko berotasun ori, batez ere Nafarroa'n. ¿Zergatik dala uste demate? Bada kristautasuna gogor gorde izango zalako ustean.

¿Zergatik utzi dute ba Eusko-Ikaskuntza'ko jaun olek Erljioa Madrid'ko menpean? ¿Zer nai dute bada, lein-bait-len berak ezindako lan ori jureta justea? Suak orakin eta bildotzak katamotzerekin egindako aikatatasuna dirusi, bada, eztago zer esanik Euskalefiko Udal, gelnak eskubikoiak dirala, ta aholatan aufera jarraitu erabaki ori? Ez, ez dema kristafak Iruña'tik aufera erabaki ori eramateen: utzi bear eman erorizen ez bada.

MENDI

OARA. — "Mendi" adiskide, mendi gaitetik begiratuta eriak bata besicaren ondoan, ufean ikusten ditugu. Bazarada notean bost, sei, amar lotuko genitukela esango genduke.

Jetxitzen zera ordea, ta bertatik bertara zenden ori alezako batetik bestera iritxo bazera amaika paucetza eman beara gortutako zalzu.

Estatutuari beira ere mendi galufean ote zauden iruditzen zait. Etzaiten gelegi suta. Zu ta ni bezin alitis men bizkoak, orixe lanean arituek ditugu, ta orko oraberak zuk eta nik neurtiko gertuen anean neurtuta eguiak dituea noski Estatuto'ko Armaak.

Etzaiten laritu. Iruña'tik aufera badaramate ere, lagundu Estatutuari: diluzen euzko aldunak. Al duera egingo dute noski ta. — Luzear.



**Euzkadiren etorkizuna. 485 eusko Udalak Eusko-ikaskuntzaren eusko-estatutua oniritzi dute Lizaña'n (Estella'n) Eusko-indaia.**

15.000 euskaldun Lizaña'ko zerezi plazan Eusko-estatutua irakurri eta irakurri.

38 - Lizarrako estatutuari buruzko prentsako berriak. (Koldo Mitxelena/Hemeroteka digitala).

Ordutik, eta 1933ko udara arte, prozesua geldialdian egon zen "Nafarroako arazoa" zela-eta. Uztailaren amaieran, Nafarroa ere sartzea jada baztertua zegoela, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako euskal udaletako ordezkariak batzar orokor batera deitu zituzten, "hiru probintzietarako Estatutu bakarria izateko proiektua lantzeko". Bilera hartan, udalerrietako ordezkari gehienek, tartean Azpeitiko alkate Jose Antonio Oyarzabalek, "Kudeatzaileen Estatutua" esaten ziotenaren aldeko botoa eman zuten, Foru Aldundietako Batzorde Kudeatzaileen ekimenez egina baitzen. Ondoren erreferenduma deitu zuten azaroaren 5erako aipatutako hiru probintzietan, Euskal Estatutua onartzeko asmoz. Egun hartan bertan Azpeitiko Udalak ezohiko osoko bilkura egin zuen, eta erreferendumaren emaitzen berri eman. Azpeitian boto-emateen % 98k estatutuaren aldeko botoa eman zuten, eta erreferenduma egin zuten hiru euskal hauteskunde-barrutietan gehiago izan ziren aldeko botoak aurkakoak baino (botoa ematera joan ziren 426.309 pertsonetatik 411.756k aldeko botoa eman zuten). Horregatik, osoko bilkurak adierazi zuen "pozaren pozez zegoela garaipen handi harekin", eta erabaki zuen "udal musika - banda kalera atera zedila poz handi hura ospatzera, eta udaletxeko balkoian bandera nazionala eta Euskadikoa altza zitzatela". Horrez gain, Estatuko hainbat erakunderi eta Kataluniako Generalitateari poza adierazteko telegramak bidaltzea ere erabaki zuten<sup>63</sup>.

Hala ere, 1933ko azaroan Espainiako eskuindarrak erradikalen eta zedisten artean koalizioa eginda boterera iritsi zirenez, eta Arabako tradizionalistak ere aurka jarri zirenez, estatutua izapidetzeko lanak etenda gelditu ziren. Gobernu zentral berriak, muturreko katolizismoaren eta muturreko nazionalismo espainiarraren ikuspegitik, "aberria desegiteko" arriskua ikusi zuten proiektu autonomista hartan<sup>64</sup>. Garai berean izan zen "ardoaren estatutua"ren inguruko gatazka ere, euskal udalerrak desegitea eta 1934ko irailaren 28an udala kudeatzeko talde bat izendatzea ekarri zuena.

Otsailaren 23an, Azpeitiko Udaltzate berriro Udalera itzuli eta biharamunean, Jose Antonio Oyarzabal alkateak, tokiko erakundeko ordezkari goren gisa, telegrama bat bidali zien ministroen kontseiluko presidenteari eta Gipuzkoako gobernadore zibilarari, eta adierazi zien "Euskal Estatutua berehala onartu eta jarri behar zela indarrean"<sup>65</sup>. Ahalagin haiek guztiak eginda ere, autonomia-estatutua ez zuten 1936ko urriaren 10era arte onartu. Gerra Zibila bete-betean zela onartu zuten. Azpeitia, ordurako, altxatutako mendeko zegoen.

<sup>63</sup> *Ibid.*

<sup>64</sup> BUCES CABELLO, J.: *Leioa 1936-1945*. (2014).

<sup>65</sup> AUA (Sig. 0276-01; Kod. 12).



39 - Autonomia Estatutuaren aldeko alka-  
 teek osaturiko Komizio Iraunkorren  
 prentsa oharra. (Euzkadi, 1931ko maiatzaren 20a)

40 - 1933ko aberi eguna zela eta  
 Jose Antonio Aguirrek Atotxako  
 frontoian emaniko mitina. (Gipuzkoako  
 Artxibo Orokorra. DFG / Fondo Marin)



41 - Emakumeak beren boto eskubidea erabiltzen 1933. urteko euskal autonomia  
 estatutuaren inguruko plebiszituetan. (Gipuzkoako Artxibo Orokorra. DFG / Indalecio Ojanguren)



**Gerra zibila hasi  
zenetik AZPEITIA  
erori zen arte**

**3.**





# 1936ko

uztailaren 17tik 18ra bitartean abiarazi zuen Espainiako armadak Errepublikaren aurkako altxamendu militarra. Ofizial monarkiko eta erreakzionarioek gidatutako estatu-kolpea izan zen, eta huts egin zuen. Ondorioz, Espainiako Gerra Zibila (1936-1939) esaten zaion gatazka armatua lehertu zen. Egun berean, hilaren 17an alegia, Gipuzkoako kolpisten<sup>66</sup> transmisio-katea izan zen Diario Vasco, "Bihar eguraldi ona izango da" izenburupean.

Hala ere, Estatuko toki gehienetan bezala, konspirazioak porrot egin zuen. Euskal gizarteari eta, jakina, azpeitiarrei, ondorio lazarriak ekarri zizkien gerra-garaia hasi zen.

1936ko uztailaren 20an, egoera larri hura ikusita, Azpeitiko Udalak ezohiko osoko bilkura deitu zuen gai-zerrendan gai bakarra jarrita: Estatu-kolpea. Honako hau erabaki zuten osoko bilkura hartan:

*"Espainian hasitako borrokak ikusita, Udal honek leialtasuna adierazi nahi dio legez gobernatzen aritu den eta ari den Gobernuari, eta egoera honek eskatzen dituen laguntza materiala eta morala eskaintzen dizkio."*<sup>67</sup>

Ondoren, hilaren 23an, ostegunean, beste ezohiko osoko bilkura bat egin zuten, eta Antonio Olaizola zinegotziak jakinarazi zuen telegrama bat bidalia ziola gobernadore zibilarri udalbatzaren izenean, gobernu errepublikanoari atxikimendua adierazteko eta "sediziozko mugimendua kondenatzeko". Hilaren 20ko eta 23ko adierazpen instituzional haiek gerra-kontseiluan epaitu zituzten aipatutako zinegotzi azpeitiarren aurka erabili zituzten 1937tik aurrera. Hala ere, hilaren 23ko deialdiaren gai nagusia Jose Antonio Oyarzabal alkate jeltzaleak osasunari lotutako arrazoiak emanda aurkeztutako dimisioa izan zen. Beraz, lehen alkateordea, Ciriaco Aguirre, jarri zuten alkate. Orduetik aurrera Ciriaco izan zen Udalaren ordezkari gorena eta, hura arduratu zen, beraz, erresistentzia antifaxistaren funtsezko guneetako bat izan zen udalerria kudeatzeaz. Hala ere, ikus zitekeen herritar dezente zela kolpisten aldekoa, karlisten ideologia sakon baitzegoen errotuta herrian.




42 - Ciriaco Aguirre, Jose Antonio Aguirrekin batera Gerra Zibila hasi aurretik. (familiak utzitako argazkia).

Udalak eta Udaleko ordezkari gorenak gutxienez 1936ko irailaren 7ra arte jarraitu zuten gobernu-lanak egiten, baina gerra hasi ondoren, berehala sortu zen Fronte Popularraren Defentsa Batzordea, eta batzordeak erabakitzeke ahalmena kentzen zien udal-ordezkariei herriarentzat gerra-garaian funtsezkoak ziren gaitan. Erakunde haren funtsezko ezaugarrietako bat udalerriko ezkertiarrek ere, Udalean ordezkariarik ez izan arren, Batzordean sartuta zeudela zen. Batzorde haiek eratu zituzten udalerriri gehienetan bezala, Azpeitiko batzordeak ere eskuindarrak atxilotu eta zigortzen zituzten, eta hura arduratu zen miliziano boluntarioak errekrutatzeaz eta baita gerrako materialaren hornikuntzaz ere. Batzordeak eginiko lehen ekintzetako bat Guardia Zibilarren kuartelean eginiko konfiskatzea, eta Eibartik zetozen armak eskuratzea izan zen. Uztailaren 19an izan zen hori, Udalbatzak kolpisten aurrean erreakzionatu baino lehen<sup>68</sup>. Batzordeak eginiko beste lan garrantzitsu bat armak hartuta zaintzaldiak egitea izan zen. Batzordeko boluntarioek egin zituzten zaintzaldiak, bai enpresetan, bai herrira sartzeko errepideetan.

<sup>66</sup> ERRAZKIN AGIRREZABALA, M.: *Los nombres de la memoria. Tolosa 1936-1945*. (2013).

<sup>67</sup> AUA (Sig. 276-02; Kod. 12).

<sup>68</sup> 171738/37 eta 114845/38 urgentziako prozedura sumarisimoak (AIRMN).



**43 - Azpeitiko Fronte Popularraren Defentsa Batzordeak igorritako igarobaimena.**  
 (AUA Sig. 1286-04: Kod. 111)



**44 - Ildefonso Gurruchaga Ansola.**  
 (Euskal Estudioen Ameriketako Institutuaren buletina, 1975).

## I. Zerrenda: Fronte Popularreko Defentsa Batzordeko kideak, Azpeitian<sup>69</sup>

### Zuzendaritza:

KIDEAK	FILIAZIO POLITIKOA
Gurruchaga Ansola, Ildefonso	EAJ/PNV
Moral Ledesma, Leandro	UGT
Segurola, Gregorio	IR

### Boluntarioak:

KIDEAK	FILIAZIO POLITIKOA	KARGUA
Arambarri Gurruchaga, Jose		
Arriroquieta Alza, Rufino	EAJ/PNV	Zaintzaldiak armak hartuta
Arrue Larrañaga, Francisco	EAJ/PNV	Zaintzaldiak armak hartuta
Arrue Larrañaga, Pedro	EAJ/PNV	Horniketa Batzordeko kidea
Arruti Lapeira, Vicente	EAJ/PNV	Horniketa Batzordea
Arruti Lizarralde, Jose	EAJ/PNV	Zaintzaldiak armak hartuta
Ayerbe Aizpurua, Jesus	Nazionalista	Zaintzaldiak armak hartuta
Azpiazu Gómez, Eleuterio	Nazionalista	Zaintzaldiak armak hartuta
Azpillaga Zubillaga, Jose		Zaintzaldiak armak hartuta
Bereciartua Guridi, Jose Maria	UGT	Garraio-zerbitzua
Beldarrain Ugalde, Félix	UGT	Zaintzaldiak armak hartuta
Beldarrain Ugalde, Ruperto	UGT	Zaintzaldiak armak hartuta
Cendoya Uzcudun, Jacinto		Zaintzaldiak armak hartuta

KIDEAK	FILIAZIO POLITIKOA	KARGUA
Chinchurreta Beloqui, Domingo	UGT/IR	Zaintzaldiak armak hartuta
Corta Zuloaga, Ignacio	Nazionalista	
Corta Zuloaga, Jose Maria	Nazionalista	
Corta Zuolaga, Marcelino	EAJ/PNV	Zaintzaldiak armak hartuta
Cortabarría Lazcano, Gregorio	EAJ/PNV	Zaintzaldiak armak hartuta
Echeverría, Eugenio		Garraio-zerbitzua
Echeverría Aramendi, Eleuterio	Nazionalista	Zaintzaldiak armak hartuta
Echeverría Aramendi, Jose Maria	UGT	Zaintzaldiak armak hartuta
Echeverría Landa, Jose Antonio	EAJ/ELA	
Eguibar Arregui, Maximiano	UGT	Horniketa Batzordea
Eizaguirre Garmendia, Fausto	Nazionalista	Zaintzaldiak armak hartuta
Errasti Ariztondo, Anastasio "Atxero"	Errepublikanoa	
Errasti Olaizola, Jose	Nazionalista	Zaintzaldiak armak hartuta

<sup>69</sup> AIRMN (hainbat espediente kontsultatzea).

KIDEAK	FILIAZIO POLITIKOA	KARGUA
Fernández Urrutia, Desiderio	Errepublikanoa	Gerrako Batzordea
Garmendia Errasti, Jose Maria "Koipe"	EAJ/PNV	Ordena Publikoko Batzordea
Goicoechea Cendoya, Juan "Akotei"	ELA	Zaintzaldiak armak hartuta
Gurruchaga Echeverria,	Sindicato	Zaintzaldiak armak hartuta
Bienvenido Juan	Ferroviano	
Iraola Goicoechea, Roque	Nazionalista	Zaintzaldiak armak hartuta
Iriondo Aramburu, Juan	EAJ/PNV	Telegrafoak
Iriondo Ibarzabal, Benjamín	UGT	Gerrako Batzordea
Iturralde Bereciartua, Juan	EAJ/PNV	Zaintzaldiak armak hartuta
Iturralde Bereciartua, Vicente	EAJ/ELA	Ordena Publikoko Batzordea
Juaristi Eizaguirre, Juan "Anttonbeltz"	UGT	Zaintzaldiak armak hartuta
Juaristi Mendizabal, Simón		Horniketa Batzordea/ Zaintzaldiak armak hartuta
Larrañaga Badiola, Pablo	Nazionalista	Horniketa Batzordea
Larrañaga Olarte, Pio	Nazionalista	Zaintzaldiak armak hartuta
Larrañaga Usabiaga, Inocencio	Nazionalista	Zaintzaldiak armak hartuta
Lechuga Bastarrarena, Manuel	UGT	Batzordekide
Marco Zabaleta, Victor	UGT	Zaintzaldiak armak hartuta
Martínez, Gregorio		Gerrako Batzordea
Moral Requeta, Avelino	IR	
Mozo Eizaguirre, Pedro	UGT	Gerrako Batzordea

KIDEAK	FILIAZIO POLITIKOA	KARGUA
Muguruza Orbegozo, Juan	UGT	
Nazabal Carpentier, Jose	EAE/ANV	Ogasun Batzordea/ Garraio Ataleko kidea
Odriozola Echeverria, Jose Cruz	ELA	Zaintzaldiak armak hartuta
Odriozola Seguro, Jesus		Zaintzaldiak armak hartuta
Olaizola Alegria, Imanol "Konfites"	Nazionalista	Ordena Publikoko Batzordeko kidea
Olaizola Echeverria, Antonio "Konfites"	Baserritarra	
Olazabal Gurruchaga, Manuel "Potzute"	Baserritarra	
Orbegozo Orbegozo, Lucas Manuel	Nazionalista	
Pérez Barcina, Jose	IR	
Quintela Baeza, Antonio	UGT	Zaintzaldiak armak hartuta
Quintela Baeza, Fernando	UGT	Zaintzaldiak armak hartuta
Sancho López, Manuel	Errepublikanoa	Garraio-zerbitzua
Torrano Senar, Manuel		Zaintzaldiak armak hartuta
Viquendi Otegui, Valentín		Telegrafoak
Zabala Illaramendi, Jose	Nazionalista	Zaintzaldiak armak hartuta
Zubiaurre Garate, Jose Maria	Nazionalista	
Zudupe Echeverria, Santiago	ELA	Zaintzaldiak armak hartuta

Nolanahi ere, izan zuten nolabaiteko koordinazioa tokiko botere-eremuek elkarren artean, gutxienez abuztuaren hasierara arte. Uztailaren 25ean, Udalbatzak, Fronte Popularraren Batzordeak, ELAK eta EAJk elkarrekin aurkeztutako idatzia irakurri ondoren, erabaki zuten "herriko ugazabei eskatzea eman diezaietela langileei sei eguneko soldata". Erabaki hark arazoak sor zitzaizkela ikusita, Udalak konpromisoa hartu zuen aurrez ordaindutako zenbatekoak, ondoren, ugazaben, langileen eta Udalaren artean adostutako modu onenean ordainduko zituztela eta, horrez gain, Udalak konpromisoa hartu zuen ugazabek egin ezin zituzten ordainketak egiteko ere. Tokiko erakundea enpresaburuen bermatzaile bihurtu zenez, beste erabaki bat ere hartu behar izan zuten. Hala, alkateari baimena eman zioten "herriko banku batean edo batzuetan 50.000 pezeta-ko kontu bat zabaltzeko", edo bestela esanda, gastuei aurre egiteko mailegu bat eskatzeko. Ondoren, abuztuaren 3an eta 7an, Udalak erabaki zuten berriro eskatuko ziela ugazabei soldata aurreratzea, bietan, bost laneguneko soldata, hain zuzen ere<sup>70</sup>.

Handik egun batzuetara, hilaren 29an, hilaren 25eko idatzia aurkeztu zuten erakundeek berriro jo zuten Udalera, eta eskatu zuten hiru erakundeetako batean lan egiten zuten langile langabeek laguntza ekonomikoren bat jaso behar zutela: "Bi pezeta langabe ezkongabeek eta hiru ezkonduet". Udalbatzak proposamena onartzea erabaki zuten, baina laguntza astebetara mugatu zuten<sup>71</sup>.

Ildo horretan, aipagarria da Batzordeko boluntario batzuek, gerora harrapatu eta epaimahai frankistek Fronte Popularrari haien borondatez laguntzeaz akusatuta epaitu zituztenean, haien burua defendatzeko esan zutela familia mantentzeko soldata behar zutelako egin zutela. Batez ere, armak hartuta zaintzaldiak besterik egin ez zituztenek esan zuten hori. Hala egin zuten, adibidez, Jose Maria Aguirre Arregui<sup>72</sup>.

Baina zaintzaldi armatuetan ez ziren Batzordeko boluntarioak bakarrik aritu, horretan aritu ziren Udalbatzako kideak ere abuztuaren 3ko erabakiaren ondoren. Hain zuzen ere, abuztuaren 3an egindako osoko bilkuran aho batez erabaki zuten zinegotziek zaintzaldiak egingo zituztela Udalean, gaueko hamarretatik goizeko seiak arte; gau bakoitzean zinegotzi bat.

Bizi zuten egoera zailari erantzuteko erabaki haiek guztiak hartu bazituzten ere, bai Udalbatzaren ekimenez, bai Batzordeko eta beste erakunde batzuetako ordezkariak eskatuta, egoera erabat aldatu zen abuztuaren 4tik aurrera. Euskal Miliziak eta Azpeitiko Komandantzia Militarra eratu zituztenean, Loiolako Kuartel Nagusia bihurtu zen erabakiak hartzeko gune, eta tokiko erakundeen eskumenak, pixkanaka, mugatu egin zituzten. Hala, abuztuaren 7tik irailaren 20ra, lau osoko bilkura bakarrik egin zituzten eta, batez ere, bi arazo nagusi konpontzen saiatu ziren: Behar-beharrezko produktuak hornitzeko arazoak, eta hainbat lurraldetatik etorritako milizianoak Azpeitian kontzentratuta egoiteak sortzen zituen arazoak.

Gai haiek jorratzeko, Urola eskualdeko udal-ordezkariek guztiak deitu zuten Ciriaco Aguirrek abuztuaren 12an bilera egiteko, eta laguntza eskatu zuten. Azpeitiko alkateak azaldu zuten milizien mantentze-gastuak udalerrin bakoitzeko populazioarekin proportzioan ordaintzea (aurretik ere erabakita zuten hori) baino beharrezkoagoa zela une hartan jenerotan laguntzea. Hargatik erabaki zuten laguntza hura "ahalik eta modu bidezkoenean banatu behar zuela, eta Udal bakoitzak txekor bat jarri behar zuela Horniduren Udal Batzordeak erabakitako moduan". Handik egun batzuetara, abuztuaren 19an, Azpeitiko Udalbatzak erabaki zuten zinegotziek eta auzoetako alkateek bando bat zabaltu behar zutela "irriaren ekoizpena eta kontsumoa arautzeko", eta bakoitzak bere auzoan baserritar guztiak jakinarazi behar zutela nahia zela joan behar zutela Udalera zenbat gari zuten eta hurrengo ereinaldirako zenbat beharko zuten adieraztera<sup>73</sup>.

<sup>70</sup> AUA (Sig. 276-02; Kod. 12).

<sup>71</sup> Ibid.

<sup>72</sup> 685/36 urgentziatzeko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>73</sup> Ibid.

## 3.1. Eusko Gudarostearen eta Komandantzia Militarraren sorrera Azpeitian

"Jainkoa eta aberriaren askatasuna". Lelo horixe aukeratu zuten Azpeitian 1936ko abuztuaren 5etik aurrera eratu zituzten euskal milizien aitzindari izan ziren euskal agintariek. Loiolako santutegian bildu ziren hainbat erakunde nazionalistako buruzagiak, Gipuzkoaren defentsa Azpeititik antolatzeko toki estrategikoa zela iritzita. Hala, Eusko Gudarostea sortu eta Gerra Batzordea eratu zuten, eta "miliziak antolatzeko ahalmen osoa" eman zioten Batzorde hari<sup>74</sup>. Eusko Alderdi Jeltzaleak monopolizatu zuen Batzordea, eta ez zegoen nazionalistak ez ziren erakunde politikoen eta sindikatuen ordezkariarik. ANV-EAEK, berriz, Fronte Popularreko indar abertzale bakarra izanda, xumeago sustatu zuen bere erakunde militarra, miliziak Yranzu hotelean bilduta<sup>75</sup>.



45 - Candido Saseta



46 - Jose Estornes



47 - Jose Maria Lasarte



48 - Lino Lazcano



49 - Manuel de Irujo



50 - Tomas Michelena



51 - Telesforo Monzon

Azpeitiko Komandantzia Militarra ordura arte babesik gabe egon zen Gipuzkoa erdialdeko sektorea babesteko sortu zuten, eta ekintzak egiteko esparrua, ekialdetik Oria ibaiaren ezkeralderako ertzerako, eta mendebaldetik Debaren eskualdeetaraino finkatu zuten. Hau da, Gipuzkoako eta Eibarko Defentsa Batzordeen eskumenetik kanpo gelditu zen lurraldea babestea zuen zeregina. Baina garrantzitsuena euskal nazionalismoak altxatutako tropen aurkako erresistentzia armatuan zuzenean eta argi parte hartzea izan zen, zalantzarik gabe. Izan ere, kontuan izan behar da, ordurako, kolpistak hasiak zirela Gipuzkoa erdialdera sartzen, eta itsasertzeraino ere iritsi zirela, eta tokiko batzordeetako miliziano talde batzuek bakarrik egin zirela aurre. Bestalde, altxatutako tropak azkar ari ziren aurrera egiten Bidasoako igarobidetik, eta uztailaren amaierarako Oiartzunen ziren. Abuztuaren 1ean Ordizia hartu zuten eta 7an Alegia.


Beraz, Azpeitiko Komandantzia erabakigarria izan zen ordura arte geldiezina zirudien kolpisten aurrerakada gelditzeko. Nolanahi ere, altxatutako tropak geldiarazteko helburu hura, Gipuzkoako toki guztietatik, Bizkaitik eta Arabatik, ehundaka gudari errekrutatzeari esker arrakasta lortu zu-

<sup>74</sup> EGAÑA, I. (Zuz.): 1936, Guerra Civil en Euskal Herria. 8t. (2004).

<sup>75</sup> Sabino Arana Fundazioa; Irujo 13-1.

1902an Gabirian jaioa. Gutxienez 1934ra arte bizi izan zen Azpeitian zurgin hau. Garai hartan Azpeitiko Sindicato Profesional del Ramo de la Madera sindikatuaren afiliatuta zegoen eta langabezian zegoen. Agian horregatik joango zen Donostiara, lanik gabe zegoelako alegia. Donostian egiten zuen lan gerra lehertu zenean. CNTko militantea zen garai hartan eta 1936ko uztailaren 19an bertan, altxatutako tropei Gipuzkoan aurrera egitea galarazten saiatu ziren euskal milizianoen lehen talde haiekin bat egin zuen. Ondoren, Eusko Gudarostearen Meabe batailoietako batean egon zen errolatuta eta 1936ko urriaren Asturiasko frontera joandako euskal espedizioan hartu zuen parte. Urriaren 18an, sarjentu izendatu zuten eta handik lau egunera, hilaren 22an, borrokan ari zela hil zen, San Claudio sektorean. 34 urte zituen Tomasek. Candida Lasa Alustizarekin ezkondu zegoen eta 8 urteko alaba bat zuten, Maria Cristina<sup>132</sup>.

#### BURNI, FRANCISCO

Antono Loinazek bere memorieta kontaktzen duenaren arabera, Francisco *Itxarkundia* batailoiko sarjentua zen Ubideko gerra frontean hil zenean. Seguraski, eta Azpeitiko hainbat bizilagunen testigantzen arabera, Franciscok errepublika garaian bere bizitokia Azpeitian finkatu zuen. Bere jatorria ezezaguna zaigu<sup>133</sup>.

#### CAMPOS ECEIZA, MOISES

Eliz kalean bizi zen Moises eta iturgina zen lanbidez. Alejandro eta Juan anaiak bezala ezkertiarra zen, eta ideia haien harira, militar egin zuten UGT sindikatuaren<sup>134</sup>. Ondoren, gerrako frontera bidali zuten Juventudes Socialistas Unificadas delakoaren UHP batailoian errolatuta<sup>135</sup>. Batailoi horretako 1. konpainiako kidea izan zen Moises, eta 1937ko apirilaren amaieran zauritu zuten Durangoko frontean. Barakaldoko ospitale militarrean eraman zuten ondoren. Hala ere, apirilaren 30ean, Moisesen heriotza-ziurtagiria egin zuten. Barakaldoko hilerrian lurperatu zuten<sup>136</sup>.

Nº de Orden	NOMBRES	Serie	Número del Fusil	Número del Machete	OBSERVACIONES
✓ 39	Otaegui Azurmendi Victoriano			16189	
✓ 40	Noral Leizaola Avelino			9605	
✓ 41	Arizaga Gurruchaga Jesus			2104	
✓ 42	Campos Eceiza Alejandro			9032	
✓ 43	Campos Eceiza Moisés			9896	
✓ 44	Cortaberría Ascenso Astanialao			17088	

**79 - Moises Campos Eceizari buruzko dokumentua.** (CDMH (P.S. Bilbao 241).

<sup>125</sup> Lekeitioko Erregistro Zibila.

<sup>126</sup> AHPV.

<sup>127</sup> Abadiñoako Erregistro Zibila.

<sup>128</sup> AUA (Sig. 1240-08; Kod. 214).

<sup>129</sup> LOINAZ ETXANIZ, A.: Nire Oroitzapenak (2001).

<sup>130</sup> Azpeitiko Erregistro Zibila: 37. liburukia, 82. zk., 340. orria (1942ko abendua).

<sup>131</sup> AUA (Sig. 472-01; Kod. 215).

<sup>132</sup> CDMH (S.M. PSET 51).

<sup>133</sup> LOINAZ ECHANIZ, A.: Nire Oroitzapenak. (2001).

<sup>134</sup> AUA (Sig. 1240-08; Kod. 214).

<sup>135</sup> CDMH (P.S. Bilbao 241).

<sup>136</sup> AHPV.



### GORROCHA AZPEITIA, PEDRO

Azpeitiko bizilaguna. Pedoren inguruan daukagun datu bakarra Euskadiko Artxibo Historikoan aurkitzen den dokumentazio mikrofilmatuan ageri dena da, konkretuki "Asturiasen, eta Itxarkundia, Loyola, San Andres eta Saseta batailoietan desagertu edo hildako gudarien" inguruan Euskal Armadako autoritate militarrek egindako txostenetan. Bertan dioenaren arabera, Pedro Otxandioko gerra frontean hil zen, ez delarik zehazten zein batailoitako kide zen<sup>137</sup>.

### INCHAURRONGO MUGICA, VICTOR

Urrestillakoa zen jaiotzez, eta Tolosan bizi zen. Izquierda Republicana alderdiaren Pablo Sanz konpainian errolatuta gelditu zen Victor<sup>138</sup>. Ondoren, *Azaña-Gipuzkoak* batailoian sartu zen, Donostian, eta Irungo gerrako frontera joan zen<sup>139</sup>. 1936ko irailaren 1ean, fronte hartan ziurtatu zuten haren heriotza. Grafikoa zen lanbidez, eta emaztea eta bi seme-alaba zituen. Emazteak egin zuen Victorren heriotza-ziurtagiria handik hilabete batzuetara, Karrantzan, Bizkaian<sup>140</sup>.

### IPARRAGUIRE ORBEGOZO, FRANCISCO

Gerra hasi ondoren, Azpeitian 1936ko abuztuaren hasieran eratuak euskal milizietan sartu zen Francisco, sarjentu<sup>141</sup>. Ondoren, Azpeititik atera eta gerrako hainbat frontetan jarraitu zuen borrokan 1936ko abenduaren 23an "Zornotzako sektorean suzko armaz zaurituta", hil zen arte. Hilaren 25ean lurperatu zuten, Gernikako hilerrian. 29 urte zituen Franciskok eta ezkongabea zen<sup>142</sup>.

### ITURZAETA ZUBIZARRETA, CELESTINO "TXANDRAMIE"

1916an Urrestillan jaioa zen Celestino. Aguirre Hermanos altzari-enpresan aritu zen lanean errepublika-garaian. "Txandramie" esaten zioten urrestildar honek altzarien sektorekoek 1936ko uztailan gerra lehertu baino lehentxe-ago egindako greban parte hartu zuen. Protesta haietan, akordeia hartuta ibili zen Celestino soldata igo ziezaie-tela eskatzeko protesta-abestiak jotzen<sup>143</sup>. Gerra hastean, *Loyola* batailoi nazionalistan sartu zen eta, seguru asko, batailoi harekin ibiliko zen miliziano gerrako hainbat frontetan, hil arte. Hori horrela, ez dago garbi Celestino non eta nola hil zen. Batetik, Antonio Loinazen idatzitako oroitzapenetan jarrita dago Legutioko frontean hil zela Celestino. Hala ere, bada familiaren oroigarri bat, eta horren arabera, Celestino "Bizkaiko frontean" hil zen 1937ko ekainaren 15ean. 1940an, zehazki otsailaren 5ean, Celestino "aurkari"tzat izendatu zuen Azpeitiko Udalak, 1936ko soldadualdiko gazteen sailkapen-aktaren itxiera zela eta. Ez dago haren heriotzari buruzko aipamenik<sup>144</sup>.



80 - Celestino Iturzaeta Zubizarreta "Txandramie".  
(Joxe Mari Iturzaeta utzitako argazkia).

### IZAGUIRE AMENABAR, ANTONIO

CNTko militante izandako azpeitiar bakanetako bat izan zen Antonio. Bera izan zen gerrako frontera joan ziren lehenengoetako bat. 1936ko uztailaren 31n, Ordizian frankisten aurkako erresistentzian zebilela, eta altxatutakoek Ordizia hartu baino egun bat lehenago, borrokan hil zuten. 32 urte zituen Antoniok eta bi seme-alaba zituen<sup>145</sup>.

### LANDA SEGUROLA, JULIAN

Azpeitiarra jaiotzez eta bizitokiz, Gerra Zibila hasi ondoren Azpeitiko hiriburuan sortu ziren milizia popular antifaxistetan hartu zuen parte Julianek. Seguraski gerrako frontean zauriturik, Donostiako ospitalean hil zen 1936ko abuztuaren 30ean. Defuntzio aktan ipintzen duenaren arabera, "suzko armak eragindako zaurien" ondorioz hil zen. 32 urte zituen eta ezkondata zegoen<sup>146</sup>.

### LARRAÑAGA PLACIDO, PLACIDO

Azpeitiko bizilaguna. Plácidoaren inguruan daukagun datu bakarra, Pedro Gorrocharen kasuan bezala, Euskadiko Artxibo Historikoan aurkitzen den dokumentazio mikrofilmatuan ageri dena da, konkretuki "Asturiasen, eta Itxarkundia, Loyola, San Andres eta Saseta batailoietan desagertu edo hildako gudarien" inguruan Euskal Armadako autoritate militarrek egindako txostenetan. Hemen dioenaren arabera, Pedro Otxandioko gerra frontean hil zen, zein batailoitako kidea zen zehazten ez delarik<sup>147</sup>.

### MORAL LEDESMA, LEANDRO

San Asensiokoa (Errioxa) zen jaiotzez Leandro. 13 urte besterik ez zituela iritsi zen Azpeitira. Avelino Moral aita merkataria zen, eta agintari errepublikano ezaguna izan zen herrian errepublika-garaian. Badirudi, Leandro, gerra hasi ondoren, Azpeitiko Defentsa Batzordearen zuzendaritzan sartu zela<sup>148</sup>. Ondoren, JSUren *UHP* batailoian sartu zen Jose Maria eta Avelino anaiak bezala<sup>149</sup>. 1937ko apirilaren hasieran, Otxandioko frontean zegoen Leandro, bere konpainiako ofizialorde, eta zaurituta, Bilboko ospitale zibilera eraman zuten. Apirilaren 2an hil zen eta ez dakigu non lurperatu zuten. 28 urte zituen Leandrok eta ezkondata zegoen<sup>150</sup>.

<sup>137</sup> EAN (Politiko Soziala. Bilbo. 188 kutxa, 20. zk).

<sup>138</sup> CDMH Funts Politiko Soziala. Bilbo. 64 kutxa, 67. biribilkia.

<sup>139</sup> CDMH, Funts Politiko Soziala. Bilbo. 250 kutxa, 19. zk.

<sup>140</sup> Karrantzako Erregistro Zibila.

<sup>141</sup> CDMH (PS Bilbao 64).

<sup>142</sup> AHPV.

<sup>143</sup> LOINAZ ETXANIZ, A.: Nire Oroitzapenak (2001).

<sup>144</sup> AUA (Sig. 333-03; Kod. 214).

<sup>145</sup> CDMH (PSET 65; 184; 225).

<sup>146</sup> EGAÑA, I. (Zuz.): 1936, guerra civil en Euskal Herria. 8v. (2004).

<sup>147</sup> EAN (Politiko Soziala. Bilbo. 188 kutxa, 20. zk).


<sup>148</sup> 1714/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>149</sup> EGAÑA, I. (Zuz.): 1936, guerra civil en Euskal Herria. 8v. (2004).

<sup>150</sup> AHPV.

### OLANO EMPARAN, LUIS

1917an Puerto Real (Cadiz) herrian jaioa zen Luis, eta Azpeitian bizi zen. Bustinzuri plazako 5.ean bizi zen. Ikaslea zela, Ebroko gerrako frontean ibili zen, borrokan. Badirudi Sierra del Caballo inguruan zauritu zutela, Alacanten, eta ondoren, etxean hil zen, 1938ko urriaren 19an. Ez dakigu zein bandotan egon zen erroldatuta, baina dena dela ez da ageri Azpeitiko udaletxe frankistak landutako frontean hildako gudari nazionalen zerrendan. 21 urte zituen Luisek<sup>151</sup>.



81 - Luis Olano Emparanen heriotza-akta.  
(Azpeitiko erregistro zibila 37. liburukia; 119 zk.; 287. orria).

### OYARZABAL ERASO, JOSE

1909an Azpeitian jaioa zen eta zurgina zen lanbidez. Gerra hasi ondoren, JSUren UHP batailoian gelditu zen erroldatuta<sup>152</sup>. 1936ko urriaren 6an, Elgetako frontean zegoela, hil egin zen "obus batek eragindako zaurien" ondorioz. 27 urte zituen Josek, ezkongabea zen eta Elgetako hilerrian lurperatu zuten<sup>153</sup>.

### PLAZAOLA ZUBIZARRETA, LEANDRO

1907an jaio zen Leandro eta Azpeitian bizi zen. ELA sindikatu nazionalistan afiliatuta zegoen eta Amaiur infanteria-batailoiko San Andrés 1. konpainian gelditu zen erroldatuta. 1936ko abenduaren 26an, Kalamuako<sup>154</sup> frontean balaz zaurituta hil zen, eta Gernikako hilerrian lurperatu zuten. 28 urte zituen Leandrok<sup>155</sup>.

### QUINTANA LORENZO, JOSE DIMAS

Azpeitian jaioa zen eta Bilbon bizi zen Jose Dimas. 1937ko apirilean eta maiatzean, Bizkargi, Sollube eta Peña Lemoa sektoreetan *Cinturón de hierro*, Burdinazko gerrikoa, delakoaren atean hildako 2.500 euskal borrokalarietako bat izan zen. *Larrañaga* batailoio komunistako "dimitarien zedula"ko miliziano honen kasu konkretuan<sup>156</sup>, bere heriotza 1937ko maiatzaren 15ean datatu zen Bizkargi mendian<sup>157</sup>. 28 urte zituen Josek, ezkondua zen eta bi alaba zituen<sup>158</sup>.

### URBIETA ECHEZARRETA, JOSE

Jose Azcue, Patxi Burni, Dionisio Urbistondo eta agian Celestino Iturzaeta azpeitiarrak bezala, Eusko Gudarosteak Legutión egindako erasoan borrokan ari zela hil zen<sup>159</sup>. *Loyola* batailoiko *Lartaun* konpainiako gudaria izan zen Jose, eta Otxandio inguruan zauritu ondoren, Zornotzako behin-behineko ospitalera eraman zuten<sup>160</sup>. Azkenean, abenduaren 2an, ospitale hartan hil zen, eta hurrengo egunean, Gernikan lurperatu zuten. Loiola auzoko Mandiolatza baserrikoa zen Jose, eta 28 urte zituen hil zenean<sup>161</sup>.

### URBISTONDO LASA, DIONISIO

Urrestilla auzoko Txarabarrena baserrikoa zen. Han jaio zen Dionisio 1912an. 1936ko abuztuaren hasieran Azpeitian eratutako euskal milizietan sartu zen<sup>162</sup>. Ondoren, *Loyola* batailoirean *Bergara* 3. konpainian gelditu zen erroldatuta, eta Legutión eginiko erasoan hartu zuen parte<sup>163</sup>. 1936ko abenduaren 1ean hil zen Otxandioko sektorean, "suzko armak eragindako zaurien" ondorioz, eta Gernikako hilerrian ehortzi zuten. 25 urte zituen Dionisiok eta ezkongabe zegoen<sup>164</sup>.



82 - Dionisio Urbistondo Lasa.  
(Yolanda Etxezarreta Aizpuruk utzitako argazkia).

<sup>151</sup> Azpeitiko E.Z.: Tomo 37; nº 119; Fol.287.

<sup>152</sup> EGAÑA, I. (Zuz.): 1936, guerra civil en Euskal Herria. 8v. (2004).

<sup>153</sup> AHPV.

<sup>154</sup> EAN (Politiko Soziala. Bilbo. 188 kutxa, 20. zk).

<sup>155</sup> Gernikako Erregistro Zibila.

<sup>156</sup> CDMH (PS Bilbao 60).

<sup>157</sup> Bilboko Erregistro Zibila.

<sup>158</sup> AHPV.

<sup>159</sup> LOINAZ ETXANIZ, A.: Nire Oroitzapenak. (2001).

<sup>160</sup> Durango-Amorebietako Erregistro Zibila.

<sup>161</sup> Gernikako Erregistro Zibila.

<sup>162</sup> CDMH (PS Bilbao 64).

<sup>163</sup> AHPV.


<sup>164</sup> Gernikako Erregistro Zibila.

**URDANPILETA ORUEZABALA, ALBERTO**

"Hilaren 25eko ordu batetik aurrera, aske naiz helburu taktiko eta estrategikoen aurkako ekintzak egiteko eta behar militarrek eskatzen duten indarkeriaz baliatzeko"

Bizkaia buruzko hitz horiek bota ondoren, Mola jeneral kolpistak Bizkaia bonbardatzeko agindua eman zuen eta ehunka biktima sortu (72-126 hildako eta 500 zauritu inguru)<sup>165</sup>.

Bomba bat Durangoko Ezkurdi pilotalekuan lehertu zen. Han zegoen miliziano talde bat, atsedean hartu eta pilotan jokatzen<sup>166</sup>. 12 hil ziren, tartean Alberto. UGTko afiliatua zen. Bidanarian jaioa zen 1911n eta Azpeitian bizi zen. Han aritu zen lanean, saskigile, harik eta frontera joan zen arte<sup>167</sup>.



83 - Alberto Urdanpilleta Oruezabalaren heriotza-akta. (Azpeitiko erregistro zibila: 38. liburukia; 82. zk.; 363. orria).


**ZALBA AYARZA, RAMON**

Jaiotzez azpeitiarra zen Ramon, baina Deban bizi zen. Gerra Zibila hastean, Eusko Gudarostean sartu zen gudari bezala, konkretuki Saseta baitailoi nazionalistan. 1937ko apirilaren 26an hil zen Eubako gerra frontean. 24 urte zituen eta ezkongabea zen<sup>168</sup>.

*Nik banuan anai bat  
gerra ortan illa  
ta berakin badira  
makiña bat milla;  
ez anaia zalako,  
ura zan mutilla!  
Deseo det zeruan  
gertatu dedilla<sup>169</sup>.*

**IV. Zerrenda: Gerrako frontean hil ziren matxinatuen bandoko azpeitiarrak**

IZENA	JAIOTZA (DATA, LEKUA)
AGOTE AIZPURU, JOSE DOMINGO	
AGUIRRE ARAMENDI, VICTOR	1915, Azpeitia
AGUIRRE GEREDIAGA, JOSE MARIA ISIDRO	1897, Azpeitia
AIZPURU AZCUE, FELIX	
AIZPURU GOENAGA, FAUSTINO	1911, Azpeitia
AIZPURU URRESTILLA, FRANCISCO	
ALBERDI AGUIRRE, EUSEBIO	1912
ALBERDI ORALLA, JOSE NICOLAS	
ALCORTA MUGURUZA, TOMAS	1912
AMIANO ARAMENDI, FELIPE	
ARAMBURU LIZASO, SEBASTIAN	
ARRUTI EIZMENDI, JOSE MANUEL	1909, Azpeitia
ARRUTI ECHEVERRIA, JOSE	1913, Azpeitia
AZCOITIA OROÑOZ, JOSE VICENTE	1914
AZPIAZU ODRIA, JOSE AGUSTIN	1911
BASTIDA AIZPURU, ANTONIO	1906, Azpeitia
BERECIARTUA AZPEITIA, JOSE MANUEL	1919
BERECIARTUA GURIDI, VICTOR	1915, Azpeitia
BERISTAIN ARTECHE, JOSE MARIA	1913
CENDOYA LARRAÑAGA, JOSE	
CORTA MENDIA, GREGORIO	1913
CORTA OYARBIDE, LUCIO	1918, Azpeitia
ECHANIZ IRIARTE, JOSE MARIA	
ECHEVERRIA ARCELUS, MODESTO	1920, Azpeitia
ECHEVERRIA ARZUAGA, GASPAS	1910, Azpeitia
ECHEVERRIA ARZUAGA, IGNACIO	
ECHEVERRIA ECHANIZ, MARTIN	1912
ELIAS UNANUE, MANUEL	1913, Azpeitia



84 - Gerrako frontean hildako erreketek azpeitiarren oroigarriak. (Aranzadi Z.E./ Roque Astigarraga funtsa).

<sup>165</sup> JIMENEZ DE ABERASTURI CORTA, L.: *Crónica de la guerra en el norte. 1936-1937.* (2003).  
<sup>166</sup> IRAZABAL AGIRRE, J.: *La Guerra Civil en el Duranguesado 1936-1937.* (2012).  
<sup>167</sup> Azpeitiko erregistro zibila.  
<sup>168</sup> AHPV  
<sup>169</sup> Aquilino Izaguirre "Zepai", Antonio Izaguirrerren anaia.

BIZITOKIA	FILIAZIOA	KARGUA
Azpeitia (Ondarre baserria)	San Ignacio tertzioko erreketea	
Azpeitia (Gorostieta baserria)		Deialdiko soldadua
Azpeitia (Urrestilla)	San Ignacio tertzioko erreketea	Kaboa
Azpeitia (Enparan kalea, 35)	San Ignacio tertzioko erreketea	
Azpeitia (Rekalde Baserria)	San Ignacio tertzioko erreketea	Erreketea
Azpeitia (Arrabal kalea, 8)		Nabigatzailea
Azpeitia (Bentatxo baserria)		(Derrigorrezko) deialdiko soldadua
Azpeitia (Echenagusia baserria)		Deialdiko soldadua
Azpeitia (Muno baserria)		(Derrigorrezko) deialdiko soldadua
Azpeitia (Zabalaga baserria)		Deialdiko soldadua
Azpeitia (Arzubia kalea, 9)		Deialdiko soldadua
Errezil	San Ignacio tertzioko erreketea	Kaboa
Azpeitia (Concejo kalea, 3)	San Ignacio tertzioko erreketea	Erreketea
Azpeitia (Eliz kalea, 8)		(Derrigorrezko) deialdiko soldadua
Azpeitia (Uranga baserria)	San Ignacio tertzioko erreketea	
Azpeitia (Lertxundi baserria)	San Ignacio tertzioko erreketea	
Azpeitia (Arantzeta baserria)		Deialdiko soldadua
Azpeitia (Txaibar kalea, 1)	San Ignacio tertzioko erreketea	
Azpeitia (Miranda baserria)		Deialdiko soldadua
Azpeitia (Miraflores baserria)		(Derrigorrezko) deialdiko soldadua
Azpeitia (Aldagoiti baserria)		Deialdiko soldadua
Azpeitia (Urrestilla)	San Ignacio tertzioko erreketea	Erreketea
Azpeitia (Urrestilla)		Deialdiko soldadua
Azpeitia (Eliz kalea, 2)	San Ignacio tertzioko erreketea	Txapel gorria
Azpeitia (Magdalena kalea, 8)	San Ignacio tertzioko erreketea	Erreketea
Azpeitia (Magdalena kalea, 8)	San Ignacio tertzioko erreketea	
Azpeitia (korostorzu baserria)		Deialdiko soldadua
Azpeitia (San Ignacio kalea, 11)	San Ignacio tertzioko erreketea	Erreketea

IZENA	JAIOTZA (DATA, LEKUA)
ELORZA ELEIZGARAY, JUAN JOSE	1915, Azpeitia
ERRAQUIN URANGA, ALEJANDRO	1911
ERRAZQUIN URANGA, FRANCISCO	
GARMENDI CINCUNEGUI, JOSE MARIA	1910
GOENAGA ALBERDI, LUIS	Azpeitia (Ormaetxe baserria)
GOENAGA ARRUTI, CIPRIANO	1913
GOENAGA ARRUTI, MAXIMO	1903, Azpeitia
GORROCHATEGUI ARAMENDI, JOSE MARIA	
GURIDI ECHANIZ, JOSE IGNACIO	1908, Azpeitia
GURRUCHAGA ARAMBERRI, VICENTE	1915, Azpeitia
GURRUCHAGA AROCENA, PIO	1915, Azpeitia
GURRUCHAGA ZABALETA, JOSE MARIA	1909
IBARGUREN CALTEGUI, IGNACIO JOSE	
IBARZABAL HERNANDEZ, JULIAN	
IBARZABAL ILARRAMENDI, JULIAN	1914
IRIARTE AGUIRRE, ESTEBAN	1913, Azpeitia
IRIARTE ALTOLAGUIRRE, IGNACIO DANIEL	1914, Azpeitia
IRIARTE ECHANIZ, JOSE MANUEL	Azpeitia (Errekarte baserria)
LANDA ARZUAGA, JOSE	1913, Azpeitia
LARRAÑAGA ALBERDI, JUAN JOSE	
LARRAÑAGA ZUBIAURRE (ZUBIZARRETA), JOSE CRUZ	
LASA LARREA, VICENTE	1899, Beasain
LAZCANO ERRASTI, PEDRO	
MENDIZABAL ODRIUZOLA, MARCELINO	1913
MUGABUREN BERISTAIN, LUCIO	1913, Azpeitia
ODRIUZOLA GOENAGA, JOSE MARTIN	1916
ODRIUZOLA IMAZ, JUAN	
ODRIUZOLA IRIARTE, JOSE MARIA	
ODRIUZOLA LESACA, DIEGO MARIA	
ODRIUZOLA LESACA, JOSE MARIA	1921, Azpeitia
ODRIUZOLA SORALUCE, JULIAN	1914
OLAIZOLA GURRUCHAGA, JOSE FRANCISCO	1918, Azpeitia
OLAIZOLA GURRUCHAGA, JOSE MANUEL	1913 - 1917, Azpeitia
OLAIZOLA IRIARTE, JOSE	1915
OÑEDERRA ITURZAETA, JOSE MANUEL	1914, Azpeitia
ORBEGOZO GURRUCHAGA, ESTEBAN	
ORBEGOZO UNANUEL, PEDRO	1914
OTAEGUI OLAZABAL, VICTOR	
PRADA LAZARO, LUIS	1912, Azpeitia
QUEREJETA GOENAGA, JULIAN	1913, Azpeitia
SARASUA AIZPURU, JUAN	1916, Azpeitia
SEGUROLA ALTUNA, PEDRO IGNACIO	1917, Azpeitia
SEGUROLA ARAMBARRI, SANTIAGO	1917, Azpeitia
SEGUROLA CORTA, RAMON	
SORAZU AIZPITARTE, NAZARIO	1912, Azpeitia
SOROZABAL JUARISTI, MANUEL	
UNANUE ALTUNA, ESTEBAN	
URANGA ZUBIZARRETA, JOSE	1914, Azpeitia
URIARTE SAGARDUY, SINFORIANO	1903, Galdakao
URTEGARAY ASTERRECA, MELQUIADES	1910, Zizurkil
ZUBIZARRETA EZENARRO, JOSE MARIA	1914

BIZITOKIA	FILIAZIOA	KARGUA
Azpeitia (Enparan kalea, 6)	San Ignacio tertzioko erreketea	Sarjentua
Azpeitia		(Derrigorrezko) deialdiko soldadua
Azpeitia (Miraflores baserria)		Deialdiko soldadua
Azpeitia (Zabale baserria)		Deialdiko soldadua
Azpeitia (Ormaetxe baserria)	J. A. P.	Deialdiko soldadua
Azpeitia (Santiago kalea, 7)		Deialdiko soldadua
Azpeitia (Santiago kalea, 7)	San Ignacio tertzioko erreketea	Kaboa
Azpeitia (Eizagirre baserria)		Deialdiko soldadua
Azpeitia (Nuarbe)	San Ignacio tertzioko erreketea	Erreketea
Azpeitia (Olarue baserria)	J. A. P.	
Azpeitia (Eizagirre baserria)		Deialdiko soldadua
Azpeitia (Orbegozo baserria)		(Derrigorrezko) deialdiko soldadua
Azpeitia (Motrallu-berri baserria?)		(Derrigorrezko) deialdiko soldadua
Azpeitia	Sicilia batailoia	Deialdiko soldadua
Azpeitia (Badiolegi baserria)		Deialdiko soldadua
Azpeitia (Igartza baserria)	San Ignacio tertzioko erreketea	Erreketea
Azpeitia (Enparan kalea, 42)	San Ignacio tertzioko erreketea	Erreketea
Azpeitia (Errekarte baserria)		Deialdiko soldadua
Azpeitia (Errastiola baserria)	San Ignacio tertzioko erreketea	Txapel gorria
Azpeitia (Eliz kalea, 1)	San Ignacio tertzioko erreketea	
Azpeitia (Otzokua baserria)		Deialdiko soldadua
Azpeitia (Aratz-Matxinbenta)	San Ignacio tertzioko erreketea	Txapel gorria
Azpeitia	Sicilia batailoia	Deialdiko soldadua
Azpeitia (Zabaleberri baserria)	San Ignacio tertzioko erreketea	Erreketea
Azpeitia (Turbina etxea)	San Ignacio tertzioko erreketea	Kapitaina
Azpeitia (Ibarrola baserria)	San Ignacio tertzioko erreketea	Erreketea
Azpeitia (San Ignacio kalea, 19)		Deialdiko soldadua
Azpeitia (San Ignacio kalea, 7)	San Ignacio tertzioko erreketea	
Azpeitia (Zuola baserria)	San Ignacio tertzioko erreketea	
Azpeitia (Zuola baserria)	San Ignacio tertzioko erreketea	Txapel gorria
Azpeitia (Sokin baserria)		(Derrigorrezko) deialdiko soldadua
Azpeitia (Etxaiz zahar baserria)	San Ignacio tertzioko erreketea	Erreketea
Azpeitia (Etxaiz zahar baserria)	San Ignacio tertzioko erreketea	
Azpeitia (Lepasoro baserria)	San Ignacio tertzioko erreketea	
Azpeitia (Barrenola baserria)	San Ignacio tertzioko erreketea	
Azpeitia (Arana kalea, 3)	San Ignacio tertzioko erreketea	
Azpeitia (Anardi baserria. Antzi baserria)		(Derrigorrezko) deialdiko soldadua
Azpeitia (Landeta Etxeberri baserria)	San Ignacio tertzioko erreketea	
Azpeitia (San Ignacio kalea, 32)	San Ignacio tertzioko erreketea	Kaboa
Azpeiti (Errastibaso baserria)	San Ignacio tertzioko erreketea	Erreketea
Azpeitia (San Ignacio kalea, 8)	San Ignacio tertzioko erreketea	Kaboa
Azpeitia (Urrestilla)	San Ignacio tertzioko erreketea	Erreketea
Azpeitia (Ureta baserria)	San Ignacio tertzioko erreketea	Txapel gorria
Azpeitia (Lapatx baserria)		Deialdiko soldadua
Azpeitia (Murgil baserria)	San Ignacio tertzioko erreketea	Erreketea
Azpeitia (Atxabaleta baserria)	J. A. P.	
Azpeitia (Badiolegi baserria)		(Derrigorrezko) deialdiko soldadua
Azpeitia (Zabale baserria)	San Ignacio tertzioko erreketea	(Derrigorrezko) erreketea
Azpeitia (Atxubiaga baserria)	San Ignacio tertzioko erreketea	Kaboa
Azpeitia (Arzubia kalea, 32)	San Ignacio tertzioko erreketea	
Azpeitia (Zabale baserria)		(Derrigorrezko) deialdiko soldadua

### 3.3. Azpeitiko eskuindarren aurkako errepresioa

Gerra hastearren ondorioetako bat pertsona eskuindarrek jasandako jazarpena izan zen. Kontuan izan behar da Azpeitia tradizio karlista handiko herria zela eta, beraz, karlista asko Comunióon Tradicionalista alderdiari lotuta zeudela. Mugimendu hark, Emilio Mola jeneralarekin hitzartutako moduan, kolpistekin egin zuen bat, eta kolpisten esanetara jarri zuen bere adar armatua: Erreketeak. Erreketeak izan ziren, hain zuzen ere, Nafarroako hiru brigadetak kide gehienak, eta Jose Solchaga Zala karlistaren gidaritzan militarren pean, Gipuzkoaren konkista gidatu zuten.

Hala, 1936ko uztailaren 18tik irailaren 20rako tartean eskuindarren aurkako jazarpena izan zen Azpeitian, haietako asko altxatutako konplizetat hartu baitzituzten. Hainbat gogorkeria jasan zituzten; batez ere, isunak, ondasun higigarrien eta ganaduen konfiskatzeak eta espetxeratzeak. Ekintza haietako gehienak Fronte Popularraren Defentsa Batzordeko kideek egin zituzten, eta ekintza haiek matxinadari laguntzearen ustezko delituaren astungarri gisa erabili zituzten ondoren gerra-kontseilu frankistetan epaitu zituztenen aurka.

Zigor ekonomikoak Batzordearen harpidetzaren formula erabilia jarri zituzten. Eufemismo hura erabili zuten herriko eskuindarrei isunak jartzeko. Batzorde hartako ogasun-arduradunari, Jose Nazabali, kondena jarri zion epaiaren arabera, formula haren bidez, 75.000 pezeta bildu zituzten gutzira<sup>170</sup>. Era berean, garai hartan konfiskatu zituzten ganadu, elikagai, etxeko gai eta beste ondasun higigarrien konfiskatzeen balioa 100.000 pezeta-koa izan zela adierazi zuten<sup>171</sup>. Konfiskatze nabarmenetako bat *Azpeitiko Círculo Tradicionalista*rena izan zen. Konfiskatze haren lekuko izan zen orduan lokala garbitzeaz arduratzen zen herritarra: Victoria Aizarna Lizaso<sup>172</sup>. Herriaren erdigunean ere egin zituzten konfiskatzeak pertsona ezagunen etxean; hala nola Casto Orbegozorenean. "Idazmahaija eta haren aulkia" konfiskatu zizkioten<sup>173</sup>.

Landaguneetan, Aratz-Erreka, Urrestilla eta Nuarbe auzoetako baserriek jasan zituzten konfiskatze gehien, guneha haietan pisu handia baitzuen tradizionalisten ideologiak. Aratz-Errekako Zelaieta baserriko Vicente Gurruchaga Unanue izan zen konfiskatzea jasan zutenetako bat, baina Beasainera egin zuen ihes konfiskatzea izan aurretik<sup>174</sup>. Baserri hartatik, Aritzagatik eta Rekaldeetik bezalaxe, hainbat txekor konfiskatu zituzten. Nuarben, berriz, hainbat etxetan egin zituzten konfiskatzeak egun bakar batean. Besteak beste, parrokoaren eta Nuarbeko alkate ohiaren etxeetatik hainbat oilo hartu zituzten<sup>175</sup>. Horiez gain, lapurretak egin zituzten inguruko oligarken jabetzetan; adibidez, San Millango markesaren finketan (Dolores Porcel)<sup>176</sup>. Sagarre baroiarenean Lasao auzoan (Jaime Altarriba Porcel)<sup>177</sup> eta Zuazola jauregian. Azken horren kasuan, "frutak hartu zituzten lorategitik"<sup>178</sup>. Oro har, konfiskatutako ganadua eta arropak Loiolako kuartelean zeudenentzat ziren, baita konfiskatutako irrati-gailuak ere.

Atxiloketei begiratuta, berriz, 120 lagun eduki zituzten espetxean Defentsa Batzordearen aginduz, bai Azpeitiko espetxean, bai Loiolako santutegian. Bilbora eraman eta ondoren "herrira itzuli" ahal izan zuten<sup>179</sup> lau preso izan ezik, gainerakoak altxatutako tropak Azpeitian sartu baino lehen utzi zituzten aske<sup>180</sup>. Atxilotuen artean karlisten jarraitzaileak eta militante karlistak zeuden batez ere; hala nola Ignacio Velaz Irazu eta Cruz Maria Echeverria Taberna. Azken hori Loiolako santutegian jarri zuten espetxean eduki zuen Azpeitiko Komandantzia Militarrek, abuztuaren 13tik irailaren 19ra bitartean<sup>181</sup>. Era berean, 1936ko uztailaren 30ean, Ignacio Echeverria Altamira eta Casto Orbegozo harrapatu zituzten Batzordeko kideek baserri batean ezkatututa egon eta Azpeitira bueltan zetozela, eta etxeko atxiloaldia ezarri zieten. Castok altxatutako kontrolpeko aldera egin zuen ihes abuztuaren 13an, eta Ignacio, berriz, atxilotu eta Loiolara eraman zuten<sup>182</sup>.

Aipagarria da emakumeen *Margaritas* erakundeko karlista hauen kasua ere: Rosario Echeverria Altamira, Ignacia Bereciartua Azpiazu eta Pilar Aguirre Perez. Hirurak atxilotuta eduki zituzten abuztuaren 3tik 5era eta, ondoren, aske utzi zituzten, baina etxeko atxiloaldia ezarrita. Geroago, Azpeitian diktadura frankista ezarri zenean, *Emakume* erakundeko hainbat militante azpeitiar salatu zituzten hiru emakumeek, haiek atxilotzean parte hartzeaz, milizianoei laguntzeaz eta "oihu subertsiboak" egiteaz akusatuta<sup>183</sup>.

Izan ziren porrot egindako atxilotze-saiakerak ere; izan ere, armada kolpistaren kontrolpean zeuden Goierriko toki-tokiara ihes egitea lortu zuten jazarritako batzuek. Aipatu dugu lehen ere Casto Orbegozoren kasua, eta herriko beste pertsona ezagun batzuen kasuak ere gehitu behar dizkiogu; adibidez, Galo Barrena eta Roque Astigarragarenak. Lehenengoa, Galo Barrena, Zelaieta baserrian gordeta egon zen uztailan, eta Ezkio-Itsasora egin zuen ihes Batzordeko hainbat kide baserri hartara bila joan baino pixka bat lehenago. Roque Astigarraga, berriz, Errezilgo Azketa baserrian egon zen gordeta Beasainera ihes egin zuen arte.



85 - Margarita taldea Donostiako Kasinoaren aurrean. (Gipuzkoako Artxibo Orokorra, GFA/Koldo Mitxelena Kulturunea).



86 - Ignacio Velaz Irazu. (Euskal Ikasketarako Fundazio Popularra).



87 - Pascasio Carasun Azagra. (Aranzadi Z.E./Roque Astigarraga funtsa).



88 - Cirilo Astigarraga Amenabar. (Euskal Ikasketarako Fundazio Popularra).

<sup>170</sup> 1622/37 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>171</sup> Ibid.

<sup>172</sup> 2330/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>173</sup> Ibid.

<sup>174</sup> 1290/37 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>175</sup> 2967/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>176</sup> 1682/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>177</sup> 685/36 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>178</sup> 1713/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>179</sup> 1622/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>180</sup> AIZPURU MURUA, M.: Antzinako Azpeititik Azpeiti berrira. (2011).

<sup>181</sup> 11023/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>182</sup> 114845/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>183</sup> 2630/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

## V. Zerrenda: Azpeitiko Fronte Popularraren Defentsa Batzordeak atxikita edukitako azpeitiar batzuk


IZENA	OHARRAK
Aizpuru Goenaga, Ignacio Maria	Soldadua.
Aizpuru Goenaga, Jose Maria	San Ignacio tertzioko erreketea. Zinegotzia 1939an. "Excautivos por España" ermandadeko kidea.
Aizpuru Goenaga, Juan Ignacio	
Altuna, Pablo	"Excautivos por España" ermandadeko kidea.
Arocena, Facundo	
Astigarraga Amenabar, Cirilo	"Carnicerito de Azpeitia", Azpeitiko harakina, esaten zioten toreroa. San Ignacio tertzioko erreketea. "Excautivos por España" ermandadeko kidea.
Beguiristain Echeverria, Luis	Azpeitiko epaitegiko epailea.
Beldarrain Ugalde, Jesus	Udaltzaina. San Ignacio tertzioko erreketea. "Excautivos por España" ermandadeko kidea.
Carasusan Azagra, Pascasio	Zinegotzia 1930eko otsailetik 1931ko apirilera. Adoración Nocturna elkarteko eta Azpeitiko Centro Católico taldeko kidea. Azpeitiko Udaleko idazkariak (1938)
Castiella Otaegui, Jose Maria	San Ignacio tertzioko erreketea. "Excautivos por España" ermandadeko kidea.
Echeverria Altamira, Ignacio	Azpeitiko Falangeko buruzagia. 1952an alkate.
Echeverria Taberna, Cruz Maria	1930ean alkate. Azpeitiko lehen Udal frankistako zinegotzia.
Egaña Otegui, Nicolás	San Ignacio tertzioko erreketea. "Excautivos por España" ermandadeko kidea.
Garayalde Zurutuza, Segundo	1936ko abuztuaren 24ean, Guadalupeko gotorlekutik Azpeitiko espetxera lekualdatutako apaiza.
Guereta Laugarica, Filemón	"Excautivos por España" ermandadeko kidea.
Iriarte Odriozola, Juan Jose "Saralle"	Zinegotzi 1931an, 1934an eta 1939an.
Mendaro, Jose Maria	Abadea.
Orbegozo Enbil, Julian	Azpeitiko Junta de Guerra Carlistako kidea. Falangeko kidea.
Odriozola, Josefa Antonia	
Segurola Iturrioz, Jose Antonio	
Sorazu Aizpitarte, Nazario	San Ignacio tertzioko erreketea.
Velaz Irazu, Ignacio	San Ignacio tertzioko kapitaina. "Excautivos por España" ermandadeko kidea.
Viquendi Zabaleta, Jose	San Ignacio tertzioko erreketea. Falangeren eskualdeko buruzagia eta zinegotzia 1939an. "Excautivos por España" ermandadeko kidea.

Hala eta guztiz ere, Defentsa Batzordeak atxilotutakoetatik hainbatak lekuko gisa gerra-kontseiluetan adierazpenak egin zituztenean nabarmendu zuten datuetako bat zera izan zen, harrapatu eta zaindu zituztenek tratu ona eman zietela<sup>184</sup>. Hala jakinarazi zuen Ignacio Velazek Gregorio Cortabariaren aurkako epaiketan<sup>185</sup>, baina, ondoren, Juan Jose "Sarallek" ere familiari jakinarazi zion tratu ona jaso zuela preso egon zen aldian<sup>186</sup>. Batez ere, Batzordeak presoak zaintzen jarri zituen pertsoneri esker izan zen ona tratua. Azpeitiar nazionalistak izan ziren zaintzaileak, batez ere EAJren eta ELAren inguruak, eta atxilotutako batzuekin eta, oro har, herriko karlisten jarraitzaileekin lotura estuak zituzten. Santiago Zudupe Echeverria izan zen haietako bat. Hainbat preso askatu zituen Santiagok Loiolako kuarteletik. Gainera, Ignacio Perez Arreguiri (Gipuzkoako diputatu tradizionalista ohia) eta haren familiari ere lagundu zien Donostiatik atera eta Azpeitian babes hartzen, Gipuzkoako hiriburuko ezkerreko pertsonak atxilotzeko arriskuan zeudela ikusita<sup>187</sup>.

Gertaera horrek Azpeitian garai hartan izandako beste gertaera aipagarri batera garamatza: Azpeitiak altxatu-takoen aldeko jende askori eman zion babesa. Azpeitian hartu zuten babes hainbat pertsona ezagunek; besteak beste, Ignacio Perez eta Julian Lojendiok<sup>188</sup>, baita Jose Artechek ere, Donostiatik ihes egitean, han bizi baitzen 1936an. Azpeitian hartu zuen babes Pio Salaverria EliceGUI itsasontzien armadore donostiarak ere, Pedro Arrue Larrañaga Defentsa Batzordeko kidearen etxean hain zuzen ere. Gipuzkoako Buru Batzarreko kide Andres Bereciartua azpeitiarra Donostian bizi zen, eta haren etxean "babes hartuta egon ziren hamabi lagun, seguruago egon zitezten. Haien artean Mirandako dukearen bi seme"<sup>189</sup>.

Azken finean, kolpisten aldekoek Azpeitian izan zuten barkaberatasunaren inguruan ezinbestean esan behar da ez Azpeitiko Defentsa Batzordeak, ezta Errepublikaren aldeko tokiko beste erakundeek ere ez zutela inor zauritu edo hil Azpeitian 1936ko uztailaren 18tik irailaren 20rako tartean.

Hori horrela, Francisco Barahona Hernandez guardia zibilak Avelino Moral Requetaren aurka abiarazitako auzian lekuko gisa eginiko adierazpenean honela dago jasota: "Mugimenduaren hasieran, itun moduko bat egin



**89 - Santiago Zudupe Echeverria.**  
(Hemendik ateratako argazkia: EGAÑA. I.: 1936, Guerra Civil en Euskal Herria).

<sup>184</sup> AGMG (Esp. 2279)/11023/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>185</sup> 11023/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>186</sup> MENDIZABAL ELIAS, A.: Azpeitiarrak Espainako gerran. Maria Dolores Odriozolaren lekukotza. (2006).

<sup>187</sup> AGMG (Esp. 2279).

<sup>188</sup> DE GAMBOA, J.M. eta LARRONDE, J.-C.: La guerra civil en Euzkadi: 136 testimonios inéditos recogidos por Jose Miguel de Barandiaran. (2005).

<sup>189</sup> Ibid.



zuten ezkerrekoen eta eskuinekoen artean, odolik isuri ez zedin eta errepresaliarik egon ez zedin, berdin batzuek zein besteek irabazi. Ez zen sintoma izatetik harago iritsi, kanpotarren etorreraren ondorioz porrot egin baitzuen<sup>190</sup>. Gai horren inguruan hainbat adierazpen daude, baina Azpeitian, militarren altxamendua hasi zenean, Guardia Zibilaren komandante zenak eginiko adierazpena nabarmendu nahi izan du. Ondoren, kolistekin batera borrokan ari zela gerrako frontean zauritu zuten. Guardia zibilaren esanetan bada, hala ere, zehazgabatasun bat; izan ere, aipatutako akordio horrek ez zuen porrot egin, aipatutako aldiari Azpeitian ez baitzen izan zauritu edo hil zuten eskuindarririk. Donostiako 4. epaimahai militarrek Jose Nazabalen aurkako auzian honako hau adierazi zuen: "Azpeitian ez zela izan ez erailketarik, ez basakeriazko ekintza nabarmenik"<sup>191</sup>.

Beraz, Francisco Barahonak adierazitakoak baliteke 1936ko irailaren 20an 11 urteko Jose Sarasua Uranga "Kukubiltxo" hil izanari egitea erreferentzia. Erreketek batek hil zuen mutikoa Azpeitiko sarreran, lagun batzuekin zegoela. Edo agian, adierazpen horien egileak hilaren 20an, egun berean, Iraetan (Zestoako udalerrian) sei erreketek fusilatu zituztenekoari egingo zion erreferentzia. Ordura arte Azkoitian izan zituzten preso erreketek haiek bertako Guardia Zibilaren altxamenduan parte hartu zutelako.

Hala ere, Errepublikaren aldekoek gutxienez hiru azpeitiar fusilatu zituzten, baina Azpeititik kanpo. Jose Joaquín Aztiria-Zabala Anchieta izan zen haietako bat, Deban bizi zen karlista eta bertako alkate izana. Atxilotu eta Bilboko Los Ángeles Custodios espetxera eraman zuten, eta 1936ko azaroaren 5ean fusilatu zuten<sup>192</sup>. Horiez gain, Felicitas Cendoya eta Concepción Odriozola mojak ere hil zituzten, lehenengoa Madrilen eta bigarrena Valentzian<sup>193</sup>.




90 - Jose Joaquín Aztiria-Zabala Anchieta. (Uztartia aldizkaria).

### 3.4. Errepublika-garaiaren amaiera Azpeitian...

*"Jokatu zintzo, seme-esan zion ama batek semeari-, jokatu zintzo eta armak iristean, egin borroka konfiantzaz, jo eta ke, galdu duzuen lurra berreskuratzeko."*<sup>194</sup>

1936ko irailaren 7an, astelehenean, arratsaldeko seietan egin zuten 1933ko apirilean demokratikoki hautatutako Azpeitiko Udaltzatzen azken osoko bilkura. Egun hartan bertan, Azpeitiko Komandantziak ohar bat igorri zuen Eusko Jaurlaritza berehala era zedin eskatzeko eta errepublikaren defendatzaileen artean zegoen kaosa salatzeko. Ordutik aurrera egoera larritu egin zen fronteko lerroan, altxatutako tropek aurrera egin ahala. Hilaren 13an Donostia erori zen. Ordurako bertatik ihes eginak ziren herritarren ia erdiak<sup>195</sup>.

Irailaren 19an Bidanira iritsiak ziren eta, ondoren, Errezilera joan ziren. Azpeitian, hilaren 19ko goiz hartan bertan, CNTko miliziano talde bat azaldu zen, eta hark estutu egin zuen herriko kaleetako egoera, erlijio-zentzoren bat erasoko ote zuten beldurrez. Era berean, beldurra zabaldu zen, Azpeitiko espetxean zein Loiolako kuartelean preso zeuden aurkako erasoak egingo ote zituzten. Defentsa Batzordearen eskumenekoak ziren haiek, bai Azpeitiko espetxean, bai Loiolako kuartelean preso zeudenak. Hura ikusita, Batzordeko arduradun gorenetakoa zen Gregorio Seguiolak presoak askatzeko agindua eman zuen<sup>196</sup>.



91 - Emilio Mola jeneralaren aginduz hegazkin militarretatik botatako propaganda. (Sabino Arana Fundazioa; Irujo 13-1).



92 - Matxinatuak herrira sartu aurreko egunetan Azpeitiko udaletxeko arkupetan jarritako hondar zakuak. (El Diario Vasco, 1936ko irailak 23).

Hala ere, Azpeitiko Komandantziaren presakako ebakuazioaren ondorioz, espetxeratutako batzuk Loiolan gelditu ziren harrapatuta. Badirudi, hilaren 19tik 20rako gauean, Santiago Zudupe Defentsa Batzordeko kideak espetxera sartzeko atea behartu eta toki seguruan ezkutatu zituela han zeuden presoak, Loiolako kuartelaren inguruan zebiltzan CNTko taldeak presoek eraso egiteko arriskua zegoela ikusita<sup>197</sup>.

CNTko kide haiek edo, agian, beste talderen bat, Loiolako kuartelean azaldu ziren hilaren 19ko goizean bertan, Azpeitiko Komandantzia instalazioak desmuntatzen hasi ziren garai berean. Antonio Loinazek idatzitako oroitzapenetan honako hau adierazi zuen: "CNTko komandante bat Loiolara joan eta Errezil ingurua ezagutzen zuten 2 gudari eta 2 sendagile eskatu zituela, Bidanitik zetozen erreketeei aurre egiteko". Antonio izan zen aukeratu zutenetako bat. Handik ordu batzuetara itzuli zen batailoiko erdiekin batera, "tiro bakar bat ere bota gabe", eta gainerakoek Hernio aldera jo zuten<sup>198</sup>.

<sup>190</sup> 2357/38 urgentziatzeko prozedura summarisimoa (AIRMN).

<sup>191</sup> 1622/38 urgentziatzeko prozedura summarisimoa (AIRMN).

<sup>192</sup> ECHEANDIA, J.: *La persecución roja en el País Vasco. (1945).*

<sup>193</sup> AIZPURU MURUA, M.: *Antzinako Azpeititik Azpeiti berrira. (2011).*

<sup>194</sup> AZPIAZU OLAIZOLA, I.: *7 meses y 7 días en la España de Franco. (1964).*

<sup>195</sup> JIMENEZ DE ABERASTUI CORTA, L. M.: *Crónica de la guerra en el norte. 1936-1937. (2003).*

<sup>196</sup> DE GAMBOA, J.M. eta LARRONDE, J-C.: *La guerra civil en Euzkadi: 136 testimonios inéditos recogidos por Jose Miguel de Barandiaran. (2005).*

<sup>197</sup> AGMG (2279).

<sup>198</sup> LOINAZ ETXANIZ, A.: *Nire Oroitzapenak. (2001).*

Azkenik, irailaren 20an, altxatutakoen eskuetan erori zen Azpeitia. Igandea zen egun hura, eta igandero bezala hogeita hamar meza inguru eman zituzten goizean lehen orduan hasita. Goizeko 10:30ak inguruan azaldu zen altxatutakoen lehen blindatua, dozena bat erreketek eskoltatuta<sup>199</sup>, eta handik gutxira Garmenditik jaitsi eta Hartzubiako eta Enparan auzoko inguruetatik bidean aurrera eginez, Lakarko tertzioko tropa osoa sartu zen herrian. Kanpaiak jo zituzten, eta okupatzaileen aldeko karlistak kalera atera ziren harrera egitera. Plaza Txikira iritsi bezain laster, batzokira sartu eta dena txikitu zuten, baita inguruko beste negozio batzuk ere. Ondoren, ikurrina eta *Emakume* elkartearen intsignia erre zituzten, plaza hartan bertan. Gainera, udaletxeko balkoian jarrita zegoen bandera errepublikanoa eraitsi eta Nafarroakoa jarri zuten<sup>200</sup>.



93 - Lakarko tertzioko borrokalari erreketekak. (www.requetés.com).

## ... eta biktimak

*"Agur ama –egin zuen oihu gazte sendo batek-. Laster itzuliko gara. Izan fedea gudan, lortuko dugu gure herriaren askatasuna."*<sup>201</sup>


Azpeitiko gizarteak jasandako lehen ondorio traumatikoa ehunka herritar herritik joan zirela izan zen, kolpistek haien aurkako errepresaliak hartuko zituzten beldurrez. Hilaren 19an, larunbata, Azpeitiko Gerra Batzordeak bando bat atera zuen erreketek gertu zebiltzala eta herritik ihes egiteko trenak jarri zituztela ohartarazteko. Orduan hasi zen Azpeitiko ebakuazioa, eta ihes egitea erabaki zutenek bertan gelditutako familiakoei

agur esan behar izan zieten. Emakumeek, umeek eta adinekoek ere ihes egin zuten, baina proportzioan, ihes egindakoen artean gehiago izan ziren Defentsa Batzordean ibilitako edo altxamendu militarren aurkakotzat har zitezkeen gizonak. Kolpisten aurka borrokan jarraitzeko prest zeuden guztiek ere, jakina, ihes egin zuten. Azpeitia baino lehen okupatu zituzten Gipuzkoako beste tokietatik ihes egindakoengandik iristen zitzaizkien berriak beldurgarriak ziren eta, horregatik, azpeitiar askok egin zuten ihes hilaren 19an 15:00etan Azpeitiko geltokitik abiatu ziren bi trenetan sartuta<sup>202</sup>. Ignacio Artecheren arabera, 800-1.000 azpeitiarrek egin zuten herritik ihes<sup>203</sup>.

Gehientsuenak Bizkaian babestu ziren, eta Iparreko frontea erori zenean Azpeitiara itzuli ziren. Halere, lurralde urrunetan babestu zirenak (Ameriketa, Filipinak, Ingalaterra...) denbora askora itzuli ziren edo ez ziren inoiz itzuli. Ingalaterran babestu ziren, adibidez, PEDROSA MENDOZA adin txikiko anai-arrebak (Alejandro, Cecilia, Lolita eta Jesus), zeinak Bilboko portutik abiatu ziren 1937ko maiatzaren 23an<sup>204</sup>. Haur hauen exodoaren zergatia aitak, Gabriel Pedrosak, Urolako trenbideko langileak, mugimendu komunistarekiko zeukan gertutasuna izan zen. Bestalde, gutxienez azpeitiko erbesteratuetatik ehuneko bat desagertu egin zen, eta ez zen gehiago etxera itzuli: Faustino Azpiazu Arrieta "Indotarrak", esaterako<sup>205</sup>.



94 - Gipuzkoako herritar zibilak Bizkai aldera ihesi. (EAH, Lehendakaritza Sailaren Funtsa).



95 - Faustino Azpiazu. (Kontxi Azpiazuak utzitako irudia).



96 - Kontxi Azpiazu (ezkerretik lehena) eta Lolita Pedroa (eskubitik lehena). (Kontxi Azpiazuak utzitako irudia)..

<sup>199</sup> AZPIAZU OLAIZOLA, I.: *7 meses y 7 días en la España de Franco.* (1964).

<sup>200</sup> MENDIZABAL ELIAS, A.: *Azpeitiarrak Espainako gerran. Hainbat testigantza.* (2006).

<sup>201</sup> AZPIAZU OLAIZOLA, I.: *7 meses y 7 días en la España de Franco.* (1964).

<sup>202</sup> AZPIAZU OLAIZOLA, I.: *7 meses y 7 días en la España de Franco.* (1964).

<sup>203</sup> MENDIZABAL ELIAS, A.: *Azpeitiarrak Espainako gerran. Ignacio Artecheren testigantza.* (2006).

<sup>204</sup> Aranzadiko artxiboa.

<sup>205</sup> *Testimonio familiar.*

Beste herritar asko, ordea, herrian gelditu ziren. Bertan gelditu ziren, nola ez, batez ere karlisten aldekoak. Baina gelditu ziren ideologia nazionalistako pertsonak ere, esaterako, Iñaki Azpiazu apaiza, "mugimendua komunisten aurkako bakarrik zela uste zuelako"<sup>206</sup>. Era berean, Azpeitian gelditzea erabaki zuen Ciriaco Aguirre alkateak ere. Ignacio Perez Arreguik konbentzitu zuen bertan geldi zedin, gerra lehertu zenez jokabide ona izan zuela eta bakean utziko zutela esanez<sup>207</sup>. Oker zebilen diputatu ohi tradizionalista, hurrengo lau urteak espetxean igaro baitzituen Ciriaco, "matxinadari laguntzearen" delitua egin zuelakoan<sup>208</sup>.

Baina altxatutakoek Azpeitiaren aurka eginiko erasoaren eta ondoren etorri zen konkistaren ondorio larrienak jasan zituztenak, zalantzarik gabe, bizia galdu zutenak izan ziren. Jose Sarasua Uranga "Kukubiltxo" izan zen lehena<sup>209</sup>, 11 urteko umea. Nicolas Aguirre lagunarekin jolasean zebilela hil zuten. Nicolas, berriz, zauritu egin zuten. Irailaren 20an, 11:00k aldera, bititoki zuten Enparan gain baserriaren inguruan zebiltzan jolasean. Gertatutakoa CNTko kideei leporatu zieten urte askoan, esanez, gaztetxoari erreketea zelakoan egin ziotela eraso, alkandora urdina jantzita zeramalako. Hala ere, 1936ko irailaren 20an, goizeko 11:00etan, CNTkoak jada ez zeuden Azpeitian. Aldiz, une hartantxe bertan sartu ziren erreketek herrian Enparan auzotik barrena, beraz haiek egin zieten tiro Joseri eta Nicolasi, ihes egitera zihoazela pentsatuta<sup>210</sup>.

Bestalde, Azpeitiaren aurkako bonbardaketetan gutxienez 3 zibil hil eta beste bat zauritu zituzten, nahiz eta herrian, gerra hasi zenetik, aireko erasoetatik babesteko babeslekuak jarrita egon. Gai horri dagokionez, Defentsa Batzordeko hainbat kidek, uztailaren amaieratik hasita, hondar-zakuak ekarri zituzten Zarauztik, babeslekuak egiteko, baina babesleku haietako asko baserrietako ukuiluak ziren, besterik gabe. Era berean, Enparan kalearen amaierako "Saralle" sutegia eta Loiolako santutegiko sotoak ere, presaka babes hartzerantz joateko erabiltzen zituzten azpeitiarrek sirenen eta kanpaien bidez aireko armada gertu zebilela abisatzen zieten<sup>211</sup>.

Nolanahi ere, hiru hildakoak, heriotza-akten arabera<sup>212</sup>, 1936ko irailaren 21ean hil ziren, kolpistak Azpeitian sartu eta hurrengo egunean. Ez dakigu, ordea, "hegazkin txiki batek" hilaren 21ean bertan edo aurreko egunean (hilaren 20a baino lehenago ere izan zitekeen) bota ote zituen bonbak herrira. Bomba bat Soreasuko San Sebastian parrokia gertu erori zen, Txaribar inguruan, eta beste bat Loiolan. Gertaera haiek hilaren 21ean gertatu baziren, oso arraroa da abazio frankistek aurreko egunetik arazorik gabe kontrolpean zuten udalerrri bateko hainbat toki bonbardatu izana, beraz, ezin da baztertu bonbardaketa aireko armada errepublikanoak egin izanaren aukera. Kasua hau balitz, heriotza ziurtagiriak ez balira zehatzak eta bonbardaketa hilaren 20a baino lehen gertatu izan balitz, hildako hiru azpeitiarrak matxinatuen abazioaren biktimak izan zirela baieztatu ahal izango litzateke.

Are gehiago lehergailuak nora bota zituzten aintzat hartzen badugu. Hala ere, komeni da aipatzea 1936ko irailaren 20aren inguruan, egun haietan, nolabaiteko kaos administratiboa sortu zela, kolpisten tropak gertu zeudelako batetik, eta ehunka azpeitiarren ebakuazioagatik, bestetik. Beraz, beste udalerrri batzuetan ere gertatzen den bezala, baliteke heriotza-erregistroei buruzko datuak okerrak izatea, aipatu dugun nahasmendu horregatik edo nahita oker jarri zituztelako. Kasua hau balitz, heriotza ziurtagiriak ez balira zehatzak eta bonbardaketa hilaren 20a baino lehen gertatu izan balitz, hildako hiru azpeitiarrak matxinatuen abazioaren biktimak izan zirela baieztatu ahal izango litzateke.



97 - Jose Sarasua Uranga "Kukubiltxo".  
(Anastasia Sarasua Uranga utzitako argazkia).



98 - Emparangain baserria, 1915. (Gipuzkoako Artxibo Orokorra, GFA/Indalecio Ojanguren).

<sup>206</sup> DE GAMBOA, J.M. eta LARRONDE, J.-C.: *La guerra civil en Euzkadi: 136 testimonios inéditos recogidos por Jose Miguel de Barandiaran*. (2005).

<sup>207</sup> URKIA, J. M. (Coord.): *Jose de Arceche, un hombre de paz*. (2006).

<sup>208</sup> 872/37 urgentziak prozedura sumarissima (AIRMN).

<sup>209</sup> Azpeitiko Erregistro Zibila. 37. liburukia; 64. zk.; 1. orria.

<sup>210</sup> MENDIZABAL ELIAS, A.: *Azpeitiarrak Espainako gerran. Hainbat testigantza*. (2006).

<sup>211</sup> *Ibid.*

<sup>212</sup> Azpeitiko Erregistro Zibila. 37. liburukia.

## BONBARDAKETEN BIKTIMA IZANDAKO AZPEITIARRAK:

### ARRUTI ARRILLAGA, BERNABE

Azpeitiarra zen eta Santiago kalean bizi zen. Raimundo Bereciartuarekin batera zebilen Bernabe oinez, herriko hiltegiaren inguruan, Azpeitiko hilerrirako bidean, eta gutxienez bonba bat erori zitzaizen gainera. Espartingilea zen lanbidez, ezkongabea eta 19 urte zituen. Heriotza-aktak dio etxean hil zela<sup>213</sup>.

### BERECIARTUA ARIZAGA, RAIMUNDO

Bernabe bezalaxe, "hegazkin batetik botatako bonbak egindako metraila - zaurien ondorioz" hil zen. Azpeitian jaioa zen eta Azpeitiaren inguruko Txaribar auzoan bizi zen. Inguru hartan bota zuten biak hil zituen bonba. 59 urte zituen Raimundok, Manuela Guridi Cincunegirekin ezkontuta zegoen eta hiru seme-alaba zituzten<sup>214</sup>. Ondoren, 1936ko azaroaren 9an Udalean eginiko aktetan jarri zuten, Raimundo, "gorrien hegazkinek botatako bonba batek hil zuela"<sup>215</sup>.

### LARRAÑAGA ZABALETA, JOSE MARIA

Benito semearekin batera Loiolako santutegira babes bila korrika zihoala hil zuten Jose Maria. Antza denez, momentuan bertan hil zen<sup>216</sup>, "bonba baten leherketak eragindako zaurien ondorioz", baina heriotza-aktak dio Erruki Etxean hil zela irailaren 21ean. Espartingilea zen lanbidez eta azkoitiarra izan arren, Loiolako "Vista Alegre etxean" bizi zen familiarekin Jose Maria. 38 urte zituen, Maria Bereciartua Gogorza zuen emaztea eta hiru seme-alaba zituzten: Jose Manuel, Benito eta Miren Genobeba<sup>217</sup>.



99 - Jose Maria Larrañaga Zabaleta.  
(Miren Larrañagak utzitako argazkia).

### LARRAÑAGA BERECIARTUA, BENITO

Aita hil zion bonbak zauri larriak eragin zizkion Benitori. Dirudienez, bizi osorako ondorioak gelditu zitzaizkion metraila-zaurien ondorioz, saihestetan gelditu baitzitzaizkion metraila-zatiak. 11 urte zituen artean Benitok<sup>218</sup>.



100 - Benito Larrañaga Bereciartua.  
(Miren Larrañagak utzitako argazkia).



101 - Erreketek Azpeitiko plaza nagusian, 1936ko irailaren 20ko konkistaren ondoren. (Martinez inprimategiak utzitakoa).

"Agintean gaude eta agintean egongo gara". Hitz horiek esan zituen Cruz Maria Echeverria Tabernak karlistek 1933ko apirilko udal-hauteskundeetan porrot handia izan ondoren. Cruz Maria Echeverria bera ere aurkeztu zen hauteskunde haietan, baina ez zuen ordezkaritza lortzeko herritarren aldetik behar zen gutxieneko babesa lortu<sup>219</sup>. Ez zebilen oker ordea Azpeitiko lehen Udal frankistako zinegotzia. Francisco Franco Bahamonde militar kolpistak eta haren aldekoek gidatutako diktaduraren mende egon zen Azpeitia 1936ko irailaren 20an hasi eta hurrengo 39 urteetan. Errepresio-aldi luzearen hasiera izan zen hura.

<sup>213</sup> Azpeitiko Erregistro Zibila. 37. liburukia; 67. zk.; 4. orria.

<sup>214</sup> Azpeitiko Erregistro Zibila. 37. liburukia; 66. zk.; 3. orria.

<sup>215</sup> AUA (Sig. 276-02; Kod. 12).

<sup>216</sup> Familiako lekukotza.

<sup>217</sup> Azpeitiko Erregistro Zibila. 37. liburukia; 65. zk.; 2. orria.

<sup>218</sup> Familiako lekukotza.

<sup>219</sup> AIZPURU MURUA, M.: Antzinako Azpeititik Azpeiti berrira. (2011).

**VI. Zerrenda: Erbesteratutako eta errefuxiatutako azpeitiarrak**

IZENA	JAIOTZA (DATA, LEKUA)
ABARRATEGUI, IGNACIO (INIXIO)	Azpeitia
AGUIRRE ECHEVERRIA, JOSE MANUEL	Azpeitia
AGUIRRE ODRIUZOLA, LUIS	1913
AIZPITARTE AROCENA, FRANCISCO	1917, Azpeitia
AIZPITARTE INCHAUSTI, ANGEL	1917
AIZPITARTE IPARRAGUIRRE, NAZARIO	Azpeitia
AIZPITARTE, JUAN IGNACIO	
AIZPURU LAPEIRA, FELIX	
AIZPURU SARASUA, JOSE	1910, Azpeitia (Mendibil baserria)
ALBERDI, BASILIO "ALDATXAR"	Azpeitia
ALBERDI, JOSE MANUEL	Azpeitia
ALBIZURI EPELDE, ISIDRO	1917
ALCIBAR JAUREGUI, CARMEN	
ALCIBAR JAUREGUI, DOMINGA	
ALCIBAR JAUREGUI, MANUEL	
ALCIBAR JAUREGUI, MARIA	
ALTUNA ASTIGARRAGA, ANGEL	1913, Azpeitia
ALTUNA ASTIGARRAGA, MARIA	1915, Azkoitia
ALTUNA, JUANITO	Azpeitia
ALTUNA, MARIA	Azpeitia
AMIANO ARREGUI, ANTONIO	
AMIANO ARREGUI, ENRIQUE	
ANSOLA (ANCHOLA) ERQUICIA, GREGORIO	Azpeitia
ANSOLA (ANCHOLA) ERQUICIA, GUILLERMO	Azpeitia
ARAMENDI GOENAGA, LINO ("KUTXILLO")	1917, Azpeitia (Altuneko, Urrestilla)
ARANETA MUGURUZA, JOSE	1918
ARANGUREN OLAZABAL, JUANA	Azpeitia (Arauntza baserria)
ARANGUREN OLAZABAL, MARIA	Azpeitia (Arauntza baserria)
ARENAS EGAÑA, LUIS	1916, Azpeitia
ARRATIBEL UGARRIZA, IGNACIO	1917
ARREGUI ARRIZABALAGA, IGNACIO "IXIXTI"	Azpeitia
ARREGUI ARRIZABALAGA, PAUL "IXIXTI"	Azpeitia
ARREGUI OLAZABAL, JOSE ANTONIO	1873, Azpeitia
ARREGUI VENTURA, GAUDENCIO	1895, Azpeitia
ARREGUI, LINO	Azpeitia
ARRIETA ZUBIMENDI, MARIA	Azpeitia
ARRIETA ZUBIMENDI, MAXIMINA	Azpeitia
ARRITOQUIETA ALZA, RUFINO "ALABIER"	1915, Zizurkil
ARRUE LARRAÑAGA, IGNACIO	1917, Azpeitia
ARRUE LARRAÑAGA, JUAN	1918
ARRUE LARRAÑAGA, PEDRO	Azpeitia
ARRUTI GARAGARZA, JOSE ANTONIO	1904-1905, Azpeitia?
ARRUTI LIZARRALDE, JOSE	Orio
AZPIAZU ARRIETA, FAUSTINO	1884, Errenteria
AZPIAZU GOMEZ, CARMEN	Azpeitia
AZPIAZU GOMEZ, ELEUTERIO	1918, Azpeitia
AZPIAZU GOMEZ, KONTXI	Azpeitia
AZPIAZU GOMEZ, ROQUE	1909, Azpeitia
AZPIAZU OLAIZOLA, IÑAKI	1910, Azpeitia
AZPIAZU OLAIZOLA, LUIS	

BIZITOKIA	LEKUA
Azpeitia (Larrumbe-txiki baserria)	Bizkaia
Azpeitia	Bizkaia edo atzerri
Azpeitia	
Azpeitia (San Inazio kalea)	
Azpeitia (Txaiabar)	
Azpeitia (San Inazio kalea, 12)	
Azpeitia (Oinatz)	
Azpeitia	Lekeitio
Azpeitia (Mendibil baserria)	Bilbo
Azpeitia	Bizkaia
Azpeitia (Tolare)	Bizkaia
Azpeitia (Beristain)	
Azpeitia	Girona
Azpeitia	Girona
Azpeitia	Girona
Azpeitia	Girona
Azpeitia	Bizkaia
Azpeitia	Bilbo
Azpeitia	Bizkaia
Azpeitia	Bizkaia
Azpeitia	Burdeos
Azpeitia	Burdeos
Azpeitia	Bizkaia
Azpeitia	Bizkaia
Azpeitia (San Inazio kalea)	
Azpeitia	
Azpeitia	Donostia
Azpeitia	Donostia
Azpeitia	Frantzia
Azpeitia (Bustinzuri)	
Azpeitia	Bizkaia
Azpeitia	Bizkaia
Ordizia	Bartzelona
Azpeitia	Donibane Lohizune
Azpeitia	Bilbo
Azpeitia	Bizkaia
	Bizkaia
Azpeitia (Eliz kalea)	Bilbo
Azpeitia (Enparan kalea)	
Azpeitia	
Azpeitia	Bilbo
Urrestilla	Bilbo
Azpeitia (Eliz kalea 32, 2º)	Bilbo
Azpeitia	Desagertua
Azpeitia	Aizarnazabal
Azpeitia (Enparan kalea)	Bilbo
Azpeitia	Aizarnazabal
Azpeitia (Enparan kalea)	Bizkaia
Azpeitia	Lille (Frantzia)/Argentina
Azpeitia	Frantzia

IZENA	JAIOTZA (DATA, LEKUA)
AZPILLAGA ZUBILLAGA, LUCIO	1916, Azpeitia
AZPILLAGA, JOSE LUIS	
BALLONA ANSOATEGUI, VICENTE	Arrasate
BALTASAR PAGES, RICARDO	1887, Tolosa
BARBER, FELISA (TERESA)	
BELDARRAIN UGALDE, RUPERTO	Azpeitia
BERECIARTUA AROCENA, EUGENIO	1891, Azpeitia
BERECIARTUA AROCENA, SEGUNDO	1891, Azpeitia
BIDASOLO LARRAR, PAULINA	Azpeitia
CAMPOS ECEIZA, JUAN	
CAMPOS LOINAZ, JOSE	1916, Azpeitia
CAMPOS LOINAZ, VICTORIANO	
CENDOYA UZCUDUN, JACINTO	1916, Azpeitia
CENDOYA EGUIGUREN, LUCIO	1915, Azpetia
CHINCHURRETA BELOQUI, DOMINGO	
CHINCHURRETA RECALDE, JOSE	1919, Andoain
CORTA OYARZABAL, JUAN	1917
CORTA ZULOAGA, IGNACIO	Azpeitia
CORTA ZULOAGA, JOSE MARIA	Azpeitia?
CORTABARRIA LAZCANO, ESTEBAN	
CORTABARRIA LAZCANO, GREGORIO	
ECENARRO URIBE, ANGEL	Donostia
ECHEVERRIA GARATE, MANUEL	Azpeitia
EGUIGUREN UCIN, REMIGIO	1864
AIZAGUIRRE GARMENDIA, FAUSTO	
ELIAS UNANUE, FRANCISCO	Azpeitia
ELORZA ALBERDI, EUSEBIO	
ELUSTONDO, JOSE	Azpeitia
EREÑAGA BEAIN, IGNACIO	1918, Azpeitia
ERRASTI ARIZTONDO, ANASTASIO "ATXERO"	
ERRASTI BERECIARTUA, VALENTIN	1915, Azpeitia
ERRASTI EGUIGUREN, FRANCISCO "TRUKUMAN"	1903, Aizarnazabal (Palankadi baserria)
ERRAZKIN, JULIAN	Azpeitia
GARATE ARRUTI, ASENSIO	Azpeitia
GARMENDIA ERRASTI, JOSE MARIA "KOIPE"	Azpeitia
GOENAGA ALBERDI, LUIS	Azpeitia (Ormaetxe baserria)
GOENAGA AMILIBIA, DAMIAN "TXABIER"	Azpeitia
GOENAGA GURRUCHAGA, SEBASTIAN	1917
GOICOECHEA CENDOYA, JUAN "ORKAZARRE"	1914, Azpeitia (Orkazagirre baserria)
GOICOECHEA CENDOYA, PIO "ORKAZARRE"	Azpeitia
GOMEZ AZCUNE, ISABEL	Burgos
GURIDI URANGA, FELICIANO	1914, Azpeitia
GURRUCHAGA ANSOLA, ILDEFONSO	1902, Azpeitia
GURRUCHAGA ECHEVERRIA, BIENVENIDO JUAN	
GURRUCHAGA PULDAIN, ANTONIO	1917
IDIAZABAL AIZPURUA, ANTONIO	Balmaseda
IBARZABAL, LUIS	Azpeitia
IBARZABAL AMENABAR, FRANCISCO	Azpeitia
IBARZABAL AMENABAR, PEDRO	
IBOFF LESMA, MANUEL	1917
ILARRAMENDI CAPEROCHIPI, JESUS	1917, Azpeitia

BIZITOKIA	LEKUA
Azpeitia	
Azpeitia	Bizkaia
Azpeitia	Bizkaia
Azpeitia	
Azpeitia	Sevilla
Azpeitia	Burgos
Azpeitia	Amerika
Azpeitia	Amerika
Azpeitia	Elorrio
Azpeitia	
Azpeitia	Frantzia
Azpeitia (Santiago kalea)	Frantzia
Azpeitia	Bizkaia edo atzerri
Azpeitia (Enparan kalea)	Frantzia
Azpeitia	Bilbo/Barcelona
Azpeitia	Bilbo
Azpeitia (Eliz kalea)	
	Bilbo
Azpeitia	
Azpeitia	
Azpeitia	Bilbo
Azpeitia	
Azpeitia	Bilbo
Azpeitia	Lekeitio /Frantzia
Azpeitia	Bizkaia
Azpeitia	Bizkaia
Azpeitia	Bilbo
Azpeitia	Paris
Tolosa	Casablanca (Marruecos )/Donibane Lohituzne, Lapurdi/Tarbes (Frantzia)
Azpeitia	Bizkaia
Azpeitia (Enparan kalea)	Frantzia
Azpeitia	Bizkaia
	Bilbo
	Trucios
Azpeitia	Bizkaia
Azpeitia (Ormaetxe baserria)	Bizkaia
Azpeitia	Bizkaia
Azpeitia (Anchieta)	
Azpeitia (Orkazagirre baserria)	Iparralde
Azpeitia	
Azpeitia	Aizarnazabal
Azpeitia	Frantzia
Azpeitia	Buenos Aires (Argentina)
Azpeitia	Bizkaia
Azpeitia (Eliz kalea)	
Azpeitia	Bizkaia
Azpeitia	Bizkaia
Azpeitia	Bizkaia
Azpeitia	
Azpeitia (Bustinzuri)	
Donostia	



IZENA	JAIOTZA (DATA, LEKUA)
IMAZ BENGOCHEA, MARIANO	
IRAOLA GOICOECHEA, ROQUE	
IRIARTE AGUIRREZABAL, MIGUEL	Azpeitia
IRIONDO ARAMBURU, JUAN "TXORITXERO"	Azpeitia
ITURRALDE BERECIARTUA, JOSE CRUZ	1918, Azpeitia
JAUREGUI MUGURUZA, ISIDRA	Azkoitia
JUARISTI ECEIZA, ANTONIO	Azpeitia
JUARISTI ECHEVERRIA, SIMON	1915, Azpeitia
JUARISTI MENDIZABAL, SIMON	
LANDA AIZPURU, JESUS	Azpeitia
LANDA LAMARIANE, CASIANO	1917, Azpeitia
LAPEIRA MARTINEZ, JOSE	1916
LARRAÑAGA, ROQUE	Azpeitia
LARRAÑAGA ARRUTI, PRUDENCIO	1917, Azpeitia
LARRAÑAGA IRIARTE, RUFINO "KINTTELA"	1894, Azpeitia
LARRAÑAGA OLARTE, PIO	1901, Azpeitia
LARRAÑAGA USABIAGA, INOCENCIO	1901, Azpeitia
LARRAÑAGA ZABALA, JOSE	1918
LAZCANO URCELAY, JULIAN	Bergara/Oñati
LECHUGA BASTERRENEA, MANUEL	1910, Donostia
LIZARRALDE AZCUE, ILDEFONSO	1912
LIZASO MENDIZABAL, ISIDRO	1916-1917
LOINAZ ECHANIZ, JOSE	1910, Azpeitia (Eliz kalea)
LOINAZ GALARRAGA, CARMELO	1882, Azpeitia (Enparan kalea)
MACAZAGA BERISTAIN, IGNACIA	Zarautz
MARTIARENA IRIBARREN, FRANCISCA	
MENDIOLA, MANUEL (IMANOL)	Azpeitia
MONTERO ARRIZABALAGA, PABLO	1918
MORAL REQUETA, AVELINO	1879, San Asensio (La Rioja)
MUGICA CENDOYA, IGNACIO	1911
ODRIA ALTUNA, IGNACIO	1918
ODRIA EGAÑA, IGNACIO	Zestoa
ODRIOZOLA, ANTONIO	Azpeitia
ODRIOZOLA ALTAMIRA, DANIEL	1915, Azpeitia
ODRIOZOLA ECHEVERRIA, JOSE CRUZ	Azpeitia
ODRIOZOLA ECHEVERRIA, TOMAS "MALKORTXO"	Azpeitia
OLAIZOLA ALEGRIA, IMANOL "KONFITES"	1912, Azpeitia
OLAIZOLA ALEGRIA, MARIA DOLORES "KONFITES"	Azpeitia
OLAIZOLA BERISTAIN, LUIS	
OLAIZOLA ECHEVERRIA, ANTONIO "KONFITES"	Azpeitia
OLAZABAL, FERMIN "KAXKANTE"	Azpeitia
OLAZABAL GURRUCHAGA, MANUEL "POTZUTE"	Azpeitia
ORBEA, VICENTE "TXORITXERO"	Azpeitia
ORBEGOZO MACAZAGA, AINTTONI	Azpeitia
OYARZABAL, CECILIA	Azpeitia
OYARZABAL OYARZABAL, JOSE ANTONIO	Azpeitia
PEDROSA MENDOZA, ALEJANDRO	Azpeitia
PEDROSA MENDOZA, CECILIA	Azpeitia
PEDROSA MENDOZA, DOLORES	Azpeitia
PEDROSA MENDOZA, JESUS	Azpeitia
PUIGNAU MOLINET, RAFAEL	Villa de Castels D'Empuries (Girona)

BIZITOKIA	LEKUA
Azpeitia	
Azpeitia	Bilbo
Azpeitia	
Azpeitia	Bilbo
Azpeitia	Bizkaia
Azpeitia	Girona
Azpeitia	
Azpeitia (Bustinzuri)	Frantzia
Azpeitia	Bizkaia
Azpeitia (Nuarbe)	Bizkaia
Deba	
Azpeitia	
Azpeitia	Bizkaia
Azpeitia (Bustinzuri)	
Azpeitia	Bilbo
Azpeitia	Bilbo
Azpeitia	Bilbo
Azpeitia	
Azpeitia	
Azpeitia	Durango
	Bizkaia
Azpeitia	Bizkaia
Azpeitia	Baiona/Filipinas
Azpeitia	Baiona/Filipinas
Azpeitia	Bidania
Azpeitia	Girona
Azpeitia	
Azpeitia	
Azpeitia	Bilbo
Azpeitia	Bizkaia
Azpeitia	
Azpeitia	Bizkaia
Azpeitia (Telleie baserria)	Bizkaia
Azpeitia (Santo Domingo, 5)	Frantzia
Azpeitia (Malkorre baserria)	Bilbo
Azpeitia	Bizkaia
Azpeitia	Bizkaia
Azpeitia	Bizkaia
Azpeitia	
Azpeitia	Bizkaia
Azpeitia	Bizkaia
Azpeitia (Potzueta baserria)	Bizkaia
Azpeitia	Bizkaia
Azpeitia	Bidania
Matxinbenta	Bilbo
Azpeitia/Errezil	Amerika
Azpeitia	Ingalaterra
Azpeitia	Ingalaterra
Azpeitia	Ingalaterra
Azpeitia	Ingalaterra
Azpeitia	Donibane Lohizune/París (Frantzia)

IZENA	JAIOTZA (DATA, LEKUA)
QUEREJETA MENDIZABAL, ELEUTERIO	Azpeitia (Olaue baserria)
QUEREJETA OCINALDE, FRANCISCO	1911
QUINTANA LORENZO, MODESTO	Azpeitia
QUINTELA BAEZA, ANTONIO	
QUINTELA BAEZA, FERNANDO	
REZABAL ARANBURU, IGNACIO "POTXOLO"	1906, Montevideo (Uruguay)
SEGUROLA, GREGORIO "POTXOLO"	Andoain?
SOBRINO DOCTOR, RAMONA	
SOROZABAL ZULAICA, JOSE MARIA	Azpeitia
UNANUE, JUAN	Azpeitia
URANGA GURRUCHAGA, JOSE ANTONIO "BAKEO"	1913
URBIETA EIZMENDI, JESUS	1917, Azpeitia
URBISTONDO QUEREJETA, JOSE ANTONIO	1870, Aratz-Erreka (Azpeitia)
URDALLETA UZCUDUN, IGNACIO "KATRAN"	1915, Azpeitia
URRUZOLA ZUBIZARRETA, JOSE	
VALVERDE ZUBIARRAIN, JOSE	Donostia
VIQUENDI OTEGUI, VALENTÍN	1908, Azpeitia
VIQUENDI ZABALETA, JOSE	1909, Azpeitia
ZUBIAURRE, FIDEL	Azpeitia
ZUBIAURRE JAUREGUI, IGNACIO	Azpeitia
ZUBIAURRE JAUREGUI, JOSE MARIA	Azpeitia
ZUBIMENDI OLAIZOLA, IGNACIO	1917, Azpeitia (Larre baserria)
ZUBIZARRETA IRIBAR, JOSE	1911



102 - Ertzain bat erbestera abiatzeko prest zegoen haur talde bati laguntzen. (Gerra Zibila Euskadin. DEIA).

BIZITOKIA	LEKUA
Ordizia	Bilbo
Azpeitia	Bizkaia
Donostia	Bilbo
Azpeitia	Bilbo
Azpeitia	Bilbo
Azpeitia	La Rosaire
Azpeitia	Londres
Azpeitia (Enparan kalea)	
Azpeitia	Bizkaia edo atzerri
Azpeitia	Bizkaia
Azpeitia (Urrestilla)	Bilbo
Azpeitia (Buena Vista)	Bizkaia
Azpeitia (Urrestilla)	Cantabria
Azpeitia (Eliz kalea)	Bizkaia
Azpeitia	
Azpeitia	Bilbo
Azpeitia	Bizkaia
Azpeitia (Enparan kalea, 38)	Durango
Azpeitia	Bizkaia
	Bilbo
Azpeitia	Bilbo
Azpeitia	Bizkaia
Azpeitia	



103 - 1938. urtean Manuel de Irujok Katalunian zeuden errefuxiatu euskaldun batzuei eginiko bisita. (La Guerra Civil en Euskadi. DEIA).





**Errepresioa AZPEITIAN  
eta azpeitiarren aurka  
lehen FRANKISMOAN**

**4.**

*"Borroroen inguruko gaizki-ulertua dela eta, gizateriak gutxi egingo luke aurrera, eta moralak are gutxiago irabaziko luke biktimen bizko deiadarra isilpean itotzen utziz gero."*<sup>220</sup>

**A** Itxatutako tropak 1936ko irailaren 20an Azpeitian sartu bezain pronto, tokiko Junta de Guerra Carlista delakoa eratu zuten Roque Astigarraga Echanizek eta Casto eta Julian Embil anaiek. Aldi berean, Azpeitiko Komandantzia Militarra antolatu zuten. 1937. urtean hasierara arte, Emilio Gómez del Villar Lakarko tertzioko militarak zuzendu zuten eta, ondoren, Jose Solchaga Zala<sup>221</sup> komandante nafarrak. Bi organo horiek izan ziren ustez kolpisten aurkakoak ziren (edo, besterik gabe, haien senideak) azpeitiar guztiak jazartzearen, espeteratzearen eta zigortzearen arduradunak (kontuan izan behar da ehunka herritarrek egin zutela ihes udalerritik). Zehazki, Junta de Guerra izenekoak egiten zituen errepresaliatu beharreko pertsonen zerrendak. Ondoren, "el tío cojones" deitzen ziotenak (hala deitzen omen zioten Azpeitian komandante militarri hitz hori askotan errepikatzen zuelako)<sup>222</sup> ezartzen zituen zigorrak, atxilotetak eta baita familien erbesteratzeak ere. Ondoren, neurri horiek guztiak *Junta de Guerrak* eta Guardia Zibilak<sup>223</sup> gauzatzen zituzten.



104 - Casto Orbeagoz Embil. (Uztartaria aldizkaria).



105 - Julián Orbeagoz Embil. (Uztartaria aldizkaria).


Irailaren 30ean formalizatu zuten behin-behineko udalbatza. Bertan, Cruz Maria Echeverria Taberna alkate izendatu zuten, eta Galo Barrera, Roque Astigarraga, Casto Orbeagoz eta Toribio Azcue azpeitiarrak, berriz, zinegotzi. Irailaren 30ean egindako saio hartan hartu zuten lehen erabakia altxatutakoen organo gorenarekin eta *Junta de Defensa Nacional* delakoarekin bat egitea izan zen, eta "gubernuarekin eta Fronte Popularrarekin bat egiteko aurreko udalak hartutako akordioen aurka egitea". Ondoren, garrantzi gutxiagoko beste gai batzuen artean, aurrekoek langabeziari aurre egiteko eta Azpeitiko Fronte Popularraren Batzordeari laguntzen ziotenentzako jornalak aurreratzeko banku-erakunde batzuekin hitzartutako maileguak salatu zituzten. Era berean, Oinatz eta Elosiagako eskola berriak ixtea erabaki zuten (urriaren 26an, Odiako era ere itxi zuten). Bien bitartean, paradoxa dirudien arren, *Asociación de Padres de Familia* elkarrearen eskolako pixalekuak konpontzea erabaki zuten<sup>224</sup>.



107 - Jose Solchaga Zala (Euskomedia).



106 - La Voz de España, 1936ko irailak 23.



108 - Roque Astigarragaren bandoa (AUA).

<sup>220</sup> AZPIAZU OLAIZOLA, I.: *7 meses y 7 días en la España de Franco.* (1964).

<sup>221</sup> 2284/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>222</sup> DE GAMBOA, J.M. eta LARRONDE, J.-C.: *La guerra civil en Euzkadi: 136 testimonios inéditos recogidos por Jose Miguel de Barandiaran.* (2005).

<sup>223</sup> 2284-38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>224</sup> AUA (Sig. 0276-02; Kod. 12).


Urriaren 11an Gipuzkoako *Junta de Guerra Carlistak* eratu zuen aldi diktatorialeko lehen udal iraunkorra. Tradizionalismoari lotutako pertsonak osatzen zuten oso-osorik.



**109 - Roque Astigarraga Echaniz**  
 (Gipuzkoako Artxibo Orokorra, GFA/Indalecio Ojanguren).

**1936KO URRIAREN 14AN GIPUZKOAKO JUNTA DE GUERRA CARLISTAREN AGINDUZ ERATUTAKO UDALBATZA<sup>225</sup>**

- Alkatea:** Roque Astigarraga Echaniz  
**Lehen alkateordea:** Cruz Maria Echeverria Taberna  
**Bigarren alkateordea:** Galo Barrena Larrar  
**Hirugarren alkateordea:** Toribio Azcue Echezarreta  
**Sindiko:** Casto Orbegozo Embil  
**Zinegotziak:** Prudencio Olaizola Aranguren  
 Antonio Aranguren Aranguren  
 Andrés Lasa Esnaola  
 Juan Jose Eguiguren Aranguren  
 Ignacio Orbegozo Juaristi  
 Jose Aizpuru Goenaga  
 Juan Azpeitia Zubimendi  
 Ignacio Egaña Otaegui



**110 - Cruz Maria Echeverria Taberna (Kutxateka).**



**111 - Erreketeak Azpeitiko plaza nagusian. (La Voz de España, 1936ko irailak 22)**

Cruz Maria Echeverriak hala eskatuta, udalbatza berriak hartutako lehen erabakietako bat Errepublikaren plaza nagusia izena kendu eta Nafarroako plaza nagusia izenarekin ordezkatzeko izan zen. Orduetik aurrera etengabe izendatu zituzten berriro kaleak eta, batez ere, santu katolikoaren edo jainkotasunaren aldekoak izan ziren (adibidez: Olazko Andre Maria plaza deitu zioten Bustinzuri plaza txikiari), nahiz eta altxatutakoei ekonomikoki lagundu zieten pertsonaien izenak ere jarri zituzten, Azpeitiko Felix Ortiz San Pelayo musikari eta idazlearena, esate baterako.

Edonola ere, Azpeitiko udal-ordezkarien arazo handiena egoera ekonomiko larria izan zen. Aktetan irakur daitekeen moduan, Udalbatzak 1938ko maiatzean onartu zuen Gerra Zibila hasi aurretik udalak beti superabita izan zuela eta, 1937ko aurrekontuko gastuen eta diru-sarreraren likidazioaren arabera, une hartan, defizita 49 mila pezeta baino gehiagokoa zen. Arazo hura zela eta, 1937ko uztailan, eta alkateak hala proposatuta, San Ignazio egunez ospatzen zituzten jai profano guztiak bertan behera utzi zituzten. Dena den, aldi berean, jesuiten itzulera zela eta antolatutako festa erlijioso "handitasunez ospatzea" adostu zuten. Izan ere, egoera larria izan arren, lehen udalbatza frankista eratu zutenetik etengabe finantzatu zituzten kolpistak beren "gurutzada" hartan. Besteak beste, *Baleares* itsasontziko 150 marinelen ekipamendua diruz lagundu zuten, edo 1000 pezeta eman zituzten *España* izeneko korazatu berrirako. Azken zenbateko hura, gainera, udalak 1937ko maiatzean postu publikoaren lizentzia gisa izan zituen diru-sarrera guztien, edo hilabete hartan bertan udalerriko hiltegitik lortutako guztizko irabazien baliokidea zen<sup>226</sup>.



**112 - Tokiko agintari eta militar frankistak. Besteak beste, Julian Orbegozo Embil, Roque Astigarraga Echaniz eta Ignacio Egaña (Aranzadi Z.E./Roque Astigarraga funtsa).**


<sup>225</sup> *Ibid.*  
<sup>226</sup> *Ibid.*



1938. urtearen amaieran, dirudienez, koiuntura ekonomikoa ez zen hobetu; izan ere, abenduaren 28ko udalbatzan, udalak *Correosei* 1939. urtetik aurrera kontu-sail horretan gastua bere gain ezingo zukeela hartu jakinaraztea adostu zuen. Dena den, handik hilabete batera, udal-funtzionarioen soldata igotzea onartu zuten (gauzainena izan ezik, "zerbitzua gutxitu egin zelako"). Gauzainen lan-karga gutxitu izana ez zen inola ere harrigarria erregimen diktatorial batean ohikoa den araudi murriztailearen aplikazioa ikusita, banakako askatasunei zein askatasun kolektiboari eta lan arlokoari dagokienez. Gainera, kontuan izan behar da Solchaga komandanteak zuzendutako Komandantzia Militarren presentziak sortzen zuten hertsadura soziala eta, oro har, Azpeitiak batez ere 1937 osoan jasan zuen militarizazioa. Horrekin lotuta, aipatu beharrekoa da udalerriri horretan kokatu zela ehunka borrokalarik osatzen zuten armada altxatuaren erreserbako brigada<sup>227</sup>.

Roque Astigarraga buru zuen lehen udalbatza haren beste gai esanguratsu bat euskarak jasan zuen jazarpena da, nahiz eta hura izan azpeitiar gehienen ama-hizkuntza edo hizkuntza bakarra. Itxuraz, mezak gaztelaniaz bakarrik egiten zituzten Loiolan egindakoak izan ezik. Han, "sermoia gaztelaniaz eman ostean, gurtzaren eta kleroaren diru - eskaera euskaraz egin zuen parrokoak"<sup>228</sup>. Era berean, alkateak bere burua eskaini zion gobernadore zibilari (Jose Luis Arellano Igea) 1936ko abenduan Azpeitian erregistratutako haurren euskal izenak "hizkuntza nazionalaren" arabera aldatzeko. 1938ko abuztuan egindako ministerioaren agindua igorri baino askoz ere lehenago egin zion eskaintza eta honako hau aipatzen zuen agindu hark: "Gaztelania ez den hizkuntza egindako izen - emateak baliogabetzat jotzen dira"<sup>229</sup>. Alkateak eskaintza egin eta handik gutxira, 1937ko urtarrilaren 11n, gobernadore zibilak udalarengana jo zuen gai horren inguruko araudi orokorra onartu aurretik horren inguruko edozein ekimen egiteari utzi beharko ziola adieraziz<sup>230</sup>.

1939ko irailean, Gipuzkoako gobernadore zibilak (Francisco Rivas) Udaleko batzorde kudeatzaile berria izendatu zuen. Ignacio Egaña Otegui zen haren presidentea, ordura arte zinegotzia izan zen tradizionalista. Kargua 1941eko irailera arte, gobernadoreak kargutik kendu arte, izan zuen (1945 eta 1952 artean berriro izendatu zuten alkate). 1939an eratutako udalbatza batez ere tradizionalistek eta garai bateko erreketek osatzen zuten. Dena den, lehenengo aldiz, Falangeko ki-deak ere bazeuden: Jose Viquendi Zabaleta, Nicolas Ucin Segurola eta Andres Lapa-zaran Arguindegi adibidez. Batzorde kudeatzaile horren agintaldian gertatu zen Azpeitian kolpisten aurkako lehen ekintza subertsiboa edo erresistentziakoa izenda dezakeguna. Izan ere, Jose Aizpuru Goenaga zinegotziak eta auzoko alkateak eraso jasan zuen<sup>231</sup>. Iturrietan horren inguruko informazioak ez dagoenez, gertakari hark garrantzi berezirik ez zuela izan esan dezakegu.



114 - Cruz Maria Echeverriaren bandoa (AUA).



113 - Prozesioa Loiolako santutegian, 1937. (Kutxateka).

<sup>227</sup> URGOITIA BADIOLA, J. A.: *Crónica de la Guerra Civil, de 1936-1937, en la Euzkadi peninsular*. 5v. (2001).

<sup>228</sup> DE GAMBOA, J.M. eta LARRONDE, J.-C.: *La guerra civil en Euzkadi: 136 testimonios inéditos recogidos por Jose Miguel de Barandiaran*. (2005).

<sup>229</sup> GORROTXATEGI NIETO, M.: *Errepublika garaiko izenak eta 1939ko dekretua*. (2006).

<sup>230</sup> AUA (Sig. 0276-02; Kod. 12).

<sup>231</sup> AUA (Sig. 0277-01; Kod. 12).



115 - Militarren desfilea Azpeitiko kaleetan, 1941. (Kutxateka).

1941eko azaroaren 10ean, Gipuzkoako gobernadore zibilak (Fermín Sanz Orrio) berriro aldatu zuen udalbatzaren osaera. Orduan, udalpolitikan eskarmentu handia zuen gizona, Jose Alzuru Sampedro, izendatu zuten alkate, eta hirugarren alkateordearen kargua eta bi zinegotziren postua kendu zituzten; hori zela eta, udal-ordezkarien kopurua hamarrera gutxitu zen.

**GIPUZKOAKO GOBERNADORE ZIBILAREN AGINDUZ 1939KO  
IRAILAREN 14AN ERATUTAKO UDALBATZA<sup>232</sup>**

**Alkatea:** Ignacio Egaña Otegui

**Lehen alkateordea:** Urbano Azcue Echezarreta

**Bigarren alkateordea:** Manuel Mozo Juaristi

**Hirugarren alkateordea:** Juan Jose Iriarte Odriozola "Saralle"

**Zinegotziak:** Jose Viquendi Zabaleta

Nicolás Ucin Segurola

Jose Aizpuru Goenaga

Ignacio Martinez Olaechea

Bonifacio Azcune Aranguren

Ceferino Garmendia Lasa

Marcelino Aguirrezabalaga Amenabar

Valentín Larrañaga Arrizabalaga

Andrés Lapazaran Arguindegui

**GIPUZKOAKO GOBERNADORE ZIBILAREN AGINDUZ 1941EKO  
AZAROAREN 10EAN ERATUTAKO UDALBATZA<sup>233</sup>**

**Alkatea:** Jose Alzuru Sampedro

**Lehen alkateordea:** Toribio Azcue Echezarreta

**Bigarren alkateordea:** Manuel Mozo Juaristi

**Zinegotziak:** Nicolás Ucin Segurola

Miguel Arteche Unanue

Jose Azpiazu Zubizarreta

Dionisio Alcorta Echeverria

Nicolás Arzuaga Arzallus

Nicolás Zubeldia Larrañaga

Joaquín Altuna Larrañaga



116 - Agur faxista Azpeitiko zezen-plazan. (Aranzadi Z.E./Imanol Elias funtsa).

<sup>232</sup> AUA (Sig. 0276-02; Kod. 12).

<sup>233</sup> AUA (Sig. 0277-01; Kod. 12).



117 - Ignacio Egaña Otegui. (Uztarri aldizkaria).

Edonola ere, erregimen frankista legitimatzera bideratutako baliabide kopurua izan zen Azpeitia 1936ko irailetik 1945era arte gobernatu zuten udalbatza ugariak bereizi zituen datua. Horren inguruan hartutako lehen erabaki handia altxatutako tropak Azpeitian sartu zireneko lehen urteurrena handitasun osoz ospatzea izan zen. Ordutik, urtero ospatu zuten gertakaria. 1937. urtean egin zuten lehen ospakizun hartan, elizkizunez gain, erreketen atal ugarien desfileak egin zituzten. Gainera, egun hartan Azpeitira joan ziren zuzenean gerrako frontetik iritsitako San Ignacio tertzioko erreketek segizioan parte hartzeko. Ondoren, udalerriko plaza nagusiari Nafarroako plaza nagusia izena eman zion plaka aurkeztu, eta Roque Astigarraga alkateak honako diskurtsoa eman zuen:

*"Gaur, Azpeitiko herria setio gorri - separatistatik askatu zeneko lehenengo urteurrena betetzean, eta bere ordezkaritza agertuaz, herri honek Armada Espainiarrari eta Milizia Bolondres heroikoei dien esker ona eta atxikimendua nabarmendu eta frogatu nahiko nuke atsegin handiz, Generalismoaren zuzendaritza eta agindupean, eta disziplinaz, adore eta gogo inbidiagarri, gorri - separatisten atzaparretatik atzeman zutena, harrapakin baliotsu bezala menderatuta zutena, eta iseka handiagorako beren kuartel nagusia jartzeko leku sakratu eta historikoena aukeratu zutena (...) Gertakari fausto hau gaur ospatuaz, merezitako omenaldi - atxikipen hau eskeini nahi diogu Armada Espainiar handiari, eta bere Buruzagi Generalisimo Francori, eta modu berezi batez Nafarroa leial, hilezkor eta espainolari (...) Hiribildu hau zapaltzen lehenak izan zineten Lacar Tertzioko erreketek heroikoei! Zuentzako gure betiereko esker ona!"<sup>234</sup>.*

Horrez gain, 1937an eta hurrengo urteetan, Azpeitiko udalak Francisco Franco diktadoreari hainbat gonbidapen egin zizkion udalerrria eta Loiolako santutegia bisita zitzan. 1939ko urriaren 14ra arte ez zen Franco Azpeitira joan, baina Ignacio Egaña buru zuen eta eratu berria zen udalbatza hark handitasunez ospatzeko baliatu zuen gertakizuna<sup>235</sup>.



118 - Franco eta Carmen Polo emaztea Loiolako San Ignazioaren santutegira iristen, Azpeitia, 1945. (Kubateka).

<sup>234</sup> Azpeitia hartu zuteneko lehen urteurrena ospatzeko Roque Astigarragak emaniko diskurtsoa.

<sup>235</sup> AUA (Sig. 0276-02; Kod. 12).

Baina, zalantzarik gabe, erregimenaren gorespenik handienak Perez Arregui plazan borrokan hildako Azpeitiko soldadu frankisten ohoretan monumentua, eta udalerriko hilerrian mausoleoa eraikitzeko abian jarritako proiektuak izan ziren. Horren inguruko lehen aipamena 1937ko apirilaren 5ekoa da. Egun horretan, Prudencio Olaizola zinegotziak familiako panteoiko lursaila utzi zuen aipatutako mausoleoa eraikitzeko. Ia urtebete geroago, 1938ko otsailaren 14an, udalak behin betikoz onartu zuen aho batez mausoleoa eta monumentua eraikitzea. Bi proiektu horiek egiteko ardurua *San Ignacio* tertzioko borrokalaria ohi eta arkitektoari, Juan Jose Olazabali, eman zioten, baina azkenean Marcelo Guibert izan zen lan haien arduraduna<sup>236</sup>.



119 - Tradizionalisten kontzentrazioa Perez Arregi plazako monumentuaren aurrean, borrokan hildako borrokalaria frankisten omenez, 1960. (Kutxateka).

1939ko ekainaren 14an, proiektuak ordaintzeko "herri harpidetza" delakoa irekitzea, eta gaia kudeatzeko Batzordea eratzea adostu zuten. Batzorde hark hainbat aldaketa izan zituen geroago, baina lehen batzordea honako hauek osatu zuten: Udalbatzako kideek, Casiano Garayalde parrokoak, *San Ignacio* tertzioko ordezkari Manuel Mozok eta Justo Martínezek, soldaduen ordezkari gisa Jose Maria Garrañak, industrialak ordezkatzuz Damaso Azcuek eta Ladislao Seguiolak, eta merkatarien ordezkari gisa Vicente Guibertek. Azkenik, 1941eko abuztuan inauguratu zuten monumentua. Mausoleoa, aldiz, 1946ko apirilean amaitu zuten, eta guztizko kostua 8.573,05 pezetakoa izan zen<sup>237</sup>.

Beste era batera esanda, erakunde mailan altxatutako armada goresteko eta kutsu faxistako diktadura ezartzeko gertakari horiek jazozen ziren bitartean; "Jainkoaren eta Espainiaren alde eroritakoak", sozialki eta ekonomikoki urtero aitortzen eta goratzen zituzten bitartean, ehunka azpeitiar errepresioaren eta ahanzturaren biktimak bihurtu ziren.

Relacion del gasto habido en las obras de construcción de un PANTEÓN para los fallecidos en la pasada Cruzada.

	Pesetas
Satisfecho a la Secretaria del Obispado de Vitoria, por derechos de traslado de restos de soldados (1)	26,00
A D. José Elizburu, por 41 chapas para colocacion en las cajas de los caidos (segun factura nº 2) ....	287,00
A Grabados J. Gervais, por grabados de una placa de latón y portes del recadista, segun factura nº 3 ..	152,00
Al Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro, por proyecto y direccion de un Panteón, segun factura número 4 .....	2.200,00
A D. Martin Eguibar, por trabajos de cantería, segun factura nº 5 .....	133,00
A D. Juan Gurruchaga, por id de linternaria, segun factura nº 6 .....	1.150,00
A D. Jesús Beovide, por id id, segun factura nº 7 ..	1.254,00
A D. Ignacio Aizpuru, por desayuno y comida de un obrero del Sr. Altuna, segun factura nº 8 .....	26,00
A D. Ignacio Aizpuru, por id id segun factura nº 9 ...	26,00
A D. Juan Gurruchaga, por material empleado en el traslado de los restos, segun factura nº 10 .....	280,00
A D. Nicolás Ucin, por raciones y comidas servidas a los obreros que estuvieron trabajando en el traslado de los cadáveres, segun factura nº 11 .....	329,70
Al mismo, por vinos y comidas servidas a los obreros, segun factura nº 12 .....	387,35
Al Inspector Municipal, por jornales necesitados y pagados por el traslado de los restos mortales de los requetés y soldados, segun factura nº 13 .....	650,00
Al mismo, por id id de 12 cadáveres incorruptos, segun factura nº 14 .....	225,00
A D. Tadeo Aztiria, por sus honorarios por el reconocimiento de la ex-humación de los cadáveres, segun factura nº 15 .....	250,00
A D. Tomás Altuna e hijos, por formar cuadros recatungulares e indicar en cada uno un número de orden en las losas o tapas de marmol que se colocaron para cubrir los nichos del panteón de los requetés, segun factura nº 16 .....	109,50
Al mismo, por una placa de marmol Gris Deva de 1,03 x 0,90 x 0,03 de espesor con nueve inscripciones de letras en relieve, colocada en el Monumento dedicado a los Héroes caidos en la Cruzada, segun factura nº 17	809,50
Al mismo, por una tapa para Panteón ejecutada en marmol Claro de Navarra de 1,81 x 0,90 x 0,03 de espesor con una Cruz y letras en grabado y emplomado, embalada en caja de madera, segun actura nº 18 .....	278,00
<b>Total pesetas .....</b>	<b>8.573,05</b>

Azpeitia 10 de Marzo de 1.947

El Depositario

120 - Monumentua eraikitzeari lotutako gastuak, xehatuta, azaltzen dituen dokumentua. (AUA).

<sup>236</sup> *Ibid.*

<sup>237</sup> AUA (Sig. 0277-03; Cód.: 12).

## 4.1. Enplegatu publikoak botatzea

1936ko irailaren 13an, Junta de Defensa Nacional delakoak 108/36 Dekretua egin zuen. Bertan, Frente Popularrari lagundu zioten edo bertako kide izan ziren alderdi eta talde politiko guztiak, eta kolpistei aurre egin zieten erakundeak legez kanpokotzat jo zituzten. Dekretu bereko hirugarren artikuluan, funtzionarioak, betetzen zituzten karguekin lotuta, zuzendu, baztertu eta karguetatik ken zitezkeela xedatzen zen "mugimendu nazionalaren edo aberriaren aurkako jarduerak eginez gero". Ondoren, 1936ko abenduaren 3an, Junta Técnica del Estado batzordeak beste dekretu bat egin zuen honako hau xedatuz: "Uztailaren 18tik aurrera askatutako eremuko egoitza ofizialetik kanpo esku-duntza duen agintaritzak emandako inolako baimenik edo eginkizunik gabe egon diren, edo baimen horiek amaitutakoan aurkeztu ez diren funtzionario guztiak kargutik kenduko dira espedientea osatu gabe"<sup>238</sup>.

Araudi mailako xedapen horien eta Gipuzkoako gobernadore zibilaren ildoan arabera, enplegatu publikoak botatzea izan zen Azpeitiko lehen udal frankistak egin zuen lan errepresibo nagusietako bat 1936ko urriaren 14an izendatu zutenetik. Urte bereko azaroaren 2an aparteko bilkurarako deialdia egin zuten. Galo Barrena, Prudencio Olaizola eta Antonio Arangurenek osatzen zuten Gobernazio Batzordeak txostena ezagutarazi zuen. Bertan, udaleko langileak lau ataletan katalogatu zituzten: 1) Berrito onartutako udal-langileak; 2) Kargutik kendutako enplegatuak; 3) Batzordeak ikertu dituen enplegatuak; 4) Atxilotuta zeudelako Batzordeak txostenik egin ezin zezakeen enplegatuak<sup>240</sup>.

Handik gutxira, Junta de Defensa Nacional azaroaren 8an emandako 66. Dekretuaren arabera, Gipuzkoako gobernadore zibilak lehen hezkuntzako irakasleak kargutik kendu zituen. Hori dela eta, azaroaren 2an kargutik kendutako hiru irakasleez gain, kolpistak sartu aurretik Azpeititik ihes egin zuten maisu guztiak ere kargutik kendu zituzten. 1939an, otsailaren 10ean hain zuzen ere, Langile Publikoen Garbiketarako Legea<sup>241</sup> argitaratu zuten, baina legearen eraginpean gelditu ziren azpeitiarrei, lehendik egin zizkieten kargu-gabetzeak berretsi besterik ez zizkien egin Lege hark.

### UDALBATZAK KARGUTIK KENDUTAKO ENPLEGATUEN ZERRENDA<sup>239</sup>

GOBERNAZIO BATZORDEAK KARGUTIK KENDUTAKO ENPLEGATUAK (2. ATALA)	
Arregui Ventura, Gaudencio	Udaleko albaitaria
Bereciartua, Juan	Musikaria
Campos Eceiza, Juan	1. kale-garbitzailea
Epelde, Antonio	Musikaria
Fernández, Desiderio	Musikaria
Garmendia, Victoriano	Musikaria
Gurruchaga, Alejandro	Musikaria

### BATZORDEAK HALA PROPOSATUTA ETA UDALBATZAREN BOZKETA ONDOREN KARGUTIK KENDUTAKO ENPLEGATUAK (3. ATALA)

Aizpuru, Ignacio	Suhiltzaile-mekanikaria
Aizpuru, Presentacion	Eskolaurreko maistraren laguntzailea
Alberdi, Antonia	Odria auzoko eskolako maistra
Aranguren Olazabal, Jesusa	Olatzeko eskolako maistra (eskola pribatua)
Aranguren, Jose	2. kale-garbitzailea
Beobide Iturralde, Jesus	Suhiltzailea
Echeverria, Angel	Urrestillako kale-garbitzailea
Eizmendi, Josefa Ignacia	Loiolako eskolako maistra
Fernández Eleizgaray, Ignacio	Udal-diruzaina
Gurruchaga, Jose	Musikaria (hilabetez enplegu eta soldatarik gabe utzita)
Gorostegui, Ramon	Suhiltzailea
Iriarte, Jose Luis	Gauzaina
Iturralde, Zacarias	Suhiltzailea
Lizaso, Basilio	Musikaria
Lizaso, Juan Jose	Musikaria
Sarasua Iturralde, Jose Maria	1. zaindaria
Zubillaga, Felix	2. zaindaria



121 - Timoteo Gomez ikasleekin.  
(Kontxi Azpiazu Gomezek utzitako argazkia).

<sup>238</sup> DAVILA, F. *Presidencia de la Junta Técnica del Estado. Presidencia Junta de Defensa Nacional. Burgos, 1937ko martxoak 15.*

<sup>239</sup> *Ibid.*

<sup>240</sup> AUA (Sig. 0276-02; Kod.: 12).

<sup>241</sup> BOE, 45. zk., 1939/02/14koa, 856tik 859 arteko orriak.



122 - Eskola-umeak Donostiako Andre Maria elizatik ateratzen. (Kutxateka).

**1936KO AZAROAREN 8KO DEKRETUAREN HARIRA, GIPUZKOAKO GOBERNADORE ZIBILAK HALA AGINDUTA, ZEGOKIEN LANPOSTUTIK BOTA ZITUZTEN AZPEITIAZTARREN ZERRENDA<sup>242</sup>**

Amuchastegui Muguerza, Jose	Mikeletea
Aramburuzabal Urrutia, Víctor	Mikeletea
Aranguren Aguirre, Manuela	Telegrafoak (4 hilabete)
Ayerbe Elorza, Maria Carmen	Irakaslea
Baltasar Martiarena, Francisco	Nuarbeko ikastetxeko irakaslea
Barber, Felisa	Olatz auzoko ikastetxeko irakaslea
Esnoz Aguirrezabal, Lucia	Irakaslea
Fernández Ascorza, Victoriano	Irakaslea
Gómez, Timoteo	Mutilen eskola nazionaleko irakaslea
Martín Arenas, Cipriano	Urrestillako ikastetxeko irakaslea
Sobrino Doctor, Ramona	Nesken eskola nazionaleko irakaslea
Urresiti Iriondo, Maria	Irakaslea

Erabaki haien ondorioz kargugabetu zituzten Jose Maria Sarasua, Jose Aranguren, Felix Zubillaga eta Jose Luis Iriarte udal-langileek kargugabetzeak baliogabetzea eskatzeko eginiko idatzia irakurri zuen Udaltzako azaroaren 25ean. Idatziari erantzunez, Udaltzako atzera bota zuen eskaera, eta eskatzaileei gobernadore zibilarengana jo behar zutela adieraztea erabaki zuen, kargugabetzeak hark aginduta egin zirela argudiatuz. Ondoren, Cruz Maria Echeverria Taberna zinegotziak, kanporatze-espeditenteak aztertu zituen hurrengo hilabetetan. 1937ko martxoaren 29ko osoko bilkuran, azterketa haren ondorioak azaldu zizkien Echeverria Taberna zinegotziak gainerako kideei, eta proposatu zuen hainbat kargugabetze atzera bota behar zirela; Felix Zubillaga, Presentacion Aizpuru, eta Josefa Ignacia Eizmendi langileen kargugabetzeak hain zuzen ere, eta "soldata eten behar zitzaizela egoki irizitako aldirian". Cruz Mariak azaldu zuen, bere iritziz, ez zela kargutik kentzeko nahikoa arrazoi "botoa eskuindarren aurkako hautagaiari ematea, mugimenduaren aurretik eta ondoren, beste ezer ez zutela egin aintzat hartuta". Hala ere, Udaltzako gainerako kideek Ignacio Orbegozok eginiko adierazpenak babestu zituzten. Orbegozoren esanetan, ez zen egokia aurreko urteko azaroaren 2ko akordioa atzera botatzea, eta kargugabetze haiek berretsi besterik ezin zitezkeen egin<sup>243</sup>.



123 - Olazko komentua. (Uztartia aldirikaria)

<sup>242</sup> AGA. Sección Educación.

<sup>243</sup> AUA (Sig. 0276-02; Cód.: 12)/BOG (4-08-1937).



124 - Jose Viquendi Zabaleta. (Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularra)

hutsik zeuden lanpostu guztiak eskuratu zituzten. 1940ko urtarrilean Jose Maria Sarasuak berriro egin zuen udal-zaintzaile lanpostua berreskuratzeko eskaera eta Udalak, berriro, ezetz esan zion. Udal-zaintzaileen lanpostu guztiak borrokalari ohiek hartuak zituztela erantzun zion Udalbatzak, besteak beste<sup>246</sup>.


Beraz, gerrako borrokalari ohi edo elbarri frankista izateak lehentasuna ematen zuen udal-lanpostuak lortzeko; lanpostuarekin lotura handiagoa izan zezaketen beste eskakizun batzuek baino lehentasun handiagoa, gainera. Horren adierazgarri da Azpeitiko albaitari titularraren lanpostuaren esleipenarekin 1941eko ekainean gertatutakoa. Udaleko akten arabera, Enrique Zurutuza delako batek eskuratu zuen puntuaziorik altuena, baina Manuel Fernandez Arin errejidarrak lortu zuen lanpostua, Manuel borrokalaria izan zela eta Azpeitiaren askapenean ere parte hartu zuela argudiatu baitzuten Manuel Mozo eta Jose Viquendi zinegotziek<sup>247</sup>.

Azkenik, aipagarria da Urolako trenaren langileen plantillatik ere kendu zituztela langileak. Altxatutakoak Azpeitian sartu zirenean, konpainiako arduradunek 15 eguneko epea eman zieten langileei lanpostua berreskuratzeko eskaera egin zezaten. Hala, herritik ihes egindako guztiak kaleratu zituzten, eta beste asko Jefatura del *Regimiento de Ferrocarriles* delakoaren 5. unitateak kendu zituen lanpostuetatik<sup>248</sup>.

Hala ere, zegozkien karguetatik kendu zituzten udal-langileek lanpostuak berreskuratzeko egin zuten borroka ez zen 1937ko martxora arte amaitu. Ondorengo urteetan ere, lanpostuetan berriro onar zitzatela eskatzeko eskaera aurkezten jarraitu zuten. Jose Luis Iriarte izan zen borrokan gelditu gabe jarraitu zuenetako bat. 1939ko azaroan, Udalak beste eskaerari bati ezetz esan ondoren, idatzi bat igorri zion udalbatzari, Manuel Mozo zinegotziak eginiko baieztapenak ez zirela egiazkoak adierazteko. Iriarte UGTkoa izateaz akusatu zuen Mozok<sup>244</sup>.

Salbuespena izan zen Ignacio Fernandez Eleizgaray. Altxatutakoak Azpeitian sartu zirenean, Falangean afiliatu zen berehala, eta tokiko buruzagi izendatu zuten (ondoren, Jose Viquendi Zabaletak hartu zuen haren lekua). Falangearen tokiko buruzagi izan arren, Udalak zegokion lanpostutik kendu zuen, eta behin baino gehiagotan esan zioten ezetz kargura itzultzeko eskaerari; baita kalte-ordaina ordaintzeari ere. Izan ere, kontua zen, 1931tik aurrera Azpeitian izandako udalbatza guztiak arazoak izan zituztela Ignaciok egindako diruzaintza-lanekin. 1939an, gainera, Azpeitiko espetxean sartu zuten "dokumentuen zaintzan desleial jokatzea eta iruzur egitea" leporatuta<sup>245</sup>.

Kontuak kontu, aipagarria zera da, udal-langileak zegozkien lanpostuetatik kendu eta lanpostu haietan erregimen frankistaren aldekoak jarri zituztela. Zinegotziek "espainiar abertzale sutsuak" proposatzen zituzten kargugabetutako lanpostuetarako; esaterako, Eleuteria Arin, Ramona Sobrino ihes egindako irakaslearen orde. Gainera, lanpostua hutsik zegoela jakitean, interesdunek lanpostua eskuratzeko eskaera aurkezten zuten. Hala, Jesus Alberdi jarri zen udal-albaitari postuan, Gaudencio Arreguireren orde. Ondoren, hainbat araudi egin zituzten hutsik gelditutako lanpostuak nola bete arautzeko. Araudi haien onuradun nagusienak gerrako borrokalari ohi eta elbarri frankistak izan ziren, eta 1939tik 1940ra arteko tartean,



125 - Jose Maria Aranaga Garateren baliabidea. (Burdinbidearen Euskal Museoko Artxibo Historikoa).

<sup>244</sup> AUA (Sig. 0277-01; Cód.: 12).

<sup>245</sup> GPAH: 2784/0/1

<sup>246</sup> AUA (Sig. 0277-01; Cód.: 12).

<sup>247</sup> *Ibid.*

<sup>248</sup> OLAIZOLA ELORDI, J.: 1936. Represión y reconversión. El ferrocarril del Urola. (2009).

## VII. Zerrenda: Urolako trenean lan egiten zuten azpeitiarrak, lanpostuetatik kendu zituztenak, "garbiketa" bidez<sup>249</sup>

IZEN-ABIZENAK	LANPOSTUA	"GARBIKETAK" jasandakoa	ZIGORRA
Cipriano Aguirrezabalaga Irigoyen	1. mailako mekanikaria	Ez	Kaleratzea
Rafael Aguirrezabalaga Irigoyen	Elektrikari laguntzailea	Ez	Kaleratzea
Jose Luis Aizpúrua Beristáin	Kaltzadorea	Ez	Kaleratzea
Eugenio Alberdi Zubimendi	Kaltzadorea	Bai	Bat ere ez
Simón Amuchastegui Leunda	Gidaria	Ez	Kaleratzea
Jose Maria Aranaga Gárate	Hargina	Bai	Kaleratzea
Vicente Arruti Lapeira	Fakturatzailea	Ez	Kaleratzea
Francisco Baltasar Pagés	"Encarg. L. aérea"	Ez	Kaleratzea
Ricardo Baltasar Pagés	Ibilbideko agentea	Ez	Kaleratzea
Anastasio Beristáin Zufiria	Mandataria	Bai	6 hilabete soldatarik gabe
Alfonso Cajigas Calzada	Gidaria	Ez	Kaleratzea
Delfina Asunción Campillo Mier	Garbitzailea	Ez	Kaleratzea
Ignacio Cendoya Querejeta	Kaltzadorea	Bai	6 hilabete soldatarik gabe
Domingo Chinchurreta Beloque	Forjatzailea	Ez	Kaleratzea
Miguel Echeverría Aizpuru	Zentraleko laguntzailea	Ez	Kaleratzea
Castor Elorza Erdoiza	Tren geltokiko mutila	Ez	Kaleratzea
Víctor Ereñaga Cercelaya	Tren geltokiko mutila	Bai	Hilabete 1 soldatarik gabe
Alejandro Errazu Aguirrezabal	Kaltzadorea	Ez	Kaleratzea
Rufino Fernández Barrutia	Fakturatzaile baimendua	Ez	Kaleratzea
Joaquín García Aracúes	Doitzaile mekanikoa	Ez	Kaleratzea
Francisco Goenaga Olaizola	Kaltzadorea	Ez	Kaleratzea
Bienvenido Juan Gurruchaga Echeverría	Fakturatzailea	Ez	Kaleratzea
Mariano Imaz Bengoechea	Bobinatzailea	Ez	Kaleratzea
Sebastián Larrea Larrañaga	Ibilbideko laguntzailea	Ez	Kaleratzea
Julián Lazcano Urcelay	Kontu-hartzaile eta estatistikako burua	Ez	Kaleratzea
Manuel Lechuga Basterrene	Bobinatzaile laguntzailea	Ez	Kaleratzea
Ignacio Odria Egaña	Kaltzadorea	Ez	Kaleratzea
Jose Maria Odriozola Alberdi	Gidaria	Bai	Hilabete 1 soldatarik gabe
Félix Ojanguren Murua	Tornulari laguntzailea	Ez	Kaleratzea
Félix Olaizola Aranguren	Tren geltokiko mutila	Bai	
Félix Otaño Tellería	Kaltzadorea	Bai	4 hilabete soldatarik gabe
Gabriel Pedrosa Lorite	Elektrikaria	Ez	Kaleratzea
Jose Pérez Barcina	"Mug. eta traf." burua	Ez	Kaleratzea
Pedro Pérez Echeverría	Geltokiko burua	Bai	4 hilabete soldatarik gabe
Ruiz Miguel, Jose	Tren aut. mutila	Bai	2 hilabete soldatarik gabe
Unanue Aramburu, M <sup>a</sup> Joaquina	Garbiketako arduraduna	Ez	Kaleratzea
Unanue Gurruchaga, Juan	Mekanikari laguntzailea	Ez	Kaleratzea
Leandro Urdalleta Iturzaeta	L. A. laguntzailea	Bai	3 hilabete soldatarik gabe
Ángel Vitoriano Sedano	Pintorea	Ez	Kaleratzea
Joaquín Zabaleta Anduaga	Kaltzadorea	Bai	4 hilabete soldatarik gabe
Natalio Zufiria Echeverria	Trenko burua	Ez	Kaleratzea

<sup>249</sup> *Ibid.*




## 4.2. Errepresio ekonomikoa

Azpeitiko *Junta de Guerra Carlista* delakoa eratu bezain laster hasi ziren "aurkari" ziren herritarrei zigor ekonomikoa jartzen. Zigor ekonomikoez gain, askotan egin zituzten konfiskatzeak, etxean erregistroak eta konfiskatzeak, nahiz ondasunen bahitzeak. Errepresio mota horiek guztiak lehen Udalbatza frankista eratu zuten egunean bertan gauzatu zituzten, Udalbatza hark hartutako erabakien bidez, 1936ko irailaren 30ean. Hasteko, errepublika garaiko zinegotzietan ondasunak konfiskatuko zizkietela egin zieten mehatxu, baldin eta ez bazituzten gerra lehertu ondoren hainbat banku-erakunderi eskatutako maileguen zenbatekoak haien poltsikotik itzultzen. Ondoren, ordura arte baserrian telefonotegia zuten Oinatz auzoko herritarrari telefonotegia jabetzatik kendu (Juan Ignacio Aizpitarte Aguirre) eta hura sakristauaren etxean jartzea erabaki zuten. Eta azkenik, Udalak Miguel Iriarte, Jose Maria Sorozabal eta Pedro Ibarzabali zor zizkien fakturak atxikitzea ere agindu zuten. Aste batzuk beranduago, urriaren 20an zehazki, Guardia Zibil bikote batek Tomas Orbegozoren elikagai denda itxi zuten. Bost urte beranduago oraindik itxita jarraitzen zuten. Ondorioz, kaltetuak, "bizitzeko beste bitartekorik ez zeukanak", idatzi bat egin zion udaletxeari 1941. urtean, bere negozioaren irekiera erregutuz. Ignacio Egaña buru zuten Korporazio Munizipalaren erantzuna Tomasi "Nagusien aurrean egingo ziotuen gestio guztietan" laguntzea izan zen, itxiera ez baitzuen udaletxeak agindu<sup>250</sup>.

Iñaki Azpiatzuren arabera, isunen, gauzen edo eskudiriaren bidezko bilketa 133.000 pezeta-ira iritsi zen 1936ko azaroaren 20ra arteko tartean:

*"Altzasaletxeri 4.000 pezeta eta protesta egiteagatik 1.000; Garaikoari 750 pezeta; Ormaetxeri 3.000; Elaritzari 8.000; Berruetari 500; Zakolori 2.000; Modes Goenagari 5.000; Martin Oyarzabal apaizari, etxeari eraso egin eta etxea eta pianoa lapurtu zizkieten."*<sup>251</sup>

Nolanahi ere, 1937ko urtarriletik aurrera formalizatu zuten errepresio ekonomikoa, *Gipuzkoako Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Probintziala* (CPIB) eratuta. Batzorde Zentralaren filiala zen, *Junta de Defensa Nacional* delakoaren Batzorde Teknikoak osatutakoa. Batzordearen egitekoa 1936ko irailaren 13ko 108. dekretua gauzatzea zen. Dekretu hark altxamenduari kontra egindako alderdienak eta pertsonenak ziren ondasun guztiak bahitu egin behar zirela zioen. Hala, Batzorde haren bidez, 64 espediente abiarazi zituzten azpeitiarren aurka<sup>252</sup> eta gutxienez 18 laguni konfiskatu zizkien ondasun higiezinak Azpeitian. 19 pertsonari, Azpeitiko alkate izandako Jose Antonio Oyarzabal Oyarzabali konfiskatu zizkieten Errezilgo lurrak ere aintzat hartzen baditugu. Azpeitiko Udaleko idazkariak hartu zuten konfiskatutako ondasun haien kudeaketaren ardura, CPIBK ezarritako moduan. Gainera, hemeretzi herritarrek jaso zituzten zigor ekonomikoa; batzuek CPIBK jarritakoak eta besteek *Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak* (TRRP) jarritakoak.



126 - EMaximina Arrieta Zubimendiren espedientea.  
(Administrazioaren Artxibo Nagusia, AGA. Justizia;  
Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala; esp. 75/277).

## VIII. Zerrenda: Azpeitian ondasunak izan eta CPIBK eginiko inkautazioak jasan zituzten pertsonen zerrenda<sup>253</sup>

Arregui Arrizabalaga, Ignacio	Santiago kaleko 5.ean zegoen Urretanekoa etxeko denda, 2. solairua eta ganbararen zati bat
Arregui Arrizabalaga, Maria	Santiago kaleko 5.ean zegoen Urretanekoa etxeko solairu nagusia eta ganbararen zati bat
Arregui Arrizabalaga, Paulo	Santiago kaleko 5.ean zegoen Urretanekoa etxeko 3. solairua eta ganbararen zati bat
Arrieta Zubimendi, Ignacio	Etxezuri taberna
Arrieta Zubimendi, Pedro	Etxezuri taberna
Arruti Lizarralde, Jose	Soquina izeneko etxea, Eliz kalean
Eguiguren Ucin, Remigio	San Ignacio organo-fabrika
Gareche Echaniz, Juan	Bostagañetan zegoen lursailaren zati bat
Idiazabal Aizpurua, Antonio	Acheorreca eta Goico-soroa izeneko lursailak
Iriarte Aguirrezabal, Miguel	Sarrallecua izeneko etxea
Lardizabal Valenzuela, Jose Maria	Hamar lursail, lau baserri eta Amenabar hotela
Lizundia Gallastegui, Luis	Kale Nagusiko 50.eko etxea, Celaya izeneko lursaila eta Chacur-celaya izeneko fabrika eta lursailak
Loinaz Galarraga, Carmelo	Artzubiako pabiloia eta altzari-tailerrak
Moral Requeta, Avelino	100.000 pezeta-zen balioko ondasun-bahiketa
Muguruza Orbegozo, Juan	Eliz kaleko 22.eko etxearen 1. solairua eta ganbararen zati bat
Olazabal Gurruchaga, Manuel	Potzuetta baserria
Orbegozo Macazaga, Ignacio	San Ignacio kaleko 4.eko etxearen laurden bat
Oyarzabal Oyarzabal, Jose Antonio	Iratze-saila eta pagadia Errezilgo Arzallurren
Puignau Molinet, Rafael	Organo-fabrika
Sales Echave, Francisco	Aicheco-iturri lursailaren seirena

<sup>250</sup> AUA (Sig. 0277-01; Cód.: 12).

<sup>251</sup> DE GAMBOA, J.M. eta LARRONDE, J.-C.: *La guerra civil en Euzkadi: 136 testimonios inéditos recogidos por Jose Miguel de Barandiaran.* (2005).

<sup>252</sup> BARRUSO BARES, P.: *Violencia política y represión en Guipúzcoa durante la Guerra Civil y el primer franquismo (1936-1945).* (2005).

<sup>253</sup> AGA (Justizia atala)/AGA Justizia (Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala; esp. 75/262).

## IX. Zerrenda: CPIBk eta TRRPk zigortutako azpeitiarren zerrenda<sup>254</sup>

Aguirre Cincunegui, Ciriaco	5.000 pta. (pezeta)
Arregui Ventura, Gaudencio	30.000 pta.
Arrieta Zubimendi, Maria	5.000 pta.
Arrieta Zubimendi, Maximina	15.000 pta.
Arrieta Zubimendi, Pedro	100 pta.
Azcue Zabala-Anchieta, Rafaela	1.500 pta.
Eguiguren Ucin, Remigio	30.000 pta.
Goena Urquia, Leoncio	1.000 pta./Enplegua eta soldata urtebetez etetea/30.000 pta.-ren balioko ondasunak bahitzea
Gurruchaga Ansola, Ildefonso	15.000 pta.-ko hipoteka-kreditua
Idiazabal Aizpurua, Antonio	50.000 pta.
Iriarte Aguirrezabal, Ignacio Maria	10.000 pta.
Iriondo Ibarzabal, Benjamín	50.000 pta.
Larrañaga Usabiaga, Lorenzo	10.000 pta.
Moral Requeta, Avelino	5.000 pta.
Olarte Alberdi, Julián	500 pta.
Olazabal Gurruchaga, Manuel	2.500 pta.
Oyarzabal Oyarzabal, Joaquín	10.000 pta.
Pérez Barcina, Jose	100.000 pta.
Puignau Molinet, Rafael	25.000 pta.
Zubillaga Amenabar, Patricio	1.000 pta.



127 - Etxezuri taberna. (Maite Garmendia Altunak utzitako irudia)

<sup>254</sup> Ibid./AGA Justizia (Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala; espedienteak: 75/73; 75/532)

1939ko otsailaren 9an, jurisdikzio berezi bat sortu zuten frankistek *Erantzukizun Politikoen Legetik* abiatuta. Armada, magistratura eta FET de la JONS zeuden ordezkaturako errepresio ekonomikorako tresna hartan. Gerra amaitu ondoren, errepresio-aparatua gerraostean hedatzea zen lege haren helburua, baina nabarmena zen atzeraeraginezkoa zela eta hil ondoren ere eragina zuena; izan ere, helburua "subertsioa indartzen lagundu zutenen erruak kitatzea" zuen. Jurisdikzio berezi haren bidez ezarritako zigorrak hiru arlotan sailka daitezke: isun ekonomikoak, lanerako desgaitasuna eta bizileku-askatasunari ezarritako murrizketak (bereziki erbesteratzeak).

Jurisdikzio hura aplikatzeko, *Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala* eta probintziako sukurtsalak sortu zituzten. *Gipuzkoan, Nafarroako eta Gipuzkoako Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak* CPIBk hasitako lanari heldu eta jarraipena eman zion, eta Donostian zuen instrukzio-epaitegi bat. Azpeitiari erreparatuta, gutxienez 13 pertsona auzipetu zituzten; haietako 6 absolbitu egin zituzten eta 7 kondenatu<sup>255</sup>. Hala eta guztiz ere, 13 pertsona horietatik 12ren zigorrak berrikusteko abiarazitako espedienteak ditugu. Errekurtsoak, gehienetan aurretik *Gipuzkoako Inkautazioen Batzordeak* (1938an) ezarritako isunekin lotuta zeuden.

Página 824

BOLETIN OFICIAL DEL ESTADO

13 febrero 1939

## JEFATURA DEL ESTADO

### L E Y

DE 9 DE FEBRERO DE 1939 de Responsabilidades Políticas.

Próxima la total liberación de España, el Gobierno, consciente de los deberes que le incumben respecto a la reconstrucción espiritual y material de nuestra Patria, considera llegado el momento de dictar una Ley de Responsabilidades Políticas, que sirva para liquidar las culpas de este orden contraídas por quienes contribuyeron con actos u omisiones graves a forjar la subversión roja, a mantenerla viva durante más de dos años y a entorpecer el triunfo, providencial e históricamente ineludible, del Movimiento Nacional, que traduzca en efectividades prácticas las responsabilidades civiles de las personas culpables y que, por último, permita que los españoles que en haz apretado han salvado nuestro país y nuestra civilización y aquéllos otros que borren sus yerros pasados mediante el cumplimiento de sanciones justas y la firme voluntad de no volver a extraviarse, puedan convivir dentro de una España grande y rindan a su servicio todos su esfuerzos y todos sus sacrificios.

128 - Erantzukizun Politikoen Legearen sorreraren inguruko iragarki bat.

## 4.2.1. Azpeitiarrek Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionalan haien zigorrak berrikus zituzten jarritako errekurtsioak

### ARREGUI VENTURA, GAUDENCIO

1940ko maiatzaren 24an, Azpeitiko Udal Epaitegiak errekerimendu-zedula bat igorri zion Gaudenciori, eta 20 eguneko epea eman zioten 30.000 pezeta-ko isuna ordain zezan. Gipuzkoako Inkautazioen Batzordeak 1938ko ekainaren 8an ezarritakoa zen isuna. Gaudenciok errekurtsio bat jarri zuen, egoera ekonomiko txarrean zegoela eta isuna txikitu ziezaiotela eskatzeko, "berak emaztearekin batera zuen alaba adingabearen mantenturako".

1940ko irailaren 9an, Erantzukizun Politikoen Espainiako Auzitegiak 10.000 pezeta-ko murriztu zion isuna, baina kargu publiko guztietatik kendu zuten, 1938an Gipuzkoako Batzordeak eginiko txostena ontzat emanda. Txosten hartan, Ezker Errepublikanoko kide izateaz eta "zuen ogibidea baliatuz baserrietan ideologia haren propaganda egi-teaz" akusatu zuten Gaudencio. Azkenik, 1943ko irailaren 21ean, urtebete lehenago, zehazki 1942ko irailaren 22an, eskatutako indultua ukatu zioten<sup>256</sup>.



129 - Gaudencio Arregui Ventura.

(Hemendik ateratako argazkia: ETXANIZ MAKAZAGA, J.M.: De Albéitares y Veterinarios municipales en el Valle del Iraurgi)

<sup>255</sup> ESTORNES ZUBIZARRETA, I; CENDOYA ECHANIZ, I; BARRUSO BARES, P: *Auñamendi Eusko Entziklopedia*. Bernardo Estornés Lasa Fondaio.

<sup>256</sup> AGA Justizia (*Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala*; esp. 75/532).

### ARRIETA ZUBIMENDI, MARIA

5.000 pezeta-ko isuna jarri zioten Mariari 1938an, 10 hilabetez behin-behineko kartzelaldian egon eta gerra-kontseiluan absolbitu zute-nean. *Azpeitiko Emakume Abertzale Batza* erakundeko kide izateagatik eta milizianoentzako jantokietan zerbitzari-lanetan ibiltzeagatik jarri zioten zigor ekonomikoa. 1940an zigorra berrikusteko errekurtsio bat abiarazi eta Mariak azaldu zuen bere amak hainbat ofizial erreketeri babesa eskaini ziela Azpeitia erori ondoren, eta familiako tabernan, Etxezurin, Falangeren *Auxilio Social*, gizarte-laguntzarako egoitza eduki zutela hainbat hilabetez, Nicolas Ucinen zuzendaritzapean. Azkenik, 1940ko uztailaren 11n, 750 pezeta-ra jaitsi zioten zigorra<sup>257</sup>.

### ARRIETA ZUBIMENDI, MAXIMINA

Maria ahizparen aurka eginiko akusazio berdinak erabilita zigortu zuen CPIBk Maximina ere. Eta Maria ahizpa bezala, Maximina ere 10 hilabetez egon zen preso eta auzipetzean, gerra-kontseiluan kointziditu zuten. Maximinari zigor handiagoa jarri zioten ordea; 15.000 pezeta-koa. Hala eta guztiz ere, 750 pezeta-ra jaitsi zioten Maximinari ere zigorra<sup>258</sup>.

### EGUIGUREN UCIN, REMIGIO

1940an, 73 urte zituela, CPIBk ezarri-tako 30.000 pezeta-ko zigorra berrikustea eskatzeko errekurtsio bat jarri zuen Remigiok. Defentsa-idatzian adierazi zuen gaztetatik izan zela alderdi karlistako kide eta familiari zerbitu gertatuko zitzaizkion egin zuela ihes Azpeititik, ez beste zergatik. Horrez gain, adierazi zuen hainbat finka bazituela, baina zerga-kargaren ondorioz, ezin zuela isuna ordaindu, eta gogorarazi zuen organo-fabrika ere bahituta zuela oraindik. Aldiz, Falangeren tokiko buruzagi Jose Viquendik eta Azpeitiko alkate Ignacio Egañak txostenetan adierazi zuten Remigio EAJko militantea zela eta bera izan zela, gainera, Azpeitiko EAJren sortzaileetako bat. Dena den, Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionalak zigor ekonomikoa 5.000 pezeta-ra jaisteak erabaki zuen 1940ko irailaren 9an<sup>259</sup>.



130 - Remigio Eguiguren Ucinen aurkako auziko dokumentua. (Administrazioaren Artxibo Nagusia, AGA. Justizia. Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala; esp. 75/6963).

### GOENA URQUIA, LEONCIO

Seguran bizi zen azpeitiar hau, eta udal-albaitaria zen han, Seguran. EAJko afiliatua zen, eta gerra hasi zenean tokiko Batzordean sartu zen. Hala ere, gero altxatutakoekin bat egin eta *Comunión Tradicionalista* alderdian sartu zen. Azkenean, CPIBk ezarritako isunak berrikusteko errekurtsioa jarri zuen eta 1940ko maiatzaren 6an, Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionalak 2.000 pezeta-ra jaitsi zion zigorra, eta kargu publikorako gaitasungabezia mantendu egin zioten<sup>260</sup>.

### IDIAZABAL AIZPURUA, ANTONIO

50.000 pezeta-ko zigorra jarri zion Antoniori *Gipuzkoako Inkautazioen Batzordeak* 1938ko apirilaren 21ean. Hala ere, 1940an, zigorrari errekurtsioa jarri zion *Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionalan* eta hala, berrikuste-errekurtsotik abiatuta, instrukzio bat abiarazi zuten. Instrukzio hartan, Azpeitiko Falangeak eta Alkatetzak nahiz sorleku zuen Balmasedatik igorritako txostenetan berretsi zuten Antoniok jokabide ona izan zuela, eta ez zuela deliturik egin ez errepublika-garaian, ez Gerra Zibilean. Horiez gain, hainbat txosten ekonomikoren bidez, Antonio 1940an egoera ekonomikotxarrean zegoela adierazi zuten. Hala, 1943ko martxoaren 20an absolbitu egin zuten eta zigorra, beraz, ez zen gauzatu<sup>261</sup>.

### IRIONDO IBARZABAL, BENJAMIN

1958an, *Comisión Liquidadora de Responsabilidades Políticas* Batzordeak txosten bat igorri zuen eta haren bidez, Benjamini 1938an CPIBk ezarritako zigorra, osorik, barkatu zioten, 1945eko ekaineko indultu-aginduaren harira. UGT sindikatukoa izateagatik 50.000 pezeta-ko zigorra jarria zioten Benjamini<sup>262</sup>.

### MADRAZO GARCIA, SILVESTRE

EAJko militantea eta 1931n Azpeitiko zinegotzi izan zen Silvestre, eta Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak epaitu zuen 1943an. Hala ere, urte hartako uztailaren 17an, absolbitu egin zuten, Auzitegiak erabaki baitzuen "gorri - separatistak" agintean zirenean ez ziela Azpeitiko eskuindarrei kalterik egin. Era berean, Auzitegiak adierazi zuen herrian gelditu zela herria kolpistek hartu zutenean, eta berehala egin zuela bat "Mugimendu" delakoarekin eta Falangean afiliatuta ere egon zela<sup>263</sup>.

<sup>257</sup> AGA Justizia (Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala; esp. 75/277).

<sup>258</sup> *Ibid.*

<sup>259</sup> AGA Justizia (Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala; esp. 75/6963).

<sup>260</sup> AGA Justizia (Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala; esp. 75/629).


<sup>261</sup> AGA Justizia (Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala; esp. 75/1073).

<sup>262</sup> AGA Justizia (Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala; esp. 75/77).

<sup>263</sup> AGA Justizia (Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala; esp. 75/184).

**MORAL REQUETA, AVELINO**


1939ko abenduaren 28an, *Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak*, epai baten bidez, errudun jo zuen Avelino, aurretik, *Gipuzkoako Ondasunak Konfiskatzeko Batzordeak* ezarria zuen irizpenaren harira. Batzorde hark Avelinoren jabetzako ondasun guztiak, 10.000 pezeta-ko baliokoak, bahitzeko eta *Banco Guipuzcoano* bankuan zuen kontua blokeatzeko agindua zuen. Beraz, Auzitegiak erabaki zuen 5.000 pezeta-ko kalte-ordaina ordaintzea izango zela zigorra. Hala ere, 1941ean, espetxealdi arinduan zegoela, ondasunak itzul ziezazkiotela eskatu zuen Avelinok. 1942an Gipuzkoako gerra-ikuskatzaileari aurrezki-libreta desblokeatzeko eskatu zion, 5.000 pezetako zigorra ordaindu zuela-eta<sup>264</sup>.



**131 - Avelino Moral Requetaren aurka abiarazitako auziko dokumentua.**  
(Administrazioaren Artxibo Nagusia, AGA. Justizia. Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala; esp. 75/262).

**OLAZABAL GURRUCHAGA, MANUEL "POTZUTE"**

1940ko abuztuaren 19an, *Bilboko Gerrako Ikuskaritzak* aske utzi ondoren, *Nafarroako Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak* 10 urteko gaitasungabetzea ezarri zion kargu publikoetarako, eta baita 2.500 pezeta-ko isuna ere, "kalte galerak ordaintzeko". Gerra-kontseiluak 1938ko uztailen erabilitako akusazio berdinak ziren epai haren oinarria, baina horiez gain, auzipetuaren ondasunek 60.000 pezeta-ko balioa zutela adierazi zuen<sup>265</sup>.



**132 - Manuel Olazabal Gurrucharen aurka abiarazitako auziko dokumentua.**  
(Administrazioaren Artxibo Nagusia, AGA. Justizia. Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala; esp. ez dago jasota).

**PEREZ BARCINA, JOSE**

Urolako treneko langilea izan zen Jose, eta 1936ko irailean, altxatutakoek irabazi ondoren, kalera bota zuten enpresako buruzagi berriek. *Izquierda Republicana* alderdiko eta *Azpeitiko Fronte Popularraren Defentsa Batzordeko* kidea zen, eta 1938ko apirilean 100.000 pezeta-ko isuna jarri zion CPIBk. 1958an, *Comisión Liquidadora de Responsabilidades Políticas* batzordeak baliogabetu egin zuen ISUN hura<sup>266</sup>.

**PUIGNAU MOLINET, RAFAEL**

Organoak egiten zituen enpresaburu katalan hau Azpeitian bizi zen 1914tik. 1920an "*Eleizgaray y Cia*" organo-fabrika sortu zuen Toribio Eleizgarrairekin batera, eta 1925ean, berriz, "*Puignau-Olaciregui*" sozietatea. 1936ko irailaren 19an Azpeititik ihes egin eta Frantziara joan zen. 1940an itzuli zen, eta CPIBk 25.000 pezeta-ko isuna jarri ziola jakinarazi zioten, baina horrez gain, jakin zuen Udaletxe plazan zuen etxebizitza eta organo-fabrika okupatu egin zizkiotela, emaztearen dendan dena lapurtu zutela eta fabrikari zuten organoak saldu egin zituztela. Hori guztia zela eta, 1940ko martxoan *Erantzukizun Politikoen Auzitegiari* zigorra berrikeri ezala eskatu zion, Auzitegiak eskaera onartu egin ziolarik. 1940ko ekainaren 24an, Alkatetzaren eta Falangearen txostenak kontuan hartuta, Auzitegiak EAJkoa izateagatik Rafaelen aurka eginiko akusazioari eutsi zion, baina Rafaelek ukatu egiten zuen. Hala eta guztiz ere, 10.000 pezeta-ra jaitsi zioten zigorra, Rafaeli jabetzan gelditzen zitzaion ondasun bakarria Udaletxe plazako etxea baitzen. 35.000 pezeta-ko hipoteka zuen etxe hark<sup>267</sup>.

<sup>264</sup> AGA Justizia (Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala; esp. 75/262). / 2357/38 urgentziazko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>265</sup> AGA Justizia (Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala; esp. ez da ageri).

<sup>266</sup> AGA Justizia (Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala; esp. 75/77).

<sup>267</sup> AGA Justizia (Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala; esp. 75/277).

## 4.3. Emakumeen aurkako errepresioa. Erbesteratzea eta beste tratu txar batzuk

Emakumeak izan ziren errepresio frankistaren atzealdeko biktima nagusiak. Emakume azpeitiar askok Bizkai aldera egin zuten ihes familiarekin 1936ko irailaren 20an altxatutako tropak Azpeitian sartu baino lehentxeago. Askoz gehiago izan ziren, ordea, senarrak, semea edo anaiak kolpisten aurkako batailoietara ihes egitea erabaki arren, herrian gelditu ziren emakumeak. Gertukoak agurtu behar izan zituzten unetik aurrera jakin zuten familia gerraren ondorioz hausteak zer sufrimendu zekarren. "Au da ba gerrie, au da ba gerrie", egiten zuten irailaren 19an adineko emakume batzuek oihu, etsita, familiakoak bazihoazkiela ikusita<sup>268</sup>; "Besarkada luzeak, elkarri emandako aholkuak, senarrak emazte eta haurrei musuka, malkoak, larritasuna, mina". Horrela deskribatu zituen Iñaki Azpiazu egun hartan gertatutakoak<sup>269</sup>. Hala ere, seguru asko ez zuten jakingo "Zuzendariaren", alegia Emilio Mola militarren mendekoek Azpeitia konkistatu ondoren, haien aurka zer nolako errepresaliak hartuko zituzten.


Errepresalia formal ohikoena erbesteratzea izan zen. Errepresio-neurri hura jarrita, gerran altxatutakoek aurka aritu zirenen familiakoak edo, besterik gabe, kolpisten ideologiaren aurkakoak, herritik bota zituzten, 1939ko otsailaren 9ko *Erantzukizun Politikoaren Legearen* hainbat xedapeni aurrea hartuta. Erbeste-zigorra ezartzen zien Lege hark jazarritakoek zuzenean familiakoei, baldin eta jazarritako haiek desagertu edo hil egiten baziren.

Beraz, lege hori onartu baino bi urte lehenago, *Azpeitiko Komandantzia Militarrek* etxetik bota eta erbestera bidali zituen hainbat emakume; haietako batzuk seme-alaba adingabe eta guzti:

### JUANA AGUIRRE OYARZABAL

1937ko otsailaren 4an herritik bota zuten Juana, senarra, Francisco Errasti "Trukuman" praktikantea, Eusko Gudarosteko Osasun-zerbitzuko kidea, non zen ez zekitelako. Hasieran Iruñara abiatu zen, baina azkenean Lazkaon lortu zuen bitzitokia, ahizpa baten etxean. Haurdun zegoen<sup>270</sup>.

133 - Juana Aguirrerena aurkako erbesteratze-agindua. (Begoña Errasti Agirrek utzitako argazkia).



134 - Juana Aguirre Oyarzabal. (Begoña Errasti Agirrek utzitako argazkia).

### CATALINA BERECIARTUA ALTUNA

Nazionalista zen Catalina eta sindikatuta egon zen errepublika-garaian. Altxatutako tropak Azpeitian sartu zirenean, Atxubiaga baserrian egon zen denboraldi batez, ezkutatuta. Azkenean, Nafarroara erbesterratu zuten eta han egon zen, hilabetez-edo<sup>271</sup>.



135 - Catalina Bereciartua Altuna. (Inaxita Bereziartuak utzitako argazkia).

<sup>268</sup> URKIA, J. M. (Koord.): *Jose de Arteche, un hombre de paz*. (2006).

<sup>269</sup> AZPIAZU OLAIZOLA, I.: *7 meses y 7 días en la España de Franco*. (1964).

<sup>270</sup> Familiako lekukotza.

<sup>271</sup> *Ibid.*

**MARIA ECEIZA**


Beizamara zen eta Azpeitian bizi zen Maria. Juan, Alejandro eta gerrako frontean hildako Moises Campos Eceiza milizianoen ama zen. Horregatik erbesteratu zuten sorterritik<sup>272</sup>.

**CASIANA ECHANIZ ARRIZABALAGA eta LUIS, CARMELO, CARMEN eta IMANOL LOINAZ ECHANIZ seme-alabak**

Lau seme-alaba adingabeekin batera bota zuten Casiana Azpeititik 1937ko otsailan, Emilio Gomez del Villar komandante militarren aginduz. Aurretik, 1936ko urrian, *Azpeitiko Junta de Guerra Carlista* delakoak 500 pezeta-ko isuna jarria zion. Nafarroako Ollakarizketa herrira joan ziren, familiako bat bizi zen herrira, hain zuzen ere. Astebetean egon zen Carmen herri hartan, eta Luis eta Carmelo, berriz, bi astez, eta Casiana eta seme gazteena, Imanol, hilabetez. Bitartean, Casianaren senarra, Carmelo, eta seme zaharrena, Jose, erbestera joan ziren. Filipinetan amaitu zuten azkenean. Antoniok (beste seme bat) langileen batailoio batean amaitu zuen gatibu, *Loyola* batailoioarekin borrokan ibili ondoren<sup>273</sup>.

**136 - Casiana Echaniz Arrizabalagaren aurkako erbesteratze-agindua..**

(Hemendik ateratako irudia: LOINAZ, A.: *Nire Oroitzapenak*).

**JOXEPA ECHEVERRIA AIZPURU eta MARIA, ANGELES, MERCEDES eta FELIPE OTAEGUI ECHEVERRIA seme-alabak**

Urrestildarra jaiotzez eta Nuarbeko (Beizama) bizilaguna, Joxepa, bere lau seme-alabekin batera etxea uztera behartu zuten, bere senarra gerrako frentean aurkitzen zelako. Hilabetez Nafarroako Betelu herrian babes hartu eta gero, indultua komunikatu ondoren Beizamara itzuli ziren.



**137 - Otaegi-Etxeberria familia (ezkerretik eskubira): Joxe Otaegi Etxeberria, Maria Otaegi Etxeberria, Felipe Otaegi Etxeberria, Joxepa Etxeberria Aizpuru, Mercedes Otaegi Etxeberria, Juan Mari Otaegi Loinaz, Angeles Otaegi Etxeberria, Julian Otaegi Etxeberria.** (Mertxe Urtuzaga Otaegik utzitako argazkia).

**MARIA ECHEVERRIA LARRAÑAGA eta FRANCISCO eta MARIA EGUIBAR ECHEVERRIA seme-alabak**

Maria, 3 eta 4 urteko seme-alabekin batera, Odriozolaundi baserrian egon zen bi urtez ezkutatuta, Azpeititik bidaltzeko agindua etorri ondoren. Egozten zieten delitua honakoa zen: Maximiano Eguibar Arregui milizianoaren emaztea eta seme-alabak izatea<sup>274</sup>.



**138 - Maria Echeverria Larrañaga seme-alabekin.** (Kontxi Egibar Etxeberriak utzitako argazkia).

<sup>272</sup> *Ibid.*

<sup>273</sup> LOINAZ ETXANIZ, A.: *Nire Oroitzapenak*. (2001).

<sup>274</sup> Familiako lekukotza.

### ISABEL GOMEZ AZCUNE eta CARMEN AZPIAZU GOMEZ eta KONTXI AZPIAZU GOMEZ alabak

Matxinatutako tropak Azpeitian sartu aurretik, Isabelek, bere bi alaba txikiak batera, Azpeitiatik alde egin zuen, Aizarnazabalen babestu zelarik 15 egunez. Azpeitiara itzuli zenean desterru agindua jaso zuen, bere gizona eta gainerako semeak herritik kanpo aurkitzen zirelako. Dena dela, familiar bati esker, Azpeitian geratu ahal izan ziren. Ondoren, matxinatutako soldaduen uniformeak jostera izan zen behartua<sup>275</sup>.



139 - Isabel Gómez.  
(Kontxi Azpiazu Gomezek utzitako argazkia).

### MARIA ORBEGOZO ARZUAGA eta JONE LARRAÑAGA ORBEGOZO alaba

Herria utzi eta Etxalarrera joateko agindua jaso zuen Mariak, senarra (Rufino Larrañaga Iriarte "Kinttela") gerrako frontean altxatutako tropen aurka borrokan zebilela-eta, zigor gisa. Etxalarrera joan beharrean, Orion ezkutatu zen Maria, Jone alaba txikiarekin batera, Rufinoren anaia baten etxean. Bitartean, beste hiru seme-alabak, beste familiako batek hartu behar izan zituen etxean, Azpeitian<sup>276</sup>.



140 - Maria Orbegozo Arzuaga.  
(Inixio Larrañaga Orbegozok utzitako argazkia).

Baina errepresaliak ez ziren formalak bakarrik izan; hau da, ez ziren tokiko agintariak legeri orokorrik ez zegoelako izapidetutako zigorrak bakarrik izan. Gisa guztietako bidegabekeriak egin zituzten "gorri separatista"tzat zituztenen emazteen aurka. Maria Orbegozok, adibidez, galtzaileen aurka egiten zuten estigmatizazioa jasan zuen. Iraindu egiten zuten eta noiznahi egiten zizkioten erregistroak etxean. Garaileen arropa jostera ere behartu zuten<sup>277</sup>. Antzeko egoera jasan behar izan zuen Ignacia Macazaga Beristainek ere. Azpeititik ihes egin zuen erreketeez herria hartu aurretik. Ihes egin eta handik gutxira, herrira itzultzea eta Plaza Nagusian zuten dendan lanean jarraitzea erabaki zuen ordea. Kolpistek behin eta berriro bahitzen zizkioten dendako salgaiak eta, beraz, zulo bat egin behar izan zuen gauzak gordetzeko. Militarrentzako arropa jostera ere behartu zuten. Emakume asko behartu zituzten hartara, baina salbuetasi egiten zituzten adingabeak haien kargu zituzten alargunak; egoera hartan zegoen Ignacia<sup>278</sup>.

Bidegabekeria haiez gain, indarkeriazko ekintzak, bat-batekoak, ere egin zituzten emakumeen aurka. Azpeitian erreketeez sartu eta hurrengo asteetan egin zituztenak izan ziren, agian, gordinenak. Jose Miguel Barandiaranek Baionan, 1937ko abuztuan, jasotako lekukotza batek honela dio:

*"Inmoralitateak hartu zuen herria militarrekin eta miliziekin, eta ohiko bihurtu ziren kasu eskandalagarriak. Hala, Azpeitiko parrokoa etxe-etxe ibili zen, elizarrera joan eta gurasoei esanez ez uzteko alabei militarrekin eta miliziekin ibiltzen. Izan ere, inor ez zen ausartzen horrelako gauzak pulpitutik salatzen."*

Ildo horretan, emakumeak umiliarazteko gehien erabilitako modua ilea larru-arras moztu eta errizino-olio ugari edanaraztea zen, jendaurrean iseka egiteko. Azpeitian, Margarita Arocenaren eta Dolores Balmasedaren kasuak ezagutzen ditugu. Biei moztu zieten ilea larru-arras, Loiolako gudarien kuartelean sukaldean lanean aritzeagatik salatu ondoren. Gerora arazo psikologikoak eduki zituen Margaritak, baina ezin da ziur jakin gertaera honen ondorio izan ziren edo ez<sup>279</sup>.



141 - Margarita Arocena Izeta.  
(Mirari Bereziartua Arozenak utzitako argazkia).

<sup>275</sup> *Ibid.*

<sup>276</sup> *Ibid.*


<sup>277</sup> *Ibid.*

<sup>278</sup> *Ibid.*


<sup>279</sup> *Ibid.*



### 4.3.1. Azpeitiko lazaretoa: emakumeen espetxea



142 - Azpeitiko lazaretoa, airetik ikusita, 1954. (Gipuzkoako Foru Aldundia; ortofotoa 1:5000).




143 - Francisca Galvez Vazquez buruzko dokumentua. (Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintziala 2837/055/07).


Azpeitian gizonentzako espetxe bat izan zuten, barruti judizialeko espetxea, baina jarri zuten emakume presoak edukitzeko toki bat ere, lazaretoa. 20. hamarkadan eraikia zen eta Izarraitz auzoan zegoen. Eraikin hura emakumeentzako kartzela bihurtzeko egokitze-lanak 1938an egin zituztela pentsa daiteke; izan ere, badirudi, ordura arte, Loiolan sartzen zituztela preso. Gai horren inguruan, urte hartako urtarilaren 12ko udal-aktetan jasota dago Lucio Alberdi delako bati egindako ordainketa, "hamabi trapu Loiolako emakume presoer", eta urte hartako martxoan bertan, "egurrezko itxurak garbitu eta kendu zituzten Loiolan, emakume presoak handik aterak zirelako"<sup>280</sup>.

Lazaretoan preso zeuzkaten emakumeak, Azpeitiko kartzelan zeuzkaten gizonak bezalaxe, Estatuko beste toki batzuetatik ekarritako errepublikanoak ziren gehienak. "Matxinadari laguntzea", edota "matxinada militarra" delituak egin zituztelakoan kondenatutako emakumeak ziren, eta zigorrak gain, etxetik ehunka kilometrotara preso egotea ere sufritu behar izan zuten. Francisca Gálvez Vázquez izan zen haietako bat, Torrijos (Toledo) herrikoa. "Matxinada gorriaren garaian aurrekari ezkerriarrak izandakoa zela, eta horrez gain, milizianoak gehiegikeriak egitera bultzatu zituela, eta semeak indarkeriazko ekintzak eta hiletak egitera bultzatu zituela", horixe leporatu zioten. 1940ko maiatzaren 6an Azpeitiko espetxean (seguru asko lazaretoan) hil zen, endokarditisak jota, eta bertako hilerrian lurperatu zuten<sup>281</sup>.

Baina Azpeitian preso egondako emakumeen artean izan ziren Azpeitiko eta Euskal Herriko beste lekuren bateko emakumeak ere. Bertako emakume gehienei eginiko akusazioa "lapurreta" izan zen. Gerra ondorena zen, eta altxatutakoen aurka borrokan ibilitakoen familiakoak miseriarik gorrienean gelditu ziren. Aipagarria da Catalina Michelena Aramendiren kasua; izan ere, Antonio Eguiguren medikuaren arabera, jasotzen zuen elikagai-anoa (razioa) ez zen behar adinakoa, zuen gaixotasunagatik<sup>282</sup>. Eta badirudi hainbat izan zirela preso zeudela gaixotu ziren emakumeak. Hala, 1941eko urtarilaren 28an, Udalak 55,50 pezeta ordaindu zizkion Lucio Alberdiri, "Lazaretoan gaixo zeuden emakume presoer emandako arrainagatik"<sup>283</sup>.



144 - Azpeitiko emakumeentzako espetxeko dokumentua, berrerabilia. (Artxibo Historiko Probintziala 3579/099).



145 - Catalina Michelena Aramandiri buruzko dokumentua. (Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintziala 2784/081).


<sup>280</sup> AUA (Sig. 0276-02; Kod.: 12).

<sup>281</sup> GPAH\_3579\_Esp.099\_09r

<sup>282</sup> GPAH\_2784\_Esp.081\_03r

<sup>283</sup> AUA (Sig. 0277-01; Kod.: 12).

## 4.4. Azpeitiko espetxea lehen frankismoaldian



146 - Azpeitiko espetxea. (Aranzadi Z.E./Imanol Elias funtsa).



*“Presoen begiek distira egiten dute, beldurra eta astinaldia adieraziz; aurpegi zurbilek, burezur soilek, erakusten dute denbora luzea daramatela giltzapean. Gaztela Zaharrekoak dira batzuk, Extremadurakoak ere badira, eta Gerra Zibila hasi zenetik, aspalditik, kartzelak preso horietaz gainezka daude.”<sup>284</sup>*

Gerra Zibila hasi eta Azpeitia altxatutako armadaren esku erori zen arte, herriko *Fronte Popularraren Defentsa Batzordearen* aginduz atxilotutako eskuindarrak egon ziren Azpeitiko kartzelan, Loiolako santutegiaren sotoen ondoan. 1936ko irailaren 20tik aurrera, ordea, kolpistei aurka egindako pertsonak sartu zituzten kartzela hartan.

Azpeitian *Junta de Guerra Carlista* eta *Komandantzia Militarra* eratu eta hurrengo hilabeteetan, dozenaka izan ziren espetxe hartan sartu zituzten azpeitiarrak eta inguruko herrietako gipuzkoarrak; haien artean, hainbat apaiz ere bai; hala nola Iñaki Azpiazu eta Jose Antonio Lasquibar<sup>285</sup>. Antza denez, Mikel Aizpuruk *El otoño de 1936 en Guipúzcoa. Los fusilamientos de Hernani*. obran jasotzen duenez, irailaren bukaerari Azpeitiko kartzelan 62 pertsona aurkitzen ziren espetxeraturik. Kasurik onenean, denbora gutxi egon ziren espetxean, *Komandantzia Militarra* ezarritako isuna ordaindu ondoren askatu egiten baitzituzten. Kasurik okerreanean, berriz, fusilatzeke ateratzen zituzten ziegatik.

Gipuzkoako gobernadore zibilaren aginduz atxilotu zituzten azpeitiarrentzat, berriz,aldi baterako espetxea zen Azpeitiko; Donostia, Ondarretako espetxera, gerra-kontseiluan epaitzera, eramaten zituzten arte edukitzen zituzten han. Dinamika hura areagotu egin zen, gerran gauza handirik egin gabe herritik ihes egin eta agintari berrien errepresaliarik jasango ez zutelakoan, ihes egindako haiek berriro herrira itzultzen hasi ahala. Askori gertatu zitzairen, ordea, herrira itzuli bezain laster, beste herritarren baten salaketa jasotzea. Hala gertatu zitzairen Maria eta Maximina Arrieta Zubimendi ahizpei. *Margaritas* emakumeen erakundeko Rosario Echeverria Altamira, Ignacia Bereciartua Azpiazu eta Pilar Aguirre Perezek salatu zituzten bi ahizpak.

<sup>284</sup> ARTECHE GOROSTEGUI, J.: *Un vasco en la posguerra. Diario 1939-1971.* (1977).

<sup>285</sup> AZPIAZU OLAIZOLA, I.: *7 meses y 7 días en la España de Franco.* (1964).

25

Señor Jefe de la Prisión P de San Sebastián

Mi Señor mio, ante todo le imploro perdona el atrevimiento de dirigirme a Ud., pero en vista que me devuelven mis cartas, por que mi marido falleio el 15 del corriente, quisiera que tuviera el favor de decirme la forma de poder recibir los pocos trajes viejos o lo que tuviera favor que es pero del bondad o corason de V

L. P. M.  
Amalia Pizarro

Vale

Concuso que V viera que facturando era la mejor manera la borra del cobhion y lo mandaria via el importe o si tomara la molestia de mandarlo aparte devida el Señor a lo reconvenciera.

147 - Amalia Pizarrok Ondarretako espetxeko zuzendariari bidalitako gutuna. (Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintziala 3594/059).

dena jasotakoak ziren<sup>287</sup>. Jose de Artechek emandako lekukotzaren arabera, espetxetik atera eta herriko hainbat tokitan gatibu-lanak egitera behartzen zituzten preso haiek; kaletik elurra kentzen jartzen zituzten, adibidez.

*"Herriarrek, txintik esan gabe, sagardoz, ardoz edo esnez betetako edalontziak jartzen zituzten ateetako orpoetan; bestela, diru-papera, bost pezetakoak, harriei lotuta. Presoek, isil-isilik, joan eta irrikaz hartzen zituzten edalontziak, dirua eta ogi-puskak."*<sup>288</sup>

Hark guztiak izandako ondoriorik traumatikoena, emakumeen espetxean Francisca Galvez Vazquez hiltzeaz gain, zera da, Azpeitiko kartzelan, 1939tik 1941erako tartean, preso haietatik gutxienez lau hil egin zirela: Juan Morales Artiles, Juan Casado Lorite, Francisco Delfa Hernández eta Luis Palomino Gutiérrez. Azpeitiko hilerrian lurperatu zituzten denak.

Bestalde, Manuel Martín Martínez Azpeitiko espetxetik Donostiako San Antonio Abad Ospitale Zibilera (Manteoko ospitalea) lekualdaturia izan zen 1941eko uztailean, non biriketako tuberkulosi baten ondorioz hilko zen 1942ko otsailaren 14ean<sup>289</sup>.

1939an, gerra amaitu eta herrira itzultzean, iritsi bezain laster atxilotzen zituzten borrokalari ohiak eta "gorrien agintaldian" nabarmendu zirenak; armada frankistak harrapatu gabekoak edo aske gelditutakoak. Partikularrek eginiko salaketez gain, Falangeak eta tokiko beste agintari batzuek eginiko ikerketen harira abiarazten zituzten atxilotze-prozesuak, "glorioso movimiento nacional" esaten zioten haren inguruan zer jokabide izan ote zuten argitzeko<sup>286</sup>. Horixe gertatu zitzaion, besteak beste, Esteban Barredo, Jose Campos, Antonio Juaristi eta Daniel Odriozolari. Ondarretako espetxera eraman zituzten ondoren denak, epaile militar baten jurisdikziopean gelditu baino lehen. Beste bost azpeitiarri, berriz, desertzio-delitua leporatu zieten eta, ondoren, absolbitu egin zituzten: Lucas Orbegozo Orbegozo, Ignacio Zubimendi Olaiola, Tomas Odriozola Echeverria, eta Ignacio eta Jose Ramon Odriozola Alberdi anaiak.

Nolanahi ere, aipagarria zera da, Azpeitiko espetxean zeuden azpeitiarrentzat eta euskal herritarrentzat ez zela espetxe hura kondenatu ondorengo espetxea izan, baizik auzitegi militar frankistek epaitu aurretik egondako behin-behineko espetxea. Dozenaka preso espainiar errepublikano, ordea, jatorriko probintzietan kondenatu ondoren ekarri zituzten Azpeitiko espetxera eta, modu berean, euskal preso asko Andaluziara edo Extremadurara eramaten zituzten kondenatu ondoren. Beraz, dispertsio-politika bat diseinatu zuen erregimen frankistak, eta helburua errepresalatuaren kondena gogortzea besterik ez zen.

Azpeitian espetxeratu zituzten preso errepublikano espainiar gehienak Jaengoak ziren (dokumentatutako 41 presoetatik 28) eta "matxinadari laguntzea" delituagatik gerra-kontseiluan kon-

- 87 -

DON ANTONIO MAYA PEREZ, Jefe de la Prisión de Partido de Azpeitia, pone en conocimiento del Juzgado Municipal de esta Villa:

PRIMERO: Que Juan Morales Artiles, natural y vecino de Las Palmas (Canarias), de cincuenta y siete años de edad, profesión carpintero, detenido en esta Prisión, ha fallecido en el día de hoy, a las veintitres horas, a consecuencia de la enfermedad que se expresa en la certificación facultativa que se acompaña.

SEGUNDO: Que se desconoce el nombre, edad y naturaleza de los padres del mentado individuo.

TERCERO: Que el difunto era soltero y sin hijos.

CUARTO: Que en esta Prisión no ha otorgado testamento, ni ha manifestado haberle otorgado en otro sitio.

QUINTO: Que el cadáver ha de ser sepultado en el Cementerio Parroquial de esta localidad.

Todo lo cual manifiesto ante el Juzgado como Jefe del mencionado Establecimiento Penitenciario y a tenor de lo que dispone el artículo 76 de la Ley del Registro Civil.

Azpeitia 13 de Agosto de 1939.

Año de la Victoria

El Jefe.

Antonio Maya

148 - Juan Morales Artilleri buruzko dokumentua. (AUA).

<sup>286</sup> GPAH:2784/0/1

<sup>287</sup> Ane Leturia, Eduarne Oñatibia, Lide Gurrutxaga eta Marta Leturiak Gipuzkoako Artxibategi Historiko Probintzialesan egindako ikerketa-lanetik ateratako datuak.

<sup>288</sup> ARTECHE GOROSTEGUI, J.: *Un vasco en la posguerra*. Diario 1939-1971. (1977).

<sup>289</sup> GPAH.



149 - Luis Palomino Gutierrez buruzko dokumentua. (Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintziala 3579/099).

## X. Zerrenda: Azpeitiko kartzelan espetxeratutako preso errepublikar espainiarrak

SIGNATURA GPAH	ABIZENAK	IZENAK	JAIO TERRIA	DELITUA	ZIGORRA	AZPEITIKO KARTZELAN	OHARRAK
2784/0/1; 17	Barrios Muñoz	Domingo	Villargordo (Jaén)	"Matxinadari laguntzea"	12 urte eta egun 1	1941/03/26	Berarekin batera beste 12 preso lekualdatu zituzten Azpeititik Madrilera 1941eko uztailaren 25ean.
2784/0/1; 19	Berastegui Martínez	Jose Maria	Navas de Tolosa (Jaén)	"Matxinadari laguntzea"	12 urte eta egun 1	1941/03/26	Escorial-en Brunete-ren berreraikitze lana egitera eramana.
2784/0/1; 20	Bermejo Ciudad	Manuel	Villanueva San Carlos (Ciudad Real)	"Matxinadari laguntzea"	12 urte eta egun 1	1941/03/26	Almaden-eko minetara lanera eraman zuten. 1945eko uztailaren 30ean bere zigorra mantentzeko agindua eman zen.
2784/0/1; 21	Bonilla Bonilla	Francisco	Fuensanta (Albacete)	"Matxinadari laguntzea"	12 urte eta egun 1	1941/03/26	Talavera de la Reina eraman zuten 3. kolonia penitentiario militarizatuko taldean lan egiteko.
2784/0/1; 24	Campos Ruiz	Mateo	Ubeda (Jaén)	"Matxinadari laguntzea"	12 urte eta egun 1	1941/03/26	1941eko uztailaren 25ean Madrilgo Santa Rita espetxera lekualdatu zuten.
2784/0/1; 25	Casado Lorite	Juan	Canena (Jaén)	"Matxinadari laguntzea"	12 urte eta egun 1	1941/03/26	1941eko apirilaren 21ean hil zen Azpeitiko espetxeko erizaindegian apendizitis baten ondorioz. Egun berean Azpeitiko hilerrian gorpuari lur emateko agindua eman zen.
2784/0/1; 30	Delfa Hernández	Francisco	Centenillo (Jaén)	"Matxinadari laguntzea"	12 urte eta egun 1		1941eko maiatzaren 29an hil zen, eta Azpeitiko hilerrian lurperatu zuten.
2784/0/1; 31	Díaz Moreno	Feliciano	Villacarrillo (Jaén)	"Matxinadari laguntzea"	12 urte eta egun 1	1941/03/26	
2784/0/1; 33	Domínguez Crespo	Pablo	Moralzarzal (Madrid)			1939/11/14	Colmenar Viejo-ko epaitegi instrukore militarren dispozizioan geratu zen.
2784/0/1; 34	Domínguez Rego	Cecilio	San Feliz (Pola de Lena, Asturias)			1939/11/18	1939ko azaroaren 19an Oviedoko espetxera lekualdatu zuten.
2784/0/1; 35	Dumont Gómez	Pedro	Navas de Tolosa (Jaén)	"Matxinadari laguntzea"		1941/03/26	1941eko uztailaren 25ean Madrilgo Santa Rita espetxera lekualdatu zuten
2784/0/1; 52	Fernández Maldonado	Martín	La Carolina (Jaén)	"Matxinadari laguntzea"	12 urte eta egun 1	1941/03/26	Alcazar de San Juan-era (Ciudad Real) lekualdatua izan zen bertako eraikina eraikitzeko. 1945eko maiatzaren 21eko telegrama batean bere zigorra mantentzea agintzen da, oraindik Alcazar de San Juan-en jarraitzen duelarik.

SIGNATURA GPAH	ABIZENAK	IZENAK	JAIOTERRIA	DELITUA	ZIGORRA	AZPEITIKO KARTZELAN	OHARRAK
2837/0/1; 55	Gálvez Vázquez	Francisca	Torrijos (Toledo)	Matxinatzea bultzatzea.	6 urte eta egun 1	1940/03/20	Delitua: Matxinada gorriaren garaian aurrekari ezkerriak edukitzea. Milizianoak gehiegikeriak egitera induzitu zituen, eta bere semeak biolentziaz jokatzera eta erailketak egitera animatu zituen. Espetxean hil zen 1940ko maiatzaren 6an. Azpeitian lurperatu zuten.
2784/0/1; 61	González Sánchez	Josefa	Mengabril (Badajoz)	"Matxinada militarra"	6 urte eta egun 1	1940/03/20	Sententzia: Gorrien dominazio garaian pertsona eskuindarren aurkako jarrerak indartu zituen, zeinak maiz iraintzen zituen. Ez dakigu Azpeititik nora izan zen lekualdatua.
2784/0/1; 62	Gorrin Martín	Jose	Los Silos (Tenerife)			1938/12/01	1936ko uztailaren 20an atxilotua Tenerifen, gerra kontseiluak absolbitu egin zuen irailaren 20an. Las Palmas-era desterraturia izan zen. 1937ko martxoaren 24an berriro atxilotua, Fife-n(Tenerife) espetxeraturia, 1938ko azaroan Donostiara lekualdatu zuten arte bertan egon zen.
2784/0/1; 64	Guerra Hernández	Pedro	Villa de Mazo (Tenerife)			1938/12/02	1939ko urriaren 21ean Donostiako 11. epaitegi militarren esku geratu zen. 1939ko apirilaren 12an askatzea agindu zuen epaitegi berdinak. 1940ko urtarrilaren 14an aske utzia izan zen segurtasun zuzendariak eskatuta.
2784/0/1; 67	Ibáñez Picado	Apodisio	Villaviudas (Palencia)			1941/07/30	
3595/0/1; 64	Jiménez Pérez	Jose	La Carolina (Jaén)	"Matxinadari laguntzea"		1941/03/26	1941eko uztailaren 23an Donostiako espetxera lekualdatua izan zen. 1942ko otsailaren 19an baldintzapeko askatasuna eman zioten.
3594/0/1; 16	Juarez Hervas	Pedro	Solera (Jaén)	"Matxinadari laguntzea"	12 urte eta egun 1	1941/03/26	Indultatua. 1942ko abuztuaren 21ean Zegamako Destakamendu penalera eraman zuten obra publikoetan lan egitera, bertan egon zelarik 1941eko abenduaren 15a arte
2784/0/1; 75	Lara Torres	Adriano	Fuensanta (Jaén)	"Matxinadari laguntzea"	12 urte eta egun 1	1941/03/26	Valladolid-era lekualdatua izan zen, "Adoratrizen Komentua" erailkitzeko.
2784/0/1; 79	López Martínez	Miguel	Navas de Tolosa (Jaén)	"Matxinadari laguntzea"	12 urte eta egun 1	1941/03/26	1941eko apirilaren 19an Belchite-ra lekualdatua izan zen hiriaren berreraikitze lanak egiteko. 1945eko maiatzaren 21ean Donostiatik bidaltzen da telegrama bat esanaz "zigorraren iraugitzea baieztatzen zela, itxitako Azpeitiko espetxetik Belchite-ra"
3583/0/1; 50	Manresa Fernández	Jose	Collosa de Segura (Alicante)	"Matxinadari laguntzea"	12 urte eta egun 1	1941/03/26	1944ko azaroaren 7an Linares-ko espetxetik idatzitako eskutitz batean honakoa esaten da: "Pairatzen ari den 6 urte eta egun 1eko zigorra, 3 urte eta egun 1ekoagatik kommutatua izan da. 1944ko azaroaren 23an behin betiko lizentziatua. Bere aldekoa da zaintzapean zituen presoan bitzita defendatu eta ondo tratatu izana"
3594/0/1; 50	Marín Vizcaino	Doroteo	Villanueva del Arzobispo (Jaén)	"Matxinadari laguntzea"	12 urte eta egun 1	1941/03/26	Indultatua. 1942ko abuztuaren 21ean Zegamara eraman zuten lanera.
3594/0/1; 59	Martín Martínez	Manuel	Linares (Jaén)	"Matxinadari laguntzea"	12 urte eta egun 1		1941eko abenduaren 13an Zaragozako espetxe probintzialera lekualdatzeko agindua eman zen, Utrillas-eko minetan lan egin zezan. 1941eko abenduaren 19an lekualdatze hau egin ezina zela esan zen, biriketako tuberkulosia pairatzen baitzuen, baziloskopia positiboarekin.
3620/0/1; 16	Martínez Tirado	Antonio	Torrequibradilla (Jaén)	"Matxinadari laguntzea"	12 urte eta egun 1	1941/03/26	1942ko abenduaren 25ean askatasun "atenuatua". 1943ko abuztuaren 18an askatasun deserriraturia. 1951ko martxoaren 23an indultua.
3614/0/1; 13	Mateos Jareño	Domingo	Villagordo (Jaén)	"Matxinadari laguntzea"	12 urte eta egun 1		1941eko uztailaren 23an Donostiako espetxera lekualdatu zuten. 1942ko otsailaren 4ean askatasun kondizionala eman zioten.

SIGNATURA GPAH	ABIZENAK	IZENAK	JAIOTERRIA	DELITUA	ZIGORRA	AZPEITIKO KARTZELAN	OHARRAK
3614/0/1; 45	Montoro Fernández	Pedro	Huelma (Jaén)	"Matxinadari laguntzea"	12 urte eta egun 1	1941/03/26	1942ko martxoaren 18an aldi baterako elektrizista laguntzaile izendatu zuten. 1942ko abuztuaren 14ean peoi edo jornalari lanetarako ez gauza (zahartasuna) deklaratu zuten. 1950eko maiatzaren 11an indultua eman zioten.
2784/0/1; 83	Moya López	Pablo	Santisteban del Puerto (Jaén)	"Matxinadari laguntzea"	12 urte eta egun 1	1941/03/26	1941eko uztailaren 25ean Madrilgo Santa Rita espetxera lekualdatu zuten
2784/0/1; 84	Mullor Hernández	Manuel	Enix (Almería)	"Matxinadari laguntzea"	12 urte eta egun 1	1941/03/26	1941eko uztailaren 20an Madrilgo Santa Rita espetxera lekualdatu zuten
3577/0/1; 77	Palacios García	Antonio	Los Villares (Jaén)	"Matxinadari laguntzea"	12 urte eta egun 1	1941/03/26	Baldintzapeko askatasuna lorturik, jaenera itzuli zen, baina Guardia Zibilak zaintzapean izan zuen. 1948eko apirilaren 9an Jaengo idatzi baten bidez bere "behin betiko lizentzia" eskatu zion Donostiako espetxe zuzendariari. 1945eko apirilaren 16an eman zioten.
3579/0/1; 99	Paulino Gutierrez	Luis	Torre del Campo (Jaén)	"Matxinadari laguntzea"	12 urte eta egun 1	1941/03/26	Azpeitiko hilerrian lurperatua
3576/0/1; 41	Peña Herrerías	Jose	Villanueva Minas (Sevilla)	"Matxinadari laguntzea"	12 urte eta egun 1	1941/03/26	1941eko maiatzaren 10ean Almadeneko espetxera (Ciudad Real) lekualdatua izan zen.
3576/0/1; 47	Pérez Del Caño	Jose	Martos (Jaén)	"Matxinadari laguntzea"	12 urte eta egun 1	1941/03/26	1941eko irailaren 29an Dos Hermanas-era lekualdatua izan zen, lehenengo kolonia penitentiario militarizatuen taldean lan egiteko.
3577/0/1; 86	Rey Aguilera	Eduardo	Almedimilla (Jaén)	"Matxinadari laguntzea"	12 urte eta egun 1	1941/03/26	Frankoren altxamenduaren aurretik zerbitzu militarra betetzen ari zen, eta ondoren "armada gorria"n sarzea leporatzen zioten. 1941eko otsailaren 6an Jaenera eraman zuten, eta 1941eko uztailaren 23an Donostiara. 1941eko abuztuaren 1ean zigorra 6 urte eta egun 1era jeitsi zioten. 1946ko martxoaren 29an behin betiko askatasunarekin aske geratu zen.
3577/0/1; 87	Reyes Galera	Jose	Canena (Jaén)	"Matxinadari laguntzea"	12 urte eta egun 1	1941/03/26	1941eko maiatzaren 10ean Almadeneko espetxera (Ciudad Real) lekualdatua izan zen.
3582/0/1; 5	Rodríguez Bueno	Domingo	Villanueva de Arzobispo (Jaén)	"Matxinadari laguntzea"	12 urte eta egun 1	1941/03/26	1941eko ekainaren 3an Léridara lekualdatua izan zen.
3576/0/1; 75	Rodríguez Gámez	Diego	Betmar (Jaén)	"Matxinadari laguntzea"	12 urte eta egun 1	1941/03/26	Baldintzapeko askatasunean utzi zuten, baina 1945eko maiatzaren 21ean Jaengo epaitegi betearazleak 12 urteko zigorra mantentzea agindu zuen. 1950eko urriaren 10ean zigorra iraungi zitzaion. 1950eko azaroaren 29an idatzi bat egin zen, behin betiko askatasunean libre geratu zela esanaz.
3582/0/1; 15	Romero Morales	Martín	Santiago de Calatrava (Jaén)	"Matxinadari laguntzea"	12 urte eta egun 1	1941/03/26	1941eko uztailaren 17an Madrilgo Santa Rita espetxera lekualdatua izan zen.
3582/0/1; 19	Romero Vallejo	Dimas	Porcuna (Jaén)	"Matxinadari laguntzea"		1941/03/26	1951ko uztailaren 11an behin betiko lizentziamendua eman zioten. Ordu arte zaintzapeko askatasunean egon zen.
3581/0/1; 73	Ruiz Rodríguez	Eulogio	Moreda (Granada)	"Matxinadari laguntzea"	12 urte eta egun 1	1941/03/26	1941eko uztailaren 25ean Madrilgo Santa Rita espetxera lekualdatu zuten.
3600/0/1; 13	Valenzuela Navarro	Luciano	Solera (Jaén)	"Matxinadari laguntzea"	12 urte eta egun 1		1941eko irailaren 29an "Dos Hermanas"eko espetxera (Sevilla) bidali zuten, lehenengo kolonia penitentiario militarizatuko taldean lan egiteko. 1941eko urriaren 4ean Sevillako espetxean sartu zuten. 1942ko ekainaren 1ean seigarren taldean sartu zen.

## 4.5. Urrestillako gertaerak eta epaiz kanpoko beste exekuzio batzuk

"Irailaren 27an, goizaldeko ordu batean, bi pertsona fusilatu zituzten, eta hilaren 28an hilerri honetan lurperatu zituzten. Lasquibar apaizak eman zien penitentziako sakramentua, eta Juan Aracama apaizak, berriz, oliadura. Irailaren 29an, beste pertsona bat fusilatu zuten gaueko hamaiketan, eta hilaren 30ean lurperatu zuten. Casiano Garayalde apaizak eman zion penitentziako sakramentua, eta oliadura, berriz, Juan Aracama apaizak. Urriaren biko gauean, gaueko hamaiketan, beste pertsona bat ere fusilatu zuten, eta hilaren 3an lurperatu zuten. Apaiz berdinek eman zizkieten sakramentuak. Ez zituzten haien heriotza-agiriak sinatu, militarrek ez baitzuten haien daturik eman nahi izan"<sup>290</sup>.

Urrestillako parrokiako heriotzen 9. liburuan dago ohar hori jarrita, solte. Ignacio Artechek aipatu zuen *Historia de Azpeitia* liburuan<sup>291</sup> eta hori da altxatutako tropek Urrestillan 1936ko irailaren hasieratik urriaren hasierara eginiko fusilamentuei buruz iturririk argigarriena. Horrez gain, bada datarik gabeko beste ohar bat, 1936ko uztailearen 18ko heriotza-akta baten ertzean jarria. Honako hau dio:

*"Ezin izan da parrokia honetako jurisdikzioan hil dituzten lau pertsonen heriotza-agiririk egin, militarrek ez baitute beharrezko daturik eman nahi izan"*<sup>292</sup>

Badirudi aipatutako ohar solte hori Urrestillako Tomas Telleria apaiz ekonomoak idatzitako jatorrizko oharren transkripzio bat dela. 1936ko uztailearen 18ko aktan eginiko oharra, berriz, badirudi aipatutako Tomas horrek idatzia dela, baina oharra egin duen heriotza-aktaren data ez dator bat oharrean kontatutakoekin.

Ignacio Artechek, agiri horietatik abiatuta, Iñaki Azpiazen lana kontsultatu zuen militarrek fusilatu eta izenak gordetzen saiatu ziren haiek nor ziren jakiteko. Eta hain zuzen ere, Iñaki Azpiazen liburuan kontatu zuen nola Azpeitiko espetxean preso zegoela zeldetatik atera zituzten bi miliziano, "bata Bilboko eta bestea Erandiokoa" eta, fusilatzerara eraman zituzten, Jose Antonio Lasquibar apaizaren aurrean aitortza egin eta gero. Horrez gain, Valderrama abizena zuen sendagile odontologo donostiar batekin izandako harremana ere kontatzen du liburuan. Iñaki Azpiazu askatu zuten egun berean fusilatu zuten Valderrama hura: "*Hurrengo egunean baldintzapean aske utzi ninduten. Gau hartan bertan, epaiketarik eta inolako prozesurik gabe fusilatu egin zuten*". Apaiz azpeitiarrak gehiago ere kontatu zuen fusilatua familiako bati erreferentzia eginez. Familiako hari zer gertatu zen kontatu zion eta hona zer erantzun zion hark: "*Mesede hori ere zor digu guri. Horri esker, izandako bizitza gaiztoaz damututa hiltzeko aukera izan baitu*"<sup>293</sup>.

Beraz, Iñaki Azpiazu aipatutako bi milizianoak irailaren 27an fusilatutako haiek izan daitezke, Tomas Telleriaren oharren arabera, baina ez dago bi haiek nor ziren jakiteko daturik, ez apaiz azpeitiarrak haien jatorriaz adierazitakoaz gain beste daturik. Valderrama abizeneko odontologo hari dagokionez, Iñaki Azpiazu espetxetik "1936ko urriaren lehen egunean" atera zela kontuan hartuta<sup>294</sup>, baliteke Valderrama urriaren 2an fusilatua izatea. Kasu horri dagokionez, bada Antonio Valderrama Barrenechea izeneko donostiar bati dagokion heriotza-akta bat, eta heriotzaren lekua eta data erregistratzen den tokian honako hau dio: "Hiri hartan (Donostian) desagertu zen 1936ko irailean"<sup>295</sup>.

Torrelavegako (Kantabria) 19 urteko gazte bat ere aipatzen du Ignacio Artechek egun haietan fusilatutakoaren artean, Lorenzo Zabala Ríos izeneko<sup>296</sup>. Irailaren 29an eraildako izan daiteke mutil hura lehen aipatutako iturriak kontuan hartuz gero. Ez dakigu, ordea, Ignacio Artechek nondik atera zuen pertsona haren izena, Iñaki Azpiazu ez baitzuen aipatu. Nolanahi ere, bada Tolosako espetxeko espediente bat, eta hor jasota dago Lorenzo Zabala Ríos delako bat atxilotu zutela 1936ko abuztuaren 19an (badirudi hasiera batean izen faltsua ematen saiatu zela Pedro Ríos Puentevilla zela esanda). Espediente horren arabera, Ondarretako espetxera eraman zuten azaroaren 13an, ondoren Beran (Nafarroa) fusilatu zituzten beste preso batzuekin batera<sup>297</sup>. Beraz, Tolosako espetxeko txosten horretako datuak zuzenak badira, akatsen bat dago Ignacio Artechek fusilatutako pertsonaren inguruan eginiko identifikazioan.

**150 - Antonio Valderrama Barrenechearen heriotza-akta. (Donostiako Erregistro Zibila)**

Folio \_\_\_\_\_

### ACTA DE DEFUNCION

REGISTRO CIVIL DE \_\_\_\_\_

Número 308      DISTRITO DE \_\_\_\_\_

X

**HOMBRE Y APELLIDOS**

Antonio Valderrama Barrenechea

En San Sebastian, provincia de Guipuzcoa, a las diez y diez minutos del día once de Marzo de mil novecientos cuarenta, ante D. Juan Antonio de Olazabal, Juez municipal \_\_\_\_\_, y D. Jose Ramon de Olazabal, Secretario \_\_\_\_\_, se procede a inscribir la defunción de D. Antonio Valderrama Barrenechea, (a) nacido en San Sebastian, provincia de Guipuzcoa, el día \_\_\_\_\_ de \_\_\_\_\_ de mil ochocientos treinta y tres; hijo de D. Miguel y de D. Carolina, domiciliado en la calle \_\_\_\_\_, de Garikay, número 16, piso 3º, de profesión \_\_\_\_\_ y de estado (1) casado con D.ª Carmen Echave

falló en (2) desapareció en esta Ciudad el día \_\_\_\_\_ de Setiembre de 1936, a las \_\_\_\_\_

consecuencia de \_\_\_\_\_

<sup>290</sup> Donostiako Elizbarutiaren Artxibo Historikoa (Urrestillako Andre Mariaren Jaiotzaren Parrokiako Artxibategia); 9. Liburua, heriotzak; ohar soltea).

<sup>291</sup> ARTECHE ELEJALDE, I.: *Historia de Azpeitia*. (1998).

<sup>292</sup> Donostiako Elizbarutiaren Artxibo Historikoa (Urrestillako Andre Mariaren Jaiotzaren Parrokiako Artxibategia); 9. Liburua, heriotzak; 10. orria, 11.zk, bazterreko oharra).

<sup>293</sup> AZPIAZU OLAIZOLA, I.: *7 meses y 7 días en la España de Franco*. (1964).

<sup>294</sup> DE GAMBOA, J.M. eta LARRONDE, J.-C.: *La guerra civil en Euzkadi: 136 testimonios inéditos recogidos por Jose Miguel de Barandiaran*. (2005).

<sup>295</sup> Donostiako Erregistro Zibila.

Azkenik, Iñaki Azpiatzuk kontaktu eta Ignacio Artechek jasotako gertaerak izan eta handik hilabetera, beste pertsona bat ere hil zuten Urrestillan. Jose Francisco Echaniz Azpiazu, ezizenez "Astapatxiko" hain zuzen ere. 42 urte zituen eta ELAko sindikalista zen. Badirudi Mendaronek ezkatututa zegoela, eta atxilotu ondoren, Urrestillako hilerriaren kanpoaldean fusilatu zuten 1936ko azaroaren 1ean<sup>298</sup>.


Edonola ere, 2014ko azaroan, Aranzadi Zientzia Elkarteko teknikari talde batek, Urrestillako hainbat herritarrek fusilatutako auzo hartako hilerriaren kanpoaldean lurperatu zituztela adierazteko emandako lekukotzen harira, azterketa arkeologikoak egin zituen fusilatu zituzten gutxienez lau pertsona haien gorpuzkiak bilatzeko. Ez zituzten aurkitu ordea; agian, 1936tik gerora, inguru hartan pinuak landatu eta ondoren haiek aterata lurrak mugitu zituztelako. Baina litekeena da gorpuzkiak hilerri barrura eraman izana ere, hala kontatu baitzuen lekuko batek.

Azken aukera gisa, baliteke pertsona haien hezurak lurpetik atera eta Valle de los Caídos delakora eraman izana Gobernazio Ministerioak probintzietako gobernadore zibilei 1958an igorritako Zirkularra betez. Zirkular hark adierazten zuen hobi komunak nola aurkitu eta haie-tako hezurak nola atera, gero Madrilera eramateko. Nolanahi ere, ez dugu hori horrela izan zela frogatzen duen dokumentaziorik aurkitu.

División de Partido de Filma

1

Expediente procesal de Pedro Rios Duenterella  
(Su verdadero nombre Lorenzo Zabala Rios)

Natural de <i>Fovues</i> provincia de <i>Santander</i>		SEÑAS PARTICULARES	
vecino de <i>id.</i> provincia de <i>id.</i>	hijo de <i>Agustín</i> y de <i>Catalina</i>	COLOR DE	Iris (ojos)
edad <i>23</i> profesión <i>Calderero</i>	instrucción <i>Si.</i> religión		Cabello
estado <i>Soltero</i> hijos	antecedentes <i>se ignoran</i> ingresa por <i>1.ª</i> vez	Piel	Cejas
Domiciliado <i>Carril de San Roque</i>		Nariz	Boca
Fórmula dactiloscópica		Barba	Cara
SEÑAS PARTICULARES		Talla	
		Pulgar derecho	

151 - Lorenzo Zabala Riosen auzipetze-espidentea. (Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintziala).



152 - Urrestillako hilerriaren kanpoaldea. Han egindakoak dira fusilatutako pertsonen hondakinak aurkitzeko zundaketa arkeologikoak. (Aranzadi Z.E.).

<sup>296</sup> ARTECHE ELEJALDE, I.: Historia de Azpeitia. (1998).

<sup>297</sup> GPAH.

<sup>298</sup> Aranzadi Zientzia Elkartearen artxiboa.



## 4.5.1. Epaiz kanpo fusilatutako beste azpeitiarrak

Urrestillako hilerriko gertakariez gain, Azpeitian epaiz kanpoko beste fusilamendurik egon ote zenaren zalantzak argitu gabe jarraitzen du. Testigu zuzenak izan ez ziren bizilagun batzuek baieztatzen dute matxinatutako tropak sartu zirenetik gutxienez bi pertsona fusilatutako izan zirela. Dirudienez, Eskusta baserri inguruko baratze batean lapurtzen harrapatu zuten gazte bat eraila izan zen, inguru horretan lurperatu zutelarik. Hala ere, eraila izan zen beste pertsona baten gorpua Uresaundi baserri inguruan egon daiteke. Edolona ere, susmo hauetatik bat bera ere ezin izan da egiaztatu orain arte.

Bestealde, iturri batzuen arabera, azpeitiko gazte bat Deban fusilatua izan zela esan zuen Iñaki Azpiatzuk, 1936ko irailaren bukaeran herri horretan bertan preso hartu ondoren. Dena dela informazio hau ezin izan da egiaztatu. Azkenik, epaiz kanpo fusilatutako gutxienez hiru azpeitiarren kasuen ziurtasuna dago. Inor ez zen Azpeitian eraila izan.

### GOENAGA ECHEVERRIA, LEONARDO "TXAIBER"

Leonardo Azpeitian jaio zen 1903. urtean, eta Eliz - kaleko bizilaguna zen. Tapizatzailea lanbidez, matxinatuen tropak Azpeitian sartu aurretik Bizkaia aldera ihes egin zuen. Antza denez, Markinako frontean zelarik, oinez, mendian barrena, etxera itzultzea erabaki zuen, etxera bidean Mutrikuko baserri batean aterpea eman ziotelarik. Handik gutxira erreketek talde bat aurkeztu zen baserri honetan, zeinak Leonardo fusilatzea erabaki zuen baserriaren lursailetan, baserriko nagusia Leonardo lurperatua izan zen zuloa zulatzeraz behartu zutelarik. 1970. urtean, Leonardoren semea eta lankide bat Mutrikura joan ziren Leonardoren gorpuzkinak eskuratu eta Azpeitian lurperatzeko<sup>299</sup>.



153 - Leonardo Goenaga Echeverria.  
(Familiak utzitako irudia).

### NAVALLAS ARTIEDA, DEMETRIO

1897. urtean Azpeitian jaioa, Demetrio Sanguesan ezkondu zen 1925ean, Oliteko emakume batekin, Maria Usaz-ekin. Bi alaba izan zituzten, Maria Salomé eta Rosario. Bigarren errepublika garaian Demetrio Iruñeako Calceteros kaleko 6. zenbakian bizi zen. Lanbidez jostuna zen, eta Izquierda Republicana-ko atezaina<sup>300</sup>. 1936ko uztailaren 19an Iruñeako espetxe probintzian espetxeratu izan zen, nongo erregistro liburuan Demetrio 1937ko martxoaren 15ean espetxetik atera zela agertzen den<sup>301</sup>. 1978. urtean Jimeno Juri historialariari Demetrioren alabek kontatu zionez, zortzi edo bederatz hilaitez espetxean eduki ondoren exekutatu izan zen, erregimen faxistaren gorespenerako egindako ospakizun batekin koitziditu zuelarik. Konkretuki, senitarteko honek exekuzio data posibletzat 1937ko maiatzaren 7a eman zuen. Bestealde, Iruñeako erregistro zibilean heriotza akta bat ageri da, 1981eko urriaren 8an datatua, Iruñeako lehenengo instantziako epaitegiaren aginduz. Heriotza ziurtagiri honetan ez dira ageri heriotza kausak, baina heriotza hau 1936ko abuztuaren 15ean gertatu zela dio, Iruñeako "vuelta del Castillo"n<sup>302</sup>. Jakina da leku horretan hainbat pertsona izan zirela exekutatuak, horien artean Ataungo bizilagun Jose Apaolaza Mugica eta Pedro Basurto Querejeta, biak Ezkabako gotorlekuan espetxeratuak izan ostean, eta abuztuaren 27an matxinada militarren delituean heriotza zigorrera sententziatuak izan ondoren. Beren exekuzioak 1936ko irailaren 3an gertatu ziren, baita ere "vuelta del Castillo y puerta de socorro"n<sup>303</sup>, zeinagatik Demetrioren exekuzioa aipatutako Ataungo bizilagunen gertaera berdintsuen ondoren gertatu ahal izan zitekeen. Dena dela, Demetrio espetxean hainbat hilabetez egon zenaren egiaztapenak, Iruñeako espetxeko erregistro liburuan eta Jimeno Juriok eskuratutako datuetan ikus daitekeenez, Demetrioren exekuzioa 1937. urteko erdialdean gertatu zenaren usteraz eramaten gaitu, eta bere heriotzaren inguruko ziurtagiriaren agertzen den informazioa, zeinak 1936ko abuztuan izan zela dioen, familiako ahozko transmisioaren errore edo konfusio bat dela, gertakariaren urruntasunaren ondorioz.

### OLAIZOLA ARREGUI, SIMON

Jatorriz Loiola auzoko Agite baserrikoa bazen ere, Simon Donostian bizi zen Bigarren Errepublika garaian. "Unión Gastronómica Guipuzcoana"ko fundatzailea izan zen, eta ELAra afiliatua zegoen. Itxura denez bere etxean izan zen atxilotua, bere emazte eta semearen aurrean, lankide batek jarritako salaketaren ondorioz, zeinak bere militantziaren berri eman zuen. Donostiako epaitegiak 1940ko irailean igorritako defuntzio aktaren arabera, Simon 1936ko urriaren 8an desagertu zen, "askatua" izan ostean, Hernaniko hilerrian fusilatua izan zela probablea den arren. Familiaren arabera, Galarretako parajeetan izan zen exekutatu (Hernani). Simonek 28 urte zituen, Paulina Alustizarekin ezkondua zegoen, eta adinez txikiko seme baten aita zen<sup>304</sup>.



154 - Simon Olaizola Arregui.  
(Hemendik ateratako argazkia: El otoño de 1936 en Guipúzcoa. Los fusilamientos de Hernani).

<sup>299</sup> Familiako lekukotza.

<sup>300</sup> Ibid.

<sup>301</sup> Jimeno Jurioren fondo dokumentala (gaur egun UPNAK kustodiatua).


<sup>302</sup> Nafarroako Artxibo Orokorra.

<sup>303</sup> Iruñeako erregistro Zibila (T.00023 ; 204. orr.).

<sup>304</sup> AIZPURU, M. (Zuz.): El otoño de 1936 en Guipúzcoa: Los fusilamientos de Hernani. (200).

Ahotsa geratzen zaidan bitartean  
hildakoez hitz egingo dut  
hain geldi, hain isilik,  
hain minduta daudenak.  
Ahotsa geratzen zaidan bitartean  
beren ametsez hitz egingo dut,  
traizio guztietaz,  
isiltasun guztietaz,  
izenik gabeko hezurretaz  
itzuleraren zain,  
beren entrega absolutuaz  
beren neguko minaz.  
Ahotsa geratzen zaidan bitartean  
ez dira isildu behar nire hildakoak<sup>305</sup>

## 4.6. Gerrako preso azpeitiarrak



155 - Jose Maria Garmendia Errastik preso zegoela emazteari idatzitako postala. (Maite Garmendia Altuna).

1937ko udan preso hartu zituzten armada frankistaren aurka gerrako frontean borrokan aritu ziren azpeitiar gehienak eta Azpeitia erori ondoren ihesean etorritakoak. Hain zuzen ere errepublika-garaian eta gerra hasi zenetik nolabait altxatutakoen aurka ibilitakoak. 1937ko ekainaren 19an Bilbo hartu ondoren, Larrinagako espetxea eta Deustuko Unibertsitatea (kontzentrazio-esparru bihurtu zuten) izan ziren Bizkaiko hiriburuko espetxe handienak. Baina zalantzarik gabe, 1937ko abuztuaren 24an Kantabriako herri horretan sinatutako errenditze hartan. Itunaren haritik, Eusko Gudarosteak errenditu eta armak entregatu zituen euskal buruzagi gorenaren ebakuzioa baimentzearen eta borrokalariak babestearen truke. Agintari frankistek ezeztatu egin zuten ituna ordea, eta El Duesoko espetxean espetxeratu zituzten berehala milaka gudari eta euskal miliziano. Urrian, epaitegi militar bat jarri zuten kartzela hartan bertan eta, beraz, sailkatuak izateko zain zeuden gerrako presoak eta zigorra jasotakoak pilatu ziren espetxe hartan. Jada zigorra jasoa zutenei dagokienez, 1937ko urrian, epaitegi hark gutxienez 510 heriotza-zigor emanak zituen jada<sup>306</sup>.

Lehenago, 1937ko martxoan, Bizkaiaren aurkako azken eraso hasi baino pixka bat lehenago, altxatutako militarren buruzagiek *Gerrako Presoak Sailkatzeko Agindu Orokorra* igorria zuten. Hala, lau kategoriatan sailkatzen zituzten presoak:

- A) "Presoak edo aurkeztutakoak, Mugimendu Nazionalaren aldekoak izatea justifikatzen dutenak edo, gutxienez, Mugimenduaren aurkakoak ez direnak, edo etsaiaren aldean soldadu ibilitakoen kasuan, behartuta egin izana, edo lerro horietan haien borondatez soldadu ibili arren, etsaiaren fronteari aurkeztea sustatzeko igorritako aldarrien ondorioz gurera borondatez etorritakoak".
- B) "Borondatez etsaiaren aldean soldadu ibili eta beste erantzukizun sozial, politiko edo arruntik ez duten presoak".

<sup>305</sup> Marisa Peñaren poema.

<sup>306</sup> BADIOLA ARIZTIMUÑO, A.: *Cárceles y campos de concentración en Bizkaia*. (2011).

- C) "Etsaiaren armadako buruak eta ofizialak; gure tropen aurkako ekintzetan nabarmendu edo gailendu diren pertsonak, harrapatutakoak zein aurkeztutakoak; Aberriaren eta *Mugimendu Nazionalaren* etsai diren alderdi eta jarduera politiko zein sozialen buruzagiak eta gailendutako kideak, *Mugimendu Nazional Askatzailea* baino lehen edo ondoren egindako matxinada edo bestelako ekintza sozial edo politikoko kideak".
- D) "Delitu arrunten edo jendearen zuzenbidearen aurkako delituen egiletzat jo daitezkeen pertsona harrapatuak edo aurkeztutakoak, izan delitu horiek Mugimendu Nazionala baino lehenagokoak edo ondorengoak."<sup>307</sup>

Saillkapen hartatik abiatuta, B atalean saillkatutakoak eta A ataleko zalantzakako kontzentrazio-esparruetara eta espetxe frankistetara eramaten zituzten atxiloaldiarekin jarraituz, hari eta langileen batailoiren batean sartzen zituzten arte. Hala, gerrako milaka preso errepresaliatu zituzten, urtetan gatibu-lanak egitera behartuta, espetxe bakoitzeko *Presoak Saillkatzeko Batzordearen* irizpenaren arabera. Batzorde haiek batez ere bi informazio-iturri erabiltzen zituzten erabakiak hartzeko: Presoen jatorriko lekuetako tokiko agintariek eginiko txostenak, eta agintari haiek aipatutako batzordeetan eginiko adierazpenak, defentsa-eskubiderik gabe.

Azpeitian, tokiko lau erakunde egin zituzten ehunka herritarrei errua botatzeko txostenak eta, txosten haiek batzordeetara eta, ondoren, gerra-kontseilueta helarazten zituzten. Hona lau erakunde horiek: Udala, Falangea, Guardia Zibila eta Eliza. Agiri haietako gehienak 1937ko bigarren seihilekotik 1941era arteko tartean egin zituzten, eta Udalak igorritako txostenen arduradun nagusia alkatea izan zen, Roque Astigarraga. Ignacio Egañak hartu zuen haren lekua 1939ko irailean. Falangearen Tokiko Buruzagitzari dagokionez, lehenengo, Ignacio Echeverria Altamira militar eta ELAko kide ohia izan zen lehen buruzagia eta, ondoren, 1938tik aurrera, 1915etik Azpeitiko udal musika-bandako zuzendaria, Hilario Bereciartua Uranga. Azpeitiko Guardia Zibilaren Komandantzia, Herme-negildo Calvo Ballesteros eta Florencio Mangas Luengo izan ziren buru eta, geroago, 1939tik 1941era, Lope López López. Azkenik, laugarren informazio-iturria Azpeitiko parrokiako apaiza izan zen, Casiano Garayalde, baina hark eginiko txostenak errepresaliatuaren jokabide erlijiosoari buruzkoak izaten ziren; ez zen politika arloan egindako jardueretan sartzen.

Guztiz ere, presoak etengabe lekualdatzen zituztenez, agintari militarrek eta espetxe frankistek erabateko arbitrariotasunez jokatzeko zuten, eta *Presoak Saillkatzeko Batzordeek* igorritako txostenen inguruko iturriak oso sakabanatuta zeudenez, oso zaila da jakitea zenbat gerrako preso azpeitiar egon zen eta zenbat sartu zituzten langileen batailoietan. Hala ere, batailoietan lan egitera behartu zituzten azpeitiarrak espetxeetako batzorde haien erabakiz egon ziren batailoietan, baina horiez gain, gerra-kontseiluetan epaitu eta auzia artxibatzearekin batera B atalean saillkatzen zituzten errepresaliatu asko ere batailoietara bidaltzen zituzten, beren aurrekariak eta adin militarrean al zeuden kontuan.

Beraz, dozenaka azpeitiar eduki zituzten langileen batailoietan gatibu; batzuk *Presoak Saillkatzeko Batzordeek* bidalita, besteak gerra-kontseiluen erabakiz. Antonio Loinaz Echaniz, adibidez, langileen lau batailoitan egon zen errepresaliatuta 1937ko urritik 1942ko abendura arteko tartean<sup>308</sup>. Zorte okerragoa izan zuen Blas Gurruchaga Lasak; izan ere, 1939ko abenduaren 20an hil zen, Oiartzun inguruan, zirkulazio-istripuan, ingeniariaren 6 erregimentu mistoko 2. batailoiko beste kideekin batera, "egoitza zuten herrira" zeramatela. Blas azpeitiarra zen, ezkongabea, 45 urte zituen eta Donostian bizi zen<sup>309</sup>.



**156 - Jose Maria Garmendia**  
Errastik preso zegoela  
grabatutako gurutzeta.  
(Maite Garmendia Altuna).



**157 - Hilario Bereciartua Uranga.** (Aran-zadi Z.E./Roque Astigarraga funtsa).



**158 - Ignacio Echeverria Altamira.**  
(Uztarría aldikaria).

<sup>307</sup> Saillkatzeko Agindu Orokorra (AGMA).

<sup>308</sup> Irakurri Langileen Batailoak eta Soldadu Langileen Diziiplina Batailoak.

<sup>309</sup> Aurretiazko eginbideak 3112/40 (AIRMN).

## XI. Zerrenda: Langileen batalioi eta konzentrazio-esparru frankistetan sartutako azpeitiarrak

IZENA	BATAIOIA EDO KONZENTRAZIO-ESPARRUA (K-E)
Aizpitarte Arocena, Francisco	BBTT 76 (Cáceres)
Aizpuru Eguiguren, Guillermo "Organikue"	Laredo (Cantabria) K-E/BDST (Donostia; Oiartzun)
Aizpuru Sarasua, Jose	Deusto K-E/BBTT Especial (Automobilak Berreskuratzeko Zerbitzua, Zornotzan)
Alcibar Zubizarreta, Jacinto	BBTT
Altuna Larrañaga, Claudio	Deusto K-E
Altuna Mendia, Pablo	Deusto K-E
Amuchastegui Gabilondo, Juan	BBTT
Amuchastegui Gabilondo, Ramón	BBTT 77 (Alcazarquivir, Marruecos)
Aramburu Cendoya, Juan "Komuntzo"	BDST 6 (Punta Paloma, Cadiz)
Aranguren Cendoya, Justo "Komuntzo"	BBTT
Arambarri Barrutia, Ignacio "Erreketete"	BBTT (Mediana del Rio Seco / Guadalajara)
Arrieta Aguirre Ignacio	BBTT
Arrue Larrañaga, Francisco	Aranda del Duero (Burgos) K-E
Arruti Lapeira, Vicente	BBTT
Arruti Lizarralde, Jose	BBTT 64 (Estella)/Miranda del Ebro K-E/BBTT nº 37 (Sevilla)
Ayerbe Aizpuru, Jesus	BBTT 64 (Estella)/Miranda del Ebro K-E
Azcue Garmendia, Roque	Aranda del Duero K-E
Azpiazu Echaniz, Manuel	San Pedro de Cardena (Burgos) K-E
Azpiazu Gómez, Jose "Indotarra"	BBTT
Azpiazu Olaizola, Luis	Miranda del Ebro (Burgos) K-E/BBTT
Azpiazu Oyarzabal, Ambrosio	BBTT 76 (Carrascosa de Henares, Guadalajara)
Azpillaga Zubillaga, Jose	BBTT
Azurmendi Berastegui, Modesto	BBTT
Baltasar Martiarena, Francisco	Orduña K-E
Beldarrain Ugalde, Ruperto	San Pedro de Cardena K-E
Bereciartua Altuna, Pedro	BBTT (Alfarrás, Lleida)
Borda Aranguren, Jose	K-E
Campos Eceiza, Alejandro	BBTT
Campos Eceiza, Juan	BBTT
Campos Loinaz, Avelino	Deusto K-E
Ceberio Lizarraga, Severio	San Pedro de Cardena K-E
Cendoya Larrañaga, Ignacio "Takolo"	Aranda del Duero K-E
Cortabarría Lazcano, Gregorio	BBTT 177 (Zaragoza)
Echeverria Ugarte, Elias	BBTT/Miranda del Ebro K-E
Echeverria Ugarte, Higinio	BBTT (Zaragoza)
Eguiguren Eizaguirre, Antolin	Medina del Rioseco (Valladolid) K-E/BBTT
Elias Unanue, Jose Maria	BBTT
Errasti Olaizola, Jose	BBTT 64 (Estella)/Miranda del Ebro K-E/BBTT nº 37 (Sevilla)
Garmendia Arteche, Ramón	Deusto K-E
Garmendia Errasti, Jose Maria "Koipe"	Aranda del Duero K-E
Guridi Uranga, Feliciano	San Pedro de Cardena K-E
Gurruchaga Lasa, Blas	"Regimiento mixto de ingenieros 6" (Oiartzun)
Gurruchaga Zabaleta, Victoriano	BBTT 3
Ibarzabal Amenabar, Francisco	Orduña K-E/Miranda del Ebro K-E/Murgia K-E
Ibarzabal Amenabar, Jose	BBTT
Ibarzabal Amenabar, Pedro	Medina del Rioseco K-E
Iturralde Betreiciartua, Jose Cruz	Miranda del Ebro K-E/BBTT Especial (Automobilak Berreskuratzeko Zerbitzua, Zornotzan)

IZENA	BATAIOLIA EDO KONTZENTRAZIO-ESPARRUA (K-E)
Iturralde Bereciartua, Juan	Aranda del Duero K-E/BBTT
Iturzaeta Zubizarreta, Ignacio	BBTT (Gallarta)
Juaristi Eizaguirre, Juan "Antonbeltz"	San Pedro de Cardena K-E/BBTT
Landa Segurola, Leon	Medina del Rioseco K-E (Valladolid)
Landa Aizpuru, Jesus	Miranda del Ebro K-E/BBTT 76 (Sigüenza, Guadalajara)/BBTT 152 (Carabanchel Bajo, Madrid)
Larrañaga Albizuri, Ignacio	BBTT
Larrañaga Albizuri, Sabino	BBTT Especial (Burgoseko Automobilen Parkean)
Larrañaga Arruti, Eusebio	BDST (Valencia)
Larrañaga Olarte, Pio	San Pedro de Cardena K-E
Larrañaga Usabiaga, Inocencio	BDST (Dos Hermanas, Sevilla)
Lizaso Mendizabal, Isidoro	BBTT 27 (Belchite)/BDST 6 (Cadiz)
Loinaz Echaniz, Antonio	Miranda del Ebro K-E/BBTT 76/BBTT 152/BDST 49/BDST 50
Moral Ledesma, Jose Maria	BBTT
Odriozola Aguirre, Fernando	Alcala de Henareseko Espetxe Tailerra
Odriozola Alberdi, Ignacio	Miranda del Ebro K-E/BBTT 64 (Estella)
Odriozola Alberdi, Jose Ramón	Miranda del Ebro K-E/BBTT 64 (Estella)
Odriozola Echeverria, Jose Cruz	BBTT
Odriozola Echeverria, Tomás "Malkortxo"	Miranda del Ebro K-E/BBTT 64 (Estella)
Odriozola Segurola, Jesus	BBTT 25 (San Juan de Muzarrifar, Zaragoza)
Olaizola Echeverria, Antonio "Konfites"	K-E
Olarte Alberdi, Julián	BBTT
Orbegozo Goenaga, Jose Francisco	Miranda del Ebro K-E
Orbegozo Macazaga, Ignacio	BDST (Almendralejo, Extremadura)
Orbegozo Odriozola, Juan	San Pedro de Cardena K-E / BBTT 2
Orbegozo Odriozola, Luis	BBTT
Orbegozo Orbegozo, Lucas Manuel	Miranda del Ebro K-E/BBTT 64 (Estella)
Otaegui Azurmendi, Victoriano	K-E-/BBTT 1 (Valladolid)
Quintana Lorenzo, Luis	Deusto K-E / BBTT (Sevilla)
Quintela Baeza, Fernando	Corbán K-E (Cantabria)/BBTT
Uranga Gurruchaga, Jose Antonio "Bakeo"	BBTT 25 (San Juan de Muzarrifar, Zaragoza)
Urbietta Eizmendi, Jesus	BBTT
Urbistondo Lasa, Basilio	Miranda del Ebro K-E/BBTT 12/Afrikan (1940-1943)
Urdalleta Uzcudun, Ignacio "Katran"	BBTT
Zubimendi Olaizola, Ignacio	Miranda del Ebro K-E/BBTT 64 (Estella)
Zudupe Echeverria, Santiago	Alcala de Henareseko Espetxe Tailerra



159 - Langileen bataioli bat Oartzunen. 1940 irailak 12. (Aranzadi Z.E. / Jesus Elosegui Irazusta bilduma).

## 4.6.1. Auzitegi militar frankistek epaitutako azpeitiarrak




160 - Jose Maria Garmendia eta Josefa Altuna. Biak epaitu zituzten gerra-kontseiluan. (Maite Garmendia Altuna).

tuen lekuko, salatari eta salatzaile izan zirenen adierazpenak. Izan ere, justizia militar frankistak zer epai ematen zituen ikusita, "matxinadari laguntza"ren delituan, larriagoa zen auzipetu azpeitiarrak herriko *Defensa Batzordeko* kide izatea, frontearen gudari edo miliziano gisa ibili izana baino.

Nolanahi ere, aipagarria da kasu askotan auzitegi militar frankistek zuhur jokatu zutela lehen aipatu ditugun tokiko agintari haiek eginiko akuzazioen larritasunaren aurrean. Jose Arruti Lizarralde, Ruperto Beldarrain Ugalde eta Ignacio Cendoya Larrañagaren kasuak horren erakusle dira. Hori horrela, auzitegi militar frankistek askotan eskatu zieten akuzazio-txostenen egileei aurkez zitzatela datu zehatzagoak eta lekukoak. Hala ere, Azpeitiko agintari haiek, askotan, ezin izan zuten eskatu zieten frogarik aurkeztu eta beste askotan, berriz, zuzendu egin zuten hasieran eginiko deklarazioa. Hona ondorioa: 74 herritar absolbitu egin zituzten edo haien aurkako auzia artxibatu zuten hainbat hilabetez behin-behineko espetxean egon ondoren. Pedro Arrue Larrañaga, esaterako, urtetan egon zen behin-behinean preso<sup>310</sup>. Hala ere, 74 azpeitiar haietatik 20 langileen batailoiatar bi-dali zituzten auzia artxibatu ondoren.

Gerra-kontseiluetan epaitu zituzten 163 azpeitiarretatik 10 emakumeak izan ziren. Emakume haietako gehienak *Emakume Abertzale Batza* erakundeko militante izateaz akusatu zituzten, baina beste batzuk *Fronte Popularraren Defensa Batzordeari* eta *Azpeitiko Komandantziari*, eta 1936ko abuztutik aurrera herrian zeuden gudariei laguntzeaz ere bai. Aparteko aipamena merezi dute ARANGUREN OLAZABAL ahizpek, Juanak eta Maritxuk. "Matxinada militarra"ren delitua egotzita epaitu zituzten biak: Lehena, Juana, logelari *Euskadi Roja*, *Euzkadi*, *Politica* eta *Le Sud-Ouest* egunkariaren aleak izategatik, eta bigarrena, Maritxu, amaieran "Gora Euzkadi Askatuta" idatzita zuten gutun bat idazteagatik. Horregatik, hamar hilabetez egon ziren espetxean, behin-behinean<sup>311</sup>.



161 - Maritxu Aranguren Olazabalen gutuna. Errepresaliatu egin zuten gutun honen harira. (urgentziako prozedura sumarisimoa 4/38 AIRMN).

Kondena ohikoenak biziarteko zigorra (25) eta 12 urte eta egun bateko zigorra (23) izan ziren, baina 1941ean, *Zigorak Aztertze*ko *Batzordeak* arindu egin zituen zigor gehienak espetxealdi laburragoak zigorrak jarrita. Horri esker, 1943tik aurrera, errepresaliatu gehienak aske utzi zituzten, zaintzapean, kargu publikorik izateko aukerarik gabe eta bizitoki zuten herriko Guardia Zibilaren eta Falangearen Tokiko Buruzagitzairen kontrolpean.

Ez zuten denek askatasunik lortu ordea; ezta diktadura-erregimenaren kontrolpeko askatasun mugatua ere. Jose Maria Aguirre Arregui eta Manuel Torrano Senar errepresaliatuak San Kristobal gotorlekuan hil ziren "gaixotuta". Jesus Arizaga Gurruchaga, Jose Francisco Orbeagoz Goenaga eta 1933an zinegotzi baseritarra izandako Jose Antonio Altuna Garate, berriz, auzipetuta zeuden gerra-kontseiluak abian zirela hil ziren, seguru asko espetxean. Era berean, heriotza-zigorra jasota fusilatu zuten Nuarbe auzoko Jose Maria Aranguren Odriozola 1938ko martxoaren 11n, Bilbon.


<sup>310</sup> AIRMN.

<sup>311</sup> 4/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

*"Hil behar badut, izan dadila  
burua gora dudala.  
Hilda ere, behin betikoz hilda,  
ahoz aho belarretan,  
hortzak estututa egongo naiz,  
adorea bizarretan"*<sup>312</sup>

### AGUIRRE ARREGUI, JOSE MARIA

Jose Maria 1936ko abenduaren 2an atxilotu zuten beste 6 azpeitiarrekin batera (Nazario Aizpitarte, Rufino Arrieta, Jose Maria Corta, Ignacio Corta, Manuel Torrano eta Jose Maria Zubiaurre), Donostiako 4. instrukzio epaimahai militarrean haien aurkako urgentziako auzi sumarisimo bat abiarazita. "Matxinada militarra"ren delitua egiteaz akusatutuzituzten zazpiak. Jose Maria abertzaleen aldekoa izateaz akusatutuzituzten 1936ko martxoaren 8ko epaiaren bidez, "nahiz eta alderdiko kide ez izan". Fronte Popularraren alde aritzeaz ere akusatutuzten eta "Fronte Popularrari irauten laguntzeko soldata irabaztea zuela helburu" ebatzi zuten. Epaiaren arabera, airetik egindako erasoen aurkako babeslekuak eraikitzeko Zarautzik Azpeitira hondar-zakuak garraiatzen ere aritu zen, eta 1936ko uztailaren 25ean, Mandubiko zubia leherrarazten ere parte hartu zuen. Azkenik, epaiak dio Jose Maria, Manuel Torranorekin batera, "errepidetik igarotzen ziren autoen igarobaimenak aztertzen ibili zela eskopetaz armatuta". Hori guztia dela-eta, 12 urte eta egun bateko zigorra jarri zioten, "matxinadari laguntzea"ren delitua leporatuta.<sup>313</sup> 1937ko uztailaren 9an, San Kristobal gotorlekura eramán zuten eta handik bi hilabetera hil zen espetxean (irailaren 8an), "gaixotuta". Jose Maria Berriozarren (Nafarroa) dago lurperatuta. 29 urte zituela hil zen.<sup>314</sup>



162 - Jose Maria Arreguiri buruzko dokumentua. (AUA).

### AGUIRRE CINCUNEGUI, CIRIACO

1894ko abuztuan Azpeitian jaio zen Ciriaco Aguirre. 1931ko apirilaren 17an hasi zen Azpeitian arlo publikoan lanean, Azpeitiko Udaleko 2. alkateorde izendatu zutenean. Alejandro Orbegozo eta Martín Oyarzabalekin batera, gutxiengo abertzaleko kide izan zen udalbatzan. Zerrenda bakarra zuen udalbatza hark, eta karlismoari lotutako jendeak eta industria arlokoak ziren zerrendaburu. Handik bi urtera udal hauteskundeak egin zituzten, aurreko Udalbatzak lege-dekretu bidez karguak utzi ondoren, eta abertzaleek hartu zituzten libre gelditutako 16 zinegotzietatik 8. Zinegotzi haien artean zen Ciriaco, 425 boto lortuta. Maiatzaren 10ean lehen alkateorde izendatu zuten, eta lanpostu hori izan zuen 1934ko abuztuaren 23an dimititu zuen arte. Alkateorde zela, behin baino gehiagotan izan zen Udaleko ordezkari nagusi Jose Antonio Oyarzabalen orde, garrantzi handiko garaian, hain zuten ere. Besteak beste, 1933ko uholdeek ekarritako kalteak kudeatzen, eskola publikoak prestatzen eta 1934ko udan, Kontzertu Ekonomikoaren inguruko gatazkaren harira Donostian sortu zuten bitarteko batzordean ere aritu zen. 1936ko otsailaren 22an Udaleko ordezkari hautatu zuten berriro Fronte Popularrak irabazi ondoren. Estatu-kolpeak porrot egin eta



163 - Ciriaco Aguirre familiarekin. (Familiak utzitako irudia).

Gerra Zibila hasitakoan, handik egun gutxira, uztailaren 23an, alkate izendatu zuten Ciriaco, Jose Antonio Oyarzabalek dimititu ondoren. Ordutik aurrera, Ciriaco izan zen Azpeitiko ordezkari gorena, hari eta matxinatutako tropak Azpeitira sartu eta atxilotu zuten arte. Ondarretako kartzelan sartu zuten, eta 1936ko irailaren 26an Ciriacoren aurkako urgentziako prozedura sumarisimoa abiarazi zuten "matxinadari laguntzea"ren delitua egin zuelakoan. Zehatz esateko, 1936ko uztailaren 24tik irailaren 20ra Azpeitiko alkate, Hornidura Batzordeko presidente eta Ordena Publikoaren Batzordeko kide izateaz akusatutuzituzten. Hala ere, prozeduran adierazi zuten jokabide ona izan zuela, herriko jende eskuindarraren alde hainbat izapide egin zituela, eta "Azpeitian izandako gertaerak garrantzi handirik gabekoak" izan zirela. Ciriacok, berriz, bere burua defendatzeko adierazi zuen Jose Antonio Oyarzabal falta zelako izendatu zutela alkate. Adierazi zuten, horrez gain, ahal zuten guztia egin zuela azpeitiarrek, ideologia batekoak edo besteak izan, "matxinatuen jazarpenik jasan ez zezaten eta atxilotuak izan ez zitezten"<sup>315</sup>. 1937ko ekainaren 14an 12 urte eta egun bateko espetxealdi txikira kondenatu zuten, baina 1949ko maiatzaren Bilboko Gerra Ikuskaritzaren mendekoa zen Zigorrak Aztertze Gupuzkoako Batzordeak zigorra aldatu eta 2 urteko espetxealdi txikiko zigorra jartzea proposatu zuten. Handik gutxira, aske utzi zuten.

### AGUIRREZABAL BASABE, AGUSTIN

Azpeitian bizi zen. 1938an urgentziako prozedura sumarisimoan epaitu zuen Donostiako 14. auzitegi militarrek. 1938ko uztailaren 21ean auzia artxibatu eta aske utzi zuten, baina 1.000 pezeta-ko isuna jarri zioten. Ez ditugu ezagutzen auzipetu izanaren arrazoiak.<sup>316</sup>

<sup>312</sup> *Vientos del pueblo me llevan (Herri haizeek naute aitzina), Miguel Hernández.*

<sup>313</sup> 685/36 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>314</sup> Antsoaingo Erregistro Zibila.

<sup>315</sup> 1301/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>316</sup> 872/37 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

### AIZPITARTE AGUIRRE, JUAN IGNACIO

Azpeitian jaioa, Oinatz auzoan bizi zen. ELA sindikatu abertzaleko kide izan zen. Azpeititik ihes egin zuen altxatutako tropak udalerrian sartu baino zertxobait lehenago. 1936ko irailaren 30ean, Azpeitiko Udaltzatzak Juan Ignacioren bere etxean instalatuta zegoen telefonote-gia kentzea erabaki zuen, ihes egin zuelako, eta sakristauaren etxera eraman zuten. Garai hartan Juan Ignacio Bilbon aurkitzen zen, non Ertzaintzara sartu zen. Bizkaiko hiriburua tropa frankisten eskuetan erori ostean atxilotua eta urgentziatzko prozedura sumarisimo bidez epaitua izan zen. 1937ko urriaren 26an Bilboko 2. gerra kontseilu iraunkorrek 12 urte eta egun 1eko zigorra ezarri zion matxinadari laguntzearen ustezko delituagatik, Oñatz auzoko asaldura marxistaren buruetako bat zenaren akusazioa ontzat eman ondoren.<sup>317</sup>

### AIZPITARTE ECHEVERRIA, ELIAS

Oinatz auzokoa zen Elias, eta Errepublikari garaian langile langabeekin egindako zerrendetan azaltzen da, beste azpeitiar askorekin batera<sup>318</sup>. 1936ko otsailaren 23an, soldadugaien zerrendan sartu zuten, baina ez dakigu Gerra Zibilean zertan aritu zen. Ondoren, 1940ko urtarrilaren 24an, dozenaka lagunengatik ohiko prozedura sumarisimoa abiarazi zuten 1939ko urriaren 1ean, Donostiako frantziskotarren elizan, hainbat abertzalerekin egindako mezara joateagatik, eta haien artean zen Elias ere. Auzi-prozedurak iraun zuten artean, Zapatarri espetxean (Donostia) eduki zuten Elias preso. Urte hartako otsailaren 1ean auzia artxibatu eta atxilotuak libre utzi zituzten.<sup>319</sup>

### AIZPITARTE ECHEVERRIA, IGNACIO

Donostian bizi zen azpeitiar hau *Bilboko Bankuak* Donostian zuen bulegoko langilea izan zen, harik eta 1937 erdialdean atxilotu zuten arte. Urte hartako abuztuaren 8an Ondarretako espetxean sartu zuten eta urgentziatzko auzibide sumarisimoa abiarazi zuten haren eta beste hiru lagunengatik, "matxinada militarra"ren delitua egin zutelakoan. 1938ko uztailaren 8ko epaiaren arabera, *Bilboko Bankuko* kobratzaile lanetan zebilela, Ignaciok zigilatu gabeko billete kopuru jakin bat legezko billeteekin trukatu zuen. Hala, 3 urteko zigorra eta 100 mila pezetako isuna jarri zioten "matxinadari laguntzea"ren delitu-saiakera leporatuta. 1940ko apirilaren 1ean zigorra aldatu eta 100 mila pezetako isuna ordaintzera zigortu zuten, eta adierazi zuten, epaiketa militarrean adierazi bezala, jokabide ona izan zuela eta ez zuela erregimenaren aurkako delitu-aurrekaririk.<sup>320</sup>

### AIZPITARTE ECHEVERRIA, JOSE ANTONIO

Damaso Azcue, SA enpresan lanean aritu zen Jose Antonio 1934tik 1935era eta, ondoren, Donostiara joan eta gidari-lanetan ibili zen han. Badirudi, bere borondatearen aurka sartu zela altxatutako armadan, eta baja hartu zuela 1936ko irailaren 28an "gastritis kroniko" jota. Elias anaia bezala, Jose Antonio ere Zapatarri espetxean sartu zuten 1939ko urriaren 1ean, Donostiako frantziskotarren elizan hainbat abertzalerekin egindako mezara joateagatik. 1940ko otsailaren 1ean aske utzi zuten auzia artxibatu ondoren.<sup>321</sup>



164 - Jose Antonio Aizpitarre Echeverria.  
(Begoña Aizpitarre Iturzteak utzitako irudia).

### AIZPITARTE IPARRAGUIRRE, NAZARIO

San Ignacio kaleko 12. zenbakian bizi zen. Espezializatu gabeko langilea zen eta ELA sindikatu abertzaleko kide izan zen, gutxienez 1933ko erdialdetik aurrera. 1935ean, 48 urte zituela, ELAk lanik gabe zeuden langileekin egindako zerrenda batean dago. Ondoren, altxatutako tropak Azpeitira sartzeko zorian zeudela, Bilbora joan zen ihesi, baina handik laster itzuli zen. 1936ko abenduaren 2an atxilotu egin zuten bera bezala ihes egin zuten beste azpeitiar batzuekin batera, eta gerra-kontseiluan auzipetu zituzten denak. 1937ko martxoaren 8ko epaiaren bidez absolbitu zuten Nazario, eta epai haren arabera, *Fronte Popular* delakoaren alde lan egin zuten, baina "bere ideien eta sinesmenen aurka" aritu zen, berez ideia tradizionalistak baitzuten eta "azken hauteskundeetan botoa eskuindarrei" emana baitzuten.<sup>322</sup>

### ALCIBAR ZUBIZARRETA, JACINTO

Zurgina zen lanbidez UGTko militante hau. Eusko Gudarostearen UHP batailoiko kide izan zen. Kantabrian harrapatu zuten eta jasota dago gerra-kontseiluan auzipetu zutela 1938ko hasieran. Hala ere, 1939ko apirilaren 29ko epaiak dio auzipetua lehendik ere epaitua izan zela eta langileen batailoien batean zegoela preso, "B atalean" sailkatu zutelako<sup>323</sup>. Errezildarra zen Jacinto eta Azpeitian bizi zen. Isidra Jauregui Mugu-ruza azkoitiarrarekin ezkondu zegoen eta lau seme-alaba zituzten: Carmen, Dominica, Maria eta Manuel. 1938an Gironan zeuden denak babes hartuta.<sup>324</sup>

### ALONSO OLIVER, FRANCISCO

Valladoliden jaioa zen eta Azpeitian bizi zen Francisco. Atxilotu eta Azpeitiko espetxean sartu zuten 1939ko apirilean. Ondarretako espetxera eraman zuten gero. "Gipuzkoan gorri - marxistak nagusi egon zirenean Honorio Maura Gamazo diputatu nazional eskuindarren atxilotetan parte hartzeagatik" sartu zuten kartzelan. 1940ko ekainaren 18an absolbitu eta libre utzi zuten, ez baitzuten frogatu gertaera hartan parte hartu zutenik.<sup>325</sup>

<sup>317</sup> 1040/37 urgentziatzko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>318</sup> AUA (Sig. 1240-08; Kod. 214).

<sup>319</sup> 2435 prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>320</sup> 1379/37 urgentziatzko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>321</sup> 2435 prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>322</sup> 685/36 urgentziatzko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>323</sup> 13437/38 urgentziatzko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>324</sup> CDMH (PS-SECCION\_MILITAR\_PSET, C.84,F.555).

<sup>325</sup> 3699/40 urgentziatzko prozedura sumarisimoa (AIRMN).



**ALTUNA ASTIGARRAGA, MARIA JOSEFA**

Maria Altuna 1915ean Azkoitian jaioa zen eta Azpeitian bizi zen. 1938ko apirilaren atxilotu zuten eta Donostiara eraman zuten. Han egon zen preso 1939ko urtarrilaren 19ra arte. Gerra-kontseiluan epaitu zuten Gloria Zabaletarekin batera, eta *Emakume Abertzale Batza* erakunde abertzaleko kide izateaz, Fronte Popularraren Azpeitiko sukaldeetan lanean aritzeaz eta Nuarbe auzoan beste herritar batzuekin batera hainbat oilo lapurtzeaz akusatu zituzten. 1938ko azaroaren 22an Mariak epaile militarren aurrean berretsi zuen 1938ko apirilaren 13an Azpeitian egindako deklarazioa. Mariak adierazi zuen *Emakunde abertzaleko* afiliatua zela 1934tik eta Nuarbeko lapurretak izandakoan han zela bera, baina Azpeitiko miliziano batzuekin Nuarbera joan zenean, ez zekiela horrelakorik egingo zutenik. Horrez gain, adierazi zuen milizianoentzako eta gudarientzako Azpeitian jarri zituzten sukaldeetan "beldurragatik" aritu zela lanean. 1939ko urtarrilaren 10ean, 4 hilabeteko atxiloaldi handira kondenatu zituzten Maria eta Gloria. Hala ere, aske utzi zituzten, behin-behineko espetxealdiaren bidez jada zigorra bete baitzuten<sup>326</sup>. Bestalde, 1938ko uztailaren 7an, Jose Maria Garmendia, "Koipe" senarra 20 urteko espetxealdira kondenatu zuten.



165 - Maria Josefa Altuna Astigarraga.  
(Maite Garmendia Altunak utzitako irudia).

**ALTUNA GARATE, JOSE ANTONIO**

Azpeitiko Udaleko zinegotzi izendatu zuten Jose Antonio 1933ko maiatzean, gutxiengo baserriarrek osatutako gutxiengoaren ordezkari, apirilko hauteskundeetan 359 boto lortuta. Era berean, Urrestilla auzoko alkate ere izendatu zuten. *Euskal Kontzertu Eko-nomikoaren* inguruan sortutako gatazkaren harira, udal-ordezkarikargutik kendu zuten 1934ko udatik 1936ko otsailera. Ondoren, Azpeitiko ebakuazioaren ondoren, *Eusko Gudarostean* erroldatu zen 1936ko azaroaren 21ean. 1937ko urtarrilean mailaz igo eta teniente izendatu zuten, eta handik hilabete batzuetara Barakaldon atxilotu zuten.

Gerra-kontseiluak epaitu zuen, eta 1938ko uztailaren 9an, 20 urteko espetxealdi laburrera kondenatu zuten, "matxinadari laguntzearen" delitua leporatuta<sup>327</sup>. EAjko militante eta *Nekazari elkarte*ko kide izateaz akusatu zuten, "*Nekazarien Elkarte* separatizatzaile zuten, eta Jose Antonio elkarte hura ordezkatzuz 1933an zinegotzi izateaz akusatu zuten". 1938ko abuztuaren 12an Burgosko espetxe zentrallean sartu zuten, eta handik Astorgara (Leon) eraman zuten 1938ko azaroaren 21ean. Espetxe-ko fitxaren arabera, 1939ko ekainaren 29an hil zen, seguru asko, Astorgako espetxean zegoela.<sup>328</sup>

Apellidos: ALTUNA GARATE. Nombre: JOSE ANTONIO.  
 Conocido por: Prisión de: Central de Burgos.  
 Se halla a disposición de: Consejo Guerra Bilbao 21-11-38 a P. O. Astorga 29.6.39 fallece.  
 Nombre del padre: José María.  
 Nombre de la madre: Josefa.  
 Nombre del cónyuge: María.  
 Edad: 37. Naturaleza: Azpeitia.  
 Partido de: id. Provincia de: Guipuzcoa.  
 Vecindad: id. Provincia: id.  
 Domicilio: id. Profesión: lebrador.  
 Delito: auxilio rebelión.  
 Ingresó en 12 de Agosto de 1938.  
 Procedente de: la Provincial de Bilbao.  
 Condenado por sentencia de 9 de Julio de 1938 a la pena de 20 años.  
 Sello de Prisión: 26 SEP. 1938.  
 Sello de Registro RECLUSIVA: 28 SEPT 1938 VITORIA.  
 EL DIRECTOR: [Firma]

166 - Jose Antonio Altuna Garaten espetxe-ko fitxa. (AGA).

**ALTUNA MENDIA, PABLO**

Azpeitiarra zen eta bertan bizi zen Pablo. *Amaiur* batailoi nazionalistan erroldatu zen Gerra Zibila hastean eta teniente izatera iritsi zen. 1937ko ekainaren 17an zauritu egin zuten Artxanda mendian, eta urgentziarako lehen sendaketa mendiaren hegalean bertan jarrita zeukaten osasun-postuan egin zioten. Hilaren 19an Bilboko Iralabarri Ospitale Militarera eraman zuten eta berehala preso hartu zuten. Hilabete batzuk ospitale hartan igaro ondoren, Algortako (Bizkaia) Trinitarioetara bidali zuten eta, ondoren, behin-behineko ospitale gisa moldatuta zeukaten Bilboko moja-ikastetxe batera eta Sondikako beste behin-behineko osasun-zentro batera<sup>329</sup>. 1938ko otsailaren 21ean Eskolapioen espetxera eraman zuten Deustuko kontzentrazio-esparrutik, eta espetxe hartatik hainbat aldiz eraman zuten Basurtuko ospitalera, ebakuntzak egitera.

1939ko martxoan urtebeteko espetxe-zigorra jarri zion epaimahai militar batek "matxinada militarra" delitua egin zuelakoan. Epaia arabera, kondena labor haren arazoia zera zen, egindako jarduera guztiak "agintarien aurrean berehala" aitortu zituela, baina handik laster, *Madrilgo Auzitegi Nagusi Militar*ak kondena hura baliogabetu eta "matxinadarekin bat egitearen" delitua leporatu zion eta 30 urteko espetxealdi luzeko zigorra jarri<sup>330</sup>.

1940ko urrian behin betiko aske utzi zuten Karmeldarren espetxean zegoela, Zigorak Aztertze-ko Batzordeak 30 urtetik 3ra murriztu baitzion kondena. Hala ere, Bizkaiko *Junta Provincial de Libertad Vigilada* delakoaren kontrolpean egon zen, gutxienez, 1959ra arte<sup>331</sup>.



167 - Pablo Altuna Mendiak. (Nerea Altunak utzitako irudia).

**AMENABAR ORBEGOZO, MODESTO**

1915ean jaioa zen pilotari azpeitiar hau, ogibidez zizelkaria. ELAren *San Andres zapadores-minadores zulatzaileen* batailoian erroldatuta egon zen Gerra Zibila hasi ondoren. 1937ko erdialdearen eta amaieraren artean atxilotu zuten, seguru asko Bizkaian, eta gerra-kontseiluak epaitu zuen, Bilboko 2. epaitegi militarrean, hain zuzen ere. 1938ko urtarrilaren 26an auzia artxibatu zuen epaitegi hark, eta Modesto behin betiko aske utzi zuten martxoaren 3an.<sup>332</sup>

<sup>326</sup> 2967/38 urgentziarako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>327</sup> 12548/38 urgentziarako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>328</sup> Espetxe-ko fitxa (AGA).

<sup>329</sup> Pablo Altuna Mendiak Gipuzkoako gobernadoreari zuzendutako eta sinatutako instantzia.

<sup>330</sup> 12548/38 urgentziarako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>331</sup> AHPV.

<sup>332</sup> 70/37 urgentziarako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

### AMEZUA NAZABAL, JOSE LUIS

Zurgina zen Jose Luis lanbidez, baina 1934-1935ean, lanik gabe zeuden azpeitiarrek in egindako zerrenda batean azaltzen da. 1936ko irailean, 20 urte zituela, *Loyola* batailoiko *Lartaun 2. konpainian* sartu zen. 1937ko erdialdean atxilotu zuten eta urte hartan bertan, abenduaren 30ean, 12 urte eta egun bateko espetxe-zigorra jarri zioten "matxinadari laguntzea"ren delitua egin zuelakoan<sup>333</sup>. Epaiaren arabera, Jose Luis "bere borondatez sartu zen *Loyola* batailoio separatistan eta sukaldari-lanetan aritu zen", eta horrez gain, "milizien kabo izan zela, eta arpilatzeetan eta miaketetan parte hartu zuela". EAjko militantea zen eta Loiolako kuartelean zaintzaldiak egiteaz ere akusatu zuten, "Irujo eta Monzon buruzagi separatistek agindutako lanak egiten" aritzeaz akusatu zuten. 1938ko abuztuan *Puerto de Santa Mariako* (Cadiz) espetxera eraman zuten eta, ondoren, abenduan, Huelvokora. 1939ko azaroan, Madrilgo *Duque de Sesto* espetxera eraman zuten. 1940ko urtarrilean askatasun arindua eman zioten<sup>334</sup>.

168 - Jose Amezua Nazabalen espetxeko fitxa. (AGA).

### AMUCHASTEGUI MUGUERZA, JOSE

Mikeleteen sarjentu izan zen Azpeitian eta 1937ko erdialdean atxilotu zuten. Gerra-kontseiluak epaitu zuen "matxinadari laguntzea"ren delitua leporatuta, Beasaingo eta Zestoako mikeleteen sarjentuekin batera. Hala ere, 1937ko abuztuaren 3an, Jose eta beste bi akusatuak absolutu egin zituzten, erabaki baitzuten beti egon zirela identifikatuta *Glorioso Movimiento Nacional* esaten zioten harekin, nahiz eta "gorri-separatistak agintean zirenean zerbitzuak eskaintzen aritu ziren"<sup>335</sup>. Bestalde, 1937ko urtarrilaren 13an funtzionario-kargutik kendu zuen Gipuzkoako gobernadore zibila, 1936ko abenduaren 3ko 93. dekretu frankista aplikatuta.<sup>336</sup>

### ANSOLA ERQUICIA, GUILLERMO

Bilbora ebakatu zuten Guillermo 1936ko irailean<sup>337</sup>. 1939ko urtarrilean Eskolapioen espetxean zegoen preso, Bilboko 12. auzitegi militarrek bere aurka abiarazitako gerra-kontseiluaren epaiaren zain. 1939ko martxoaren 13an auzia behin-behinean artxibatzea erabaki zuten, eta "A atalean" sailkatu zuten. Espetxean egon zen, gutxienez, 1940ko ekainera arte.<sup>338</sup>

### ARAMBURUZABAL URRUTIA, VICTOR

Azpeitiko mikeleteen tenienteordea izan zen errepublika-garaian. 6. *Erregio Militarreko Gerrako Ikuskaritzak* Victorren aurkako informazio-prozedura bat abiarazi zuen 1937ko urriaren 15ean matxinadari lotutako delituen bat egin ote zuen argitzeko. Orduetik hasi eta 1938ko maiatzaren 25ean behin-behinean aske utzi zuten arte Ondarretako espetxean egon zen preso. 1938ko abenduaren 10ean instrukzioa amaitzat eman zuten, ebatzi baitzuten lehenago kargu berdinetatik absolutu egin zuela Santanderko epaimahai militar batek. Bestalde, Jose Amuchasteguirri bezalaxe, Victorri ere eragin zion garbiketa frankistak, eta Gipuzkoako funtzionarioen taldetik bota egin zuten.<sup>339</sup>

### ARANGUREN CENDOYA, BERNABE "KOMUNTZO"

1909an jaioa zen eta Izarraitz auzoko Komunsoro baserrian bizi zen Bernabe. Altzatutako armada Azpeitian sartu baino pixka bat lehenago egin zuen ihes handik. Ondoren, Eusko Gudarostearen *Irrintzi* batailoio nazionalistan egon zen errolatuta, baina istripu bat izan eta fisikoki desgaituta gelditu zenez, garbiketa-lanak besterik ezin izan zituen egin. 1937ko ekainaren amaieran atxilotu eta gerra-kontseiluan epaitu zuten. 1937ko irailean 30ean absolutu egin zuten "matxinada militarra"ren delitutik.<sup>340</sup>

### ARANGUREN CENDOYA, JUSTO "KOMUNTZO"

Justo 1912 jaio zen. Bernabe anaia bezala, azpeitiar hau ere batailoio nazionalista batean ibili zen gerran. Azpeitian 1936 hasieran osatu zituzten euskal milizietan sartu zen Justo, *Loyola* batailoioan, hain zuzen ere<sup>341</sup>. Atxilotu eta gerra-kontseiluan epaitu ondoren, 1939ko ekainaren 20an auzia artxibatzea erabaki zuten, baina "B atalean" sailkatu zuten eta langileen batailoio batera bidali zuten<sup>342</sup>. Ondoren, 1940ko uztailaren 15ean, beste prozedura sumarisimo bat, urgentziakoa, abiarazi zuten Justoren aurka, eta hartatik ere absolutu egin zuten urrian, "egozten zizkioten gertaerak lehendik epai irmo baten bidez epaituak izan zirelako". Prozesuak iraun zuen artean behin-behinean aske zegoen Justo, Azpeitian.<sup>343</sup>

<sup>333</sup> 1580/37 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>334</sup> Espetxeko fitxa (AGA).

<sup>335</sup> 271-37 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>336</sup> BOE/Aranzadi Zientzia Elkartea

<sup>337</sup> LOINAZ ETXANIZ, A.: *Nire Oroitzapenak* (2001).

<sup>338</sup> 11014/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>339</sup> BOE/Aranzadi Zientzia Elkartea.

<sup>340</sup> 284/37 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>341</sup> LOINAZ ETXANIZ, A.: *Nire Oroitzapenak* (2001).

<sup>342</sup> 2343-38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).


<sup>343</sup> 3549-40 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

**ARANGUREN ODRIOZOLA, JOSE MARIA**

Jose Mariari buruzko lehen aipamena 1934koa da. *Jose Iturzaeta* altzari-fabrikako bernizatzailea zela dago jasota<sup>344</sup>. 1936ko otsailean UGTn afiliatu zen eta Gerra Zibila hastean, zaintzalanak egin zituen, atzeguardian, eta horretan aritu zen UHP batailoian sartu zen arte. Hainbat frontetan aritu zen borrokan Santander erori arte, eta bere borondatez azaldu zen tropa frankisten aurrera Santanderko zezen-plazan, 1937ko abuztuaren 26an. 1937ko irailean urgentziarako prozesu sumarisimo bat abiarazi zuten Jose Mariaren aurka, eta Guardia Zibilaren Azpeitiko komandantziara eraman zuten 1937ko urriaren 18an. Hurrengo egunean, Roque Astigarragak eta Ignacio Echeverriak, Azpeitiko alkatea eta Falangeren ordezkaria hurrenez hurren, Jose Mariaren aurkako akusazio-adierazpenak egin zituzten, eta "oldarkor eta biraogiletzat" akusatu zuten. Akusazio horiez gain, Azpeitiko parrokiako apaiz-lagunkideak (Casiano Garayalde) jakinarazpen bat igorri zuten Jose Mariari buruz, esanez "apaizen eta eskuindarren aurka nabarmen aritzen zela hizketan". Agiri horietan esaten zuten auzipetuak udalerriko pertsona eskuindarrak jazarri zituela, tartean akusatuaren hainbat familiako kide karlista eta Roque Astigarraga bera ere bai. Hainbat konfiskatzen parte hartzeaz ere akusatu zuten; adibidez, Urrestillan, "Zuazoren alargunaren" etxean egindako konfiskatzean. Horrez gain, herriko guardia zibilen armagabetzean eta atxiloketan ere parte hartu zuela adierazi zuten.

Urriaren 21ean Florencio Mangas Luengo Guardia Zibileko kaboak galdekatu zuten, eta berretsi zuten UGTko afiliatu zela eta gerrako hainbat frontetan ibili zela UHP batailoiko miliziano, baina ukatu egin zituen Roque Astigarraga eta Ignacio Echeverriak eginiko gainerako akusazioak. Santoñara eraman zuten berriro, eta azaroaren 10ean Jose Mariak epaile militar baten aurrean berretsi zuten Azpeitiko Guardia Zibilaren kuartelean egindako deklarazioa. 1937ko abenduaren 1ean, ordea, Jose Mariaren aurka eginiko akusazio guztiak aintzat hartuta, heriotza-zigorra jarri zioten, "matxinadarekin bat egitearen" delitua leporatuta. Hala, 1938ko martxoaren 11n hil eta ehortzi zuten Derioko hilerrian<sup>345</sup>.


1938ko abenduaren 13an Donostiako 2. auzitegi militarrek urgentziarako beste prozedura sumarisimo bat abiarazi zuten hilabete batzuk lehenago fusilatu zuten azpeitiar haren aurka. Instrukzio hartan, aurreko gerra-kontseiluan erabilitako akusazio-adierazpenak berriro ateratzeaz gain, 1938ko hasieratik aurrera Falangeren tokiko buruzagi berria izan zen Hilario Bereciartuaren idatzia ere sartu zuten, aurretik egindako inputazioak nabarmenduz. 1940ko ekainaren 4an, gerra-kontseiluan, Donostian, auzia artxibatzea erabaki zuten auzipetua hila zelako<sup>346</sup>. Jose Maria ezkongabea zen eta Landeta baserrian bizi zen. 1907an jaioa zen eta 30 urte zituela fusilatu zuten.



169 - Jose Maria Aranguren Odrizolari buruzko dokumentua. (AIRMN).

**ARANGUREN OLAZABAL, JUANA**

Odria auzoko Arauntza baserrikoa zen Juana. Errepublikara, Azpeitiko Izarra hotelean aritu zen zerbitzari-lanetan. Altxatutako tropak Azpeitian sartu zirenean, Juan eta Maritxu ahizpa Gipuzkoako hiriburura joan ziren eta Londres hotelean lanean hasi ziren. 1938ko martxoaren erdialdean, Espainiako Segurtasun Zerbitzuaren Buruzagitzaren mendekoa zen Ikerketa eta Zaintzako Komisariako bi agente familiako baserria eta bi ahizpek Londres hotelean zituzten logeletara joan eta hainbat gutun, egunkari eta "gordeta zuten zilarrezko txanpon bat", konfiskatu zizkieten. Ondoren, martxoaren 23an, deklarazioa egin zuten biek *Donostiako Ikerketa eta Zaintzako Komisarian*, eta adierazi zuten "adierazpen subertsiboak" zituen gutunetako baten egilea Maritxu zela. Juanaren logelan, berriz, agenteek *Euskadi Roja*, *Euzkadi*, *Politika* eta *Le Sud-Ouest* aldizkariaren hainbat ale aurkitu zituzten. Hori guztia kontuan hartuta, urgentziarako prozedura sumarisimo bat abiarazi zuten bi ahizpen aurka martxoaren 28an. Martxoaren 30ean instrukzio-epaile militarren aurrean adierazi zuten "idea politiko nazionalista samarrak" zituela. Horrez gain, Azpeitiko lagunak zituzten bi lekukok, Rosario Orbegozo Unanuek (herriko Círculo Tradicionalistakoa kidea) eta Antonia Apiazua Olazolak auzipetuen aldeko deklarazioa egin zuten, eta esan zuten bi ahizpetako inork ez zuela inoiz nazionalista zenik aitortu, eta ez zituela *Glorioso Movimiento* zelakoaren aurkako politikarik egin. Donostiako Falangeko arduradunek ere haien aldeko adierazpenak egin zituzten, esanez, "oso jokabide onekoak eta langileak" zirela. Azpeitiko agintari frankista gorenek, ordea, Roque Astigarragak (alkatea), Hilario Bereciartuak (Falangearen tokiko burua) eta Hermenegildo Calvok (Guardia Zibileko komandantea) egindako txostenetan adierazi zuten "Eusko Alderdi Jeltzaleko propagandista aktiboak zirela bi ahizpak, familia osoa bezala". Guardia Zibilaren txostenean, honako hau ere adierazi zuten: "Zurrumurruek arabera, etxean Eusko Alderdi Jeltzaleko pertsona gailenen bilerak egiten zituzten, batez ere, lagun arteko bilerak, eta S. Ignacio tertziokoak izateagatik gorrien eremura ihes egindako familiakoekin ere egiten zituzten bilerak". Hori guztia zela-eta, Ondarretako kartzelan sartu zuten Juana 1938ko uztailaren 2an, eta urte hartako urriaren 11n absolutu eta aske utzi zuten. Epaian jarri zuten konfiskatu zizkieten aldizkari haiek izate hutsa "ez zela matxinada delitua, ideologia gorri - separatistaren erakusgarri baizik"<sup>347</sup>.



170 - Juana Aranguren Olazabali buruzko dokumentua. (AIRMN).


<sup>344</sup> AUA (Sig. 1240-08; Kod. 214).

<sup>345</sup> 210/37 urgentziarako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>346</sup> 2544-37 urgentziarako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>347</sup> 4/38 urgentziarako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

## ARANGUREN OLAZABAL, MARIA "MARITXU"



171 - Maria Aranguren Olazabali buruzko dokumentua. (AIRMN).

1938ko martxoaren 23an, *Donostiako Ikerketa eta Zaintzako Komisarian* deklaratu ondoren, Ondarretako espetxean sartu zuten Maritxu, 25 urte zituela. Deklarazioan, eta handik egun batzuetara instrukzio-epailearen aurrean, aitortu zuen berak idatzia zela agintari militarrek honela deskribatu zuten gutuna: "gutunak frankisten gerra-operazioen nondik norakoei buruzko ideia ezkorrak adierazten zituela, sinatzaileak poza adierazten zuela horren harira, eta aberriaren batasunaren aurkako adierazpen subertsibo bat ere idatzita zegoela". Azken adierazpen hori Maritxuk amaieran idatzitako agurrari zegokion: "Gora Euzkadi Askatuta".

Juana ahizparekin egin zuten bezala, Rosario Orbeago Unanue eta Antonia Azpiazu Olaizola lekukoek eta Donostiako Falangeren informazio-zerbitzuak akusatuen aldeko adierazpenak egin zituzten, esanez, ez zutela altxatutako aurkako adierazpenik egin eta jokabide ona zutela. Aldiz, Roque Astigarragak, Hilario Bereciartuak eta Hermenegildo Calvok eginiko txostenetan Juana eta Maritxu errudunak zirela azpimarratu zuten.

1938ko urriaren 11n 2 urteko espetxe-zigorra kondenatu zuten "matxinada militarra"ren delitua leporatuta, ebatzi baitzuten Maritxuk idatzitako gutunean "Fronte Popularraren matxinada sustatzen zuten" adierazpenak zeudela idatzita<sup>348</sup>.

## ARIZAGA GURRUCHAGA, JESUS

Espartingilea zen ogibidez azpeitiar hau. JSU-ren UHP batailoiko kide izan zen. 1937ko abenduan preso zegoen Bilboko espetxe probintziallean. 1938an urgentziako prozesu sumarisimo bat abiarazi zuten Jesusen aurka, "matxinada" delituz akusatuta, baina auzia artxibatu egin zuten 1939ko irailean, Jesus urte hartako urtarilean hil zela egiaztatu ondoren<sup>349</sup>. Miliziano honen gorpua Bermeoko beilategian zegoen 1939ko urtarrilaren 6an<sup>350</sup>. Ez dakigu nola hil zen.

172 - Jesus Arizaga Gurruchagaren espetxeko fitxa. (AGA).

## ARREGUI ECHANIZ, DIONISIO "TXAPAO"

1907an jaioa zen Dionisio eta Iturbide baserrian bizi zen. Zurgina zen lanbidez, eta gerra aurretik *Damaso Azcue* altzari-fabrika aritu zen lanean. Antonio Loinazek idatzitako oroitzen-liburuan<sup>351</sup> idatzita dago Dionisio Ertzaintzan ibili zela Gerra Zibila hasi ondoren. Gero, atxilotu eta Urduñako espetxean sartu zuten, eta 1937ko abuztuaren 22an Gasteizkora eraman zuten. Urte hartako urriaren 15ean, Dionisioren eta beste 14 lagunen aurkako aurretiazko eginbideak abiarazi zituzten Gasteizko 5. auzitegi militarrean, baina 1939ko urriaren 25ean, 6. *Erregio Militarreko Gerrako Ikuskaritzak* absolutu egin zuen uztailaren 8an emandako epaiaren bidez, delitu-ekintzarik egin ez zuelakoan. "A atalean" sailkatu eta aske utzi zuten Dionisio<sup>352</sup>.



173 - Dionisio Arregui Echaniz (Lurdes Arrietak utzitako irudia).

<sup>348</sup> *Ibid.*

<sup>349</sup> 10578/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>350</sup> Espetxeko fitxa (AGA).

<sup>351</sup> LOINAZ ETXANIZ, A.: *Nire Oroitzapenak* (2001).

<sup>352</sup> 1060/37 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

**ARREGUI ECHANIZ, HILARIO**

1912an Elgoibarren jaioa zen eta Azpeitian bizi zen Hilario. Gerra hasi ondoren, UHP batailoian egon zen erroldatuta<sup>353</sup>. Hilarioaren nondik norakoei buruzko hurrengo arrastoa 1941eko otsailaren 13koa da. Orduan eraman zuten Orihuelako (Alacant) espetxetik Ondarretakora, Donostiako 7. auzitegi militarrean auzipetu zutenean. Orihuelako espetxeko zuzendariak sinatutako agiriaren arabera, Hilario 1939ko apirilaren 5etik zegoen espetxe hartan preso, eta ez dago jasota kartzelan zergatik zegoen azaltzen duen zigor-aurrekaririk edo deliturik. 1941eko otsailaren 24an Ondarretako erizaindegira eraman zuten, eta "endokarditis erreumatikoa" diagnostikatu zioten<sup>354</sup>. Handik lau egunera aske utzi zuten, eta urte hartako maiatzean *Gerako Ikuskaritzak* auzia artxibatu eta Hilario behin betiko aske uztea erabaki zuten, gerra-kontseiluak haren aldeko txostena egin ondoren<sup>355</sup>.

mateta/ 6

**PRISIÓN PROVINCIAL DE SAN SEBASTIÁN**

ARREGUI ECHANIZ Hilario (Nombre) Departamento 15-3°

Natura de Elgoibar (Apellido) Partido judicial de Vergara

hijo de Manuelino y de Vicenta de 28 años, estado soltero

profesión Barricador número de hijos Religión Instrucción tiene

Antecedentes Ingresos por 1ª vez. Domicilio Santiago, 1-1°

Nombre del cónyuge y domicilio del mismo

Fecha del nacimiento del recluso 21 octubre 1912

INCELAS DACTILARES ENTRADA SALIDA

OBSERVACIONES

UNO INGRESANTE SPRINTO MASCO

174 - Hilario Arregui Echanizen espetxeko fitxa. (AGA).

**ARREGUI VENTURA, GAUDENCIO**

1895ean Azpeitian jaioa zen Gaudencio. Albaitaritzako udal-ikuskaria izan zen 1918tik altxatutako tropak herrian sartu ziren arte. 1936ko irailaren 20an bertan, Lapurdira egin zuen ihes, Donibane Lohizunera, eta handik gutxira Hegoaldera itzuli eta Lekeition jarri zen bizitzen<sup>356</sup>. 1937ko uztailearen hasieran Azpeitira itzuli zen Gaudencio, eta berehala sartu zuten herriko kartzelan. Ordurako, kendua zuten udal-albaitari kargutik, eta *Azpeitiko Junta Carlista de Guerra* zelakoak konfiskatu egin zizkion "altzari, arropa, hegazti eta tresna guztiak, gutxi gorabehera 20.000 pezeta-ko baliokoak"<sup>357</sup>. Hilaren 19an, Donostiako 4. instrukzio-epaitegi militarrek ikerketa bat abiarazi zuten *Azpeitiko Komandantzia Militar*aren baitako 6 herritarren aurka, tartean Gaudencio, "Fronte Popularraren alde jarduera politiko - sozialak egin ote zituzten argitzeko". Badirudi, behin-behineko espetxealdian zegoela, "mehatxuak egin zituela herriaren aurka, alkatearen eta herritar guztien aurka, marxisten garaipena iristen zenerako, esanez ez zuela zalantzarik egun hura iritsiko zela, eta lehen aukera izan bezain laster gorrien eremura igarotzeko asmoa zuela". Garai berean, kontu horiek berriro esan zizkion espetxeko beste kide bati<sup>358</sup>. Horren harira, Gasteizko espetxera eraman zuten eta, ondoren, Ondarretakora, eta urgentziarako prozedura sumarisimo bat abiarazi zuten Gaudencioaren aurka "matxinada sustatzea"z akusatuta. 1938ko azaroaren 22an 2 urteko espetxe-zigorra eta "kargugabetzea" ezarri zizkieten, eta 1940ko urtarrilaren 4an aske utzi zuten baldintzapean.

**ARRIETA AGUIRRE, IGNACIO**

Azpeitiarra zen eta Azkoitia bizi zen Ignacio. Logroñotik Bilbora eraman zuten 1937ko azaroaren 10ean, eta han egon zen behin-behineko espetxealdian, gerra-kontseiluak noiz epaituko zain. 1938ko irailaren 28an auzia artxibatu zuten, eta "B atalean" sailkatu. Hala, langileen baitailoi batera bidali zuten<sup>359</sup>. Seguru asko, *Loyola* batailoian ibiliko zen, sukaldari.

**ARRIETA IBARBIA, AGUSTIN**

1911n Azpeitian jaio zen Agustin, baina gero Azkoitira joan zen bizitzera. 1945eko ekainean ohiko prozedura sumarisimo batean sartu zuten Donostiako epaimahai militar batek, "Espainiako Defentsa eta Segurtasun Legea"ren aurkako delitua egin ote zuten ikertzeko. Hogeita hamar pertsona inguru akusatu zituzten, Donostian ANV-EAeko batzordea eta Frantziar Euskal Brigadaren batzordea ezkutuan osatzeagatik. Auzi-ikerketak hainbat urte iraun zituen eta, azkenean, 1948ko martxoaren 30ean, gerra-kontseiluak Agustin absolbitzearen aldeko epaia eman zuten, ebatzi baitzuten Bermeotik itsasoz Frantziara ihes egiteko egin zuten saiakeraren helburua ez zela "Frantziar zeuden euskal errefuxiatuek osatutako unitate militar batean sartzea", lana bilatzea baizik<sup>360</sup>.

<sup>353</sup> EGAÑA, I. (Zuz.): 1936, *Guerra Civil en Euskal Herria* (2004).

<sup>354</sup> GPAH (2851; Esp. 012).

<sup>355</sup> 3513/40 urgentziarako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>356</sup> ETXANIZ MAKAZAGA, J.M.: *De Albaitares y Veterinarios municipales en el Valle del Irurugi 1861 - 1990*.

<sup>357</sup> AGA Justizia (Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala; esp. 75/532).

<sup>358</sup> 1723/38 urgentziarako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>359</sup> 17407/38 urgentziarako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>360</sup> 3/37 urgentziarako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

## ARRIETA ZUBIMENDI, IGNACIO

1936ko abuztuaren hasieran Azpeitian osatu zituzten *Euskal Milizien Gerra Komisariako* kidea zen Ignacio, eta hainbat frontetan ibili zen borrokan Castro Urdialesen atxilotu zuten arte. Ondoren, 1937ko urriaren 15ean, El Duesoko espetxera eraman zuten, gerra-kontseiluak ustez<sup>361</sup>, "matxinada" delitua egiteagatik epaitu arte, baina instrukzioa ez zuten abiarazi 1940ko irailaren 16ra arte. Handik ia urtebetera, 1941eko abuztuaren 6an, 12 urte eta egun bateko espetxe-zigorra ezarri zioten Ignaciari, "ideologia separatista" izateaz, "Ibarluzea jauregiko konfiskatzeetan eta Roque Astigarragaren atxiloteta - saiakeran parte hartzeaz" eta miliziano izateaz akusatuta. Epaia eman zuten egunera arte El Duesoko espetxean egon zen azpeitiar hau, behin-behineko espetxealdian<sup>362</sup>. Ondoren, zigorra 3 urtera jaitzi zioten.

Erregimen frankistaren errepresio ekonomikoaren biktima ere izan zen Ignacio, konfiskatu egin baitzieten hainbat seneriden artean Azpeitiko Perez Arregui plazan zuten etxebizitza bat<sup>363</sup>. Etxebizitza horretan zuten Etxezuri taberna, "nazionalistak biltzen zituena", eta *Azpeitiko Junta de Guerra Carlista* zelakoak konfiskatu egin zuten<sup>364</sup>.



175 - Ignacio Arrieta Zubimendi.  
(Lurdes Arrietak utzitako irudia).


## ARRIETA ZUBIMENDI, MARIA

Mariak 25 urte zituen 1937ko uztailaren 7an Azpeitiko Guardia Zibilak Maximina ahizparekin batera atxilotu zuenean. Haien aurkako salaketa Azpeitiko "Margarita" Rosario Echevarria Altamira, Ignacia Bereciartua Azpiazu eta Pilar Aguirre Perezek jarri zuten. Salatzaileren arabera, Arrieta Zubimendi ahizpak "ekintzako nazionalistak ziren, azken hauteskundeetan propaganda egin zuten, hau da, herri horretan gorri separatisten agintaldian milizianoei jaten eman zieten, Espainiaren eta *Margariten Elkarteen* aurkako oihu iraultzaileak egin zituzten, eta salatzailak atxilotzean ere parte hartu zuten". Salaketa horiek berretsiz, Azpeitiko alkateak (Roque Astigarraga), *Azpeitiko Junta Carlistako* ordezkariak (Julian Orbegozo Embil), eta haren anaiak (Casto Orbegozo), txosten bat egin zuten uztailaren 13an, eta bertan, Maria "nazionalista asaldatu eta aktibista propagandista" zela zioten.

Ondarretako espetxera eraman zuten. Uztailaren 22an Mariak epaile militar instruktorearen aurrean berretsi zuen Azpeitiko komandantzia atxilotu zuten egunetan bertan egindako aitortpena. Bertan, *Emakume Abertzale Batzan* afiliatuta zegoela onartzen zuen, eta gerra hasitakoan milizianoentzako jangeletan zerbitzua eman zuela. Aldiz, ukatu egiten zuen hauteskunde-prozesuetan propaganda nazionalistarako egin zuenik, esaterako, Espainiaren aurkako "oihu iraultzaileak" egin zuenik. Era berean, salatzaileren atxilotetetan ez zuela parte hartu esan zuen. Salaketa horiei erantzuna emateaz gain, 1936ko irailaren 19an tropa faxistak berehala sartuko zirela eta Azpeititik ihes egin izanaren inguruan galdekatu zuten, eta Bilbon, Gernikan, Algortan eta azkenik Balmasedan zer egin zuten, han ere kuarteletako milizianoek zerbitzuak eman baitzituzten Bizkaiko frontea erori eta Azpeitira itzuli zirean arte.

Salaketen larritasuna zela eta, Donostiako epaitegi militarrek Azpeitiko epaitegiari eskatu zion bigarren aldiz aitortpena hartzeko salatzailerei. Urriaren haiek salaketa berretsi zuten, Rosario Echevarriak izan ezik, hark atzera egin zuen. Hala ere, Pilarrek eta Ignaciak gertakariaren azalpena aldatu egin zuten, eta oraingoan, atxilotetan salatuak izandako inplikazioari zegokionez, ez zuten esan ziurtasunik zutenik haren inplikazioaz, baizik eta parte hartu zuela uste zutela "susmoagatik, jendeak aipatzen zuelako".

Era berean, eta salatzailak ziotenaren aurka, Azpeitiko bi bizilagunek, Vicente Arrue Arzuagak eta Julian Elorza Aizpuruk, prozesatutako bi ahizpen alde deklaratu zuten. Haien testigantzetan esan zuten Maria "aurrekari moral nahiz erlijioso oneko neska" zela, eta propagandista nazionalista izan zenik ez zekitela. Edonola ere, 1938ko maiatzaren 21ean, baldintzapeko askatasuna eman eta hilabetera, Maria delitu-ekintza guztietatik absolbitu zuten. Epaile militar instruktoreak egindako idatzian zehazten zuenez, "oinarri gutxikoak ziren salaketak", eta "nahikoa zigor jaso zuen" prebentziozko espetxean emandako denborarekin *Emakume*ko afiliatua izateagatik eta Fronte Popularraren alde sukaldean zerbitzuak emateagatik<sup>365</sup>.



176 - Maria Arrieta Zubimendik epaileari bidalitako gutuna. (AIRMN).

<sup>361</sup> *Espetxeko fitxa* (AGA).

<sup>362</sup> 3671/40 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>363</sup> CDMH.

<sup>364</sup> 1937 Gobernu-informazioa (AIRMN).

<sup>365</sup> *Ibid.*

**ARRIETA ZUBIMENDI, MAXIMINA**

Maria ahizpa bezala, Maximina 1937ko uztailaren 7an atxilotu zuten, Azpeitira itzuli eta egun batera, Rosario Echevarria Altamira, Ignacia Bereciartua Azpiazu eta Pilar Aguirre Perezek jarritako salaketaren ostean. Maximinaren kasu zehatzean, salatzaileek Guardia Zibilaren aurrean aitortu zuten nazionalista eta propagandista izateaz gain, "haien atxilotetaren eragile izan zela, eman zioten aginduan ageri zen letra ere salatzen duten horrena baitzen". Baina handik hilabete batzuetara, eta Maximina Ondarretan preso zela, azken salaketa horretan atzera egin behar izan zuten, epaile militar instruktoarek bazekielako atxiloteta-agindua "makinez idatzita eta Fronte Popularrak sinatuta zegoela". Bestalde, Falangek eta Guardia Zibilak Roque Astigarragaren, eta Julian eta Claudio Orbegozo anaien aitortpenak abalatu zituzten, eta horietan, auzipetua hauteskundeetan pertsona nazionalista oso aktiboa izan zela zioten. Horrez gain, Guardia Zibilaren txostenak aipatzen zuen Maximinak hainbat baserrian elikagaiak konfiskatzen parte hartu zuela, baina salaketa horren lekukotza emango zuten lekukorik ez zuten topatu. Aldiz, berriz ere Julian Elorza, oraingoan Francisco Gaztañagarekin batera, auzipetuaren alde agertu zen. Haien arabera, nazionalista eta nazionalistak biltzen ziren Etxezuri familiako tabernan zerbitzari izateaz gain, Maximina jokabide onekoa zen, eta ez zuen salatutako ezertan parte hartu. Azkenik, Maximinari filiazio nazionalista eta Gernikako komandantzian emandako zerbitzuak aitortu ostean, eta aldi berean haren gaineko salaketak ukatuta, 1938ko apirilaren 13an baldintzapeko askatasuna eman zioten. Handik hilabetera, Donostiako epaitegi militarrek kargu guztietatik absolbitu zuten, "haren aurka aurkeztutako salaketak salatzaileen beren aitortpenen ondorioz ezerezean geratu zirela argudiatuta". 1938ko irailaren 26an Maximinari nahiz Maria ahizpari behin betiko askatasuna eman zioten<sup>366</sup>.



177 - Maximina Arrieta Zubimendi.  
(Lurdes Arrietak utzitako irudia).

**ARRITOUQUIETA ALZA, RUFINO "ALABIER"**

Zizurkilen jaio zen 1915ean eta Eliz kalean bizi zen. EAjko militantea zen eta *Euskal Milizien Gerra Komisariako* kide izan zen. 1936ko irailean altxatutako tropak Azpeitian sartzeaz zeudela, Bizkaira egin zuen ihes eta Bilbon atxilotu zuten gero. Donostiara eraman zuten eta 1936ko azaroaren 19an abiarazi zuten auzi-instrukzioa. Ondoren, gerra-kontseiluan epaitu zituzten Rufino eta beste 7 azpeitiar. 1937ko martxoaren 8ko epaiaren bidez, biziarteko espetxe-zigorra ezarri zioten Rufinori, "matxinadarekin bat egitea"ren delitua leporatuta. Epaiaren arabera, 1936ko abuztuaren erdialdean Sagarrre Baroiaren finkan egin zuten arpilatzean parte hartu zuen, Lasao; baita Errezilgo Asketa baserrian Roque Astigarraga atxilotzeko egindako saiakeran ere. Azpeitian armak hartuta zaintzaldiak egiteaz eta gerrako fronteetara borrokalariei elikagaiak ematera joateaz ere akusatatu zuten<sup>367</sup>.

1937ko maiatzaren 4an Ondarretako espetxetik Iruñeko Zentralera eraman zuten, eta han egon zen 1942ko apirilaren 13an Alcala de Henaresera eraman zuten arte. Azkenean, 1944ko martxoaren 2an, baldintzapean aske utzi zuten.

**ARRIZABALAGA ECHEVERRIA, FELICITAS**

Felicitas 1937ko uztailaren hasieran atxilotu zuten eta Ondarretako espetxera eraman zuten. Atxilotzearen arrazoiak Aniceto Arrue eta Santos Beldarrainek jarritako salaketa izan zen. Itxuraz biak joan ziren Felicitasek Jesus Alberdi albaitariari zor zion faktura bat kobratzera, eta eztabaida sortu zenean, Felicitasek Santos Beldarrain kobratzaileari leporatu zion erreketek batekin joan izana (Aniceto Arrue). Salatzaileen arabera, Felicitasek erreketeari mespretxua erakutsi zion, haren amak auzipetuarekin zorrak zituen, eta "*Mugimendu Nazionalaren* aurka hitz egiten zuen".

Ondarretara eraman ostean, Roque Astigarragak eta Julian eta Casto Orbegozo anaiek egin zuten txostena. Bertan, Felicitas "nazionalista asaldua eta propagandista" zela zioten. Era berean, epaile militar instruktoari gogorarazi zioten aurretik Azpeitiko komandante militarrek (Emilio Gomez del Villar) isuna jarri ziola "Glorioso Movimiento delakoaren aurkako adierazpenak" egiteagatik. Hala ere, hainbat lekukok, esaterako Miguel Arteche, Jose Maria Aguirre, Segunda Emparan edo Natalio Ibarrek aitortu zuten Felicitasen alde, eta haren inguruan esan zuten "*Causa Nacional* delakoaren jarraitzailea" zela, eta "Fronte Popularrak jazarritako pertsona" lagundu ziela. Kontrakoa esan zuen Carmen Loinazek. Tropa matxinatuak sartu zirenean, bando batean argitaratu zen moduan, saltokian metatutako jangaiak Felicitasek ez zituela udalean entregatu adierazi zuten. Edonola ere, Guardia Zibilaren eta Falangeren salaketak Felicitas ideologia nazionalistakoa zela esatera mugatu ziren, "gorrien nagusitasuneko garaian ekintzarik ez zuela egin adierazi" zuten. Hala, 1938ko urtarrilaren 22an, baldintzapean aske utzi zuten, baina abuztuaren 10an, *Gerra Ikuskaritzak* Felicitasen aurka urteko prozedura sumarisimoa irekitzea erabaki zuten, epaile instruktoarek aurretik ueste izan zuten arren prebentzioz espetxean egondako denborak kitatzen zuela izan zezakeen isuna<sup>368</sup>.

Beraz, 1938ko bigarren seihilekoan, Felicitas berriz ikertu zuten Donostiako epaitegi militarrek, eta ziurrenik espetxeratu egingo zuten. Azkenik, 1939ko martxoaren 7an, Felicitas absolbituta geratu zen; epai hori apirilaren berretsi zuten *Gerra Ikuskaritzak*<sup>369</sup>.



178 - Felicitas Arrizabalaga Echeverria.  
(Jexux Arrizabalagak utzitako irudia).

<sup>366</sup> *Ibid.*

<sup>367</sup> 685/36 urteko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>368</sup> 1937 Gobernuko informazioa (AIRMN).

<sup>369</sup> 2630/38 urteko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

## ARRUE LARRAÑAGA, FRANCISCO

1931tik Francisco Azpeitiko batzokira joan ohi izaten zen. Gerra hasi zenetik Azpeitia matxinatuen eskuetan erori zen arte, Franciscok zaintzaldi armatuak egin zituen inguruko hainbat menditan. Herritik alde egin ondoren, Loyola batailoiaren eman zuten izena boluntarioki, gerra fronte batzuetara trasladatuz. Mailaz igo eta kabo izendatu zuten Otxandion, eta Turtziozen sarjentu. 1937ko abuztuaren 25ean Laredon atxilotu zuten eta, ondoren, Aranda del Dueroko (Burgos) kontzentrazio-esparrura eramane zuten. 1937ko urriaren 22an, Azpeitiko Guardia Zibilearen komandante Florencio Mangas Luengok idatzi bat bidali zion *Presoak Sailkatzeko Aranda del Dueroko Batzordeko* presidenteari eta Franciscoren aurrekariak azaldu zizkion: nola EAJko militantea zen, konfiskatzeetan eta atxilotzeetan parte hartu zuela eta bere borondatez miliziano ibili zela azalduz.

Horren harira, Ondarretako espetxera eramane zuten Francisco 1939ko hasieran, gerra-kontseiluak epai zezan. 1939ko urtarrilaren 31n Roque Astigarraga Azpeitiko alkateak eta otsailaren 11n Hilario Bereciartua Azpeitiko Falangeren tokiko buruzagiak Francisco errudun jotzen zuten txostenak bidali zituzten epaitegira, 1937ko urriaren Florencio Mangasek eginiko akusazioekin bat eginez. Horrez gain, lekukoaren zerrenda bat ere bidali zuten.

Zerrendan zeuden Donato Aresti, Galo Barrena eta 1936ko abuztuaren eta irailean ustez Franciscok egindakoen kalteak jasan zituzten *San Ignacio* Tertioko hainbat herritar. 1939ko otsailetik abuztura deklaratu zuten lekuko guztiak, baina inork ere ezin izan zuten berretsi Francisco izan zenik atxilotetean parte hartu zuela eta konfiskatzeetan -Galo Barrenaren etxean eta Zuazo jauregian- parte hartu zuela zioten "arrueta hura".


1939ko urriaren 20an auzia behin-behinean atxibatuta zuten, ezin izan baitzituzten "egozten zizkieten karguak justifikatu". Hurrengo egunean, behin betiko aske utzi zuten<sup>370</sup>.

## ARRUE LARRAÑAGA, PEDRO

Eusko Alderdi Jeltzaleko militantea eta lanbidez merkataria zen Pedro. *Azpeitiko Udal Batzordeko* diruzaina izan zen errepublika-garaian eta, ondoren, *Defentsa Batzordearen mendeko Hornidura Batzordeko* kide. 1936ko irailaren 20an Bilbora egin zuten ihes eta soldadutzara deitu zutenean, Eusko Gudarostean sartu zen. Ikusmen-desgaitasunak zituenez, zerbitzu osagarrietan aritu zen, harik eta 1937ko abuztuaren 24an Santoñan atxilotu zuten arte. 1937ko irailean Azpeitira eramane zuten, eta Guardia Zibilearen aurrean deklaratu zuten, Donostiako epaitegi militar batean bere aurka abiarazi zuten urduriatzeko prozedura sumarisimo baten harira. Auzi-ikerketen baitan jaso zituzten Azpeitiko hainbat herritar esanguratsuk Pedro errudun jotzeko egindako adierazpenak; hala nola Ignacio Echeverria Altamira (alkate 1952tik 1961era) orduko Falangeren buruarenak, Roque Astigarraga, Cruz Maria Echeverria Taberna, Casto Orbegozo Embil eta Jose Azpiazu Echanizenak. Adierazpen guztietan saiatu ziren Pedrok *Azpeitiko Defentsa Batzordean* izandako zereginari garrantzia ematen, batez ere konfiskatzei eta atxilotetei buruzko erabakietan zeregin garrantzitsua izan zuela esanez. Gregorio Segurolarekin batera Guardia Zibilearen kuartelean eginiko arma konfiskatzeetan parte hartu zuela dioen akusazioa aipagarria da. Pedrok eta Gregoriok linea-buruari "Azkoitiko mendekoei gerra-egoera deklaratzeko uzteagatik" bidalitako protesta aipatzen zuten akusazio hark.

Ondarretako espetxean sartu zuten, eta 1938ko uztailaren 21ean berriro egin zuten deklarazioa Pedrok. 1937ko irailean bezala, onartu zuten *Hornidura Batzordean* parte hartu zuela, baina ukatu egin zuten Batzordean erabakiak hartzen parte hartu zuenik eta Guardia Zibilearen kuartela armagabetez inolako ardurarik izan zuenik. Azkenean, 1938ko azaroaren 26an, 2 urteko espetxe-zigorra ezarri zioten "matxinada militarra egiteko proposamena" egitearen delitua leporatuta. 1939ko otsailaren utzi zuten aske<sup>371</sup>.

179 - Pedro Arrue Larrañagari buruzko dokumentua. (AIRMN).



## ARRUTI GARGARZA, JOSÉ ANTONIO

Urrestillakoa zen Jose Antonio eta zinegotzi abertzalea izan zen errepublika-garaian 1933ko apirilko hauteskundeetan 360 boto lortu ondoren<sup>372</sup>. 1937ko irailaren 6an, Santoñan, epaimahai militar baten aurrean egin zuten deklarazioaren arabera, Azpeitira etorritako CNTren patrula bateko kideek "behartu" egin zuten herritik joatera. Lehenago, 1937ko maiatzean, Bilboko Ertzaintzaren sail motorizatuan aritzeko boluntario aurkeztu zuten bere burua. Lanbidez elektrikaria zenez, "elektrikari-lanak egin zituen eztanda-motorrekin eta motozikletekin". Ondoren, altxatutako tropak aurrera zihozazela ikusita, Karrantzara joan zen bizitzera eta, gero, Kantabriara. 1937ko abuztuaren 27an Santoñan atxilotu eta El Duesoko espetxean sartu zuten. Ondoren, prozedura sumarisimo bat abiarazi zuten Jose Antonioren aurka, eta urte hartako irailaren 8an 12 urte eta egun bateko espetxealdia txikiko zigorra jarri zioten, "matxinadari laguntzearen delitua" leporatuta. 1938ko abuztuaren 24an Cadizko Puerto de Santa Maria espetxera iritsi zen, eta han egon zen 1940ko apirilaren 2ra arte, Valladolideko espetxera eramane zuten arte, alegia.

1943an, *Zigorak Aztertzeo Batzordeak* 3 urtera jaitsi zion espetxe-zigorra eta, hala, aske utzi zuten. Aipagarria da Jose Antonioren aurka egindako gerra-kontseiluaren dokumentazioan ez dagoela Jose Antonioren deklarazioaz gain, beste frogarik; hau da, ez dago hura errudun egiten duen beste txostenik. Are gehiago, ez dago iraganeko zinegotzi nazionalista izan zela dioen aipamenik. Hala, *Zigorak Aztertzeo Batzordeak* zigorra aldatzeko proposamenean honako hau adierazi zuten: "ezin zela zehaztu zer ekintza egin zuten, auziaren informazioa galdu egin zelako eta epai-lekukotzarekin bakarrik aztertu zutela"<sup>373</sup>.



180 - Jose Antonio Arruti Gargarza. (AIRMN).

<sup>370</sup> 16530/38 urduriatzeko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>371</sup> 1714/38 urduriatzeko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>372</sup> AIZPURU MURUA, M.: Antzinako Azpeititik Azpeiti berrira (2010).

<sup>373</sup> 19/37 urduriatzeko prozedura sumarisimoa (AIRMN).



### ARRUTI IRURETAGOYENA, VICTORIA

Donostia erdialdean, Moraza kaleko 1.ean, bizi zen azpeitiar hau *Ikerketa eta Zaintza Batzordeko Komisariako* agenteek atxilotu zuten 1937ko irailaren 7an, 47 urte zituela. Hasieran, bizilagunak zituen bikote batek altxatutakoen aurka egindakoei buruz galdekatu zuten, baina galdeketa egin zion agenteak ondoriozatu zuen, Victoria Arruti "Fermin eta Bienvenida senar-emazteen oso laguna zela eta auzoan gorri samartzat zutela". Ondoren, hainbat bizilagunek egin zuten Victoriaren aurkako deklarazioa, esanez, "tropa garaileak Donostian sartzean ukabila jaso eta gora euzkadi oihukatuz agurtu zituela". Horrez gain, esan zuten, Victoria ere maiz joaten zela Larramendi kaleko CNTren zentrora, Fermin eta Bienvenida bezala, eta tropa faxistak sartzean "ibaira kutxa bat" botatzen ikusi zutela.

Gainera, "Guardia Cívica" zelakoak eta Donostiako Falangek igorritako txostenek kalte handia egin zioten Victoriari. Falangeren txostenean jarri zuten auzipetuak esan zuela "herrena izan ez balitz frontera joango zela, gorriekin borrokarat". Hala, 1937ko abenduaren 14an, 6 urte eta egun bateko espetxealdi handira kondenatu zuten gerra-kontseiluan. Ebazpenean, "ukabila jaso eta Gora Euzkadi esanda matxinada sustatzaren delituari" eman zioten garrantzia.

Kartzelan zegoela bi aldiz eraman behar izan zuten ospitalera: 1938ko azaroaren 30etik 1939ko otsailaren 8ra lehenik eta 1939ko irailetik 1940ko otsailera gero. Bi aldietan, espetxera eraman zuten ospitaletik irtetean<sup>374</sup>. Era berean, *Zigorak Aztertzeo Gipuzkoako Batzordeak* ukatu egin zion zigorra aldatzeko eskaera 1940ko maiatzean eta 1943ko abuztuan. Hala, zer osasun-egoeratan zegoen eta "delituaren" arintasuna kontuan hartu gabe, kondena osorik bete behar izan zuen Victoriak, eta ez zuten aske utzi 1943ko irailera arte. 53 urte zituela irten zen espetxetik<sup>375</sup>.

### ARRUTI LAPEIRA, VICENTE

1916an jaioa zen Vicente eta EAjko militantea izan zen 1932tik. Gerra hasi ondoren, kopiatzaile-lanetan aritu zen Hornidura Batzordean, 1936ko irailaren 26an *Itxarkundia* batailoira boluntario joan zen arte. Sukaldari-lanetan aritu zen batailoian. *Presoak Sailkatzeo Lizarrako Batzordearen* aurrean egin zuen deklarazioan adierazi zuen gerrako hainbat frontetan ibili zela (Villarreal, Durango, Miravalles...) 1937ko abuztuaren 25ean Laredon atxilotu zuten arte.

1937ko irailean, Lizarrako espetxean zegoen preso eta, ondoren, bere aurka abiarazitako gerra-kontseilu baten harira, Bilboko Eskolapioetara eraman zuten. Instrukzio-fasean Eusebio Altuna eta Juan Jose Garmendia azpeitiarren idatzi bat dago jasota, Falangeren Azpeitiko buruak ziurtatua. Idatzi horretan dago azalduta Vicente "katoliko praktikantea" zela eta EAjkoa izan arren, ez zuela "inolako jarduera politikorik" egin. Azkenik, 1938ko otsailaren 17an, gerra-kontseiluak erabaki zuen Vicenteri eta auzi bereko beste auzipetu batzuei egotzitako gertaerak, ez zutela "zigortzeko adinako garrantzirik". Hala ere, "auzipetuak *Causa Nacional* esaten ziotenaren aurkakoak zirela eta B atalean sailkatu zituzten"<sup>376</sup>.

Vicente, gainera, Urolako treneko fakturaztaile-lanpostutik bota zuten 1936ko irailaren 20an, "lanpostua bertan behera uzteagatik". 1979ko apirilaren 24an berronartu egin zuten, eta borondatezko erretiroa hartu zuten laneko amnistiar buruzko 1977ko urriaren 15eko 46/1977 Legearen harira<sup>377</sup>.


### ARRUTI LIZARRALDE, JOSE

Orion jaioa eta ogibidez zurgina zen Jose. Lan horretan aritu zen altxatutakoak Azpeitian sartzean ziren arte. Azpeitian bizi zen. 1936ko irailaren 19an Bilbora egin zuen ihes, eta ondoren Itxarkundia batailoian sartu eta hainbat zerbitzu osagarritan ibili zen lanean, gerrako fronte batean eta bestean. 1937ko abuztuaren 25ean Laredon atxilotu zuten, eta handik gutxira, Lizarrako kontzentrazio-esparrura eraman zuten. Azaroaren 1etik 6ra Miranda de Ebron egon zen preso eta badirudi, handik Sevillara eraman zutela, langileen batailoia espezializatu batera. Hala ere, azaroaren 25ean berriro eraman zuten Miranda de Ebroko kontzentrazio-esparrura eta, jarraian, Lizarrakora<sup>378</sup>. Andaluziara eraman eta handik hain denbora gutxira itzuli zenez, baliteke bera izatea Alanis de la Sierran (Sevilla) istripua izan zutenetako bat. 1937ko azaroaren 19an izan zen istripua eta 57 euskal preso hil ziren.

1937ko urrian urgentziako prozedura sumarisimo bat abiarazi zuten 13 lagunen aurka, eta tartean zen Jose. Urte hartako abenduaren 3an instrukzio-epaile militarren aurrean aitortu zuen EAjko afiliatua zela, gerra hasitakoan Azpeitia inguruko errepedeetan zaintzaldiak egin zituela armatuta, eta *Itxarkundia* batailoian bere borondatez eman zuela izena. Hala ere, ukatu egin zuen konfiskatzeetan parte hartu izana eta "pertsonea eskuindarrik" salatu izana, Azpeitiko Guardia Zibilaren txostenak zioenaren aurka.

Hori guztia aintzat hartuta, auzipetu guztien aurka abiarazitako auziak artxibatzea erabaki zuten 1938ko urtarrilaren 14an, Santillana del Mar (Kantabria) herriko lagun baten eta Joseren aurkakoak izan ezik. 3. gerra-kontseiluren erabakiaren arabera, Guardia Zibilak telegrafoz bidalitako txostenetako informazioa sakondu egin behar zen, "zehaztu egin behar zen nor jazarri zuen eta nor salatu zuen". Hala ere, hurrengo hilabeteetan Falangeren Azpeitiko bulegoak, Azpeitiko Udalak eta Guardia Zibilak bidalitako txostenetan ez zioten eskaera horri erantzun eta auzipetua "separatista grinatsua" zela eta armak hartuta zaintzaldiak egiten ibili ondoren Bilbora ihes egin zuela, besterik ez zuten adierazi.

Azkenean, 1939ko urtarrilaren 12an, 6. *Erregioko Gerra Ikuskariak* 500 pezeta-ko isuna ezarri zion eta aske utzi zuten. Hilaren 25ean atera zen Eskolapioen kartzelatik eta handik gutxira, martxoaren 2an, Azpeitiko ordezeko epaileak, Silvestre Otamendik, Josek zer ondasun zuen aztertu zuen, ondoren, ondasun haiek bahitzeko. Eliz kaleko etxebizitza bahituta isuna ordainarazi nahi zioten, baina etxebizitza hura hipotekatuta zegoen. Kaudimengabe deklaratu zuten eta 1939ko uztailaren 8an, 500 pezeta-ko isunaren ordeze, ehun eguneko espetxe-zigorra ezartzea erabaki zuten agintari militarrek. Abuztuaren 20an utzi zuten behin betiko aske<sup>379</sup>.



181 - Jose Arruti Lizarralderi buruzko dokumentua. (AIRMN).

<sup>374</sup> *Espetxeko fitxa* (AGA).

<sup>375</sup> 1637/37 *urgentziako prozedura sumarisimoa* (AIRMN).

<sup>376</sup> 2219/37 *urgentziako prozedura sumarisimoa* (AIRMN).

<sup>377</sup> OLAIZOLA ELORDI, J.: 1936. *Represión y reconversión. El ferrocarril del Urola*. (2009).

<sup>378</sup> CDMH (Sartutakoak-1616).

<sup>379</sup> 1629/37 *urgentziako prozedura sumarisimoa* (AIRMN).

## ASENJO MAGDALENO, GREGORIO

Paredes de Nava (Palentzia) herrikoa zen Gregorio eta Azpeitian bizi zen. Moldatzaile-lanetan aritzen zen. 1936ko azaroan *Juventudes Socialistas Unificadas* taldearen UHP batailoian sartu zen, sarjentu<sup>380</sup>. Kantabrian atxilotu zuen eta gerra-kontseiluan epaitu zuten Santoñan. 1937ko urriaren 6an biziarteko espetxe-zigorra ezarri zioten "matxinadarekin bat egitea" leporatuta<sup>381</sup>. 1938ko uztailaren 30ean Cadizko Puerto de Santa Mariako espetxera eraman zuten, eta han egon zen preso 1941eko urtarrilaren 19an espetxealdi arindua eskuratu zuen arte. Hala ere, 1943ko maiatzean berriro atxilotu zuten Donostiako epaitegi militar batek hala aginduta, eta Santanderko espetxe probintzialera eraman zuten. Gerra-kontseiluan epaitu zuten Gregorio berriz, Gerra Zibila hasi ondoren izandako jokabideagatik. Lehenago ere zigortua zuten arrazoi berdinegatik. Horregatik, 1944ko otsailaren 4an, behin betiko aske utzi zuten, agintari militarrek erabaki baitzuten baietz, lehendik ere epaitua izan zela<sup>382</sup>.

## AYA MENDIZABAL, ANTONIO

Zurgina zen lanbidez. Enparan kalean bizi zen eta Jose Iturzaetaren altzari-enpresan aritu zen lanean Gerra Zibila hasi baino lehen<sup>383</sup>. Gerra hastean, *Loiola*<sup>384</sup> batailoian erroldatuta egon zen eta, ondoren, jada Bilbora joana zenean, *Eusko Jaurlaritzaren Osasun Militararekin* bat egin zuen berari zegokion kintari dei egin ziotenean. Kantabriako Limpas herrian harrapatu zuten eta *Castro Urdialesko Saillkapen Batzordeak* "A atalean" sailkatu zuen. Hala, artilleria astuneko 3. erregimentuan sartu zuten "Causa Nacional delakoaren zerbitzura aritzeko". 1937ko irailaren 19an, ordea, urgentziatzko prozesu summarisimoa abiarazi zuten Antonioren aurka, "Fronte Popularreko alderdien jardura politiko-sozialak argitzeko". 1938ko abuztuaren 17an eman zuten epaia, eta 12 urte eta egun bateko kondena jarri zioten "matxinadari lagundu" ziolakoan, eta Beizamako parrokian "miliziano gudarrien" kuartela antolatzeaz akusatu zuten. Horrez gain, tropentzako ganadua eta arropak konfiskatzeaz eta Azpeititik Beizamara behin eta berriro "egoeraren berri ematera" joateaz ere akusatu zuten. Erreketeeek *Santa Maria auzoko Etxeberri* baserrian jarritako "Espainiako bandera" kentzearen errudun ere jo zuten<sup>385</sup>. Kondena-epaia eman ondoren, Madrillgo Cisne espetxera eraman zuten, eta han egon zen 1940ko abenduaren 3ra arte, harik eta Guadalajarako espetxera bidali zuten arte. 1941eko ekainaren 22an aske utzi zuten, baldintzapean<sup>386</sup>.

## AYERBE AIZPURUA, JESUS

1913an Azpeitian jaio eta bertan bizi zen Jesus. *Saseta* batailoi nazionalistan egon zen erroldatuta. 1938ko urtarrilaren 17ko gerra-kontseiluan epaiaren arabera, zaintzaldiak egiten ibili zen Jesus gerra hasieran, armatuta, eta "San Millan markesaren jauregian egindako arpilatzean" ere parte hartu zuen<sup>387</sup>. Beste azpeitiar batzuk bezala, Laredon atxilotu zuten, eta Lizarrako eta Miranda de Ebroko kontzentrazio-esparruan egon ondoren, langileen 37. batailoira, Sevillara, bidali zuten 1936ko azaroaren hasieran. Hilaren 25ean, hala ere, Miranda de Ebrora eraman zuten berriro eta, horregatik, baliteke bera izatea Alanis de la Sierrako (Sevilla) tren-istripua izan zutenetako bat<sup>388</sup>. Azaroaren 26an Bilboko Eskolapioen espetxera eraman zuten gerra-kontseiluan epaitzeko, eta 1938ko urtarrilaren 12 urte eta egun bateko zigorra jarri zioten delitua leporatuta. Abuztuan Puerto de Santa Mariako espetxera bidali zuten eta abenduan Huelvakora. 1939ko maiatzetik 1941eko urtarrilaren 12ra arte Alcalá de Henaresen (Madril) egon zen preso, eta urtarrilaren 12an espetxealdi arindua ezarri zioten<sup>389</sup>.

## AZCUE GARMENDIA, ROQUE

1913an jaio zen. *Loyola* batailoian erroldatuta egon zen Roque eta ondoren, kabo izendatu zuten<sup>390</sup>. Kantabrian atxilotuko zuten seguru asko eta Aranda del Dueroko kontzentrazio esparrura eraman zuten. Han egon zen gerra-kontseiluan epaitzera Bilbora eraman zuten arte. Auzi-instrukzioaren arabera, Roquek eta Jose Azpillagak (azpeitiarra) Lasao auzoan zegoen San Millan markesaren jauregian izandako arpilatzean parte hartu zuten. Epaimahai militarren arabera, ordea, bi gizonak "euskal separatistak" izan arren, "ez zuten behar besteko frogarik beste delitu-ekintzarik egin zutela erabakitzeke". Hala, 1938ko uztailaren 7an auzia artxibatu zuten, eta Roque eta Jose soldadugaien zerrendan sartu zituzten, soldadu joateko adinean zeudelako. Era berean, beste prozesu summarisimo bat abiarazi zuten ordura arte frogatu ezin izan zituzten inputazioak argitzeko<sup>391</sup>. Roqueren (eta Josereren) aurkako bigarren epaiketa summarisimoa 1939ko hasieran abiarazi zuten eta bieie lotutako auzia artxibatu zuten. "B atalean" sailkatu zituzten eta, hala, langileen batailoi batera bidali zituzten<sup>392</sup>. Bestalde, Roquek bazituen altxatutako tropen aurka ibilitako beste bi anaia: Urbano eta Jose Maria. Jose Maria Villarrealgo sektorean hil zen, borrokan, 1936ko abenduan<sup>393</sup>.

## AZPIAZU ECHANIZ, MANUEL

Izatez azpeitiarra, Azkoitian bizi zen. Manuel 1936ko abuztu hasieran Azpeitian sortutako *Euskal Milizietan* sartu zen<sup>394</sup>. Handik urtebetera, ziuurtenik *Eusko Gudarosteko* gudari gisa gerrako fronte ugariatik pasatu ostean, harrapatu egin zuten eta Medina del Riosecoko (Valladolid) kontzentrazio-esparrura bidali zuten. Han egon zen 1937 amaieran Ondarretako espetxera eraman zuten arte. 1938ko abenduaren 15ean *Gerra Ikuskaritzak*, aurretik Donostiako epaitegi militarren instrukzioa eginda, Manuel "B atalean" sailkatzea erabaki zuen, "afiliazio separatista" eta boluntario gisa "armada gorriarekin bat egin" zuelako. Ondorioz, 1939ko uztailan, Manuel San Pedro de Cardena (Burgos) kontzentrazio-esparrura bidali zuten eta langileen batailoian preso hartu zuten<sup>395</sup>.

<sup>380</sup> CDMH (PS. Bilbao 241).

<sup>381</sup> Espetxeko fitxa (AGA).

<sup>382</sup> 24465/42 urgentziatzko prozedura summarisimoa (AIRMN).

<sup>383</sup> AUA (Sig. 1240-08; Kod. 214).

<sup>384</sup> LOINAZ ETXANIZ, A.: Nire Oroitzapenak (2001).

<sup>385</sup> 2727/37 urgentziatzko prozedura summarisimoa (AIRMN).

<sup>386</sup> Espetxeko fitxa (AGA).

<sup>387</sup> 1682/38 urgentziatzko prozedura summarisimoa (AIRMN).

<sup>388</sup> CDMH (Incorporados-1616).

<sup>389</sup> Espetxeko fitxa (AGA).

<sup>390</sup> LOINAZ ETXANIZ, A.: Nire Oroitzapenak (2001).

<sup>391</sup> 2330/38 urgentziatzko prozedura summarisimoa (AIRMN).

<sup>392</sup> 3064/39 urgentziatzko prozedura summarisimoa (AIRMN).

<sup>393</sup> Azpeitiko Erregistro Zibila: 38. liburukia; 82. zk.; 340. orria.

<sup>394</sup> CDMH (PS Bilbao 64).

<sup>395</sup> Aurretiazko eginbideak 1644 (AIRMN).

**AZPIAZU GOMEZ, ELEUTERIO "INDOTARRA"**

1919an jaioa zen Eleuterio eta errepublika-garaian *Jose Iturzaeta* altzari-fabrikari eta *Hijos de Andres Arruti* enpresan aritu zen lanean, zurgintzan. Gerra hasi ondoren, zaintzaldiak egiten ibili zen, armatuta, Azpeitira errepidez sartzeko igarobaimenak kontrolatzen. Hala, soldata bat jasotzen zuen "izan ere, fabrika itxita zegoenez, dirua behar zuen jatekoa erosteko". 1936ko irailaren 18an Bilbora egin zuen ihes altxatutakoak Azpeitian sartzeaz zirela ikusita. Ez zuen batera diru-sarrerarik eta *Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Laguntza Sailari* esker irauin zuen, 1937ko martxoaren amaieran zulatzaileen batailoi batean sartu zen arte. Tropa frankistak Bilbon sartu baino lehenxeago, Eleuterio zegoen kinta mobilizatu egin zuten, eta infanteriako batailoi batera bidali zuten fusilari. Barakaldoko, Gallartako eta Ontongo (Kantabria) fronteetan ibili zen. Ondoren, zulatzaileen batailoi batean egon zen erroltatuta, lubakiak egiten, hariak eta 1937ko urriaren 21ean Pola de Cieron (Asturias) preso hartu zuten arte. Atxilotu eta Oviedoko espetxera eraman zuten eta, ondoren, Santoñakora. Santoñan zegoela, *Presoak Saillkatzeko Batzordeak* "C atalean" saillkatu zuen 1937ko amaieran, eta Bilboko Eskolapioen kartzelara eraman zuten handik gutxira. 1938ko ekainaren 25ean Eleuterio aurkako urgentziako prozesu sumarisimo bat abiarazi eta Ondarretako espetxera eraman zuten. Auzi-ikerketan, Azpeitiko Falangeren eta Alkatetzaren txostenak, Jose Iturzaeta enpresaburuak eta Ramon Echaniz apaizak igorritakoak erabakigarriak izan ziren auzia artxi-batzeko eta "C atalean" saillkatzeko erabakia zuzentzeko. Bai batzuek bai besteek adierazi zuten Eleuterio ideia nazionalistak zituen gaztea zela, baina "oso langilea" zela eta "gorriak agintean" izan ziren garaian, "jarrera pasiboa" izan zuela.

1939ko otsailaren 18an libre utzi zuten, eta handik egun gutxira Iruñeko soldadugaien zerrendan sartu zuten. Maiatzaren 12an *America 23.a* infanteriako erregimentuan sartu zen eta Lekarozen jarri zen bizitzen. "Askatasun Zainduaren" zerbitzuaren kontrolpean egon zen 1945eko irailera arte<sup>396</sup>.



182 - Eleuterio Azpiazu Gomez. (Kontxi Azpiazu Gomezek utzitako argazkia).

**AZPIAZU GOMEZ, ROQUE "INDOTARRA"**

Indotarren senideetan zaharrena zen Roque, eta ez zuen Eleuterio anaiak adinako zorterik izan Guardia Zibilak igorritako txostena zela-eta. Bilbon atxilotu zuten 1937ko ekainaren 19an eta Deustuko espetxean sartu zuten. Urte hartako abuztuaren 16an, Azpeitiko Guardia Zibilaren postutik Deustuko espetxeko *Presoak Saillkatzeko Batzordeari* jakinarazi zioten Roque "jokabide txarra" izan zuela, eskuindarren aurkako konfiskazteetan parte hartu zuela eta eskuindarrei mehatxuak ere egin zizkiela, "Florencio Mangas Luengo, txostena sinatu zuen kaboari iritsi zitzaizkion berrien arabera".

Bilboko 14. epaitegi militarrean 1937ko irailaren 2an egindako deklarazioan Roque ukatu egin zuen konfiskazteetan eta atxilotetetan parte hartu izana, baina 1937ko urriaren 11ko kondena-epaiak akusazio horiek berretsi zituen. Horrez gain, epaiak zioen, Roque aitortu zuena berretsiz, bere borondatez eman zuela Ertzaintzan izena, eta EAJko afiliatua zela 1931tik. Bizarteko espetxe-zigorra ezarri zioten eta aldi batean Zornotzan eduki zuten preso. Burgosko espetxe zentralera eraman zuten ondoren. 1939ko azaroaren 1ean, Alcalá de Henaresko (Madril) zigor-tailerretara bidali zuten, eta 1940ko erdialdean jakinarazi zioten zigorra 12 urte eta egun batera jaitzi ziotela. 1944an behin betiko aske utzi zuten<sup>397</sup>.



183 - Roque Azpiazu Gomez. (Kontxi Azpiazu Gomezek utzitako argazkia).

**AZPIAZU ZUDUPE, VICTOR**

Azpeitiarra zen eta Azkoitian bizi zen Victor. Zaintzaldiak egin zituen Azkoitian Gerra Zibila hasi ondoren. Gero, *Eusko Gudarostean* ibili zen, hainbat frontetan, 1937ko abuztuaren Kantabriako Limpias herrian atxilotu zuten arte. 1937ko abenduaren 17an Ondarretako espetxean sartu zuten Valladolidetik ekarrita. Gerra-kontseiluan epaitu zuten Gipuzkoako hiriburuan, eta 1939ko urriaren 31n, "matxinada sustatzearen" delitua leporatuta, 6 urte eta egun bateko espetxe-zigorra jarri zioten. Epaia dio hainbat frontetan ibiltzeaz gain, Azkoitian armak hartuta zaintzaldiak egiten ibili zen garaian hainbat gorabehera izan zituela pertsona eskuindarrekin. Kondena jarrita, Cadizko Puerto de Santa Maria espetxera eraman zuten eta, ondoren, 1940ko maiatzaren 25ean, Zaragozara. Handik gutxira, abuztuaren 22an, espetxealdi arindua ezarri zioten<sup>398</sup>.

<sup>396</sup> 15482/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>397</sup> 908/37 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>398</sup> 3287/39 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

## AZPILLAGA ZUBILLAGA, JOSE

Lucio eta Eusebio anaiak bezala, Jose ere miliziano ibili zen *Eusko Gudarostean*, harik eta atxilotu zuten arte; seguru asko Kantabrian. Lehenago Azpeitia inguruan armak hartuta zaintzaldiak egiten ere aritua zen. 1938ko hasieran, Eskolapioen espetxera eraman zuten, gerra-kontseiluak epai zezan. Epaimahai militarren arabera, Jose Azpillagak Roque Azcuerekin batera San Millan markesaren jauregiko arpilatzean parte hartu zuen, baina epaitegi hark ebazti zuen ez zegoela behar besteko frogarik.

Hala, 1938ko uztailaren 7an, Joseren eta Roqueren aurkako auzia artxibatu zuten eta bi mutilak soldadugaien zerrenda sartu zituzten, soldadu joateko adinean zeudelako. Era berean, beste prozesu sumarisimo bat abiarazi zuten ordura arte frogatu ezin izan zituzten inputazioak argitzeko<sup>399</sup>. Joseren eta Roqueren aurkako bigarren epaiketa sumarisimoa 1939ko hasieran abiarazi, eta bietan lotutako auzia artxibatu zuten. "B atalean" saikatu zituzten eta, hala, langileen batailoi batera bidali<sup>400</sup>.

## AZURMENDI BERASTEGUI, MODESTO

1916an Azpeitian jaioa zen Modesto eta han bizi zen. *Juventudes Socialista Unificadas* taldearen UHP batailoiko miliziano izan zen, eta 1939ko erdialdean preso zegoen Bilboko Tabako-fabrikako espetxean. Han egon zen gerra-kontseiluak noiz epaituko zain. Azkenean, 1940ko otsailaren 6an, auzia artxibatzea erabaki zuten "leporatu zizkieten gertaerak zigortzekoak ez zirelako". Hala ere, langileen batailoi batera bidali zuten "eta egonaldi LUZEENA egiten zutenen artean sartu zuten"<sup>401</sup>.

## BALLONA ANSOATEGUI, VICENTE

Arrasatearra zen eta Azpeitiko Enparan kaleko 27.ean bizi zen zurgin hau. UGTn afiliatuta egon zen eta miliziano ibili zen Gerra Zibilean. 1937ko abuztuan, Kantabrian atxilotu zuten, El Duesoko espetxean sartu eta gerra-kontseiluan auzipetu zutelarik. 1937ko azaroaren 15ean, Santoñako epaimahai militar batek biziarteko espetxe-zigorra ezarri zion "matxinadarekin bat egitea" leporatuta. Handik hilabete batzuetara, 1938ko abuztuaren 6an, hain zuzen ere, Cadizko Puerto de Santa Maria espetxera eraman zuten. Ondoren, zigorra 6 urte eta egun batera jaitzi zioten<sup>402</sup>.

## BALTASAR MARTIARENA, FRANCISCO

1915ean Iruñean jaioa zen Francisco eta Azpeitiko Enparan kalean bizi zen. Nuarbe auzoko eskolako maisua izan zen errepublika-garaian. UGTn afiliatuta zegoen eta gerrako hainbat frontetan ibili zen *Prieto* infanteriako batailoian, harik eta Kantabrian atxilotu zuten arte. 1937ko azaroaren 16an Bilbora eraman eta gerra-kontseiluan epaitu zuten. 1938ko urriaren 19ko epaiaren bidez 14 urteko espetxe-zigorra ezarri zioten Franciscori. Epai hartan, zuen filiazioaz eta miliziano ibiltzeaz gain, erregistroetan eta konfiskatzeetan parte hartzeaz ere akusatu zuten. Ignacio Maria eta Juan Ignacio Aizpuru anaiak azpeitiarren atxilotetan parte hartzeaz ere akusatu zuten<sup>403</sup>. Bitartean, Ricardo Baltasar eta Francisca Martiarena gurasoak Gironan zeuden, babes hartuta, eta ez zekiten Francisco semea non zegoen. Horregatik, desagertzearen espedientea abiarazi zuten *Pagaduría Secundaria del Ejército de Tierra* delakoan<sup>404</sup>. 1939ko maiatzaren 1ean gotorlekura eraman zuten eta urrian, Urduñako kontzentrazio-esparrura. 1940ko abuztuaren 7an espetxealdi arindua jarri zioten<sup>405</sup>.

## BARREDO FONTAL, ESTEBAN

Esteban Azpeitian jaio zen 1909an. Familia ezkertiarrekoa, bera eta anaiak Pablo UGTko afiliatuak ziren, 1932an Azpeitiko *Unión Republicana* alderdiaren fundazioan parte hartu zuten, eta 1935ean *Juventudes Socialistas*en militatzera pasatu ziren. Lanbidez tipografoa zen. Gerra hasi zenean, Esteban Donostian bizi zen, Gipuzkoako Foru Aldundiko inprimategian inprimatzailearen karguan. 1936ko irailean, hilaren hasieran, borondatez erroldatu zen Eibarren errotutako euskal milizietan, eta Irun galdu ostean, Iparraldera pasatu zen, eta gero Kataluniatik sartuta itzuli zen Espainiako Estatura. Euskal-kataluniar milizietako gudaria izan zen, armada errepublikarra berrantolatatu aurretik hainbat frontetan ibili zen borrokan, eta orduan 40 Brigadan sartu zen, "Errepublikako Espioitza Zerbitzu" (SIEP) gisa ezagutzen zenean, agenteen instruktore-karguarekin. Ordurako, Esteban dagoeneko Alderdi Komunistako militantea zen.

SIEPeko agente gisa, Estebanek batasun militarri leialtasuna zin egin zion idatzi baten bidez, eta dokumentu hori gerora epaitu zuen epaitegi militarrek frogatzea gisa erabiliko zuten. "Zin egiten dut SIEP barruan nire gaineko arduradun hierarkikoa ez den inori lanaren bidez eskuratu ditudan ezagutzak edo nire jarduerak zein diren ez diodala jakinaraziko. Noizbait utzikeriagatik edo asmo txarrez nire jabetzan dauden sekreturen bat jakinaraziko banu, Errepublikaren traidoretzat har nazaten eskatzen dut..."

1939ko ekainaren 25ean, gerra amaitutakoan, Esteban Azpeitiko Guardia Zibilak atxilotu zuen, eta handik bi egunetara Madrilera bidali zuten Brigada Politiko-Sozialak hala eskatuta, eta SIEPeko beste ustezko kide batzuekin batera ikertu zuten. Madrilgo Malasaña auzoan zegoen Conde Toreno espetxean preso zegoela, Estebanek aurka urgentziako prozedura sumarisimoa abiatu zuten. Haren epaia 1940ko martxoaren 16an eman zuten. Bertan, Esteban heriotza zigorrera zigortu zuten, matxinadarekin bat egitea"ren ustezko delitu bategatik, baina abuztuan zigorra "maila baxuagokoarekin" arindu zioten<sup>406</sup>. 1940ko irailaren 23an, Palentziako espetxe probintzian sartu zen, eta 1944ko maiatzaren 22an, espetxealdi arindua ezarri zioten<sup>407</sup>.

<sup>399</sup> 2330/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>400</sup> 3064/39 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>401</sup> 10840/39 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>402</sup> Espetxeke fitxa (AGA).


<sup>403</sup> 3230/37 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>404</sup> CDMH (PS-SECCION MILITAR\_PSET,C.87,F.166)

<sup>405</sup> Espetxeke fitxa (AGA).

<sup>406</sup> 44740/39 urgentziako prozedura sumarisimoa (AGHD).

<sup>407</sup> Espetxeke fitxa (AGA).



184 - Esteban Barredori buruzko dokumentua. (AGHD).

**BARREDO FONTAL, PABLO**

Anaia Esteban bezala, Pablo ere Azpeitian nabarmendutako militante ezkertiarra izan zen. 1934an herria utzi eta Melillako 7. zulatzaileen erregimentuan sartu zen. Ordutik eta Gerra Zibil osoan zehar, matxinatutako tropen alboan ibili zen borrokan, sarjentu kategoria ere lortu zuelarik. Baina 1938ko uztailan, *Informazio eta Polizia Militararen Zerbitzuak* atxilotu eta galdekatu zuen. Itxuraz, atxilotetaren arrazoia izan zen bere izena SIEPeko agente errepublikano bati konfiskatutako dokumentazioan agertzen zela, eta beraz, gerra-kontseiluan prozesatu zuten. Hala ere, Pablok errugabea zela frogatu ahal izan zuen eta 1941eko martxoaren 14an absolbitu zuten. Ordurako, askatasun arinduaren erregimenean zegoen<sup>408</sup>.

**BASTARRICA GURRUCHAGA, MIGUEL**

Urrestillan jaio zen Miguel 1911n. Errepublikan-garaian, hala ere, Ibarra bizi zen eta Tolosako *La Papelera Española* lantegian egiten zuen lan. EAjko afiliatua zen, eta 1936ko abuztuaren 15ean Azpeitian osatu zituzten euskal miliziekin bat egin zuen. Ordenantza izendatu zuten eta Saseta kapitainaren esanetara aritu zen. Ondoren, teniente izendatu zuten eta Candido Sasetaren eskolta-lanetan ibili zen Sasetari Asturiasen hil zen arte. Bilbo tropa frankisten esku erortzean, 7. brigadan errolatuta egon zen Miguel, *Eusko Gudarostearen* I. gorputzean teniente. Azkenean, 1937ko abuztuaren 25ean, Kantabriako Laredo herrian harrapatu zuten eta El Duesoko espetxean sartu zuten. Gerra-kontseiluan epaitu zuten eta 1937ko urriaren 8an, biziarteko kartzela-zigorra ezarri zioten, nahiz eta instrukzio-fasean Ibarra kontseiluan epaitu eta Falangeren buruak auzipetuek "jokabide ona" izan zuela zioten txostenak bidali. 1938ko abuztuaren 11n Cadizko Puerto de Santa Mariako espetxera eramatu zuten, eta han egon zen 1943ko abuztuaren 6 urte eta egun batera jaitxi ondoren aske utzi zuten arte<sup>409</sup>.

**BELDARRAIN UGALDE, ESTEBAN**

1894an Azpeitian jaioa zen eta Zumarragan bizi zen Esteban. 1922an, fakturaztaile-postuan hasi zen lanean *Ferrocarriles Vascongados* enpresan. 1936ko apirilean, Amorebietan zegoen, hara bidalita, eta *Sindicato Nacional Ferroviario* delakoan afiliatu zen. 1937ko abuztuaren 18. epaitegi militarren tren-arloko 15 langileren aurka urgentziako prozesu sumarisimo bat abiaraztea erabaki zuten eta tartean zen Esteban. Epaitegiko idazkariak hauxe jarri zuen idatzi batean auzipetuei buruz: "Zalantza filiazio politikoa dute, baina gorri - separatisten agintean zeudenean haien aurka - edo azaldu ziren eta lana ondo betetzen zuten langileak ziren".

1937ko abuztuaren 23an zinpeko aitorpena egin zuen Estebanek Amorebietan, eta ukatu egin zuen "Movimiento Nacional" zelakoaren aurkako afiliatorik zuenik edo haren aurka ezer egin zuenik, eta mugimendu haren "erabat alde" zegoela adierazi zuen. Era berean, *Okupazio Armadaren Gerra Ikuskaritzako Informazio Zerbitzuak* berretsi zuten auzipetuek ez zutela aurrekaririk eta, hala, 1937ko urriaren 14an, auzia artxibatu egin zuten eta behin betiko aske gelditu ziren denak<sup>410</sup>.

**BELDARRAIN UGALDE, FELIX**

Izarraitz auzokoa zen Felix eta UGTra afiliatuta egon zen errepublika-garaian. Espartingilea zen lanbidez eta 1934etik 1935era, lanik gabe zeuden langile azpeitiarren hainbat zerrendatan dago haren izena<sup>411</sup>. Santoñan Felixen eta beste 15 auzipeturen aurka egindako gerra-kontseiluak emandako epaiaren arabera, herrian zaintzaldiak egin zituen armatuta, eta konfiskatze eta atxilotetaren parte hartu zuen gerra hasi zenean, baina ez zuten miliziano gisa inolako jarduerarik aipatu.

Nolanahi ere, 1937ko azaroaren 3an, artean El Duesoko espetxean zegoela, "matxinadari laguntzea"ren delitua leporatu eta 12 urte eta egun bateko espetxe zigorra ezarri zioten<sup>412</sup>. 1938ko abuztuaren 18an Andaluziako Puerto de Santa Maria espetxera eramatu zuten, eta urte horretako abenduan, Huelva. Azkenik, 1941eko maiatzaren 22an, askatasun arindua eman zioten<sup>413</sup>.

**BELDARRAIN UGALDE, RUPERTO**

1936ko uztailan, Ruperto Asteasun zegoen, familiako kide baten etxean denboraldi bat pasatzen. Altxamendu militarra hasi zenean, bere burua aurkeztu zuen boluntario zaintzaldiak egiteko "ezkerreko idealak sentitzen zituelako". Abuztuaren 15ean Azpeitira joan zen eta bertan geratu zen altxatutako tropak sartu baino lehentxeagorako arte. Ordutik Bilbon bizi zen, eta 1937ko otsailaren 24an 52. infanteriako batailoian (Capitán Casero batailoia) borondatez errolatu zen, eta hainbat frontetan hartu zuen parte, Bizkargin zauritu zen arte. Bilboko ospitalera eramatu zuten, baina tropa frankistak berehala sartuko zirenez, Valdecillako (Santander) ospitalera eramatu zuten, eta zentro horretan hartu zuten preso 1937ko abuztuaren 26an. Urriaren, Azpeitiko Guardia Zibilak Santanderreko *Pre-soak Saikatzeko Batzordeari* bidalitako telegrama bat erabakigarria izan zen Ru-

GUIDA GEXO - ZAINZA		HOSPITAL DE <u>Amilue</u> 227	
DELEGACIÓN H. R. DEL ABRA			
D.	<u>Ruperto Beldarrain Ugaldé</u>		
Natural de	<u>Azpeitia</u>	Edad	<u>30</u>
Estado	<u>Letra</u>	Profesión	<u>alpargatero</u>
Piliación	<u>S. R.</u>		
Residencia	<u>Bilbao</u>		
Cuerpo a que pertenece	<u>Infantería 52 - (C. Casero) 2.ª Cia</u>		
Graduación	<u>militario</u>		
Número de entrada	<u>540</u>		
Folio y número de Registro	<u>22</u>	Fecha de ingreso	<u>12-6-37</u>
Sala número	<u>17</u>	Cama número	<u>110</u>
Diagnóstico	<u>Procedente de H. de Pasunto</u>		
Tratamiento			
	Fecha	<u>14-6-37</u>	
	Parte		
Salida.	Incapacidades		
<u>7/4</u>	Destino	<u>Quartel</u>	
<u>83</u>		<u>Alubuladono</u>	

185 - Ruperto Beldarrain Ugarteri buruzko dokumentua. (COMH).

<sup>408</sup> 61629/39 urgentziako prozedura sumarisimoa (AGHD).<sup>409</sup> 89/37 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).<sup>410</sup> 1201/37 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).<sup>411</sup> AUA (Sig. 1240-08; Kod. 214) / (Sig. 1317-06; Kod. 211).<sup>412</sup> 4139/37 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).<sup>413</sup> Espetxeko fitxa (AGA).

perto "D atalean" sailkatzeko eta haren aurka urgentziazko prozedura sumarisimo bat irekitzeko. Telegrama horretan, eta gerora instrukzio-epaileari bidalitako idatzi ofizialean, akusatua UGTra afiliatutako "pertsona oso arriskutsua" zela adierazi zuten, eta atxiloteta eta konfiskatze-etan parte hartu zuela. Era berean, Azpeitiko Falangearen eta Udaleko txostenek Asteasun egindako "Fronte Popularraren aldeko" ustezko jarrera horiek aipatzen zituzten. Baina Asteasun egindako txostenek ez zituzten inputazio horiek berresten. Asteasuko Falangeak Ruperto ez zuela ezagutzen esaten zuen. Aldiz, udalak, "komunista zela", baina "'ez zutela ziurtasunik atxilotetetan parte hartu zuenik". Horrez gain, auzipetuak aipatutako bi lekuko azpeitiarrek, Pedro Aguirre Echeverriak eta Andrés Lapazarán Arguideguik, aitortu zutenean esan zuten ez-kertiarra izan arren "ez zuela propaganda politikoetan eta langileen gatazketan parte hartu".

Hori guztia kontuan hartuta, Donostian izandako gerra-kontseiluan, Ruperto Ondarretako presondegian atxilotuta zegoela, Bilboko Karmeldarren eta Eskolapioen kartzelatik pasatu ostean, 1939ko apirilaren 27an auzia behin-behinean artxibatu eta "B atalean" sailkatu zuten. Akordio horretan, auzitegi militarrek zehaztu zuten, Rupertok ezkerreko ideologiak izan arren, eta gerran borondatez miliziano gisa parte hartu zuen arren, ez zen egiaztatu "'beren Indarren aurkako ekintzarik burutu zuenik, ezta delitu komunetan parte hartu zuenik ere." 1939ko urriaren 27an Burgosko San Pedro de Cardaña kontzentrazio-esparrura eraman zuten<sup>414</sup>.

## BEOBIDE ITURRALDE, JESUS

1912an jaio zen eta San Ignacio kalean bizi zen. Jesus Azpeitiko udal su-hiltzaileen gorputzeko parte zen. Ideologia nazionalistakotzat hartuta, 1936ko azaroaren 2an baztertu eta azkenean udal-langileen kolektibotik kanporatu egin zuten. 1937ko uztaillean, erreketek batek jarritako salaketa baten eraginez, atxilotu eta espetxeratu egin zuten, eta Donostiako 4. epaitegi militar iraunkorren instrukzio-prozedura abiatu zuten bere aurka. Itxuraz Jesus erreketek bere jabetzako motor bat konfiska zezan eragozten saiatu zen. Epaitegiko gobernu-informazioaren arabera, soldaduak norbere ekimenez jardun zuen, eta horren inguruan goragokoan agindurik gabe, baina edonola ere, auzipetuak onartu zuen "eskaintza".

Azkenik, 1938ko urtarrilaren 25ean, *Gerra Ikuskaritzak* azaldu zuen Jesus ez zuela "desobedentziarik eta arau-hausterik" egin, eta uste izan zuten "atxilotuta eman zituen hilabeteak nahikoa isun zirela haren aurrekari nazionalistengatik". 1938ko martxoaren 22an aske utzi zuten<sup>415</sup>.

## BERASATEGUI ARTEAGA, JOSE

Urrestillakoa zen eta Makibar baserrian bizi zen. 1935ean lanik gabe zegoen, beste gazte azpeitiar asko bezala, haien artean anaia gaztea, Andrés. *Itxarkundia* infanteriako batailoi nazionalistako borrokalaria, 1940 hasieran Azpeitian zegoen atxiloaldi arinduan. Urte horretan bertan, Donostiako 11. Instrukzio-epaitegi militarrek Joséren aurkako ohiko prozedura sumarisimo bat abiatu zuen, baina irailaren 28an auzia artxibatu egin zuten eta behin betiko aske utzi zuten<sup>416</sup>.

## BERECIARTUA ALTUNA, PEDRO

Pedro Oinatz auzoko Atxubiaga baserrikoa zen. Bertsolaria eta militante nazionalista, Azpeitia tropa frankistek hartuko zutela eta ihes egin ostean, *Amayur* infanteriako batailoian erroldatu zen. 1937ko abuztuaren 26an Santoñan harrapatu zuten. Gero Alfarráseko (Lleida) langileen batailoi batera eraman zuten, eta bertan egon zen 1939ko uztailaren 26an gerra-kontseiluan epaitu ahal izateko Bilboko Eskolapioen espetxera bidali zuten arte. Handik hilabetera, 1939ko abuztuaren 24an, *Gerra Ikuskaritzak* atxiloaldi arindua eman zion, Donostian auzia bideratzen ari zen epaitegiak egindako jokabide onaren txostenen ondorioz. Azkenik, 1940ko urtarrilaren 25ean, auzia behin-behinean artxibatzea eta Pedro aske uztea erabaki zuten, "leporatu zizkieten gertaerak zigortzekoak ez zirelako"<sup>417</sup>.



186 - Pedro Bereciartua Altuna.  
(Familiak utzitako irudia).

## CAMPOS ECEIZA, ALEJANDRO

1915ean jaioa eta lanbidez espartingilea, Eliz kaleko bizilagun hau UGTra afiliatuta egon zen errepublika-garaian, anaia Juan eta Moises bezala. Azken hori gerra-frontean hil zen. Gerra hasi zenean, eta gutxienez 1936ko azarotik aurrera, Alejandro hainbat gerra-frontetan ibili zen borrokan, UHP infanteriako batailoian erroldatuta<sup>418</sup>. Matxinatutako tropek harrapatu zutenean, langileen batailoian preso egon zen<sup>419</sup>, gerra-kontseiluan epaitu arte zain.

1938 hasieran, Donostiako 11. epaitegi militarrek Alejandroren aurkako urgentziazko prozedura sumarisimoa abiatu zuen. 1939ko maiatzaren 11n auzia artxibatu egin zuten, "ez baitzen behar bezala justifikatu jazarririk delitua egin izana", eta auzipetua aske utzi zuten<sup>420</sup>. 1940an, zehazki otsailaren 5ean, Alejandro "aurkarizat" izendatu zuen Azpeitiko Udalak, 1936ko soldadualdiko gazteen sailkapen-aktaren itxiera zela eta<sup>421</sup>.

<sup>414</sup> 2652/38 urgentziazko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>415</sup> 274/38 Gobernu-informazioa (AIRMN).

<sup>416</sup> 16531/39 ohiko prozedura (AIRMN).

<sup>417</sup> 3406/38 urgentziazko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>418</sup> CDMH (PS. Bilbao 241).

<sup>419</sup> Familiako lekukotza.

<sup>420</sup> 15443/38 urgentziazko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>421</sup> AUA (Sig. 333-03; Kod. 214).

**CAMPOS ECEIZA, JUAN**

1934ko otsailetik udaleko kale-garbitzaile, Juan ere UGTra afiliatuta egon zen eta UHP batailoian ibili zen borrokan. 1936ko azaroan, zurrerik gerra-frontean zegoela, Azpeitiko korporazio frankista berriak udal-langilearen kargutik kendu zuen Juan<sup>422</sup>.

Itxuraz, atxilotu ostean langileen batailoian izan zen preso. 1940an gerra-kontseiluan epaitu zuten, auzia artxibatu egin zuten eta azaroaren 29an utzi zuten aske<sup>423</sup>.



187 - Juan Campos Eceiza. (Maite Camposek utzitako irudia).

**CAMPOS LOINAZ, ANSELMO "TXANTXO"**

"Txantxo" ezizenez ezagutzen zuten azpeitiar hau Azkoitian bizi zen. Bi aldiz epaitu zuten gerra-kontseiluan. UGTra afiliatuta zegoen, eta bai 1937ko abenduaren 7ko epaian<sup>424</sup>, bai 1938ko abuztuaren 18koan<sup>425</sup>, Anselmo Azkoitian "oso nabarmena" eta "oso arriskutsua" zela adierazten zen, konfiskatze eta atxilotetean parte hartu zuela. Era berean, epai horien arabera, 1936ko urriaren borondatez erroldatu zen ANV Eusko Indarra infanteriako batailoian, eta hainbat frontetan aritu zen, 1937ko abuztuaren Kantabrian harapatu zuten arte. Hori guztia kontuan hartuta, Anselmo, bai 1937ko abenduan eta baita 1938ko abuztuan ere, "espexaldi handian" 20 urtera kondenatu zuten, "matxinadari laguntzearen" ustezko delitua zela eta.

**CAMPOS LOINAZ, AVELINO**

Anaia Anselmo bezala, Avelino ere azpeitiarra zen baina Azkoitian bizi zen. 1937ko abenduaren 2an Deustuko kontzentrazio-esparrutik Larrinagako espexera eraman zuten, gerra-kontseiluan auzipetu zutelako. 1938ko abuztuaren 23an 20 urteko espexeldira kondenatu zuten "matxinada"-delituategatik, baina 1940ko uztailaren 31n aske utzi zuten<sup>426</sup>.

**CEBERIO LIZARRAGA, SEVERO**

Jatorriz Irungoa, Severo 1934an Azpeitiko "Euzko Etxea" Sozietateko presidenteordea zen<sup>427</sup>. 1937ko abuztuaren Santoñan espexeratu zuten, eta handik San Pedro de Cardenaño (Burgos) kontzentrazio-esparrura eraman zuten urte horretako irailaren 20an. Gerora, gerra-kontseiluan epaitu zuten, eta 1943ko irailean auzia artxibatu egin zuten. Orduan, Severinok 43 urte zituen, ezkondu zegoen, eta gerra aurretik ingeniari-laguntzaile gisa lan egiten zuen<sup>428</sup>.


**CENDOYA LARRAÑAGA, IGNACIO "TAKOLO"**

Ignaciok 24 urte zituen 1937an Laredon atxilotu zutenean. Aurretik hainbat gerra-frontetan ibili zen, 1936 amaieran borondatez Gernikan Loyola batailoian erroldatu zenetik. 1937ko urriaren Arande del Dueroko kontzentrazio-esparruan zegoen preso; han, Presoak Sailkatze Batzordeak "C atalean" sailkatu zuen, atxilotetean eta konfiskatzeetan parte hartu izana leporatzen zion Azpeitiko Guardia Zibilaren txosten bat jaso ostean.

Eskolapioetako espexera eraman eta 1938 hasieran Ignacioren aurka urgentziako prozedura sumarisimoa abiarazi ostean, bai tokiko buruzagitzatik, bai Azpeitiko alkatetzatik, Guardia Zibilak adierazitako kasuak aipatzen zituzten txostenak bidali zituzten. Baieztapen horien aurrean, epaitegi militarrek auzipetueen aurka egindako salaketan lekukotasuna eman zezaketan lekukoaren inguruko informazioa eskatu zuen, epaitegiari emandako erantzunean honako hauek aipatuta: Manuel Echeverria Odriozola, Donato Aristi Aizpuru eta Jose Aizpuru Goenaga. Baina 1939ko otsailaren 15ean, hiru lekukoek esan zuten ez zekitela Ignaciok konfiskatzeetan, atxilotetean edo bahitzeetan parte hartu zuenik.

Horrez gain, 1939ko uztailaren Urrestillako hainbat bizilagunek atzera egin zuten 1937ko urriaren Ignacioren Aranda del Dueron preso zegoela, Guardia Zibilaren aurrean egindako aitortzari zegokionez. Haien ustez, "akatsez nahi gabe egin izan zezaketan erantzukizun moral guztiak saihestu nahian... kasuaz gogoeta egin zuten eta, azterketa sakona egin ostean, eta argazkia ikusita, pertsona horrek ganadu-konfiskatzeetan ez zuela parte hartu konbentzituratu zeuden". Ondorioz, 1939ko irailaren 7an, auzia artxibatu egin zuten.

1939ko abenduaren 8an, Ignacio "Takolo" aske geratu zen behin betiko<sup>429</sup>.



188 - Ignacio Cendoyari buruzko dokumentua. (AIRMN).

<sup>422</sup> AUA (Sig. 276-02; Kod. 12).

<sup>423</sup> 3795/40 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>424</sup> 12412/37 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>425</sup> 12414/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>426</sup> Espexeko fitxa (AGA).

<sup>427</sup> AUA (Sig. 275-01; Kod. 12).

<sup>428</sup> AGMA (Sig. C. 1457, Cp.60, F.37).

<sup>429</sup> 15723/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

## CENDOYA UZCUDUN, JACINTO

Jacinto izan zen gerra-kontseiluan epaitutako lehen azpeitiarretako bat. 1936ko urriaren 16an atxilotu zuten eta gero Ondarretan espetxeratu zuten. Urte horretako abenduaren 30ean Landetako bizilagun zen azpeitiar honen aurkako ekintzak hasi ziren. Epaiketa eragin zuten gertakariak uztailaren 21ean, huts egindako estatu-kolpea aldarrikatu eta pixka batera, huts auzipetuak izandako jokabidearen ingurukoak soilik ziren. 1937ko otsailaren 15ean 12 urte eta 1 eguneko kondena jarri zion epaiaren arabera, Jacinto "kamioi batean joan zen Azpeititik Zumarragara miliziano gorrien talde batekin batera, herri horretan armak jasotzeko asmoarekin". Era berean, Azpeitira itzuli zenean "udal-etxeko arkuetan guardia-zerbitzua egin zuen" gauke hamarrak arte, nahiz eta horren ostean, "etxera itzuli zela eta gurasoek errieta egin ziotela ere adierazten den".


Ordutik aurrera eta atxilotu zuten arten Jacintok leporatzeko moduko bestelako gertakariak izan ez zuen arren, epaitu zuen epaitegi militarrek uste izan zuen "matxinadarekin bat egitearen delitua egin zuela"<sup>430</sup>.

1937ko apirilaren 15ean San Kristobal gotorlekuko espetxera eraman zuten. Kondena-epaiaren arabera, 1948ko urriaren 12rako aurrez ikusi zuten aterako zela, baina badirudi 1938eko maiatzaren 22ko ihesean parte hartu zuela Jacintok. Huts egindako ihes-saiakera horren ostean, berriaz epaitu eta 17 urte, 4 hilabete eta 1 egunerako kondena jarri zioten<sup>431</sup>. 1940eko irailaren 2an, ordea, askatasun arindua eman zioten. Jacinto "Paulino Uzcudun boxealari ospetsuaren iloba zen"<sup>432</sup>.

## CHINCHURRETA BELOQUI, DOMINGO

Azpeitiarra zen eta bertan bizi zen. Domingok Zumarragatik Zumaiara zihohan tren-konpainian (Urola trenbidea) forjatzaile gisa lan egin zuen, Azpeitian tropa frankistak sartu zirelako Bilbora ihes egin arte. Altxatutakoak lurraldea konkistatzen zihozten heinean, Domingo lekuz aldatu zen etengabe, Bilbotik Santanderrera eta Kantabriako hiriburutik Asturiasera, azkenean Frantziara barrena Kataluniara iritsi zen arte.

1939ko martxoan Azpeitira itzuli zen eta berehala tokiko agintariak organismo militar judizialei jakinarazi zieten iritsi zela, ziurrenik bizilagunen batek salatuta. Azpeitiko Guardia Zibilaren aurrean, Domingok aitortu zuen *Izquierda Republicana* eta *Sindicato Nacional Ferroviora* (UGTren gertuko elkarte) afiliatuta egon zela. Era berean, hauteskundeetan ezkerreko alderdiei botoa eman zela eta 20 bat egunez, Defentsa Batzordeak aginduta, eta Azpeititik atera aurretik, *Damaso Azcue* enpresaren aurrean armak hartuta zaintzaldia egin izana aitortu zuen. Ohikoa zen moduan, Roque Astigarragak, Azpeitiko alkate gisa, eta Falangearen tokiko buruzagitzak, kasu honetan Casto Orbegozok ordezkaturik, egin zituzten txostenetan Domingo "muturreko ideiak" edo "berotuak" zituen pertsona zela zioten; armak hartuta zaintzaldiak egin zituen aldiari soilik zegozkien datuak eman zituzten. Txosten horiez gain, orduan Urolako trenbidearen ustiaketaren nagusia zenak, Galo Barrena Larrarek, idatzitakoa ere gehitu zen. Martxoaren 26ko data duen idatzian, auzipetuaren afiliazio politikoak eta Domingok berak aitortutako zaintzaldiez gain, Zumarragan "propaganda marxistaren bilkeretan" parte hartu izana leporatzen zioten. Azkenik, Casiano Garayalde apaizak ere eman zuen auzipetuaren berri, nahiz eta harena aldeko idatzi bakarra izan zen, auzipetuaren "erlijio-betebeharrak" bete izana besterik ez baitzuen aipatzen. Ondorioz, 1939ko maiatzaren 1ean, *Gerra Ikuskaritzak* uste izan zuen egindako instrukzioetik ezin zela ondorioztatu "salatuak delitu komunak egin izana, ezta buruzagi iraultzaile nabarmenaren izaerarik ere". Beraz, gobernu-atxiloaldiko 3 hilabeteko zigorra besterik ez zion ezarri. Domingo Ondarretako espetxean egon zen preso 1939ko apirilaren 16tik uztailaren 15era, eta handik ateratakoan, *Donostiako Ordena Publikoko Idazkaritzara* joan behar izaten zuen "ondorengo zaintza eta konpetentziarako"<sup>433</sup>.



189 - Domingo Chinchurretari buruzko dokumentua. (AIRMN).

## CORTA MENDIA, REMIGIO

1909an jaioa. Remigioren aurka Donostiako 20. Epaitegi militarrek aurretiazko eginbideak hasi zituen 1938 erdialdean. 1938ko azaroaren 2an amaitutzat eman zuten instrukzioa "erantzukizun-aitorpenik gabe", beraz, auzipetua behin betiko aske geratu zen. Ebazpen horretan ez ziren zehaztu prozesatu izanaren kausak<sup>434</sup>.

## CORTA ZULOAGA, IGNACIO

Ignacio 1936ko abenduaren 2an hartu zuten preso beste 6 azpeitiarrekin batera, urte horretako azaroan haien aurka irekitako prozedura sumarisimo baten ondorioz. 1937ko martxoaren 8ko epaian ageri denaren arabera, Ignaciok, Nazario Aizpitartek bezalaxe, gerra hasi ondoren Fronte Popularraren alde hainbat zerbitzu egin zituen. Dena den, Ignacio absolbitu eta aske utzi zuten, "ideia tradizionalistak baitzituen eta azken hauteskundeetan eskuindareei eman baitziren botoa"; eta, beraz, "nagusitasun gorri-separatistak" irauin bitartean egindakoa borondatez kontrakoa izan zen, eta "bere ideia eta sinesmenen kontrakoa"<sup>435</sup>.

<sup>430</sup> 829 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>431</sup> Espetxeko litxa (AGA).

<sup>432</sup> SIERRA, F. eta ALFORJA, I.: *Fuerte de San Cristóbal, 1938. La gran fuga de las cárceles franquistas.*

<sup>433</sup> 5n-1939 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>434</sup> Aurretiazko eginbideak 772/38(AIRMN).

<sup>435</sup> 685/36 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).



**CORTA ZULOAGA, JOSE MARIA**

Jose Maria Ignacio anaiaren gerra-kontseilu berean prozesatu zuten, baina hura ez bezala, epaitegi militarrek uste izan zuten Jose Maria "altxamendu militarri laguntzearen" delituaren arduradun zela. Zehazki, 12 urte eta 1 eguneko espetxealdiko kondena-epaian, Jose Maria abertzaleen aldekoa zela adierazten zen "nahiz eta alderdiko kide ez izan", eta Fronte Popularraren alde egin zuela "bizirik irauteko soldata irabazteko asmoz". Horrez gain, tropa frankistak Azpeitira sartzea oztopatzeko 1936ko uztailaren 25ean Mandubiko zubia leherrarazten parte hartu izana leporatzen zitzaion, Zarauzkit Azpeitira hondar-zakuak garraiatu izana aireko erasoaren aurka babeslekuak egiteko, eta Loiolara gasolina-andel batzuk eraman izana<sup>436</sup>.

**CORTA ZULOAGA, MARCELINO**

Huts egindako estatu-kolpearen ostean, eta Gerra Zibila hasi ostean, Marcelinok, epaitegi militarren aurrean egindako aitopenaren arabera, parte hartu zuen armak hartuta egindako zaintzaldietan, konfiskatzeetan eta Defentsa Batzordearen aginduz Azpeitian egin ziren atxiloketa batzuetan. Errepublik-garaia hasteratik EAJko militantea izan zen, eta Azpeitia erretiratu ostean, hainbat frontetan ibili zen *Loyola* batailoian errolatuta, 1937ko abuztuaren 25ean Laredon harrapatu zuten arte.

1937ko urrian, "C atalean" sailkatu zuen Aranda del Dueroko *Presoak Sailkatzeko Batzordeak*, Azpeitiko Guardia Zibilaren txostena jaso ostean. Izan ere "oso arriskutsutzat" izendatzen zuen txostenean. 1938ko hasieran, Eskolapioen espetxera eraman zuten, gerra-kontseiluan prozesatzeko zain. Apirilean Bilboko 12. Epaitegi militarera Falangeren tokiko buruzagitzaren eta Azpeitiko alkatezaren txostenak iritsi ziren. Era berean, Urrestilla eta Aratz-Erreka auzoetako 14 bizilagunen aitopenak bidali ziren. 1936ko uztailaren amaieratik behien konfiskatzeetan lekuko izan ziren bizilagun horiek, eta konfiskatzeak egin zituzten miliziano taldeko kide izango zen Marcelino. Gerora, 1938ko maiatzaren 19an, Marcelinok berretsi egin zuen epaile instruktorearen aurrean 1937ko urrian egindako aitopena, eta aitortu egin zuen militantzia nazionalista, Zelaieta eta Rekalde base-rietan eta Urrestillako beste hainbatetan egindako konfiskatzeetan parte hartu zuela, bi lagun atxilotu zituztela eta, azkenik, gerra-frontean ibili izana. Marcelinok ukatu zuen gauza bakarra izan zen eskuineko pertsonak jazarri edo salatu izana, Galo Barrenaren bilaketa eta atxiloketa-saiakerarekin lotzen zuten salaketei aipamen garbia eginez.

Azkenik, 1938ko uztailaren 7an 12 urte eta 1 eguneko espetxealdiaren epaia jaso zuen, ustezko "altxamenduari laguntzearen" delitua zela eta<sup>437</sup>. Badirudi gerora San Kristobal gotorlekuan espetxeratu zutela 1939ko azarora arte<sup>438</sup>, baina egoera hori ez da ageri Marcelinoren espetxeko fitxan<sup>439</sup>. 1943an espetxealdi arindua eman zioten, zigorra 7 urtera jaitsi ostean. Marcelino orduan San Lorenzo del Escorial (Madril) espetxean zegoen, *Regiones Devastadas* zerbitzuaren zuzendaritza nagusiaren esku. 1944 hasieran aske geratu zen<sup>440</sup>.

19/10/1937

Clasificadora de prisioneros o presentados de Aranda de Duero

Nombre: Marcelino Corta Zuloaga

Edad: 27 años

Estado: Español

Profesión: Soldado

Origen: Azpeitia (Guipuzkoa)

Ciudad: Aranda de Duero

Estado de nacimiento: Voluntario

Estado de presentación: Capturado

Fecha de la captura o presentación: 5 de agosto de 1937

Lugar de la misma: Laredo

Armas: Sin armas

Unidad a que pertenecía en el Ejército enemigo: 1.º Batallón de Cazadores de la Guardia Civil

Mando que tenía en el Ejército Nacional antes de producirse el Movimiento: Compañía de San Sebastián

Personalidades: Echeverría, Etxebarria, Etxebarria, Etxebarria

Documentos que se le han ocupado o ha presentado:

190 - Marcelino Corta Zuloagari buruzko dokumentua. (AIRMN).

**CORTABARRIA LAZCANO, ESTANISLAO**

Zurgina zen lanbidez. Errepublik-garaian UGT sindikatuan afiliatuta egon zen. Gerora, JSUren UHP batailoian sartu zen, eta 1938 erdialdean Donostiako 14. Epaitegi militarrean haren kontrako prozedura sumarisimoa ireki zen. 1939ko abuztuaren 4an gerra-kontseiluak auzia artxibatzea erabaki zuen, "egotzitako gertaerak garrantzi handikoak ez zirelako". Akordio hori hilaren 28an berretsi egin zuen *6. Erregio Militarreko Gerra Ikuskaritzak*<sup>441</sup>.

**CORTABARRIA LAZCANO, GREGORIO**

Gregorio Azpeitiko San Ignacio kaleko bizilaguna zen, eta saskigile aritzen zen *Dionisio Echeverria* altzari-enpresan Errepublik-garaian. ELAko afiliatua eta EAJko militantea zen. Gerra hasi zenean, eskuindartzat hartutako presoan zaintzaldiak egin zituen abuztuaren 6tik irailaren 19ra bitartean. Altxatutako tropak gertu zeudela eta, Gregoriok Bilbora ihes egin zuen. Bertan, saskigile gisa jarraitu zuen lanean, 1937ko maiatzean berari zegokion kinta mobilizatu zuten arte. Orduan, Gregorio *San Andrés* zulatzaileen batailoian errolatuta geratu zen, aurrena Zeberiko eremuan eta gero Balmasedan gotorlekuak eraikitzen. Azkenik, 1937ko abuztuaren 26an Santoañan harrapatu zuten.

1937ko irailaren 30ean *Presoak Sailkatzeko Batzordeak* egindako txostenaren eraginez, *Gerra Ikuskaritzak* egoki ikusi zuen epaitegia, nahiz eta Azpeititik, Dionisio Echeverria lan egin zuen enpresako arduradun gorenak egindako txostenak atxilotuaren "jokabide ona" nabarmentzen zuten. Izan ere, Guardia Zibilaren nahiz alkatezaren

CERTIFICO que D. GREGORIO CORTABARRIA LAZCANO ha observado buena conducta durante el tiempo que ha estado trabajando en este taller. -

Y para que conste expido el presente certificado en

AZPEITIA a 4 de SEPTIEMBRE de 1937

II Año Triunfal

Dionisio Echeverria

ESTANISLAO ETCHEVERRIA  
FABRICADOR DE MUEBLES DE BILBAO

191 - Gregorio Cortabarría Lazcanori buruzko dokumentua. (AIRMN).

<sup>436</sup> *Ibid.*<sup>437</sup> 3330/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).<sup>438</sup> SIERRA, F. eta ALFORJA, I.: *Fuerte de San Cristóbal, 1938. La gran fuga de las cárceles franquistas.*<sup>439</sup> *Espetxeko fitxa* (AGA).<sup>440</sup> 3330/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).<sup>441</sup> 14423/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

eta Falangeren txostenek zioten Gregoriok zaindu zituen presoekiko "jokabide akatsgabea" izan zuela; hain zuzen ere, "armada nazionala hurbil zela Bizkaira bidean preso horiek ebakutzeko garaian, gaur egun Erreketeen Kapitain den Velaz jaunak hogeita bost pezeta eman zizkion saritan". Aitorpen horiei Cruz Maria Echeverria lekukoaren aitorpenak gehitu zitzaizkion, eta hark hau esan zuen: "auzipetuaz esan litekeen gauza txar bakarra haren ideia nazionalisten ingurukoa da, orduan gazteen artean zorigaiztoz zegoen korrontea jarraitzeagatik. Instrukzio-aldian, Gregorio Zaragozako 177. langileen batailoian egon zen preso; Santoñatik 1938ko abenduaren 20an eraman baitzuten hara. 1939ko martxoaren 6an Ondarretako espetxean sartu zuten, eta bertan egon zen preso urte hartako apirilaren 29ra arte, auzia artxi-batu eta "A atalean" sailkatu ostean<sup>442</sup>.

### ECENARRO URIBE, ANGEL

Donostian jaioa eta Azpeitiko bizilaguna. Lanbidez inprimatzailea zen. 1944an Lleidako kartzelan izan zen espetxeratua, eta ondoren, urte bereko abenduaren 15ean, "Estado Mayor del Grupo de Divisiones de Enale"ren esku utzia izan zen. 29 urteko espetxe zigorrera kondenaturik, espetxe ezberdinetatik pasa izan zen, harik eta 1952ko uztailaren askatasun kondizionala eman zioten arte. Ez da ezagutzen zein delitugatik zigortu zuten<sup>443</sup>.

### ECHANIZ LARRAÑAGA, VICENTE

Azpeitiko Udalak 1940an sortutako dokumentazioaren arabera, Donostiako soldadugaien zerrendak eskatutako informazioari dagokionez, Vicente "aurkaritzat" zuten tokiko agintaritzek. Era berean, 1937ko soldadualdiko azpeitiar honek "bi armadetan zerbitzua eman zuela" esaten zuten<sup>444</sup>. Hain zuzen ere *Eusko Gudarostean* egindako ekintzengatik Vicenteren aurka urgentziatzko prozedura sumarisimoa ireki zen 1939an, nahiz eta 1939ko irailaren 26an *Gerra Ikuskaritzak* gerra-kontseiluaren akordioa kontuan hartu eta auzia artxibatzea erabaki zuten<sup>445</sup>.

### ECHAVARRI CASTELL-RUIZ, JESUS

Jatorriz Azagrakoa (Nafarroa) eta lanbidez telegrafista zen. 1933ko urtarrilaren 25ean Azpeitiko Batzorde Kudeatzailearen presidente-alkate izendatu zuten, eta kargu hori izan zuen maiatzera arte, "Azpeitian bizi zen adin gutxieneko funtzionarioa" izateagatik<sup>446</sup>. Gerra Zibila hasi zenean, badirudi hainbat frontetan aritu zela telegrafista, kapitain kategoriarekin, Kantabrian atxilotu zuten arte. 1937ko irailaren hasieran gerra-kontseiluan epaitu zuten. Auzi bererako bi epai daude, bat 1937ko irailaren 30eko datarekin eta bestea urte bereko urriaren 28koarekin. Lehen epaiaren arabera, Jesus "eskuindarra" izateagatik jazarri zuten, "gorrien armada"rekin bat egitera behartu zuten, eta "Causa delakoaren abiadoreek frontean bota zituzten aldarriak irakurrarazi zizkioten... fronte gorritik ihes egin zuen eta lerro nazionalaletara pasatu zen". Urriko epaian, aldiz, adierazitako azken kasuari ezikuski egiten zaio eta Jesus "ideia ezkertiarrekoa" zela esaten da. Edozein kasutan, bi idatzietan auzipetuari 12 urte eta 1 eguneko espetxe-zigorra jarri zitzaion<sup>447</sup>.

### ECHEVERRIA ARAMENDI, ELEUTERIO

Urrestillakoa, Eleuterio 1938 erdialdera gerra-kontseiluan epaitu zuten ustezko "matxinada militarra"ren delituagatik. 1913an jaiotako gazte honen instrukzio-prozesuan ageri denaren arabera, zaintzaldi armatuak egin zituen Azpeitian, eta Zuazola jauregiaren erregistroan parte hartu zuen, han tartean zeudenek "lorategiko frutak hartu zituztelarik". Era berean, Eleuteriok ideia nazionalistak zituela jartzen du, eta "behin Pasaiatik sei litro inguruko ardo-garrafoi bat ekarri zuela, etxean gorde zuen Indar Nazionalak sartu arte, eta marxistek gertaera hargatik zigortu egin zuten". Hori dela eta, "etsaien indarretan" miliziano ez zela ibili agerian geratu zenez, 1938ko urriaren 29an absolbitu egin zuten, prebentziozko espetxealdian pasatutako denborarekin "gertakariak nahikoa zigortuta" zeudela uste izan zutelako<sup>448</sup>.

### ECHEVERRIA ARAMENDI, JOSE MARIA

Eleuterio baino hiru urte gazteagoa, Jose Maria UGTn afiliatuta egon zen errepublika-garaian. Ziurrenik gerora Eusko Gudarosteko batailoiren batean errolatuta egongo zen gerrako frontean 1937 erdialdean atxilotu zuten arte. 1937ko abenduaren 7an epaitu zuten gerra-kontseiluan eta heriotza-zigorren kondena jarri zioten ustezko "matxinadarekin bat egitea"ren delituagatik. Kondena-epaiaren arabera, Azpeitian egindako zaintzaldi armatuetan, atxilotetetan eta konfiskatzeetan parte hartu zuen, eta ez da aipatzen 1936ko irailaren 20an Azpeitia erori osteko jarduerarik.

Dena den, *Gerra Ikuskaritzak* 1938ko martxoaren 25ean baliogabetu egin zuen kondena, eta beste prozedura sumarisimo bat irekitzeko agindu zuen. Bitartean, Jose Mariak preso jarraitu zuen Burgoseko espetxe nagusian 1938ko uztailaren 26 eta 1939ko abenduaren 26 bitartean. Azken data horretan Bilbora eraman zuten, epaiketa berria zela eta. 1940ko otsailaren 21ean, auzia itxi eta Jose Maria behin betiko aske utzi zuten<sup>449</sup>.

### ECHEVERRIA GARATE, MANUEL

Manuel igeltseroa zen lanbidez, eta errepublika-garaian hainbat lan egin zituen udalerako, esaterako, udal-eraikinak zuritzea 1935eko irailaren<sup>450</sup>. Handik urtebetera, altxatutako tropak sartzeaz zeudenez, Manuelek Bizkaira ihes egin zuen eta gero Eusko Gudarostean errolatuta zen. 1937ko abuztuan, Santoñan harrapatu zuten "Indar Nazionalak eta aske utzi zuten, 1929tik itsas gorputzaren soldadua izan zenez berriro bertan aurkez zedin".

<sup>442</sup> 11023/38 urgentziatzko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>443</sup> 11023/38 urgentziatzko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>444</sup> AUA (Sig. 472-01; Kod. 215).

<sup>445</sup> 17335/39 urgentziatzko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>446</sup> AUA (Sig. 275-01; Kod. 12).

<sup>447</sup> 262/37 urgentziatzko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>448</sup> 1713/38 urgentziatzko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>449</sup> 12414/38 urgentziatzko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>450</sup> AUA (Sig. 276-01; Kod. 12).

Dena den, 1938an urgentziako prozedura sumarisimoa ireki zuten Manuelen aurka; borrokalari aritu izanaz gain, aurretik Azpeitian egin-dakoak ere leporatzen zizkieten. Zehazki, beste azpeitiar batzuekin batera Oinatz auzora joan izana leporatzen zioten "bando nazionalera zein baserriar pasatu zen egiaztatzerá"; dena den, Manuelen alde "ohitura onak" zituen pertsona zela adierazi zuten. Edonola ere, 1938ko azaroaren 4an, urtebeteko espetxealdira kondenatu zuten "matxinada laguntzea"ren ustezko delituagatik, eta prebentziozko espetxealdian emandako denborarekin kondena betetzat eman zioten<sup>451</sup>.

### ECHEVERRIA LANDA, JOSE ANTONIO

EAlko militantea eta ELAko afiliatua, Jose Antonio Azpeitian geratu zen Azpeitian altxatutako tropak sartu baino lehentxeagora arte. Egiaztagirik ez dugun arren, ziurrenik gerora Eusko Gudarosteko batailoiren batean errolatuta geratuko zen 1937 erdialdean atxilotu zuten arte. Urte horren amaieran Bilboko 3. epaitegi militarrek Jose Antonioren eta beste atxilotu batzuen aurkako urgentziako prozedura sumarisimoa ireki zuten, eta guztiak 1938ko maiatzaren 16an izan zuten epaia.

Jose Antonioren dagokionez, "matxinadarekin bat egitea"ren ustezko delituagatik bizi arteko atxiloaldira kondenatu zuten epaiak aipatzen zuten azpeitiarrak "hasieratik" udalerraren Defentsa Batzordeari zerbitzuak eskaini zizkiola. Zehazki, Zuazola jauregia konfiskatzen parte hartu zuela leporatu zuten, eta Urrestillako eta Nuarbeko apaizen etxeetan, Nuarbekoari (Francisco Auzmendi) mehatxu eginda<sup>452</sup>.

Epaia ondoren, abuztuaren 15ean Cádizko Puerto de Santa María espetxera eraman zuten, eta bertan egon zen 1939ko irailaren 15era arte, orduan Madrilgo Sant Rita espetxera eraman baitzuten. 1940ko irailaren 23an Palentziako espetxera sartu zuten, eta azkenik, 1941eko ekainaren 29an behin-behineko askatasuna eman zioten<sup>453</sup>.

### ECHEVERRIA UGARTE, ELIAS

Elias Urrestillan jaio zen 1913an, eta bertan bizi izan zen 1934an Bilbora bizitzera joan zen arte. Igeltseroa zen lanbidez eta ELAra afiliatuta zegoen. 1936an bere borondatez izena eman zuen Ertzaintzako gorputzean, eta "ospitale eta espetxeetan zerbitzua eman zuen". 1937ko ekainaren 19an, aitopenean ageri den moduan, "beste kide batzuekin batera Eruki Etxea zaintzen geratu zen, muturrekoek honda ez zezaten". Egun horretan bertan tropa frankistetan entregatu zuten bere burua.

Atxilotetaren ostean, Gasteizko Karmeldarren espetxera bidali zuten eta lehen aldiz 1937ko abuztuaren 16an galdekatu zuten. Handik hilabetera, Eliasen aurka urgentziako prozedura sumarisimoa ireki zuten, eta berriz ere deklaratu egin behar izan zuten 1938ko uztailaren 6an. Orduan, auzipetuak Bilboko hainbat presondegitan zaintzaldiak egin zituela esan ostean, "han izandako sarrasketan" parte hartu ote zuten galdetu zioten eta ezetz erantzun zuten. Azkenean, 1939ko urriaren 30ean, gerra-kontseiluak auzia behin-behinean artxibatzearabaki zuten eta auzipetua langileen batailoi batean sartzea agindu zuten. Urte horretako azaroaren 15ean, Gasteizko gobernadore militarrek Elias Miranda Ebroko (Burgos) kontzentrazio-esparrura eramateko agindu zuten<sup>454</sup>.




192 - Elias Echeverria Ugarte. (Lina Etxeberriak utzitako irudia).

### EGUIBAR ARREGUI, MAXIMIANO

UGTko militantea eta lanbidez zurgina, Maximiano lanik gabe geratu zen gerra hasi berriean, lan egiten zuten tailerreko ekoizpena gelditu egin baitzen. Hori dela eta, gerra-kontseiluan epaitu izanagatik 1937 eta 1941 artean gutxienez egin behar izan zituen hiru aitopenean adierazi zutenaren arabera, zerbitzua eman zuten "Azpeitian zeuden errefuxiatuei ogia eta ardoa ematen", Defentsa Batzordeak hala aginduta. Gero Durangora joan zen eta UHP batailoian errolatu zen. Eusko Gudarosteko gorputz horretan geratu zen Kantabriar 1937an atxilotu zuten arte. El Duesoko espetxetik Bilboko espetxe probintzialera bidali zuten, eta gero, 1938ko uztailaren 26an, Burgoseko espetxe nagusira eraman zuten. Handik bi hilabetera, Maximianoren aurkako urgentziako prozedura sumarisimoa hasi zen. El Duesoko espetxera eraman zuten berriz ere eta han galdekatu egin zuten 1940ko ekainaren 20an. Bitartean, Roque Astigarraga, Hilario Bereciartua eta Florencio Mangasek (Azpeitiko alkate, Falangeren tokiko buruzagi eta Guardia Zibileko komandantea) Santoñako instrukzio-epaitegi militarri auzipetuaren "aurrekariak" bidali zizkieten, eta konfiskatze eta atxiloten arduradun zen "pertsona arriskutsu" gisa izendatzen zuten. Beste kasu batzuetan bezala, epaitegiak eskatutakoan saltaileek ezin izan zuten lekukorik eman egindako salaketak berresteko, "baina Valentín Larrañaga eta Ignacio Martínez Olaechea... *Glorioso Movimiento Nacional* delakoaren pertsona oso zale eta herriko zinegotzi zirenek berrets ditzakete aurreko txosten horiek".

Hala ere, Guardia Zibilaren komandanteak aipatutako bi pertsonetako batek ere ez zuten berretsi Maximianok konfiskatze eta atxilotetaren parte hartu zuenik, ezta prozeduran zehar agertzen joan ziren beste lekukoek ere. Horiek guztiak esan zuten gauza bakarra izan zen Maximiano ezagutzen zutela eta UGTkoa zela, Juan Astigarragak, Roque Astigarragaren semeak, izan ezik, hark esan baitzuen auzipetuak aitaren saltokian ardoa konfiskatu zuela.

Ikerketa judizialen berandutza ikusita, 1941eko martxoaren 1ean baldintzapeko askatasuna eman zitzaion, eta geroxeago Eibarren lanean hasi zen "suntsitutako eremuen" zuzendaritzapean. 1942 hasieran, oraindik ere prozedura irekita zegoen. Urtarrilaren 2an, Azpeitiko Guardia Zibilak epaile instruktoreari honako informazioa bidali zion: "egindako gainerako gertakarien lekuko presentzialak bilatzeko postu honetako indarrek egindako kudeaketak kudeaketa, ezin izan da emaitza onik lortu". Azkenik, 1942ko ekainaren 18an, gerra-kontseiluak 12 urte eta 1 eguneko espetxealdi txikia jarri zion "matxinadari laguntzea"ren ustezko delituagatik<sup>455</sup>.



193 - Maximiano Eguibar Arregui. (Kontxi Eguibar Etxeberriak utzitako irudia).

<sup>451</sup> 2456/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>452</sup> 1260/37 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>453</sup> Espetxeko fitxa (AGA).

<sup>454</sup> 2475/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>455</sup> 3531/40 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

## EGUIGUREN ACHAGA, JESUS

1910ean Azpeitian jaioa, Jesus gidaria zen eta Hernanin bizi zen 1936an. 1937ko abuztuan Kantabrian atxilotu zuten, eta pixka bat geroago gerra-kontseiluan epaitu zuten beste 24 lagunekin batera. "Matxinadarekin bat egitea"ren delitu bategatik biziarteko espetxealdira kondenatu zuen 1937ko irailaren 30eko epaiaren arabera, Jesúsek armatutako zaintzaldiak egin zituen, eta gero bere borondatez euskal milizietan erroldatu zen. Atxilotu zuten unean Eusko Gudarostearen barruan teniente gradua zuen<sup>456</sup>.

## EGUIGUREN EIZAGUIRRE, ANTOLIN

Azpeitia bizi zen. Organo egilea zen. Lamiakoko aerodromoan zerbitzuak eskaini zituen Gerra Zibila hasi ondoren. Sendagileak hala aginduta, bajan egon zen 1937ko otsailaren 5etik 12ra, "bi begietan gorputz arrotzak" izategatik. Altxatutako tropek atxilotu eta 1937ko amaieran, beste hogeitasei preso ingururekin batera, Donostiara eraman zuten Medina de Rioseco (Valladolid probintzia) kontzentrazio-esparrutik, eta Gipuzkoako hiriburuan aurretiazko eginbideak abiarazi zituzten denen aurka<sup>457</sup>. 1937ko maiatzaren 15ean, Antolin errepresaliatua zela berretsi zuten epaitegi hark eta B atalean sailkatu zuten. Berritara eraman zuten kontzentrazio-esparru batera<sup>458</sup>.

## EIZAGUIRRE GARMENDIA, FAUSTO

Faustok 17 urte eskas zituen 1936ko uztailan. Abuztutik aurrera Loiolako santutegian, euskal milizien kuartel nagusian, zaintzaldiak egin zituen irailaren 19an utzi zuten arte. Lanbidez saskigilea eta militante nazionalista zen. Azpeitia erori ostean Bizkaira ihes egin zuen eta gero handik zultzaileen batailoi batera, eta han gotorlekuak eraikitzen lan egin zuen.

1937ko abuztuan Laredon harrapatu zuten, eta urtebete baino gehiagoz atxilotuta mantendu zuten gerra-kontseiluan epaitu zain<sup>459</sup>. 1937ko irailaren 23an, epaitzen zuen auzitegi militarrek uste izan zuen frogatuta zegoela haren militantzia nazionala, armatutako zaintzaldiak egin izana eta zultzaileen batailoian parte hartu izana. Aldiz, haren arabera, "ez du inolako funtsik auzipetuak baserriar bat atxilotzen parte hartu izanaren salaketak". Edonola ere, Faustok "hain gaztea izanik, familiartekoei eraginda eta Fronte Popularrak behartuta" jokatu zuela uste izan zuten, beraz, aske utzi zuten prebentziozko espetxealdian zeraman denborarekin "haren jokabidea nahikoa zigortuta" zegoela ulertuta<sup>460</sup>.

## EIZAGUIRRE ODRIA, GENARO

1906an Azpeitian jaioa zen eta Bustinzuri inguruan bizi zen. Azpeitian atxilotu zuten Genaro, Komandante Militarren aginduz, eta Ondarretako espetxera eraman zuten. Donostiako 15. epaitegi militarrean bere aurka prozesu sumarisimo bat abiarazi zutelako sartu zuten espetxean, baina ez dakigu zer leporatzen zioten. 1939ko urtarrilaren 19tik apirilaren 2ra arteko tartean espetxeko erizaindegian egon zen, "bihotzeko eritasuna" zuelako; hala dio auzitegiko medikuaren txostenak. Handik 20 egunera, berritara eraman zuten erizaindegira, bihotzeko lesio bat zuelako. Ondoren, 1940ko martxoaren 21ean, aske utzi zuten, baldintzapean eta maiatzaren 7an, auzia artxibatu eta Genaro behin betiko aske uztea erabaki zuten<sup>461</sup>.

## ELIAS UNANUE, FRANCISCO

Lanbidez tapizatzailea eta *Damaso Azcue* enpresako langilea errepublika-garaian<sup>462</sup>, Pacok Azpeititik ihes egin zuen 1936ko irailean, matxinatutako tropek sartzeaz zirenean. Gerora, baliteke zultzaileen batailoi batean erroldatuta egotea, Bizkaiko sektore ugarian defentsa-sistemak eraikitzen. Gernikan, 1936ko apirilaren 26ko bonbardaketatik bizirik atera zen, eta horren ostean, Bilbora joan zen<sup>463</sup>.

Atxilotu zutenean, Eskolapioen espetxean egon zen preso (Bilbo), urtebete inguruz. Berriz Azpeitira itzultzailekoan salatu egin zuten, eta Ondarretako espetxera eraman, gerra-kontseiluan epaitu zain.

Itxuraz Pacoren aurka heriotza-zigorra eskatu zuten, baina 1940ko martxoaren 14an, baldintzapeko askatasunean zegoenean, auzia artxibatu eta aske utzi zuten<sup>464</sup>.



194 - Francisco Elias Unanue. (AIRMN).

## ELORZA ALBERDI, EUSEBIO

1937ko irailaren amaieran, Donostiako 14. Epaitegi Militar Iraunkorrek ikerketa-prozesua hasi zuen 6 azpeitiarren "Fronte Popularraren aldeko jarduerara politiko-sozialak argitzeko". Horien artean zegoen Eusebio. Hain zuzen ere, "kausa horren alde azken hauteskundeetan indarkeria erabiliz euskal nazionalismoaren propaganda egitea" leporatzen zitzaion. Salaketa horiez gain, "herria utzi eta Bilbon ziurrenik gerrako materialerako enbalatzeko kaxak egiten aritu izana beste salaketarik ez zuten haren kontra".

Edonola ere, 1938ko apirilaren 12an, *Gerra Ikuskaritzak* uste izan zuen ikertutako gertakariak ez zutelako justifikatzen prozedura auzi sumarisimo gisa hartzea, beraz, Eusebioarentzat isun ekonomikoa ezarri zuen. Hura ordaindutakoan, Eusebio aske geratuko zen<sup>465</sup>.

<sup>456</sup> 67/37 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>457</sup> 1644 aurretiazko eginbideak (AIRMN).

<sup>458</sup> 14786/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>459</sup> AUA (Sjg. 196-215; Kod.215).

<sup>460</sup> 1002/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>461</sup> 194/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN) / GPAH 2831\_030.

<sup>462</sup> AUA (Sjg. 1240-08; Kod. 214).

<sup>463</sup> Familiako lekukotza

<sup>464</sup> 14703/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>465</sup> 421/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

### ERRASTI ARIZONDO, ANASTASIO "ATXERO"

Lanbidez zurgina, Anastasio 1933ko apirilko udal-hauteskundeetan hautagai errepublikarra izan zen, baina lortutako 20 boto eskasez ez zioten balio izan ordezkaritza lortzeko<sup>466</sup>. Gerora, gerra hasi ostean, Azpeitiko Defentsa Batzordeko<sup>467</sup> kide izan zen herritik ihes egin eta Eusko Gudarostean sartu zen arte. 1937ko abuztuan Kantabrian atxilotu eta El Duesoko kartzelan sartu zuten. Santoñako plazan bertan, 1937ko abenduaren 9an, ustezko "matxinadarekin bat egitea"ren delituagatik espetxealdi handiko 30 urteko kondena jarri zioten. Handik hilabete batzuetara, zehazki 1938ko maiatzean, Donostiako epaitegi militar batek Anastasioaren galdeketa eskatu zuen, haren izena Maria Altuna Astigarraga eta Gloria Zabaleta Olazabal azpeitiarren aurkako prozesu sumarisimoan aipatu zelako. Galdetegi batean planteatu zitzaizkion galdera batzuen harira, Anastasiok zuzenean salatu zituen Maria eta Gloria, eta egozten zizkieten oilo-lapurretetan parte hartu zutela esan zuen. Era berean, deklaratuak auzipetuz zer iritzi zuen galdetutakoan, Anastasiok erantzun zuen biak zirela "euskal nazionalista sutsuak, hasieratik gorri-separatisten zerbitzura jarri zirenak"<sup>468</sup>. 1939ko azaroaren 15ean Anastasio El Dueso espetxe-koloniatik Alcalá de Henareseko (Madril) espetxe-tailerretara eraman zuten. Bertan egon zen preso 1943ko abuztuaren 22an baldintzapeko askatasuna eman zioten arte<sup>469</sup>.

### ERRASTI LARRAÑAGA, JUAN DE DIOS

Azpeitian jaioa 1905ean eta lanbidez igeltseroa, Juan gerra-frontean JSUren *Amuategui* infanteriako batailoian erroldatuta ibili zen borrokan. 1937ko udan Kantabrian atxilotu zuten, El Duesoko espetxean preso izan zuten eta Santoñako plazan bertan gerra-kontseiluan epaitu zuten. 1937ko azaroaren 10ean 30 urteko espetxealdi handiko kondena jaso zuen ustezko delituagatik. Kondenaren arrazoitzat "Zuzendaritza Sozialistaren kide" izatea eta frontean parte hartu izana argudiatu zuten<sup>470</sup>.

### ERRASTI OLAIZOLA, JOSE

Jose zumaiarra zen eta Azpeitian bizi zen. Azpeitian lan egin zuen zumegile gisa *Damaso Azcue* enpresan. Abertzaleen aldekoa zen eta gerra hasitakoan zaintzaldiak egin zituen. Gero, *Loyola* batailoian erroldatu zen eta bertan sukaldari aritu zen. 1937ko abuztuan Laredon atxilotu zuten eta handik gutxira, Lizarrako kontzentrazio-esparrura eraman zuten. Azaroaren 1etik 6ra, Miranda de Ebron egon zen preso eta badirudi, handik Sevillara eraman zutela, langileen batailoi espezializatu batera. Hala ere, hil haren 25ean berriro eraman zuten Miranda Ebroko kontzentrazio-esparrura. Andaluziara eraman eta handik hain denbora gutxira itzuli zenez, baliteke bere izatea Alanís de la Sierran (Sevilla) istripua izan zutenetako bat. 1937ko azaroaren 19an izan zen istripua eta 57 euskal preso hil ziren. Edonola ere, hilaren 26an Bilboko Eskolapioen espetxera iritsi zen, gerra-kontseiluan epaitu eta 12 urte eta egun bateko espetxealdira kondenatu zuten 1937ko abenduaren 17an. Kondena-epaiaren arabera, José parte hartu zuen armak konfiskatzen eta eskuineko pertsonak atxilotzen Azpeitian<sup>471</sup>. 1938ko abuztuaren 2an Cádizko Puerto de Santa Maria espetxera eraman zuten, eta urte horretako abenduaren 14an Sevillako espetxera<sup>472</sup>.

### GARCIA AZURZA, JOSE

Jose Bizkaian jaio zen, Getxon, 1913an. Azpeitiarra eta lanbidez saskigilea, 1934ko azaroan "Ceutako Itsas konpainian" sartu zen, bere kinta lerroetara deitu zutenean. Handik urtebetera, soldadutza-denbora bete zutenean, ziurrenik Azpeitira itzuliko zen. Edonola ere, 1938 arte ez dugu haren berri gehiago. Urte horretan, Jose Ondarretako espetxean zegoen preso, gerra-kontseiluan epaitu zain. 1939ko abuztuaren 9an, epaitegi militarrek auzia artxibatu zuen eta aske utzi zuten<sup>473</sup>. Ziurrenik miliziano gisa ibiliko zen Gerra Zibilean.

### GARMENDIA ARTECHE, RAMON

Azpeitiarra zen eta lanik gabe zeuden langileen hainbat zerrendatan eman zuen izena 1935ean, 26 urterekin<sup>474</sup>. Gero, ziurrenik *Itxarkundia* batailoian erroldatu zen borrokan atxilotu zuten arte<sup>475</sup>. Gerra-kontseiluan prozesatuta, 1938ko urtarrilaren 4an Bilboko 12. epaitegi militarrek erabaki zuen Ramonen aurka irekitako auzia aparteko prozesu sumarisimo batean ikertu behar zela, instruitzen ari ziren gainerako auzipetuetatik bereizita. Era berean, Azpeitiko Guardia Zibilari eta Deustuko kontzentrazio-esparruari (bertan zegoen une horretan preso) informazioa eskatu zien<sup>476</sup>. Ondorioz, beste gerra-kontseilu batean prozesatu zuten eta haren instrukzioa 1940 arte luzatu zen. Orduan, eta 1938 amaieratik, Ramón espetxealdi arinduan zegoen bere herrian, Azpeitian. Azkenik, 1940ko apirilaren 18an auzia artxibatu eta behin-betiko aske utzi zuten<sup>477</sup>.

### GARMENDIA ERRASTI, JOSE MARIA "KOIPE"

Jose Maria "Koipe" Azpeitian jaio zen 1907an eta Eliz kalean bizi zen. Lanbidez aldare eta erretaulak pintatzen zituen, doratzaile gisa eza gutzen dena. EAjko militantea eta ELAko afiliatua zen 1932tik. Gerra Zibila hasi zenetik alderdiko eta *Ordena Publikoaren Tokiko Batzordeko* kide izendatu zuten. 1936ko irailaren 19an Azpeitia utzi zuen, eta gerora *Eusko Gudarosteko 5. Intendentzia batailoian* erroldatu zen. Lehen helmuga Elorrio izan zen, baina 1937ko abuztuaren 25ean Laredon atxilotu arte hainbat frontetan aritu zen. Aranda del Dueroko kontzentrazio-esparrura eraman zuten, eta 1937ko urriaren 20an saikapen-akta egin zuten. Haren arabera, preso mantentzea erabaki zuten ("C atalean" saikatuta), bere aitortpena eta Azpeitiko Guardia Zibilaren txostena irakurri ostean. Urgentziatzko prozedura sumarisimoa hasi ostean, 1938ko maiatzaren 16an Eskolapioen espetxera eraman zuten. Apirilean Bilboko 12. epaitegi militarrek Azpeitiko

<sup>466</sup> AUA (Sig. 847-06; Kod. 217).

<sup>467</sup> LOINAZ ETXANIZ, A.: *Nire Oroitzapenak* (2001).

<sup>468</sup> 2967/38 urgentziatzko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>469</sup> *Espetxeko fitxa* (AGA).

<sup>470</sup> *Espetxeko fitxa* (AGA).

<sup>471</sup> 171/37 urgentziatzko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>472</sup> 1725/37 urgentziatzko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>473</sup> 2773/38 urgentziatzko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>474</sup> AUA (Sig. 1240-08; Kod. 214).

<sup>475</sup> EGAÑA, I. (Zuz.): *1936, Guerra Civil en Euskal Herria* (2004).


<sup>476</sup> 1363/37 urgentziatzko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>477</sup> 10451/38 urgentziatzko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

alkatetzaren eta Falangeren txostenak iritsi ziren. Horien arabera, "eskuineko pertsonen" etxeetan irrati-gailuak konfiskatu izana leporatzen zioten, pertsona horien artean zegoen Casto Orbegozo. Kasu jakin horretan espediente judicialari gehitu zitzaion "konfiskatzearen agiriaren kopia zehatza, eta bertan zehaztuta" zectorren "idazmahai bat aulki eta guzti" konfiskatu zutela: Era berean, Nuarben egindako ustezko konfiskatzearen inplikaturako emakumeetako bat aipatzen zen, auzipetuaren "emaztegaia edo gutxienez ezkongai-harremana" zuena. Txostenak ondoren bere emaztea izango zena aipatzen zuen.

Horretarako, Azpeitiko bi bizilagunen testigantza aurkeztu zuten. Alde batetik, Jose Antonio Segurola Iturriozek aitortu zuen 1936an Jose Mariak eta Guardia Zibileko teniente batek atxilotu zutela. Bestalde, Victoria Aizarna Lizasok konfiskatzearen lekuko gisa aitortu zuen, eta auzipetua konfiskatze horren partaide izan zela adierazi zuen. "Ordeneko pertsonekin sentimendu gaiztoak zituen pertsona zela aitortu zuen, batez ere eskuindarrekin". Hain zuzen ere, Victoriak aitortu behar zela nahi izan zuen Juan Pablo Lojendio eskuindarrak Azpeitian egindako mitin baten aurka Jose Maria buru zela egin zuten ustezko boikot bat. "Jose Mariak modu txarrean moztu zion, behin eta berriz, eta hark eta jarraitzaileek oihukatu egin zuten". Edonola ere, 1938ko maiatzaren 19an Jose Mariak berretsi egin zuen aurreko bere deklarazioa, hau da, militantzia politikoa eta frontean egindako jardueran onartzen zituena, baina ukatu egin zuen Juan Pablo Lojendio eskuindar hautagaitzari hitzaldia moztu izana, eta esan zuen ez zuela gogoratzen Jose Antonio Segurola atxilotu izanik. Ondorioz, 1938ko uztailaren 87an, Jose Maria 20 urteko espetxealdira kondenatu zuten "matxinadari laguntzearen" ustezko delituagatik.

Azkenik, 1941eko uztailaren 1ean baldintzapeko askatasuna eman zioten, zigorra 6 urte eta egun 1eko espetxealdira murriztu ostean. 1948ko irailaren 8an "behin betiko askatasun-ziurtargiria eman zioten"<sup>478</sup>.



195 - Jose Maria Garmendia Errasti.  
(Maite Garmendia Altunak utzitako irudia).

### GOENAGA EIZAGUIRRE, IGNACIO "FRAILETXU"

1912an jaio zen Elosiaga auzoko Arbe baserrian eta Zarautzen bizi zen. Ignacio UGTn afiliatuta egon zen errepublika-garaian. Gerra hasi zenean Zarauzko "Tokiko batzordeko garraioen saileko presidente" izendatu zuten, eta itxuraz, Eleuterio Legarraren atxilotetan parte hartu zuen. Gerora, Eusko Gudarosteko batailoi batean errolatuta geratu zen 1937ko abuztuaren 29an Laredon atxilotu zuten arte.

1939an, Donostiako San Antonio Abad ospitale zibilean ospitaleratuta zegoela (Manteo ospitale gisa ezagunagoa zen), gerra-kontseiluan epaitu zuten. Urte horretako irailaren 7an "matxinada militarri laguntzearen" ustezko delitu bategatik zigortu zuten 6 urte eta egun 1eko espetxealdira. Zigorra 2 urtera arindu zioten 1940ko apirilean. Ondorioz, *Zigorak Aztertzeako Gipuzkoako Batzordeak* onartutako jaitzieraren ostean, Ignacio zaintzapeko askatasunaren erregimenean geratu zen<sup>479</sup>.

### GOENAGA ITURZAETA, GREGORIO

Gregoriok bizikletak alokatzeko negozioa zuen eta gidaria zen lanbidez, bai errepublika-garaian, bai gero<sup>480</sup>. Gerra bi bandoetako batean ere parte hartu zuenik ageri ez den arren, 1938 amaieran urgentziatzko prozesu sumarisimoa ireki zuten haren kontra Bilboko epaitegi militarrek egindako aurretiazko diligenzien ostean. 1940ko martxoaren 14an, hala ere, gerra-kontseiluak kasua behin-behinean artxibatzea eta Gregorio aske uztea agindu zuen. Gregoriok atxilotu zuten unean konfiskatu zizkioten eskopeta eta kartutxoak itzuli zizkioten<sup>481</sup>.

### GOICOECHEA CENDOYA, JUAN "AKOTEI-ORKAZARRE"

1914an Azpeitiko Oinatz auzoan jaioa, Juan "Akotei-Orkazarre" bertsolari gisa ezagutzen zuten. ELAko afiliatua, gerra hasi ondoren zaintzaldiak egin zituen, eta gerora *Eusko Gudarosteko San Andres* batailoian sartu zen sarjentu gisa. Atxilotu ostean, 1937ko amaieran epaitu zuten Bizkaiko hiriburuan, gerra-kontseiluan.

1937ko abenduaren 7ko epaiaren arabera, Juanek, Azpeitian armak hartuta zaintzaldiak egiteaz gain eta abertzaleen batailoian bere borondatez errolatzeaz gain, konfiskatzeak egin izana leporatu zioten. Hori dela eta, nabarmendu behar da Juan beste azpeitiar batzuen aurkako prozedura sumarisimoetan aipatzen dutela eta konfiskatzeen egiletzat hartzen dutela. Esaterako, Jose Maria Garmendia Errasti eta Marcelino Corta Zuloagaren aurka egindako gerra-kontseiluan, Vicente Gurruchaga Unanue lekukoak aipatu egiten du baserrian Galo Barrenaren bila egindako erregistroa eta ondoren hiru txahal konfiskatu zizkiotela aipatu zuenean. Hori guztia kontuan hartuta, Juan biziarteko espetxe-zigorrera kondenatu zuten<sup>482</sup>, "matxinadarekin bat egitearen" ustezko delituagatik. Dena den, Burgosko espetxean hiru urte eman ostean, zigorra jaitzi zioten eta baldintzapean aske utzi zuten. Espetxealdi arinduko erregimenean geratutako gainerako pertsonak bezala, 15 egunean behin Guardia Zibilaren kuartelera joan behar izaten zuten. Azkenik, 1945ean Azpeitia utzi eta Iparralden jarri zen bizitzen<sup>483</sup>.



196 - Juan Goicoechea Cendoya.  
(Hemendik ateratako argazkia: ELIAS ODRIOZOLA, I.:  
Azpeitia, 500... Azpeitiarrak eta herriarekin bat eginak).

<sup>478</sup> 2330/38 urgentziatzko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>479</sup> 14539/38 urgentziatzko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>480</sup> AUA (Sig. 275-02; Kod. 12)/(Sig. 276-02; Kod. 12).

<sup>481</sup> 2173/39 urgentziatzko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>482</sup> 1290/37 urgentziatzko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>483</sup> ELIAS ODRIOZOLA, I.: *Azpeitia, 500... (Azpeitiarrak eta herriarekin bat eginak)*. 2004.

**GURRUCHAGA ECHEVERRIA, BIENVENIDO JUAN**

Juanek Urolako trenbideko faktore gisa lan egin zuen 1936ko irailaren 20an altxatutako tropak sartu bezperatan Azpeititik ihes egin zuen arte<sup>484</sup>. *Sindicato Nacional Ferroviario* sindikatuko afiliatua, 1934an soldata eten zion konpainiak "greba egiteko jarrera zuela eta". Epaitu zuen epaitegi militarren arabera, gerra hasieran zaintzaldiak egin zituen, ez dago "Glorioso Movimiento" delakoaren aurkako beste ekintzarik. Horregatik, 1939ko martxoaren 5ean, espetxeratze prebentiboan zeraman denbora leporatzen zitzaizkion gertakarietat zigor egokia zela erabaki zuten<sup>485</sup>. Handik urte batzuetara, 1948ko otsailaren 26an, trenbide konpainian harrezatela eskatu zuen, eskaera hau 1949ko urtarrilaren 10ean ukatua izan zitzaionalarik<sup>486</sup>.

**IBARZABAL AMENABAR, FRANCISCO**

Francisco errepublika-garaian eta 1936ko irailaren 19ra arte Azpeitiko batzokiko atezaina izan zen. EAJko afiliatua eta lanbidez tailugilea, alde egin zuen beste azpeitiar askok bezala, altxatutako tropak sartzeaz zirenean. 1937ko abuztuaren 26an Laredon atxilotu zuten, baina ez dakigu gerra-frontean jardueraren bat izan zuen edo batailoiren batean errolatuta egon zen. Gerora, Orduñako kontzentrazio-esparrura bidali zuten, eta bertan egon zen 1937ko irailaren 19ra arte. Data horretan, Gasteizko espetxe probintzialera bidali zuten. 1938ko urriaren 11n Miranda Ebroko (Burgos) kontzentrazio-esparrura eraman zuten, eta 1939ko urtarrilaren 15ean, Murgiakora. Urte horretako urrian, zehazki 1939ko urriaren 23an, prebentziozko espetxealdian bi urte baino gehiago eman ostean, behin-behineko askatasuna eskatu zuen familiako egoera ekonomiko ezegonkorra zela eta. 4 eta 6 urteko bi umeren aita, Francisco "etxeko euskari bakarra" zela zioen, eta "erabateko txirotasunean" zegoela. Eskaerari atxiki zizkioten Falangera afiliatuta zeuden Azpeitiko hainbat bizilagunen idatziak, abal gisa, esanez atxilotua babesten zutela modu "pertsonal, ekonomiko eta judizialean". Era berean, Azpeitiko alkatearen (orduan Ignacio Egaña Otegui zen) idatzi ofizial bat gehitu zuten, Francisco "jokabide moral oneko" pertsona zela baieztatzen zuena. Hala ere, *Gerra Ikuskaritzak* abenduan erabaki zuen Franciscori buruzko informazioen arabera delitua zegoela, eta beraz, aurretiazko eginbideak hasi behar zirela. Ondorioz, Donostiako epaitegi militarrek Azpeitiko Guardia Zibilaren, alkatearen eta Falangeren txostenak jaso zituen. Guztiek Franciscoren ideologia nazionalista nabarmentzen zuten idatziak eta, beraz, "ideia asaldatu anti espainolistak", eta Azpeitia utzi ondoren zer egin zuen ez zekitela zioten. Era berean, Roque Astigarraga eta Julian Orbeagoz Embil alkate ohiek deklaratu zuten lekuko gisa. Aurreko txostenetan bezala, biek atxilotua salatu zuten "bere ideien propagandista" izateaz, baina aldi berean esan zuten ez zuela parte hartu atxilotetetan eta konfiskatzeetan, "inori kalterik egiteko ez zelako gai". Azkenik, epaile militar inktoreak behin-behineko askatasuna eman zion 1940ko apirilaren 10ean. Handik hilabetera auzia artxibatu eta behin betiko askatasuna eman zioten<sup>487</sup>.

17

**DECLARACIÓN DEL TESTIGO**

En San Sebastian a veintitres  
de Febrero de mil novecientos Cuarenta  
ante este Juzgado compareció el testigo

**JULIAN ORREGOZO EMBIL**

anotado al margen, el cual fué enterado del objeto de su comparecencia, de la obligación que tiene de decir verdad, y de las penas en que incurre el reo de falso testimonio, siendo con arreglo a su clase, y

Preguntado por las generales de la Ley, dijo: Llamarse como queda dicho, de Cincuenta y ocho años de edad, de estado Casado natural de Azpeitia de profesión Comerciante que No ha sido procesado, y con domicilio en En Azpeitia y que no le comprenden las demás

Preguntado. Si conoce al encausado FRANCISCO IBARZABAL AMENABAR: Contesta. que si que lo conoce desde niño.

PREGUNTADO Para que manifieste su actuación Antes y despues de estallar el Glorioso Movimiento "acional: CONTESTA. Que dicho encausado antes de estallar el Movimiento "acional Fué dos años aproximadamente Conserge del Centro Separatista, habiendo sido muy propagandista de sus ideales pero que nunca le bió formar escandalo en ninguna parte. Al estallar el Movimiento, sabe que el Encausado nunca actuó con armas ni intervino en ninguna detención ni registros, pero que este siguió ocupando el puesto de Conserge hasta el diez y nueve de Septiembre .

PREGUNTADO Si sabe que labores egercia dentro de dicho cargo: CONTESTA. que se dedicó solamente a desempeñar el cargo, pero que nunca le bió ni lo ha hoido que tubiera alguna actuación fuera de dicho cargo.

PREGUNTADO Que concepto le merece CONTESTA que le considera mala persona con respecto a sus ideales, pero buena persona en su actuación dentro de la sociedad, incapaz de hacer mala a nadie.

PREGUNTADO Si tiene algo mas que decir CONTESTA que no, y leida que le ha sido esta su declaración se afirma y ratifica en ella y la firma con S.S. y con eligo el secretario de que certifico.

Ignacio Egaña Otegui  
Julian Orbeagoz Embil  
Jose Loraada

197 - Francisco Ibarzabal Amenabarri buruzko dokumentua. (AIRMN).

<sup>484</sup> OLAIZOLA ELORDI, J.: 1936. *Represión y reconversión. El ferrocarril del Urola.* (2009).

<sup>485</sup> 1015/38 Gobernuko informazioa (AIRMN).

<sup>486</sup> OLAIZOLA ELORDI, J.: 1936. *Represión y reconversión. El ferrocarril del Urola.* (2009).


<sup>487</sup> Aurretiazko eginbideak 3010/39 (AIRMN).

## IBARZABAL AMENABAR, PEDRO

Anaia Francisco bezala, Pedro ere EAjko militantea eta ELAko afiliatuta zen, baina, alderdian zituen "erantzukizunak" batzokiko zerbitzari izatea besterik ez ziren. Gerora, Azpeititik 1936ko irailan ihes egin ostean, Bizkaian *Intendencia Militar* delakoaren batailoi batean errolatuta geratu zen 1937ko abuztuan Laredon atxilotu zuten arte. Handik gutxira, eta 1939ko erdialdera arte, Medina del Rioseco-ko (Valladolid) kontzentrazio-esparru batean egon zen, eta 1940ko hasieran eraman zuten Burgoseko espetxe probintzialera.

Anaiak ez bezala, 1940ko urtarrilaren 22ko data zuten Pedoren erregu-gutunak ez zuten behin-behineko askatasuna eskatzen, Ondarretako espetxera eramateko besterik ez zuten eskatzen. Bitartean, Donostiako 7. epaitegi militarrek instrukzioarekin jarraitu zuten, baina 1940ko apirilaren 21ean behin-behineko askatasuna eman zioten. Kasu honetan ere Falangeko militante ziren azpeitiar ugari abala eman zuten auzipetuaren alde, Guardia Zibilaren txostenek militante nazionalista gisa zituen aurrekariak nabarmendu zituzten arren. Alkatetzatik Roque Astigarragak emandako datuetako bat nabarmentzen da: "kontzentrazio esparruan egonda, aitari euskarazko gutuna idatzi zion Espainiarrakiko kontzeptu eta esaldi iraingarriekin".

Azkenean, 1940ko maiatzaren 9an auzia artxibatu egin zuten eta "auzipetua behin betiko aske geratu zen"<sup>488</sup>.



198 - Pedro Ibarzabalek epaileari bidalitako gutuna. (AIRMN).

## IRAOLA GOICOECHEA, ROQUE

Roque zurgina zen eta Jose Iturzaeta enpresan lan egin zuen errepublikaren garaian<sup>489</sup>. Abertzaleen aldekoa, gerra hasitakoan Donostiako errepidean armak hartuta zaintzaldiak egin zituen. Gero Bilbora ihes egin zuen, eta han *Acha* y *Zubizarreta* enpresarako lan egin zuen babeslekua erakitzen. Atxilotu eta espetxean sartu ostean, Donostiako 4. Epaitegi militar iraunkorrak Roqueren eta hainbat azpeitiarren aurkako instrukzio-prozesua abiatu zuen 1937 amaieran.

Roqueri buruz, hainbat txostenek adierazi zuten *Eusko Gudarosteko Intendentzia Militarrekin* kolaborazioa egin izana, baina idatzi judizialak adierazten du hipotesi hori ez zela egiaztatu. Era berean, armak hartuta zaintzaldiak egin arren, adierazten zuten ziurtasunik ez zutela "eskuindarrak jazartzeko ekintzetan eta gehiegikerietan parte hartu zuenik". Beraz, 1938ko apirilaren 18an, *Gerra Ikuskaritzak* Donostiako epaitegi militarren gobernu-informazioa berretsi zuen eta Roque behin betiko aske uztea erabaki zuen<sup>490</sup>.

## IRIARTE ECHANIZ, SANTOS

1912an Errekartetxo baserrian jaioa, Santos arotza izan zen lanbidez, eta joan den mendeko 40ko hamarkadan probintziako harrijasotzaile ezagunenetakoa bat zen<sup>491</sup>. Aurretik, 1936an eta 1937 hasieran altxatutako armadak mobilizatu zuen, eta 23. *Mendiko Infanteriako Erregimentuan* (Amerika 23 gisa ezagutzen zena) errolatuta geratu zen. 1937ko uztailaren 22an desertatu egin zuen, baserrian ezkutatuta egon zen Azpeitiko Guardia Zibilak 1939ko irailaren 16an atxilotu zuten arte. Bi urtez ezkutuan egon ostean, Azpeitiko espetxera eraman zuten eta handik Iruñekora, eta epaitegi militar batek desertatzeagatik prozesatu zuen<sup>492</sup>.

Aitorpenean, Santosek adierazi zuen ihes egin zuela "Santanderreko frontera eramango zutela entzun zuelako, eta beldur zen preso hartuko ote zuten, euskal nazionalistek amorrua baitzioten. Azkenik, 1940ko ekainaren 1ean, soldadutzan 4 urteko errekarua jarri zioten zigor gisa"<sup>493</sup>.

## IRIONDO ARAMURU, JUAN "TXORITXERO"

Juan telegrafo-banatazailea zen bere jaioterrian, Azpeitian. EAjko eta *Sindicato Nacional de Telégrafos* delakora afiliatuta, gerra hasi zenean Defentsa Batzordeak komunikazio-zerbitzu horren buruzagitza esleitu zion, 1936ko irailaren 19an Bilbora ihes egin zuen arte. Herri horretan Eusko Jaurlaritzako lehendakaritza-zerbitzuan izena emanda geratu zen 1937ko abuztuan Kantabriari atxilotu zuten arte.

Irailan urgentziatzko prozedura sumarisimo bat hasi zuten Juanen aurka Kantabriako hiriburuan, eta 1937ko azaroaren 31n biziarteko espetxealdira zigortu zuten. Gerra-kontseiluko epaiaren arabera, Juanek Azpeititik ihes egin aurretik zeuden telegrafo-gailuak suntsitu zituen<sup>494</sup>.

1938ko irailaren 9an Santanderreko espetxe probintzialetik El Duesora eraman zuten, eta bertan egon zen 1941eko ekainaren 21ean baldintzapeko askatasuna eman zioten arte<sup>495</sup>.

<sup>488</sup> Aurretiazko eginbideak 2301/40 (AIRMN).

<sup>489</sup> AUA (Sig. 1240-08; Kod. 214).

<sup>490</sup> 421/38 Gobernu-informazioa (AIRMN).

<sup>491</sup> ELIAS ODRIOZOLA, I.: *Azpeitia, 500...* (Azpeitiarrak eta herriarekin bat eginak). 2004.

<sup>492</sup> GPAH (2784; Esp. 068).

<sup>493</sup> 4251/40 ohiko sumarioa (AIRMN).

<sup>494</sup> 17/37 urgentziatzko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>495</sup> Espetxeko fitxa (AGA).



### ITURRALDE BERECIARTUA, JOSE CRUZ

Azpeitiko Iturralde Bereciartua anaietako gazteenak oraindik ez zituen 18ak beteta 1936an Gerra Zibila lehertu zenean. *Loyola* batailoiko gudarari ziren anaiekin batera abiatuta, Jose Gernikan errefuxiatuta geratu zen Bilbora ebakuatu arte. 1937ko abuztuan Santoñan atxilotu zuten eta Miranda Ebroko kontzentrazio-esparrura bidali zuten. Bertan, "B atalean" saikatu zuten eta langileen batailoi batera eraman zuten.

1938ko udan, Jose Zornotzan basea zuten *Automobilak Berreskuratzeko Zerbitzuaren* barruko Lamiakoko (Leioa) *Langile Espezialisten Batailoian* zegoen. Abuztuaren 24an, batailoi horretako buruzagitzak Bizkaiko gobernadore militarri egun horretan bertan 15:00ak inguruan gertatutakoaren parte eman zion. Itxuraz Jose Iturralde eta zigortutako beste kide batzuk euskaraz oihuka zihoazen, oihu iraultzaileak eginez eta ukabila altxatuta, konboian zeramatzatenean Atxuritik pasatzean. Gertakari horiek berehala salatu zituzten Santurtziko udaltzainburu ohi eta une hartan *Guardia Zibilaren Ikerketa Brigadako* kide zen Manuel Sanz Canterak eta hainbat buruzagi erreketek. Ondorioz, abuztuaren 26an Joseren eta atxilotutako gainerakoen aurkako urgentziako prozedura sumarisimoa hasi zuten. Handik hiru egunetara, aitorpenean salaketak ukatu egin zituen, eta esan zuen Basurtorainoko bidean *boga-boga* abestia kantatu besterik ez zutela egin, eta puntu horretan Echevarria sarjentuak euskal abestiak kantatzea aurpegiatu zenez, hortik aurrera *Adiós Bilbao eta Santurce a Bilbao* abestiak kantatu zituzten.

Hala ere, epaile militar instruktoreak ontzat eman zituen akusaziozko salaketak. "Erakunde Patriotiko edo Erregimena iraintzeko" asmoz, euskarazko hitzak esan izana delitu gisa hartu ezin bazen ere, ukabila altxatzea funtsean "Espainiatik ordenaren aurkako komunismoa kanporatzeko borrokan diharduen Estatuarekiko etsaitasunezko ekintza publikoa" dela uste izan zuen. Beraz, 1938ko irailaren 17an, gerra-kontseiluak onartutaz eman zuen "ukabila altxatu izana behin eta berriz eta euskaraz oihu iraultzaileak egin izana". Horrek "matxinadarekin bat egitearen" delitua zekarren eta, ondorioz, espetxealdi handiko 30 urteko zigorra.

1938ko abenduaren 10ean, Jose Cadizko Puerto de Santa Mariako espetxera eraman zuten, eta bertan egon zen 1940ko irailaren 27an espetxealdi arindua eman zioten arte. 1943ko apirilaren 2an, *Zigorak Aztertzeako Batzorde Zentralak* 30 urteko zigorra 6ra murriztu zion, eta zigorra amaitzeko data 1944ko abuztuaren 22a ezarri zuten<sup>496</sup>.



199 - Jose Iturralde Bereciartua.  
(Itñaki Iturraldek utzitako irudia).

### ITURRALDE BERECIARTUA, JUAN

1914an Urrestillan jaioa zen Juan. Zurgina zen lanbidez eta errepublika-garaian ELAn eta EAJn egon zen afiliatuta. Gerra hasi ondoren, zaintzaldiak egiten ibiliko zen seguru asko Defentsa Batzordearentzat, Vicente anaia bezala. 1936an, *Loyola* batailoian errolatu zen eta hainbat frontetan ibili zen borrokan, hariak Kantabriako Limpas herrian, 1936ko abuztuaren 26an harrapatu zuten arte. Handik urtebetera, Aranda del Dueroko kontzentrazio-esparrura eraman zuten eta han, *Zigorak Aztertzeako Batzordeak* "C atalean" saikatu zuen. Hala, espetxean eduki zuten gerra-kontseiluan noiz epaituko zuten zain. Eusko Gudarostean bere borondatez sartu eta aipatutako filiazio politiko horiek izateaz gain, badirudi Batzordeak Azpeitiko Guardia Zibilak eginiko txostena ere aintzat hartu zuela. Txosten hark zioen Juanek konfiskatzeetan eta atxilotzeetan parte hartu zuela. 1937ko azaroaren 22an Burgosko espetxera bidali zuten eta han eduki zuten preso. Ondoren, Juanen aurka urgentziako prozedura sumarisimoa abiarazi eta Bilboko Eskolapioen espetxera eraman zuten. 1938ko abenduaren 14an, justizia militar frankistak kasua artxibatu eta 1939ko irailean, langileen batailoi batera bidali zuten Juan<sup>497</sup>. 1940ko uztailaren erdialdean, hilaren 26an hain zuzen ere jada aske zegoela, atxilotu eta espetxeratu egin zuten. Preso eduki zuten abuztuaren 1era arte "agintaritzaren aurkako atentatua" egitea leporatuta. Ondoren, 1947ko ekainaren 16tik abenduaren 2ra artean, berritoki atxilotu eta inkomunikatu zuten 1940ko arrazoari berdinagatik. Prebentziozko espetxeratze arbitrario haiek, seguru asko, Francok Gipuzkoako hiriburuan eginiko ekitaldien aldi berean egingo zituzten. Hala, Juanek 180 egun pasa zituen guztira espetxean, eta horri gehitu behar zaio 1936ko abuztutik 1940ko erdialdera arte espetxean, irten gabe, igarotako denbora<sup>498</sup>.



200 - Juan Iturralde Bereciartua.  
(Itñaki Iturraldek utzitako irudia).

### ITURRALDE BERECIARTUA, VICENTE

Vicente EAJko militantea eta ELAko afiliatua zen. Errepublika-garaian *Damaso Azcue* altzari-enpresan lan egin zuen tornulari gisa, baina 1935eko urtarrilean, Vicente eta haren kide Santiago Zudupe kaleratu egin zituzten. Gerra hasitakoan, *Loyola* batailoira sartu zen, eta teniente izatera iritsi zen Bilbo erori ostean. 1937ko abuztuan, Kantabriako Limpas herrian, batailoia Italiako tropa faxisten aurrean entregatu zen, eta jarraian El Duesoko espetxera bidali zuten.

Urte horretako irailean, urgentziako prozedura sumarisimoa hasi zen, eta handik hilabetera, 1937ko urriaren 20an, "matxinadarekin bat egitearen" ustezko delituagatik biziarteko espetxealdiaren zigorra jarri zioten. Gerora, Puerto de Santa Mariako espetxera eraman zuten, eta han egon zen 1940ko abuztura arte, baldintzapeko askatasuna eman zioten arte. 1943ko maiatzaren 27an, zigorra 6 urte eta egun 1eko espetxealdiarekin arindu zioten. Beraz, 1944ko abuztuan, anaia Joserena bezala, behin betiko iraungita geratu zen zigorra<sup>499</sup>. Espetxetik ateratu ostean, Zarautzen zuten etxean jarri zen bizitzen. Itxuraz tailerra eta Azpeitian zituen ondasun guztiak konfiskatu egin zituzten eta gerran erreketek gisa aritu zen azpeitiar baten eskuetan zeuden. Hala ere, denbora batera jabetzak berreskuratu zituen<sup>500</sup>.



201 - Vicente Iturralde Bereciartua.  
(Itñaki Iturraldek utzitako irudia).

<sup>496</sup> 1669/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>497</sup> 12909/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>498</sup> Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiak igorritako txostena. Donostiako espetxea (2004).

<sup>499</sup> 95/37 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>500</sup> AGUIRRE SORONDO, A.: *Los últimos torneros de madera*. (1997).

## JUARISTI EIZAGUIRRE, JUAN "ANTTONBELTZ"

Anttonbeltz"-en seme zaharrena, *Unión Republicana* alderdiko militante eta UGTko afiliatu izan zen errepublika-garaian. Lanbidez zurgina, gerra lehertu zenean lan egiten zuen fabrika partzialki itxi ostean, armak hartuta zaintzaldiak egiteko Fronte Popularraren deialdiarekin bat egin zuen. 1936ko irailaren 19an Azpeititik alde egin eta Bilbon familiako baten etxean jarri zen bizitzen. Azaroan, berari zegokion kinta mobilizatu zuten, UHP batailoian errolatuta geratu zen, eta bertan zerbitzua eman zuen Kantabrian 1937ko abuztuan atxilotu zuten arte. Urrian, El Duesoko espetxean preso zela, *Santoñako Presoak Sailkatzeko Batzordeak* galdeketa egin zion. Juanen testigantza eta Azpeitiko Guardia Zibilaren txostena oinarri hartuta, "C atalean" sailkatu zuten. Izan ere, Guardia Zibilaren txostenean jasotzen zen "ordenako pertsonak jazarri eta mehatxatzen zituela". 1939 hasierarako Juanen aurkako urgentziazko prozedura sumarisimoa ireki zuten, eta auzipetua Eskolapioen espetxera eraman zuten.

Bai Falangeko txostenek, bai alkatetzakoek, Guardia Zibilak egindako salaketak berresten zituzten, eta Juanek atxilotutako bi lagun ere aipatzen zituzten: Ignacio Echeverria Altamira eta Casto Orbegozo Embil. Biek 1939ko otsailean egindako deklarazioan esan zuten Guardia Zibileko agenteek eta Azpeitiko Defentsa Batzordeko kideek atxilotu egin zituztela, eta horien artean zegoela Juan. Hala ere, martxoan, epaile instruktoreak hainbat aurrez aurreko antolatutako auzipetuaren eta lekukoaren artean, eta haiek esan zuten ezin zutela "erabateko ziurtasunez" esan Juanek atxilotetan parte hartu ote zuen. Zehazki, bi lekukoek zalantza egiten zuten "Antton Beltz"-en bi semeetako zein izan zen atxilotetaren egile.

Edonola ere, 1939ko hasieratik Ondarretako espetxean atxilotuta, urte horretako apirilaren 29ko gerra-kontseiluak "B atalean" sailkatzea adostu zuen, eta ondorioz, langileen batailo batera bidaltzea. 1939ko uztailaren 20an, San Pedro de Cardenako kontzentrazio-esparrura eraman zuten<sup>501</sup>. Handik urtebetera, 1940ko uztailaren 15ean, Juanen aurkako beste prozedura sumarisimo bat ireki zuten. Baina instrukzio fasea hasi zenean, auzipetu egin zuten, gertakari berberengatik dagoeneko epaitua zegoelako<sup>502</sup>.

## JUARISTI MENDIZABAL, SIMON

Simon abertzaleen aldekoa zen, ganadua salerosten zuen. Gerra hasita, zaintzaldiak egin zituen kartzelan eta Azpeitiko hainbat sarreratan, armak hartuta. Era berean, Defentsa Batzordearen esanetara, ganadu-trafikoaz arduratu zen. Hainbat hamarkada zeramatzan lanbide horretan. Hori dela eta, Roque Astigarragak (Azpeitiko alkatea), Julian Orbegozok (Azpeitiko Junta Carlistako ordezkariak) eta haren anaia Castok Azpeitiko Guardia Zibilaren aurrean salaketa jarri zuten. 1937ko uztailaren 15ean atxilotu zuten, 59 urte zituela, eta Bizkaitik itzuli ostean (hara ihes egin baitzuen). Ondarretako espetxera eraman zuten, Donostiako epaile militarrek instrukzioa hasten zuten bitartean. Epailearen aurrean egindako adierazpenetan, hiru salatzaileek nahiz Falangeko eta Guardia Zibilaren txostenak adierazitako salaketak berretsi zituzten, baina Batzordearen jardueretan auzipetuak inplikazio txikia izan zutela esan zuten. Are gehiago, Julian Orbegozok nabarmendu zuen preso egon zen bitartean Simonek tratua ona eman ziola. Hori dela eta, epaile instruktoreak erabaki zuen preso emandako denbora nahikoa zigor zela, absolbitzea eta behin betiko aske geratzea proposatu zuen 1938ko apirilean. Abuztuan, zehazki hilaren 16an, 6. *Erregio Militarreko Gerra Ikuskaritzak* txosten judiziala berretsi zuen. 1938ko irailaren 24an aske utzi zuten<sup>503</sup>.

## JUARISTI ZABALETA, VICTORIANO

Victoriano Azpeitian jaio zen 1894an eta armagina zen lanbidez. 1939 hasieran, *Barne Ministerioaren mendeko Segurtasun Nazionalaren Buruzagitzak* Madrilen atxilotu zuen, "matxinadari laguntzearen" ustezko delitua leporatuta. Badirudi bertan ezarrita zuela bizitokia. Apirilean Ronda de Atocha 21. espetxera eraman zuten, eta ekainaren 14an Madrilgo 8. Gerra-kontseilu iraunkorrek 12 urte eta egun 1eko espetxe-aldi txikira zigortu zuten. Zigorren ondoren, 1939ko abuztuaren 28an, Cuellarreko (Segovia) gaztelu-espetxean egon zen preso<sup>504</sup>. Epaia arabera, Victoriano EAJko kide izan zen eta Eusko Gudarostean borondatez sartu zen; han "teniente izatera iritsi zen eta konpainia motorizatu batean ematen zuen zerbitzua".

1940ko ekainaren 19an, *Madrilgo Zigorrek Aztertze Batzorde Probintzialak* 6 urte eta egun 1ez ezarritako zigorra arintzea proposatu zuen. Eskara hori 1943ko uztailaren 27an onartu zuten<sup>505</sup>.

## JUARISTI ZUBILLAGA, AGUSTIN

Azpeitiarra zen eta Bizkaiko Areatzan bizi zen Agustín. Errepublika-garaian, *Euzkadi* egunkariko berriemile eta herri hartako batzokiko idazkari izan zen. Gerra hasi zenean, Areatzako Tokiko Batzordeak Laguntza Sozialeko ordezkari gisa izendatu zuen eta *Guardias Cívicas* delakoetan kabo izan zen. Horrez gain, 1937ko azaroan heriotza-zigorra zigortu zuen gerra-kontseiluaren epaiaren arabera, "euskar milizietarako gazteak errekrutatzea", eta Bizkaiko Gerra Komisariaren arma-bidalketa kudeatu zituen. Zigortu eta hilabetera, Estatu Idazkaritza Nagusiak zigorra aldatu zion "maila baxuagoarekin", hau da, biziarteko atxiloaldiarekin<sup>506</sup>.

El Dueson espetxerata, 1938ko abuztuaren 6an, Puerto de Santa Mariako espetxera eraman zuten. Gerora, 1942ko abenduaren 9an, Sevillako espetxera eraman zuten, eta bertan egon zen 1943an espetxealdi arindua eman zioten arte<sup>507</sup>.

## LANDA SEGUROLA, LEON

Azpeitian jaio zen 1900. urtean. 1937ko abenduan Leon Donostiako Zapatari kartzelan aurkitzen zen espetxerata, Medina del Rioseco-ko (Valladolid) kontzentrazio esparrutik bueltan. Seguraski Leon Eusko Gudarostean aritu izango zen borrokan<sup>508</sup>.

<sup>501</sup> 114845/38 urgentziazko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>502</sup> 3548/40 urgentziazko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>503</sup> 1937 Gobernu-informazioa (AIRMN).

<sup>504</sup> Espetxeko fitxa (AGA).

<sup>505</sup> AGMG (31629).

<sup>506</sup> 1321/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>507</sup> Espetxeko fitxa (AGA).

<sup>508</sup> Aurretiazko eginbideak 1644 (AIRMN).

### LARRAÑAGA ALBIZURI, SABINO

Pilota-munduan "Larrañaga III"<sup>509</sup> izenez ezagututa, Sabino Donostian zen gerra lehertu zenean. Lehen unean bere borondatez sartu zen euskal milizietan, eta gero, Ertzaintzan errolatuta egon zen. 1937 amaieran, itsas zabalean hartu zuten preso, atoiointzi batean Asturia-seko Gijóndik Frantziara zihoanean. Burgosko espetxe probintzialetan espetxerata, probintzia horretako Automobilen Parkean behartutako lanak egin zituen 1937ko irailaren 14an "matxinadarekin bat egitearen" ustezko delituagatik bihurtzeko espetxealdira zigortu zuten arte. Gerra-kontseiluaren epaian, "aurrekariez" gain, automobilen parkean preso egon zen bitartean "Mugimendu Nazionalaren aurkako esaldiak esan zituela, ezkeriarra zela eta egoera gertatuz gero etsaiekin bat egingo zukeela" esan zuela jasotzen da.

1940ko otsailaren 3an, Vadenoceda espetxe nagusira eraman zuten, eta bertan egon zen 1941eko maiatzaren 8an baldintzapeko askatasunean jarri zuten arte. Hilabete lehenago, zehazki apirilaren 24an, *Burgosko Zigorak Aztertze Batzorde Probintzialak* zigorra 8 urteko espetxealdiarekin arindu zion<sup>510</sup>.

### LARRAÑAGA OLARTE, PIO

Pio zurgina zen lanbidez eta abertzaleen aldekoa zen. Gerra hasi zenean, zaintzaldiak egin zituen "soldata ez galtzeko". Bilbora ihes egin ostean, *Acha y Zubizarreta* enpresan hasi zen lanean kamainak egiten eta lubakiak eraikitzen, bere kinta mobilizatu zuten arte. Orduan, *Bilbon Eusko Gudarosteko Lotura eta Transmisioen* zerbitzura bideratu zuten, eta bertan atxilotu zuten altxatutako tropak sartu zirenean.

Instrukzioak iraun bitartean Ondarretan espetxerata, 1938ko apirilaren 21ean Donostiako 14. epaitegi militar iraunkorrek San Pedro de Cardeñako (Burgos) kontzentrazio-esparrura bidaltzea erabaki zuen<sup>511</sup>.

### LARRAÑAGA USABIAGA, INOCENCIO

Inocencioren lehen aipamena 1933koa da. 1901ean jaioa eta *Lagun-Onak* kirol-klubeko presidentea errepublika-garaian, Inocencio "Elizbarrutiko Agintaritzak" Loiolako San Ignazioren ohorez 1933ko abuztuaren 1eko ekitaldi erlijiosoan *Iñaki Deuna* ereserkia abesteko jarritako debekuaren aurkako protesta baten bultzatzaile nagusia izan zen. Protestarekin bat egin zezan Inocenciok Azpeitiko Udalera bidali zuen idatziaren arabera, salatutako gertakaria "gure euskal hizkuntza nazionalarekiko begirunerik ez izatea" zen. Abuztuaren 8ko saioan, udal-korporazioak protestarekin bat egitea erabaki zuen eta alkatea izendatu zuen "Elizbarrutiko Agintaritzari" kexa entregatuko zion batzordeko kide<sup>512</sup>.

1936ko abuzturako Inocenciok armak hartuta zaintzaldiak eginak zituen Azpeitian, eta gero Bilbora ihes egin zuen. Bizkaiko hiriburuan Ertzaintzaren gorputz motorizatuan sartu zen, eta bertan errolatuta egon zen Kantabriar 1937ko abuztuan atxilotu zuten arte. Santoñaiko plazan gerra-kontseiluan epaituta, 1937ko irailaren 6an 12 urte eta egun 1eko espetxealdira zigortu zuten "matxinadari laguntzearen" ustezko delituagatik<sup>513</sup>. 1938ko abuztuaren 24an El Due-soko espetxetik Puerto de Santa Mariakora eraman zuten, eta handik Sevillakora abenduan. 1940ko apirilaren 15ean, Sevillako Dos Hermanas herriko langileen batailoira eraman zuten, eta han egon zen urte horretako irailean baldintzapeko askatasuna lortu arte<sup>514</sup>.

Apellidos LARRAÑAGA USABIAGA Nombre INOCENCIO

Conocido por ..... Prisión de CENTRAL PUERTO SANTA MARIA

Se halla a disposición de la Jefatura del Servicio Nacional de Prisiones para cumplir condena impuesta por Consejo de Guerra celebrado en SANTO A

Nombre del padre Pedro

Nombre de la madre Matea

Nombre del cónyuge soltero

Edad 37 Naturaleza Azpeitia

Partido de id. Provincia de Guipúzcoa

Vecindad Azpeitia Provincia id.

Domicilio ARANA Profesión tallista

Delito auxilio a la rebelión

Ingresó en 24 de agosto de 1938

Procedente de la Colonia del Dueso

Condenado por sentencia de 11 de Septiembre de 1937 a la pena de 12 años y 1 día R. Tema

EL DIRECTOR,

Sello del Juzgado

SERVICIO NACIONAL DE PRISIONES REGISTRO-INDICE DE LA PRISION RECLUSA del Registro - 5 NOV. 1938 VITORIA

(1) O indicar si es preventivo.

202 - Inocencio Larrañagaren espetxe fitxa. (AGA).

### LARREA LARRAÑAGA, SEBASTIAN

Sebastianek Urolako tren-konpainian lan egin zuen, ibilbideko laguntzaile aritu zen 1936ko irailera arte. Azpeitian bizi zen errepublika-garaian, eta 1936ko abuztutik aurrera Zumaian zaintzaldiak egin zituen armak hartuta. Jatorriz ziurrenik zumaiarra izango zen. "Matxinadari laguntzearen" ustezko delituagatik 12 urte eta egun 1eko zigorra jarri zion epaiaren arabera, Sebastianek ideologia "separatista" zuen eta aipatutako zaintzaldien bidez "Movimiento Nacional" zeritzonaren aldeko pertsonak zaintzen zituen<sup>515</sup>. Horrez gain, Sebastian Urolako tren-konpainian zuen lanetik kaleratu egin zuten "lanpostua uzteagatik" 1936ko irailaren 20an<sup>516</sup>.

<sup>509</sup> Bombín, L.: *Historia, Ciencia y Código del juego de Pelota*. (1946).

<sup>510</sup> AGMG (5725).

<sup>511</sup> 421/38 Gobernu-informazioa (AIRMN).

<sup>512</sup> AUA (Sig. 275-01; Kod. 12).

<sup>513</sup> 6/37 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>514</sup> Espetxe fitxa (AGA).

<sup>515</sup> 388/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>516</sup> OLAIZOLA ELORDI, J.: 1936. *Represión y reconversión. El ferrocarril del Urola*. (2009).

### LAZCANO URCELAY, JULIAN

Oñatin jaioa, Julian Azpeitian bizi izan zen errepublika-garaian, baina zarauztarra zen. Urolako tren-konpainian zuen lanagatik jarri zen bizitzen Azpeitian. Konpainian interbentzio eta estatistika arduradun izan zen. 1934ko urrian, sortu berri zen Azpeitiko "Sindicato Católico de Oficios Varios"-eko lehenengo zuzendaritza juntako kidea zen. 1936ko irailaren 20an, Azpeititik ihes egin eta hurrengo egunean, konpainiatik kanporatu zuten "lanpostua uzateagatik"<sup>517</sup>.

1937ko abuztuan Kantabriar atxilotu zuten eta gerra-kontseiluan epaitu Santoñako plazan. Urte horretako irailaren 7ko epaiaren arabera, Julian "batailoi gorri" bateko komisario politikoa eta "garraioen arduraduna" izan zen. Arrazoi horiengatik heriotza-zigorra jaso zuen, baina Estatu Idazkaritza Nagusiak zigorra arindu zion "maila baxuagoarekin", hau da, biziarteko atxiloaldiarekin. Gerora Eskolapioen espetxera eraman zuten, eta 1938ko uztailean, Burgosko espetxe nagusira<sup>518</sup>.

1939ko abuztuan, Burgosko espetxean zegoela, Bilboko aldi baterako 1. Epaitegi militarrek alde aurretiko eginbideak hasi zituen Julianen eta beste preso batzuen aurka, trukatu ahal izateko atzerriko billeteak eta Eusko Jaurlaritzakoak ezkutatu izana leporatuta. Gertakariak 1938ko maiatzaren 2an gertatu ziren, auzipetuak Eskolapioetan preso zeudenean, eta espetxeko funtzionario batzuek presoek miaketa egin zieten. Prozedura berri hori hainbat urtez luzatu zen, eta instrukzio fasea amaitu aurretik ere Juliani espetxealdi arindua eman zioten 1943an, eta orduan Madril jarri zen bizitzen. 1944ko abenduaren 1ean, Bilboko epaitegi militarrek hala eskatuta, Julian atxilotu eta Bilboko espetxe probintzialera eraman zuten, gerra-kontseiluan epaitzeko zain. Handik bi hilabetera, zehazki 1945eko otsailaren 24an, epaitegiak epaia eman zuen eta auzipetu guztiak absoltu zituen. Beraz, Julian zaintzapeko askatasunean geratu zen berriz<sup>519</sup>.

### LEHUGA BASTARRARENA, MANUEL

1910ean Donostian jaioa, Azpeitian bizi zen Manuel. Urolako tren-konpainian lan egin zuen gerra hasi arte. UGTko afiliatua, "Tokiko Gerra Batzordeko" kide izendatu zuten, eta justizia militar frankistak "ideologia komunista argia" zuen pertsonatza zuten. Azpeititik ihes egin ostean, MAOC batailoi komunistan errolatuta geratu zen 1937 erdialdean atxilotu zuten arte. Ondarretako espetxera eraman zuten eta 1938ko apirilean, haren prozeduraz arduratzen zen epaile militar instruktoreak auzia zehaztea agindu zuen, beraz, beste prozedura sumarisimo batean ikertzea pasatu zen<sup>520</sup>. Era berean, Manuel Vadenocedako (Burgos) espetxera eraman zuten, eta bertan egon zen 1941eko uztailearen 23an 20 urte eta egun 1eko zigorra jaso eta pixka batera arte<sup>521</sup>. Epaiaren arabera, gerra-kontseiluak uste izan zuen Manuel "matxinadarekin bat egin" izanaren delituaren erantzule zela Azpeitiko Defentsa Batzordean parte hartu zuelako, eta Azpeititik ihes egin aurretik Urolako trenbideko zentral elektrikoa boikoteatzeko saiakera zela eta.

1942ko uztailearen 5ean berriz ere Ondarretako espetxean sartu zuten, eta bertan egon zen 1944ko urtarrilaren 31ra arte, aske utzi zuten arte. Hala ere, jarri zioten zigorra zela eta, exiliatu egin behar izan zuen eta Durangon jarri zen bizitzen<sup>522</sup>.

### MARCO ZABALETA, VICTOR

Victor jatorriz azpeitiarra zen eta Donostian bizi zen. Lanbidez gidaria eta UGTko militantea, Fronte Popularraren esanetara jarri zen gerra hasi zenean. Zaintzaldiak egin zituen armak hartuta eta Gipuzkoako hiriburutik ateratzen eta bertara sartzen ziren "bidaariaren dokumentazioa aztertzen" aritu zen. Gerora, baliteke Bizkaira ihes egin izana eta Eusko Gudarostearen zerbitzuren batean aritu izana, baina ez dago ziurtagirik. Edozein kasutan, 1937 erdialdean preso zegoen Bilbon, eta bertan epaitu zuten gerra-kontseiluan. 1937ko irailaren 3an 12 urte eta egun 1eko espetxealdira zigortu zuten<sup>523</sup>, "matxinadari laguntzearen" ustezko delituagatik. 1938ko abuztuan Burgosko espetxe nagusira eraman zuten. Urte horretako azaroan, Astorgako espetxera eraman zuten, eta bertan egon zen 1940ko uztailearen 8an espetxealdi arindua lortu zuen arte, zigorra 2 urteko espetxealdi txikira murriztu baitzioten<sup>524</sup>.

### MARTINEZ ARCOLAIZ, MANUEL

1914an jaioa eta Azpeitiko bizilaguna. 1939an Donostiako 11. epaitegi militarrek Manuelen aurkako prozedimendu sumarisimo ordinariora zabaldu zuen, instrukzio garaian akusatua leku ezezagunean aurkitzen zelarik. 1940ko irailaren 6an epaile militar instruktoreak Manuel erre-beldian deklaratu zuen, kausa artxibatuta geratu zelarik bera topatu arte<sup>525</sup>. Seguraski, Azpeitiko Komandantziaren agindupean aritu zen 1936ko udan.

### MORAL LEDESMA, JOSE MARIA

Ziurrenik Jose Maria, Avelino eta Leandro anaien bezalaxe (Avelino frontean hil zen), gerran miliziano gisa UHP batailoi sozialistan sartuta parte hartuko zuen. Edonola ere, egiaztatuta dagoen gauza bakarra da 1937ko irailerako Donostiako Ondarretako espetxean zegoela preso. Handik urtebetera, urriaren 5ean, Jose Maria Donostiako 4. epaitegi militar iraunkorrak urgentziazko prozedura sumarisimo bidez auzipetu zuen.

1938ko maiatzaren 7an auzia behin-behinean artxibatzea erabaki zuten, "egotzitako gertaerak zigortzekoak ez zirelako". Hala ere "B atalean" sailkatu zuten eta langileen batailoira bidali zuten<sup>526</sup>.

<sup>517</sup> *Ibid.*

<sup>518</sup> 5/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>519</sup> 17642/38 urgentziazko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>520</sup> 2228/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>521</sup> *Espetxeko fitxa (AGA).*

<sup>522</sup> 15752/39 urgentziazko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>523</sup> AGMG (Esp. 55134).

<sup>524</sup> *Espetxeko fitxa (AGA).*

<sup>525</sup> 3507/39 ohiko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>526</sup> 1825/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

## MORAL REQUETA, AVELINO


Avelino 1879an jaio zen San Asensio herrian (Errioxa). Lanbidez merkataria, 1922an iritsi zen Azpeitira eta La Cepa izeneko taberna zabaldu zuen. Errepublikara buruzagi ezkerriar nabarmena izan zen, *Circulo Republicano* delakoaren kide eta *Izquierda Republicana* alderdiko presidente 1934an. 1936ko irailean, altxatutako tropak berehala sartuko zirela eta, Avelinok Bilbora ihes egin zuen, eta bertatik Vicente Guiberti gutuna zuzendu zion, bere etxea eta negozioa konfiskatzea baimendu izana aurpegiaratu. Gutun hori gerora Avelinoren aurkako urgentziatzko prozedura sumarisimoan erabili zen, ustez hitzez hitz honako hau esaten baitzuen: "edozein modutan eta edonon elkar ikusi behar dugu". 1937ko ekainean, Kantabriako Astillero udalerrira joan zen, eta bertan lortu zuen tokiko Falangeren buruzagiak igarobaimena egitea, eta horri esker jaioterrira itzuli ahal izan zen.

1937ko irailaren 2an San Asensioko Guardia Zibilak atxilotu egin zuen "ordena politiko eta sozialean pertsona hori nolakoa zen ikertzeko asmoz", itxuraz dirua baitzeraman gainean. Ikerketetan, postuko komandanteak San Asensioko hiru biztanleren testigantza lortu zuen "muturreko ideiak" zituela esateko eta Avelino herrira etorri zen egunen batean "gora Errusia" oihu egin zuela. Era berean, Azpeitiko Falangek eta Guardia Zibilak laster lagundu zuten ikerketetan eta hilaren 6an bakoitzak bere txostena bidali zuen. Horietan, Avelino "pertsona oso arriskutsua" eta "gazteria pozoitzen" zuena zela esan zuten, eta horixe zen "ideia iraultzaileen benetako fokua". Horrez gain, eskuindar batzuei armak kendu eta "jendaila marxistaren" artean banatu izana, eta Defentsa Batzordeko kide izatea leporatzen zien.

Hori guztia dela eta, urrian Ondarretako espetxera eraman zuten eta bertan San Asensioko Guardia Zibilaren aurrean egindako aitortpen bera berretsi zuen. Bietan, beraz, onartzen zuen *Circulo Republicano* delakoaren kide izatea, baina ukatu egiten zuen haren sortzaile izatea, baita Defentsa Batzordean egon izana ere. Era berean, zeraman dirua egindako lanaren fruitua zela aitortu zuen, eta Vicente Guiberti idatzitako gutuna kexa bat besterik ez zela, ez mehatxua. Baina ordutik eta 1938 erdialdera arte, Donostiako epaitegi militarera Azpeitiko Udalak eta Falangek proposatutako hainbat lekukoren testigantzak iritsi ziren, eta horien arabera, aurretik egindako salaketak berresten ziren. Zehazki, Pedro Segurola Querejeta (udaltzaingoaren burua), Casto Orbegozo eta Galo Barrera izan ziren La Cepa taberna ezkerriarren fokua zela esan zutenak, eta 1936ko uztailaren Eibartik ekarritako armak banatzeko erabili zutela, eta Batzordeko kide izanda edo milizia antifaxistak antolatuta, Avelino "Azpeitian gorrien agintaldian gertatutakoaren erantzule nagusietako bat" zela esan zuten. Bestalde, Vicente Guibertek, ustez Avelinok gutunean mehatxu egin zionak, aitortu zuen "auzipetuaz iritzi ona zuela arlo pertsonalean, eta ezin zuela ez aldekorik, ez kontrakorik esan haren arlo politikoaz".

1938ko uztailaren 29an, Avelinok beriz deklaratu zuen hirugarren aldiz Ondarretako espetxetik. Kasu honetan argudio berriak eman zituen. Alde batetik esan zuen "euskal nazionalistek boikotatu egin zutelako soilik sartu zela alderdi errepublikano batean"; izan ere, ez zituen batera begiko. Bestalde, esan zuen Paulino Uzcudunen bizitza salbatzeko esku hartu zuela, eta auzipetuaren arabera, Vicente Guibert eta Pascasio Carasusanekek berrets zezaketen hori. Baina haietako inork ez zuen testigantza hori berretsi.

Azkenik, 1938ko abenduaren 1ean, gerra-kontseiluak baliozkotzat eman zituen Avelinoren aurka erabilitako argudioak, horretarako, Defentsa Batzordeko kide izanaren inguruan frogarik ez egotea soilik nabarmendu zuen. Beraz, 30 urteko espetxealdi handira zigortu zuten, "matxinada militarren" ustezko delitu bategatik<sup>527</sup>.



203 - Avelino Moral Requetari buruzko dokumentua. (AIRMN).

## MUGURUZA ORBEGOZO, JUAN

Juan, Avelino Moral bezalaxe, errepublika-garaian Azpeitiko Izquierda Republicana alderdiko militante izan zen. Hargina lanbidez, gerra hasi zenean babeslekuak eraikitzen aritu zen, eta Mandubiko eremuan hainbat biaduktu leherrarazten parte hartu zuen. Gero Bilbora ihes egin zuen, eta bertan ingeniarien 1. batailoian errolatuta geratu zen sarjentu gisa eta defentsa-sistemak eraikitzen aritu zen. Azkenik, 1937ko abuztuaren Santoñan harrapatu zuten. El Duesoko kartzelan espetxeratu zuten, eta gerra-kontseiluan prozesatu irailean, beste bost lagunekin batera. Instrukzioaren zati gisa Azpeitiko Udalaren txostena gehitu zuten; bertan, Juan UGTko afiliatua zela, eskuindar batzuei konfiskatzeak egin zizkiela eta "zubi eta errepedeak leherrarazi eta kalte handiak sortu zituen taldeko burua" zela leporatu zien. Hiru kasu horiek ukatu egin zituen auzipetuak deklarazioan. Baina epaitegi militarrek baliozkotasuna eman zuten, eta 1937ko irailaren 10ean heriotza-zigorra jarri zioten auzipetuak beste birekin batera.

Ezarritako zigorra Gerra Ikuskaritzak berretsi zuen arren, Estatu Idazkaritza Nagusiak zigorra arindu zion "maila baxuagoarekin" 1938ko otsailaren 24an. Beraz, 30 urteko espetxealdira zigortuta geratu zen. 1943ko apirilaren zigorra berriz arindu egin zioten, 20 urteko espetxealdira, baina urte horretako abuztuaren 8an baldintzapeko askatasuna eman zioten. Espetxetik atera ostean, lehenengo Zarautzen jarri zen bizitzen, gero Erreterian, eta azkenik, Tolosan<sup>528</sup>. Azpeitian, jabetzan zuen ondasuna "eliza kaleko 22. etxeko lehen pisua eta behe-solairuaren, ganbararen eta etxeko zati komunen" zati zatiezina askatu aurretik konfiskatu zizkioten<sup>529</sup>.

<sup>527</sup> 2357/38 urgentziatzko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>528</sup> 125/37 urgentziatzko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>529</sup> AGA (Justizia atala; esp: n.c.).

## NAZABAL CARPENTIER, JOSE

Eskribaua lanbidez, Jose EAJN afiliatuta egon zen errepublika-garaian. Gerra hasi ostean, Ogasun Batzordeko kide eta Garraio Sekzioko kide izatera pasatu zen. Azpeititik atera zenean *Amayur*<sup>530</sup> batailoian errolatuta geratu zen, eta bertan ibili zen transmisio militarren zerbitzuan, 1936ko abuztuan Laredon harrapatu zuten arte.

Ondarretako espetxera eraman eta gerra-kontseiluan auzipetu zuten 1937 amaieran. Azpeitiko tokiko agintariek eta bizilagun batzuek emandako txostenen arabera, Josek eskuindarrei egindako hainbat konfiskatze eta isunetan hartu zuen parte. Garaikur gisa eraildako bi erreketarenak izan zitezkeen bi txapel gorri erakutsi izana leporatu zioten, baina ikerketa judizialek ezin izan zuten gertakari hori egiaztatu. Eskuineko presoekin zuen jokabideari dagokionez, epaimahaia erabaki zuen "zalantzazkoa zela", izan ere, "lekuko batzuek askatasuna eman izana esaten zuten bitartean, beste batzuek esaten zuten Batzordeak herria ebakuatzean Bilbora bideratzea proposatu zuela".

Edonola ere, Jose 30 urteko espetxealdira zigortu zuten 1938ko uztailaren 21ean "matxinada militarren" ustezko delituagatik<sup>531</sup>. Handik urtebetera, Ondarretako espetxetik deklaratu zuen lekuko gisa Avelino Moralen aurkako auzian, eta Azpeitiko Defentsa Batzordean izan zezakeen erantzukizun orotatik errugabetu zuen<sup>532</sup>.

1938ko azaroaren 29an Burgosko espetxe nagusira eraman zuten, eta bertan egon zen 1941eko apirilaren 4an baldintzapeko askatasuna eman zioten arte. Askatu zutenean, Arrasaten jarri zen bizitzen<sup>533</sup>.



204 - Jose Nazabal Carpentier.  
(Koro Nazabal Arrietak utzitako irudia).

## ODRIOZOLA AGUIRRE, FERNANDO

Odria auzoko Oielantzun baserrikoa eta zurgina lanbidez, Fernandok ideologia nazionalista zuen. Azpeitia erori ondoren, Eusko Gudarosteko batailoiren batean errolatu zen, ziurrenik ANV-EAeko *Euzko Indarra* batailoian, Felix anaia bezala<sup>534</sup>.

Gerora tropa frankistek harrapatu zuten eta Eskolapioen espetxean izan zuten preso. 1938ko urtarrilaren 11n, Bilbon egindako gerra-kontseiluan 30 urteko espetxealdira zigortu zuten "matxinadari laguntzearen" ustezko delituagatik, ontzat eman baitzituzten Fernando Azpeitian nazionalismoaren "pertsona garrantzitsu gisa" identifikatzen zuten eta hainbat konfiskatzeetan parte hartu zuela zioten salaketak. Era berean, Nazario Sorazu Aizpitarte, Oinatz auzoko Murgil baserrikoa eta gero *San Ignacio* Tertioko erreketean errolatuta Asturiasko fronteian hil zena, atxilotzean parte hartu izana leporatu zioten<sup>535</sup>.

1941eko apirilean, Fernando Alcalá de Henareseko (Madril) Espetxe Tailerretara eraman zuten, eta bertan egon zen 1942ko abuztuaren 8an baldintzapeko askatasuna eman zioten arte<sup>536</sup>.

## ODRIOZOLA ALBERDI, JOSE IGNACIO

Odria auzoko Garatxabal baserrikoa, Ignacio borondatez errolatu zen Loyola batailoian, eta hainbat frontetan aritu zen 1937ko abuztuan Kantabriako Limpias herrian atxilotu zuten arte. Lehen unean Castro Urdialesen espetxeratu zuten, eta gerora Santoñara eraman zuten. 1937ko urrian lehen aldiz gerra-kontseiluan epaitu zuten, eta auzia artxibatzea eta Ignacio Miranda Ebroko kontzentrazio-esparrura bidaltzea erabaki zuten<sup>537</sup>. Handik pixka batera, Lizarrako 64. langileen batailoian zegoen, une hartan Oteizan, baina 1938 hasieran Zestoara joateko agindua jaso zuen San Ignacio Tertiokoan sartzeko.

Teruelgo frontera bidalita, 1938ko martxoaren 2an izandako gertakari baten harira bigarren aldiz gerra-kontseiluan epaitu zuten, oraingoan beste hiru azpeitiarrekin batera: Lucas Manuel Orbegozo Orbegozo, Ignacio Zubimendi Olaizola eta Tomas Odriozola Echeverria. Itxuraz, martxoaren 2 hartako goizaldera, lau gizon horiek, Ignacioren anaia Jose Ramonekin (aparteko prozeduran auzipetua) eta inputatu gabeko seigarren azpeitiarrekin (Antonio Orbegozo Arzuaga) batera, Villa Felisan zeudela, baserri batera hurbildu ziren oiloak hartzeko asmoz. Antonio Orbegozo zaintza egiten geratu zen baserriatik 20 bat metrora, eta besteak etxera hurbildu zirenean atxilotu zituzten.

ALCALDIA DE LA M. N. y L. VILLA de AZPEITIA

Nombre de *Jose Ignacio Odriozola Alberdi* R. a. y. m. de la villa de Nájera del 23 de Sep. 1934

Antes del Glorioso Movimiento Nacional

afiliación política *Ideología Separatista*

id. sindical

religión *Muy buena* ideas religiosas *católicas*

precedentes de la familia *Muy buena, conducta y moral*

Despues del Movimiento Nacional

afiliación política

id. sindical

Posición económica

Situación *Fue militancia armado, haciendo guardia. Hizo el campo rojo. Fue enviado al Puesto de San Juan de los Rios. A últimos del mes de Octubre de 1937, en el Puesto de Sarrat, en las posesiones de Villa Felisa, desertar, pasando al enemigo, según testimonio del Comandante Juan Prada. Después de la 1937, José Lacortza, vecino de Recente - Puesto Martínez, Guardia y el Regimiento José Rodríguez, de Paredes, Luis Aguirre, Encarnación y Antonio Orbeaga, Huesca.*

Azpeitia 23 de Septiembre 1937

205 - Jose Odriozolari buruzko dokumentua.  
(AIRMN).

<sup>530</sup> EGAÑA, I. (Zuz.): 1936, *Guerra Civil en Euskal Herria* (2004).

<sup>531</sup> 1622/37 (AIRMN) urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>532</sup> 2357/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>533</sup> Espetxeeko fitxa (AGA).

<sup>534</sup> EGAÑA, I. (Zuz.): 1936, *Guerra Civil en Euskal Herria* (2004).

<sup>535</sup> 2357/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>536</sup> Espetxeeko fitxa (AGA).

<sup>537</sup> 990/37 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

Lehen unetik desertatu izana salatu zieten "etsaiaren aldera pasatuta"; izan ere, haien kokapena 1 km ingurura zegoen, eta haiekin borrokatu zuten gerraren amaierara arte. Hori dela eta, 1939ko maiatzaren amaieran, Azpeitiko Guardia Zibilak atxilotu eta galdekatu zituen, Falangek eta Azpeitiko alkatetzak Ignacioren eta gainerakoek aurkako txostenak egiten zituzten bitartean, "nazionalistak" zirela leporatuta eta ihesa frogatuztat emanik "Espainiaren traizio eta azpikeriako izaera" zuelako. Urriaren Ondarretako espetxera eraman zituzten. 1940ko otsaila eta martxo artean, tertzio berean zeuden Azpeitiko herritar ugari galdekatu zituzten Donostian, eta guztiak aitortu zuten auzipetuek agian "ideia nazionalistak" izango zituztela, baina ez zutela haien jarreran ezer ikusi "Causa Nacional" delakoaren aurka-koak zirela pentsatzeko". Edozein kasutan, zaintzen geratutako Antonio Orbegozorena izan zen aitorten nagusia. Haren arabera, ordu eta erdi zeraman postuan itzultzea erabaki zuenean, kideen berririk ez zuelako, eta tarte horretan ez zuen ezer susmagaririk ikusi edo entzun. Hori dela eta, ihes egin zutela pentsatu zuen.

1940ko martxoaren 5ean gaztelaniazko interprete batekin egin zuen aitortpena berriz, sumario bereko beste azpeitiar batzuek bezala. Aitorten horretan berriz esan zuen hogeit hamar miliziano bidea moztu zirela eta "baserrira iritsi baino lehentxeago, estalpe batetik gorriak atera zirela, armak kendu" eta preso hartu zituztela. Maiatzaren 9an Ignaciok hirugarren eta azken aitortpena egin zuen 1939ko maiatzaren Azpeitian atxilotu arte, baina beste urtebete gehiago egin zuen preso, gerra-kontseiluak epaia eman arte. 1941eko maiatzaren 1ean, epaitegi militarrek esan zuen laurak "ideologia separatista" zutela, baina "jokabide ona", eta ontzat ematen zuen harrapatzearen bertsioa. Hori dela eta, Ignacio eta gainerako auzipetuak absolbitu eta aske utzi zituzten<sup>538</sup>.

### ODRIOZOLA ALBERDI, JOSE RAMON

1936tik aurrera Jose Ramonen istorioa anaia Ignaciorenaren ia berdina da (Ignacio hiru urte zaharragoa zen), baina Jose Ramonen amaiera tragikoagoa izan zen. *Loyola* batailoiko gudaria, hainbat gerra-frontetan parte hartu zuen "Ipar Frontean", Laredon 1937ko abuztuan atxilotu zuten arte. Ziurrenik Miranda Ebroko Presoak Saillkatzeko Batzordeak gerrako gatibu gisa saillkatuta, Lizarrako 64. langileen batailoira bidali zuten. Batailoi horretatik Jose Ramon, Ignacio eta gainerako auzipetuak atera ziren *San Ignacio* tertzioaren erroldatzeko 1938 hasieran.

Urte horretako martxoaren 2an Teruelgo frontean Villa Felisaren posizioaren gertaera izan zen, beraz, Jose Ramon eta beste 4 azpeitiarrak berriz ere frankisten aurkako bandoan erroldatuta geratu ziren, eta gero gerra-kontseiluan epaitu zituzten. Hala ere, gainerakoak ez bezala, Jose Ramon aparteko prozedura summarisimo batean auzipetu zuten, eta haren ondorioz, 1940ko abuztuaren 9an atxiloaldi handiko 30 urteko espetxe-zigorra zigortu zuten. Anaia Ignacio eta gainerako auzipetuak epaitu zituzten gerra-kontseiluak uste izan zuen indar errepublikarrek hartu zituztela; aldiz, Jose Ramonen aurka egindako kondena-epaian zehazten zen "etsaiaren" aldera pasatu izana bere borondatez gertatu zela.

Beraz, Jose Ramon Ondarretan espetxerata egon zen 1938 amaieratik, eta istorio honen protagonista ziren 5 azpeitiarretatik zigorra jaso zuen bakarra izan zen. Zigorren ondoren, Erreterian langileen batailoi batean egon zen preso 11 hilabetez<sup>539</sup>.



206 - Jose Ramon Odriozola Alberdi.  
(Kontxi eta Miren Odriozola Uzkudunek utzitako argazkia).

### ODRIOZOLA ECHEVERRIA, JOSE CRUZ

Aratz-Erreka auzoko Malkorre baserrikoa, Jose Cruz lanbidez zurgina zen eta ELA sindikatuan afiliatuta zegoen. Gerra hasi zenean, zaintzaldiak egin zituen eta gauzain gisa jardun zuen. Gerora Bilbora ihes egin zuen eta han, bere kinta deitu zutenean, ingeniarien 11. batailoian sartu zen. Balmasedan 1937ko ekainaren 29an harrapatu zuten arte, batailoiarekin lubakiak egiten aritu zen. Miranda Ebroko kontzentrazio-esparrura eraman zuten eta han "A atalean" saillkatu zuten. Ondarretako espetxera eraman zuten arte preso izan zuten bertan.

1938 hasieran, Donostiako auzitegi militar batean urgentziako prozedura summarisimo bidez epaitu zuten. Sindikatuko militantiari eta frontean egindakoari erreferentzia egiteaz gain, 1939ko azaroaren 22ko epaiak ontzat ematen zituen Elosiaga auzoko Aritzaga baserrian txahal batzuk konfiskatzen izan zela zioten salaketak. Hala ere, auzitegiak uste izan zuen Jose Cruz ez zela pertsona garrantzitsua izan, ez "gorrien nagusitasun"-garaian, ez frontean egindako jardunagatik, beraz, absolbitzea eta "B atalean" saillkatzea agindu zuen. Hori dela eta, kontzentrazio-esparrura itzuli eta langileen batailoian sartu zen<sup>540</sup>.

### ODRIOZOLA ECHEVERRIA, TOMAS "MALKORTXO"

Lanbidez saskigilea, Aratz-Erreka auzoko bizilagun honek Bilbora ihes egin zuen Jose Cruz anaiarekin batera 1936ko irailaren erdialdera. Aurretik ez zuen Defentsa Batzordearen alde jarduerarik egin. 1937ko martxoan bere kinta mobilizatu zuten eta *Amayur* infanteriako batailoian sartu zen. Bertan ibili zen gudari gisa abuztuan Laredon harrapatu zuten arte. Hilabete batzuetan Castro Urdialeseko kontzentrazio-esparruan eman ostean, Aranda del Dueroan eraman zuten, eta handik, gero Lizarrako 64. langileen batailoira bidali zuten.

1938 hasieran *San Ignacio* tertzioan sartu zen eta Teruelgo frontera bidali zuten. Villa Felisan izandako gertakarietan nahasita geratu zen, eta gertaera haien harira, beste 4 azpeitiarrek batera gerra-kontseiluan epaitu zuten. 1938ko martxoaren 2an, Odriozola Alberdi anaia, Lucas Orbegozo, Ignacio Zubimendi eta Tomas armada errepublikarrek preso hartu zituen utzitako baserri batera zihozenean oilo batzuk lortzeko asmoz. Baina guztiak desertatu izanaz salatu zituzten, eta gero, ordutik eta gerra amaitu arte "etsaiaren armadari" zerbitzua eman izanaz. Hori dela eta, 1939ko maiatzetik aurrera, Tomas eta inplikaturako gainerako azpeitiarren aurkako prozedura summarisimoa abiatu zen. Tomas kasu zehatzean, honela definitu zuen bere burua epailearen aurrean: "katoliko eskuindarra eta euskal nazionalismoaren aldekoa", eta urtebetez soilik egon zela ELAn afiliatuta "nagusiarekin hobeto egoteagatik". Halaber, atxilotutako eta prozesatutako kideak bezalaxe, harrapatu zituzteneko gertakariak kontatu zituen. Horrez gain, Tomasek azaldu zuen harrapatu zutenetik armada errepublikararen hegazkinen aurkako gorputzean sartu zutela, gerra amaitzean Madrilan entregatu arte.

1941eko maiatzaren 1ean, epaitegi militarrek esan zuen Tomasek nahiz gainerako auzipetuek "ideologia separatista" zutela, baina "jokabide ona", eta ontzat ematen zuen harrapatzearen bertsioa. Hori dela eta, auzipetuak absolbitu eta aske utzi zituzten<sup>541</sup>.

<sup>538</sup> 2286/40 urgentziako prozedura summarisimoa (AIRMN).

<sup>539</sup> 2442/39 urgentziako prozedura summarisimoa (AIRMN).

<sup>540</sup> 2678/38 urgentziako prozedura summarisimoa (AIRMN).

<sup>541</sup> 2286/40 urgentziako prozedura summarisimoa (AIRMN).

## ODRIOZOLA MENDIZABAL, JOSEFA

Josefa UHP bataloi sozialistako milizianoa zen Juan Campos Eceizaren emaztea zen. 1937ko irailaren 11an bere etxean atxilotua izan zen, eta Donostiako 4. epaitegi militarrek ikerketa abiarazi zuen, Josefak Frente Popularraren aldeko alderdian egindako ekintzak garbitzeko. Halere 1938ko uztailaren hasieran kargu guztiengatik absoltibua eta aske utzia izan zen, epaile militar inktoreak uste baitzuen Josefak kausa marxistaren alde eginiko kolaborazio txikia bere senararen influentziaren ondorio izan zela, eta ondorioz ez zela delituzat kontsideratzen. Dena dela, Josefak espetxealdi prebentiboan pasa zuen denbora bere aurrekari ezkontiarrentzako nahikoa zigor izan zela kontsideratu zen<sup>542</sup>.

## ODRIOZOLA SEGUROLA, JESUS

Altxamendu militarra hasi ostean, Jesusek zaintzaldiak egin zituen armak hartuta Azpeitiko mendi aldeko hainbat tokitan. 1936ko irailaren 20an Saturraranera eraman zuten, eta gero Gernikara, eta han Itxarkundia batailoian erroldatu zen. Batailo horretan anda-eramaile ibili zen hainbat frontetan (Otxandio, Urkiola edo Artxanda), 1937ko abuztuaren 26an Kantabriako Limpas herrian batailo osoarekin batera atxilotu zuten arte. 40 egun kontzentrazio-esparru batean eman ostean, urtebete inguru egon zen Zaragozako 25. langileen batailoaren bigarren konpainian preso. 1938ko abuztuaren Zaragozako Presoen Batzordeak Azpeitiko Guardia Zibilari Jesusen aurrekariaren informazioa eskatu zion, eta handik egun batzuetara Herenegildo Calvo komandanteak Loiolako kuarteletan bere borondatez izena eman izana "egiazkotzat" ematen duten "zurrumurruek" berri eman zion. Edonola ere, aipatutako Batzordeak Jesus "C atalean" sailkatu zuen. 1939 hasieran, Donostiako 11. epaitegi militarrek aurretiazko eginbideak hasi zituen Jesusen eta beste 11 auzipeturen aurka, eta horregatik Bilboko Eskolapioen espetxera bidali zuten. Hala ere, Azpeitiko Udalaren nahiz Falangeren txostenek ezin izan zituzten Guardia Zibilaren txostenak aipatzen zituen zurrumuru haiek zehaztu. Beraz, 1939ko urriaren 6an espetxealdi arindua eman zioten auzia artxibatatu ostean, eta bizitokia jarritako herriatik ateratzeko debekua jarri zioten. 1939ko irailaren 28tik Ondarretako espetxean egon zen, eta urriaren 14an aske utzi zuten<sup>543</sup>.

## OLAIZOLA ALEGRIA, IMANOL "KONFITES"

1912an jaioa eta Antonio Olaizola Echeverria zinegotzi nazionalistaren semea, Imanolek *Euzkadi* eta *El Día* egunkarietako berriemaile jardun zuen (*El Día* egunkarian bere aitak ere idazten zuen), Azpeitiko notaritzan "ofizial" gisa lan egiten zuen bitartean. Horrez gain, euskarara itzulpenak egiten zituen, horien artean nabarmendu beharrekoa delarik 1936ko apirilko Azpeitiko udal-araudiaren itzulpena<sup>544</sup>. Gerra hasitakoan, hainbat zerbitzu egin zituen Defentsa Batzordearen alde, eta irailean Ordena Publikoaren Batzordeko kide izendatu zuten. Gero Azpeititik ihes egin zuen eta miliziano ibili zen *Loyola* batailoian gerrako hainbat frontetan 1937ko abuztuaren Kantabriako Limpas herrian harrapatu zuten arte.

Espetxeratuta, 1938 hasieran Bilboko epaitegi militarrek auzipetu egin zuen, eta 12 urte eta egun 1eko espetxealdira zigortu zuten gerra-kontseiluan, "matxinadari laguntzearen" ustezko delituagatik. 1938ko azaroaren 29ko epaian zehazten zen Ordena Publikoaren Batzordeko kide izan zen garaian "ez zela atxilotzerik egin". 1939ko martxoaren 5ean San Kristobal gotorlekuko espetxera eraman zuten, eta bertan egon zen 1940ko abuztuaren 14an espetxealdi arindua eman zioten arte<sup>545</sup>.




207 - Imanol Olaizola Alegria.  
(Rosario Olaizolak utzitako irudia).

## OLAIZOLA ALEGRIA, MARIA DOLORES "KONFITES"

Maria Dolores Arrieta Zubimendi ahizpekin batera atxilotu zuten 1937ko uztailaren 7an, Azpeitira itzuli ostean. Dolores errepublika-garaian *Emakume* idazkari izan zen, eta 1936ko abuztutik aurrera gudarrien kuarteleko sukaldean arduratu izan zuen. Aurrekari horiek gehitu zitzaizkion Rosario Echevarria Altamira, Ignacia Bereciartua Azpiazu eta Pilar Aguirre Perezek jarritako salaketari, eta ondorioz, atxilotu egin zuten. Haien arabera, Arrieta Zubimendi ahizpak bezalaxe, Dolores ere nazionalista zen nabarmen, etengabe matxinatuen aurkako oihuak egiten zituen eta haien atxiloketan parte hartu zuen. Baina aipatutako ahizpen kasuan bezala, salatzaileek epailearen aurrean aitortu zuten ezin zutelatu Doloreren hain atxiloketan parte hartu zuenik, eta "entzun izan zutelako" esan zutela hori.

Edonola ere, Doloresi beste bi inputazio gehitzen zitzaizkion, salatzaileek egindakoa eta Julian Orbegozok egindakoa. Inputazio horien arabera, Dolores izan zen, Maria Altuna Astigarraga eta Gloria Zabaleta Olazabalekin batera Nuarbeko apaizaren etxean oiloak konfiskatzen parte hartu zutenetako bat. Beste bien aurka eginda bezala, Anastasio Errasti "Atxero" Azpeitiko Defentsa Batzordeko kide zenak (30 urteko espetxealdira kondenatua), auzipetuari egotzi zion nazionalista zela, "nabarmenetakoa", eta hain zuzen ere aipatutako konfiskatzean parte hartu zuela. Era berean, salatzaileek adierazi zuten Doloreren "behartu zituztela milizianoentzako buzoak egitera".

Edonola ere, 1938ko apirilean, epaileak idatzi batean azaltzen zuten Doloreren militantzia politikoa frogatuta bazegoen ere, "herriko hiru margariten atxiloketan parte hartu izanaren salaketa ezerezean geratzen zela funtsik gabea zelako, eta atxiloketak garrantzi txikia zuelako, etxeetan hiru edo bost egun izan baitziren". Hori dela eta, "atxilotuta zeramatzan hamar hilabeteak nahikotzat jo zituen ekintza zigortzeko". Hala ere, Gerra Ikuskaritzak abuztuaren baztertu egin zituen epaile inktorearen oharrak eta Doloreren aurka prozedura sumarisimoa abiatzea erabaki zuen. Hainbat hilabetez instrukzioa egin ostean, 1939ko martxoaren 7an, Dolores urte 1eko espetxealdi txikira zigortu zuten, "altxamendu militarren proposamena" egitearen ustezko delituagatik, *Emakume* idazkaria izatea eta Fronte Popularraren aldeko zerbitzuak egin izana oinarri hartuta. Era berean, 4 hilabetezko atxiloaldia eta 400 pezeta ordaintzeko zigorra jarri zioten, Nuarbeko apaizaren etxean egindako oilo-konfiskatzearen arduradun izan zela uste izan baitzuten<sup>546</sup>.



208 - Maria Dolores Olaizola Alegria.  
(Rosario Olaizolak utzitako irudia).

<sup>542</sup> 1198/37 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>543</sup> 2286/40 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>544</sup> AUA (Sig. 271-01; Kod. 12).

<sup>545</sup> 13408/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>546</sup> 2630/38 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).



**OLOLAIZOLA ECHEVERRIA, ANTONIO "KONFITES"**

Zinegotzi nazionalista, baserriarren hautagaitzaren ordezkaria, batzokiko presidentea eta *El Día* egunkariko berriemailea izan zen. Antonio izan zen, zalantzarik gabe, Azpeitiko euskal nazionalisten artean eragin handienetakoa izan zuenetako bat. Gerra hasi ondoren, 1936ko uztailaren 20tik 26ra bitartean hain zuzen ere, jarduneko alkatea izan zen, eta Gipuzkoako gobernadore zibilaria telegrama bat idatzi eta bidali zion Errepublikarekiko atxikimendua adierazi eta "sediziozko mugimendu" deitu zionaren aurka zegoela adierazteko. Horrez gain, Azpeitiko Defentsa Batzordeko kidea izan zen, eta milizianoentzako prestatutako sukaldeak eta jantokiak izan zituen bere ardurapean.

Altxatutako tropak Azpeitian sartu baino lehentxeago Bilbora egin zuen ihes eta handik Balmasedara. Han harrapatu zuten, 1937ko ekainaren 29an. Logroñora eraman zuten eta urte hartako uztailaren 29an, Presoak Sailkatzeko Batzordeak espetxeratu jarraitu behar zuela erabaki eta auzipetzea proposatu zuen, "orduko Azpeitiko alkateak eginiko akusazioak aintzat hartuta". Hala, Bilboko espetxe probintzialera eraman zuten 1938ko hasieran eta han egon zen gerra-kontseiluak noiz epaituko zain. Azpeitiko Falangek, Guardia Zibilak eta Alkateak Antonioren aurkako txosten bana bidali zuten otsailean eta konfiskatzeetan parte hartzeaz, atxilotetak agintzeaz, batzordearentzako armak entregatzeaz eta Azpeititik joatera behartzeaz akusatu zuten. Antoniok, epaile militarren aurrean deklaratzeko, aitortu zuen Azpeitiko agintari frankisten txostenetan adierazitako karguak bete zituela, baina aipatutako jarduera horiek ez zituela egin esan zuen.

Dena den, 1938ko martxoaren 26an, biziarteko espetxe zigorra ezarri zioten Antonioren "matxinadarekin bat egin" zuelakoan, "debeku zibila eta erabateko gaitasungabetzea ere ezarri zizkieten zigorrari atxikita". Uztailaren 1ean Puerto de Santa Mariako (Cadiz) espetxera eraman zuten eta han eduki zuten preso 1941ean zigorra 6 urte eta egun batera jaitzi eta baldintzapean aske utzi zuten arte. 1946ko uztailaren 14an, idatzi ofizial bat igorri zion *Burgosko Gerra Ikuskaritzako* agintari militarrei, 1945eko urriaren 9ko dekretuaren harira, indultua eskatzeko. 1946ko abuztuaren 9an indultua eman zioten, baina ez zizkieten erabateko gaitasungabetzea eta gainerako zigor atxikiak kendu<sup>547</sup>.



209 - Antonio Olaizola Echeverria.  
(Rosario Olaizolak utzitako irudia).

**OLARTE ALBERDI, JULIAN**

Gerra Zibila hastean, *Loyola* batailoiko *Lartaun 2*. konpainian erroldatuta egon zen Julian. Ez dakigu non harrapatu zuten, ez eta gerrako fronteant ibili ote zen ere, baina 1938ko hasieran, Ondarretako espetxean zegoen, preso. Ondorengo hilabeteetan epaitu egin zuten urgentziatzeko prozesu summarisimo baten bidez. Urte hartako azaroaren 26an, Julianen aurkako gerra kontseiluak hala proposatuta, *Gerrako Ikuskaritzak*, auzia behin-behinean artxibatzea erabaki zuen eta Julian "B atalean" sailkatu eta langileen batailoi batera bidali zuten<sup>548</sup>. Ondoren, 1941eko otsailaren 25ean, 500 pezeta-ko zigor ekonomikoari egin behar izan zion aurre. *Erantzukizun Politikoen Auzitegiak* jarri zion zigor hura<sup>549</sup>.

**OLAZABAL GURRUTXAGA, MANUEL "POTZUTE"**

Elosiaga auzoko Potzueta baserrikoa zen Manuel jatorriz. 1933ko apirilean, Azpeitiko Udaleko zinegotzi aukeratu zuten baserriarren hautagaitza ordezkatzu. 1934ko irailean, gainerako ordezkariekin batean Kontzertu Ekonomikoarekin izandako gatazkaren harira kargua utzi zuen, eta 1936ko otsailean berriro hartu zuen kargu hura eta horretan aritu zen irailean herritik ihes egin zuen arte.

1937ko erdialdean, atxilotu eta Bilboko Eskolapioen espetxera eraman zuten. Gerra kontseiluan epaitu zuten. 1938ko uztailaren 6ko epaiaren arabera, hauxe zen Manuelek eginiko delitua: "kargu publikoan jarraitu zuela matxinatuen agintepean... nahiz eta beste delituri egotzi ez". Horregatik, 6 urte eta egun bateko gaitasungabetze berezia jarri zioten kargu publikoetarako<sup>550</sup>.



210 - Manuel Olazabal Gurruchaga. (Maria Olazabalek utzitako irudia).

**ORBEGOZO EGUILUZ, EUGENIO**

Heriotza zigorrera kondenatutako Azpeitiko bizilaguna. Gerora konmutatu egin zioten<sup>551</sup>.

<sup>547</sup> 2252/37 urgentziatzeko prozedura summarisimoa (AIRMN).

<sup>548</sup> 2925/38 urgentziatzeko prozedura summarisimoa (AIRMN).

<sup>549</sup> AGA Justizia (Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala).


<sup>550</sup> 12663/38 urgentziatzeko prozedura summarisimoa (AIRMN).

<sup>551</sup> AGMG-CCEP, PM.

## ORBEGOZO EMBIL, ALEJANDRO

Espartingile industrialaria zen Alejandro. Alderdi Karlistako militantea izan zen 1931ra arte. Urte hartan, EAJn afiliatu eta sindikuko kargu publikoa hartu zuen Azpeitian, 1931ko apirilean, udalbatza osatu ondoren. Udalbatzako hiru ordezkari nazionalistek bat zen Alejandro eta agintean egon zen bitartean irmo defendatu zituen euskal eskubide historikoak; hau da, 1933ko apirilko udal hauteskundeetara arte. Egindako proposamenen artean nabarmenenak hauek izan ziren: Lizarrako Estatutua babestea, kaleen izenak euskaraz jartzea eta euskal kulturako pertsona garrantzitsuak goraiatzea; hala nola Carmelo Echegaray historialari eta idazlea<sup>552</sup>. Lizarrako Estatutuak porrot egin ondoren, badirudi, Alejandrok utzi egin zuela EAJ eta jarduera politikoa ere bai, "EAJ Gasteizkoa esaten zioten estatutu laiko eta separatista batekin hasi zelako". Erreketek Azpeitia konkistatu eta denbora gutxira, isuna jarri zion Alejandrori Azpeitiko lehen komandante militarrek, Emilio Gómez del Villak, baina haren ondorengoak, Solchaga kapitainak, zigorra baliogabetu zuen. Ondoren, 1938ko erdialdean, Azpeitiko Guardia Zibilak txosten bat bidali zuen Donostiako Ikerketa eta Zaintza Komisariara, Alejandro Orbegozoren aurrekariak xehe azalduz. Era berean, lehen adierazitako isuna eta propaganda egiten ere ibili zela ere aipatzen zituen txostenak: "Espainiaren aurkako propaganda-jarduerak egin zituela eta baserri batetik bestera ere ibili zela Espainia Berriaren sentimendua ordezkatzeko duen guztiaren aurkako gorrotoa sustatzen jarraitzeko". Arrazoi hori zela eta, 1938ko uztailaren 15ean Ondarretako espetxean sartu zuten gerra-kontseiluan "matxinadari laguntzearen" ustezko delituagatik noiz epaituko zain.

Hala ere, epaile militar instruktoreari azalpenak ematean, Alejandrok ukatu egin zituen Guardia Zibilak eginiko akusazioak eta Azpeitiko *Junta de Guerra Carlista* delakoarekin ekonomikoki nola parte hartu zuen azaldu zuen. Junta hartako kideak zituen Castor eta Julian anaiak, baita koinatua ere, Roque Astigarraga alkatea. Anaiak eta koinatua lekuko izan ziren auzian eta berretsi egin zuten auzipetuaren deklarazioa eta delituri ez zuela egin adierazi zuten. Azpeitiko orduko Falangeren buruak, Hilario Bereciartua Urangak, txosten batean adierazi zuen Alejandrok lagundu egin zela "Defentsa Batzordeak jazarritako elementu karlista guztiei". Instrukzio-fasea abian zela, aldi berean, Ondarretako espetxeko erizaintzak adierazi zuen auzipetuak "arthritis deformata" zela eta, hala, 1938ko irailaren 8an, aske utzi zuten, baldintzapean. 1939ko otsailean, Gipuzkoako hainbat udaleritara joateko baimena eskatu zuen, bere negoziariko behar zituen lehengaiak eskuratzeko. Azkenik, 1939ko apirilaren 27an kargu guztietatik absolbitu zuten eta behin betiko aske gelditu zen<sup>553</sup>.




211 - Alejandro Orbegozori buruzko dokumentua. (AIRMN).

## ORBEGOZO GOENAGA, JOSE FRANCISCO

Jose Francisco 1909. urtean jaio zen, eta Aratz Erreka auzoko Uranga baserriko "oriundoa" zen. 1934an Azpeitiko udaletxeak lana eskatzen zuten langileekin eginiko zerrendan aurkitzen zen bere izena. Gerra hasi ondoren berak eginiko ekintzen inguruko daturik ez daukagun arren, 1937ko irailean Miranda de Ebroko kontzentrazio esparruan aurkitzen zen gatibu, ejertzito golpistak atzemandako hamarnaka atxiloturekin batera<sup>554</sup>. Ondorioz probablea da Jose miliziano gisa ibili izana. Kasuak kasu, irailean Bilbora trasladatua izan zen, non bere aurkako urgentziako procedimendu sumarisimo bat ireki zen. Halere, 1938ko irailaren 16an, kasua artxibatua izan zen, Jose hil egin zelako<sup>555</sup>. Seguraski espetxealdi prebentiboan hilko zen.

212 - Jose Francisco Orbegozori buruzko dokumentua. (AIRMN).



<sup>552</sup> AUA (Sig. 274-02; Kod. 12).

<sup>553</sup> 2284/38 urgentziako procedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>554</sup> AGMAV.C. 1252,29.

<sup>555</sup> Procedimiento sumarisimo de urgencia 1195/38 (AIRMN).

**ORBEGOZO MACAZAGA, IGNACIO**

Azpeitiko alde zaharreko bizilaguna zen Ignacio. 1936ko ekainean amaitu zituen medikuntzako ikasketak Salamancan. Alderdi nazionalistako militantea zen eta Azpeitira itzuli eta gerra hasi zenean, Defentsa Batzordeak deitu zion Beasaingo frontera joandako milizianoei laguntzeko. Ondoren, Azpeitia erori ondoren, hainbat sektoretan ibili zen lanean; hala Eibarren, nola Lekeition<sup>556</sup>, eta 1937ko uztailan, *mayor* kargura igo zuen *Eusko Jaurilaritzaren Osasun Militararen Buruzagitza*k. 50. dibisioko osasun arloko buru izan zen ordutik aurrera. Azkenik, urte hartako abuztuaren erdialdean Santoñan harrapatu zuten<sup>557</sup>.

Atxilotu eta El Duesoko kartzelan sartu ondoren, gerra-kontseiluan epaitu zuten Ignacio beste hogeiren bat euskal borrokalarirekin batera. 1937ko irailaren 6an heriotza-zigorra ezarri zioten "matxinada militarra" leporatuta, baina urrian, zigor haren ordeztu "gradu apalagoko" zigorra jarri zion Estatuko Idazkaritza Nagusiak; biziarteko zigorra, alegia<sup>558</sup>. Kondena jaso ondoren, Burgosko espetxe zentralera eraman zuten eta handik Almendralejoko (Extremadura) langileen batailoi batera<sup>559</sup>. Han egon zen 1942ra arte. 1942ko martxoan, Ondarretako espetxera eraman zuten eta berriro auzipetu zuten epaimahai militar batek. Ohiko prozesu summarisimoa izan zen orduko hura, argitu egin nahi baitzuten ea auzipetuak "gorri-separatisten matxinaldi garaian", "zer jokabide politiko-sozial" izan zuten. Hala ere, epaimahai militarrek aitortu zuten auzipetua epaitua zutela lehendik ere ustezko delitu horientatik eta, beraz, 1943ko ekainaren 30ean, auzia artxibatu zuten<sup>560</sup>.

Lehenago, 1943ko urtarrilaren 26an, baldintzapean aske utzi zuten Ignacio<sup>561</sup>.



**213 - Ignacio Orbegozo Macazaga.**  
(Begoña Orbegozok utzitako irudia).


**ORBEGOZO ODRIÓZOLA, JUAN**

1912an jaio zen eta Arzubia kalean bizi zen. Elosiaga auzoko Eizmendi baserrikoa zen jatorriz. *Irrintzi* batailoi nazionalistako gudaria, harrapatu eta Bilboko gerra kontseiluan epaitua izan zen. 1938ko abuztuaren 4ean kasua artxibatzea agindu zen, eta "B atalean" sailkatu zuten, "bere aurrekariak eta gorrien agintean eginiko ekintzetan" oinarrituta. Honek langile batailoi batean sartua izatea suposatu zion. Ondorioz, Cardeñako San Pedro kontzentrazio esparruan atxikia izan zen, 1939ko azaroan Erreterian kokatutako 2. Langile Batailoira lekualdatua izan zen arte. Urte horretako abenduan aske geratu zen Azpeitiko Falangeak aurkeztutako abalari esker<sup>562</sup>.

**ORBEGOZO ORBEGOZO, JOSE BERNABE "OTARTE"**

Belaetxe baserrikoa zen Bernabe jatorriz, eta bera izan zen ezkerreko euskal nazionalismoaren pertsona garrantzitsuenetako bat. Idazlea, Gipuzkoako ANV-EAEko idazkaria eta alderdi horretako *Tierra Vasca* prentsa-organoko kazetaria izan zen *OtarTE*, baita gerra garaiko hizlari euskaldun garrantzitsuenetako bat ere<sup>563</sup>. ANV-EAE Fronte Popularrarekin bat egitearen aldekoa zen eta Gipuzkoako Defentsa Batzordeko Gerra Komisariako kide eta ANV-EAEko Batzorde Nazionalako kide ere izan zen<sup>564</sup>. Ondoren, *Eusko Indarra* batailoiko komandante izan zen 1937ko abuztuan, *Santoñako Ituna* esaten zaion errenditzearen ondoren Kantabrian harrapatu zuten arte. Hori baino egun batzuk lehenago, Gobernazioko komisario izendatua zuen Eusko Jaurilaritzak. Abuztuaren 17an, Indalecio Prieto Defentsa ministroak berari ez eskaera eginda, lehendakariak ebakuatu nahi izan zituen funtzionarioen artean zegoen<sup>565</sup>. Harrapatu ondoren, gerra-kontseiluan epaitu zuten, Santoñan, eta 30 urteko kartzela-zigorra jarri zioten. Ondoren, Larrinagako espetxera eraman zuten eta 1938ko uztailan, berriz, Burgosko espetxera<sup>566</sup>. 1943ko uztailaren 17an utzi zuten aske, baina badirudi bi urtez egon zela Madrilan, ezkutuan bizitzen, erbestera zegoen Eusko Jaurilaritzaren agindupean. Orduan gaixotu zen eta, azkenean, Venezuelara erbesteratu zen Frantziatik.

1952an Euskal Herrira itzuli zen eta Ondarretako espetxean eduki zuten denboraldi batean. Azaroaren 18an utzi zuten aske, baldintzapean. Itzultzea negoziatu arren, beste auzi judizial bat abiarazi zuten Bernaberen aurka, ezkutuan ANV-EAE berriro eratzeko saiakeran parte hartu zuelakoan<sup>567</sup>. Auzipetze hura ez zuten artxibatu, harik eta epaimahai militarrek Bernabe 1953ko urrian Zestoan, uholdeen ondorioz izandako autobus-istripuan hil zela egiaztatu zuten arte<sup>568</sup>.



**214 - Jose Bernabe Orbegozo Orbegozo.**  
(Karmele Orbegozok utzitako irudia).

<sup>556</sup> 4/37 urgentziatzko prozedura summarisimoa (AIRMN).

<sup>557</sup> CDMH (Esp. D-7)

<sup>558</sup> 4/37 urgentziatzko prozedura summarisimoa (AIRMN).

<sup>559</sup> Familiako lekukotza.

<sup>560</sup> 655/43 urgentziatzko prozedura summarisimoa (AIRMN).

<sup>561</sup> Espetxeko fitxa (AGA).

<sup>562</sup> 13694/38 urgentziatzko prozedura summarisimoa (AIRMN). / AGMG (1578)

<sup>563</sup> RENOBALÉS, E.: ANV, el otro nacionalismo. Historia de Acción Nacionalista Vasca. (2005).

<sup>564</sup> URGOITIA BADIOLA, J. A.: Crónica de la Guerra Civil, de 1936-1937, en la Euzkadi peninsular. 5v. (2001).

<sup>565</sup> OLAZABAL ESTECHA, C. M.: Pactos y traiciones. Los Archivos Secretos de la Guerra en Euzkadi. 3V. (2009).

<sup>566</sup> Espetxeko fitxa (AGA).

<sup>567</sup> 3/37 urgentziatzko prozedura summarisimoa (AIRMN).

<sup>568</sup> EGAÑA, I.: Los crímenes de Franco en Euskal Herria, 1936-1940. (2009).

### ORBEGOZO ORBEGOZO, LUCAS MANUEL "BELAETXE"

1913an jaio zen Lucas. 1935ean egin zen ezagun, Azpeitiko zezen-plazan harri-jasotzaile aritu zenean. Horregatik izen-datu zuten agian, zituen gaitasun fisikoengatik, *Euzko Indarra* batailoiko sarjentu zamaltzain 1936ko urrian. Horretan aritu zen 1937an Laredon atxilotu zuten arte. Baliteke lehenago, Azpeitian, Defentsa Batzordearen zerbitzura aritu izana. 1937ko irailean, Miranda Ebroko kontzentrazio-esparrura bidali zuten eta, ondoren, San Juan de Muzarrifarrera (Zaragoza), 25. langileen batailoien bigarren konpainiaren zaintzapean. Aragoi hilabete eta erdi inguru igaro ondoren, Miranda Ebrora bidali zuten berriro eta han, seguru asko, *Presoak Saikatzeko Batzordeak* saikatu egingo zuen 64. langileen batailoira, Lizarrara bidali aurretik.

Ordutik aurrera, Teruelgo frontean izandako Villa Felisako gertaeraren harira epaitutako gainerako kideei lotuta dago Lucasen ibilbidea. *San Ignacio* tertzioan sartu eta 1939ko martxoaren 2an harrapatu zuten tropa errepublikarrek beste lau azpeitiarrekin batera, oilo batzuen bila baseri batera zihoazela. Harrapatu eta gerra amaitu zen arten, armada errepublikararen agindupean aritu zen Lucas, aireko erasoen aurkako 17. brigadan, Valentzian. Azpeitira itzultzean, atxilotu eta herriko kartzelan sartu zuten, gainerako protagonistak bezala, desertzio-delitua egiteagatik salatu baitzuten. 1939ko abenduan, Ondaretako espetxera eraman zuten, gerra-kontseiluan epaitu arte, eta epaiketan, berretsi egin zuen maiatzean Azpeitiko Guardia Zibilaen aurrean eginiko deklarazioa. Nola harrapatu zituzten azaldu zuen, gerraren aurretik ideia nazionalistak izan zituela ukatu gabe. Falangek eta Azpeitiko Alkateak igorritako txostenek nabarmendu zuten, Lucasek, zuen ideologia gorabehera, "oso jokabide ona" zuela.

Azkenean, 1940ko maiatzaren 1ean, auzitegi militarrek erabaki zuen ez zutela desertzio-ekintzarik egin, baizik eta etsaien tropek harrapatu zituztela eta, hala, absolutu eta behin betiko aske utzi zituzten denak<sup>569</sup>.



215 - Lucas Manuel Orbegozo Orbegozo. (Hemendik ateratako argazkia: ELIAS ODRIOZOLA, I.: Azpeitia, 500...: Azpeitiarrak eta herriarekin bat eginak).

### OTAÑO OYARZABAL, MARCELO

Azpeitiarra zen eta Azkoitia bizi zen. *Loyola* batailoiko borrokalaria izan zen Marcelo 1937ko erdialdean Kantabrian harrapatu zuten arte. Urte hartako irailean, Santoñan epaitu zuten urgentziatzeko prozedura sumarisimo bidez, beste hainbat batailo eta jatorritako hogeiren bat borrokalarekin batera. Marcelori dagokionez, gerra-kontseiluak frogatutzat eman zuen gerrako hainbat frontetan ibili zela eta "teniente izendatu zutela". Ez zioten beste "delituri" leporatu.

Horren ondorioz, 1937ko irailaren 30ean, biziarteko espetxe zigorra ezarri zioten "matxinadarekin bat egin" zuelakoan, eta erabateko gaitasungabetzea ere ezarri zioten<sup>570</sup>. El Duesoko espetxean sartu zuten eta han egon zen 1938ko abuztuan Cadizko Puerto de Santa Mariako espetxera eraman zuten arte. Handik bi urtera, 1940ko abuztuaren 20an, espetxealdi arindua ezarri zioten<sup>571</sup>.

### OYARZABAL ABALIA, JOSE MARIA

9 urteko mutikoa zen Jose Maria 1936an gerra lehertu zenean. Handik hamahiru urtera, 1949an, mendiko ehiztarien *Montejurra* 20. batailoian zegoen sartuta. Irailean, desertatzeaz akusatatu zuten eta 1950eko martxoaren 14an, espetxe militarrean urtebeteko kondena jarri zioten. "Diziplina Gorputz batera joatera behartu zuten soldadutzan faltatuko denbora betetzera, askatasuna kentzeko zigorra amaitu ondoren"<sup>572</sup>. Handik hilabete gutxira, urte bereko uztailean, Jose Maria desertatzeaz akusatatu zuten berriro. Ezin izan zuten epaitu, ez baitzekiten non zegoen, eta, beraz, auzi-iheslaritzat hartu zuten<sup>573</sup>.

### QUINTANA LORENZO, MODESTO

Jaiotzez azpeitiarra, Fronte Popularraren gobernuan eta Gerra Zibila hasi ondoren Donostiako Hornidura Departamentuaren menpe aritu zen lanean. Ondoren Bilbora egin zuen ihes, eta El Carmelo presondegian zaindari lanak egin zituen, "espetxe honetako bere jarduerazalantzakoa eta ezezaguna izanik, autoko testigantzen kontraesangatik". Horrela, 1943ko martxoaren 12an uesteko "matxinadari laguntzearen" delituagatik 12 urte eta egun 1eko espetxealdi txikira kondenatua izan zen, gerora 6 urteko espetxealdiagatik kommutatua izan zitzaizolarik. Ordurako Modestok 5 urte baina gehiago zeramatzan espetxeraturik.

### QUINTELA BAEZA, ANTONIO

Madrilgoa zen jaiotzez eta Azpeitian bizi zen 1935etik. Pintorea zen Antonio lanbidez eta UGTko militantea ere bazen. 1934ko iraultza-gertaeren ondoren, Guadalupeko gotorlekuan eduki zuten preso, Hondarribian, hilabete eta erdi, epaitu gabe. Zarautzen bizi zen orduan. Gerra hastean, Azpeitiko Defentsa Batzordearen agindupean egon zen eta zaintza armatuko zerbitzuak eskaini zituen, bai Azpeitian, bai handik gertu dagoen Bidaninan. Ondoren, Bilbora egin zuen ihes eta *UHP* batailoian sartu zen, miliziano, 1936ko urria. 1937ko maiatzaren 14an, zauritu egin zuten Zorrontzan eta Bilboko ospitalera eraman zuten. Karrantzara ebakuatu zuten handik gutxira eta, handik, Ribadesellako ospitalera. 1937ko abuztuan, oraindik eri zela, Frantziara iristen saiatu zen Aller baporean. Lurruntzia harrapatu egin zuten itsas zabalean ordea eta Antonio atxilotu egin zuten. 1937ko urrian, *Gasteizko Presoak Saikatzeko Batzordeak* espetxean jarraitu behar zuela erabaki zuen eta eginbideak abiarazi zituen, Antonioren "aurrekariaren" berri izandakoan. Dokumentu horietan auzipetua ezkeriarra zela aipatzen zen eta 1934ko urriko gertakarietan eta 1936ko uztailetik aurrera Azpeitian izandako gorabeheretan, nabarmendu egin zela. Antonio "Fronte Popularraren prentsa" banatzeaz eta konfiskatzeetan, atxilotketetan eta zaintza armatuko zerbitzuetan parte hartzeaz akusatzen zuten. Hala, 1938ko azaroaren 3an, Antonioren aurkako urgentziatzeko prozesu sumarisimoa abiaraztea erabaki eta Donostiako 14. epaitegira bideratu zuten auzia. Ondaretako espetxera eraman zuten 1939ko martxoaren 2an, apirilean epaile instruktorearen aurrean deklaratu eta ukatu egin zuen konfiskatzeetan eta atxilotketetan parte hartu zuenik. Gainera, Falangek eta Azpeitiko Alkateak ezin izan zuten auzipetuaren aurkako akusazioak berretsiko zituen lekukorik aurkitu. Horregatik, 1939ko abuztuaren 9an, auzia itxi eta Antonio behin betiko aske utzi zuten<sup>574</sup>.



216 - Antonio Quintela Baezari buruzko dokumentua. (AIRMN)

<sup>569</sup> 2286/40 urgentziatzeko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>570</sup> 65/37 urgentziatzeko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>571</sup> Espetxeko fitxa (AGA).

<sup>572</sup> 297/49 ohiko sumarioa (AIRMN).

<sup>573</sup> 239/50 auzia (AIRMN).

<sup>574</sup> 14514/38 urgentziatzeko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

**QUINTELA BAEZA, FERNANDO**

Antonio anaia bezala, Fernando ere UGTn afiliatuta egon zen errepublika-garaian. Madrilen jaioa zen eta lanbidez tapizgilea. Gerra hasi ondoren, zaintza armatuko zerbitzuak eskaini zituen "telefono-linean", Azpeitiko Defentsa Batzordearen agindupean. Azpeitian bizi zen. 1936ko irailean, Azpeititik ihes egin eta Bizkai aldera jo zuen. Izquierda Republicana alderdiaren *García Hernández* zultzaileen batailoian sartu zen. Eusko Gudarosteara zen batailoi hura, eta han aritu zen 1937ko abuztuan Kantabrian atxilotu zuten arte.

Harrapatu eta kontzentrazio-esparru gisa jarrita zeukaten Santanderko Corban mendiko seminarioan sartu zuten. 1937ko azaroan, Bilboko Eskolapioen espetxera eraman zuten eta han egon zen Murgiako kontzentrazio-esparrura eraman zuten arte. Langileen batailoi batean aritzera ere behartu zuten. 1939ko azaroan, Gasteizko epaitegi militarrek Fernandoren aurkako instrukzioa abiarazi zuten eta Azpeitiko agintari frankistek informazioa eskatu, Fernandok zer aurrekari zituen jakiteko. Agintari frankistek, batez ere Guardia Zibilaren idatzian, Fernandoren "arriskua" nabarmen zuten, baina epaile militarrek zaintzapeko askatasuna eman zion 1939ko abenduan<sup>575</sup>.

Bestalde, auzi hartan auzipetua izan aurretik, Fernando urgentziatzko beste prozesu sumarisimo batean ere egon zen 1938ko hasieran. Prozesu hartan, 1937ko maiatzaren 24an, Galdakaon Igorreko parrokoaren hilketan parte hartzeaz akusatu zuten beste miliziano batzuekin batera. Nolanahi ere, 1938ko apirilaren 21ean, *Gerra Ikuskaritzak* auzia artxibatatu zuten bi arrazoigatik: hainbat lekuko galdekatu ondoren frogarik aurkitu ez zutelako eta auzipetuak non zeuden ez zekitelako (Fernando langileen batailoi batean zegoen, preso)<sup>576</sup>.

**TORRANO SENAR, MANUEL**

Nafarroako Ergoiena bailarako Dorrao kontzejukoa zen jatorriz eta 1935ekoa da Manueli buruzko lehen aipua. Azpeitian bizi eta langabezia zeuden langileen zerrenda batean dago haren izena. Ondoren, gerra hasi ondoren, zerbitzuak eskaini zituen Azpeitiko Defentsa Batzordearen agindupean. Zehatz esanda, 12 urte eta egun bateko kartzela-zigorra jarri zion 1937ko martxoaren 8ko epaiaren arabera, Manuel "errepedetik igarotzen ziren atoen igarobaimenak aztertzen ibili zen eskopetaz armatuta", Zarauztik hondarra ekarri zuten aireko erasoaren aurkako babeslekuak eraikitze eta Mandubiko zubiaren leherketan parte hartu zuten tropa kolpistak geldiarazteko asmo<sup>577</sup>.

Ondarretan espetxeratu zuten, eta epaia igorri eta handik lau hilabetera San Kristobalgo espetxera eraman zuten auzi berean kondenatutako beste azpeitiarrarekin batera: Jose Maria Aguirre Arreguirekin. Espetxe hartan hil ziren biak. Espetxera eraman eta handik gutxira hil zen Jose Maria, 1937ko irailaren 8an. Manuel, berriz, 1941eko abenduaren 1ean hil zen<sup>578</sup>, 1938ko maiatzaren 22ko ihesaldian parte hartu ondoren. 17 urte, 4 hilabete eta egun bateko espetxe-zigorra ezarri zioten ihes egiten saiatzeagatik<sup>579</sup>. Artikako hilerrian lurperatu zuten Manuel<sup>580</sup>.

**UCIN ODRIUZOLA, ANTONIO**

1914an jaioa zen eta, jatorriz, Ondarre baserrikoa zen. Eusko Gudarosteko borrokalaria izan zen Antonio<sup>581</sup>. 1937ko amaieran, badirudi Bilbon zegoela preso, gerra-kontseiluak noiz epaituko zain. Urte bereko abenduaren 29an, epaile militarrek "dokumentuak eta zegozkien jarduerak zehazteko" eskatu zuten prozesuaren mesederako<sup>582</sup>. Hala, 1938tik aurrera, beste urgentziatzko prozedura sumarisimo batean auzipetu zuten Antonio, Donostiako 14. epaitegi militarren aginduz. Azkenean, 1939ko maiatzaren 11n, auzia itxi eta Antonio aske utzi zuten<sup>583</sup>.

**URANGA GURRUCHAGA, JOSE ANTONIO "BAKEO"**

Urrestilla auzoko Ibartzabal baserrikoa, Jose Antonio Bilborantz abiatu zen 1936ko irailaren 20an Azpeitian tropa frankistak sartzeaz zirela ikusita. 1937ko otsailean, Amayur batailoian bere borondatez errolatu zen, eta harekin borroka egin zuen gerrako hainbat frontetan. 1937ko abuztuaren 26an Laredon atxilotu zuten, eta 40 egun inguruz herri horretako kontzentrazio-esparruan atxilotuta egon zen. Jesus Odriozola bezala, San Juan de Muzarrifar-era (Zaragoza) bidali zuten 25. langileen batailoia berriz bigarren konpainiaren zaintzapean.

*Zaragozako Presoen Batzordeak* galdekatu ostean, "C atalean" sailkatu zuten, "sailkapen horretan sartzeko interesdunaren aitortpena, sortutako inpresioa eta lortutako txostenak erabili zituztelarik". Zehazki, Batzordeak Azpeitiko Guardia Zibilaren txosten bat jaso zuen eta honako hau esaten zuten: "neurri handian haren jarduna ezagutzen ez bada ere", Alderdi Komunistaren aldekoa zen, UGTko afiliatua eta jokabide txarrekoa, hainbat egunez atxilotuta egon baitzen Jose Maria Querejeta Aguirre izeneko bizilagun batekin borrokan aritu ondoren. Hala ere, Jose Antonioren aurka hasitako aurretiazko eginbideetan lekuko horrek egin-dako aitortpenaren arabera, xextra pertsonala izan zen eta inplikazio politikorik gabea. Horrez gain, 1939 hasieratik falangek eta Azpeitiko Udalak egindako txostenek ez zuten berresten Azpeitian auzipetuak emandako denboran "Glorioso Movimiento" delakoaren aurkako jarduerarik.

1938ko irailaren 29an Eskolapioen espetxera eraman zuten eta 1939an Ondarretakora. Donostiako 11. epaitegi militarrek 1939ko abuztuaren 29an behin-behineko askatasuna eman zion, eta gero absolutzioa eman zioten<sup>584</sup>.

<sup>575</sup> 103006/39 urgentziatzko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>576</sup> Aurretiazko eginbideak 14514/38 (AIRMN).

<sup>577</sup> 685/36 urgentziatzko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>578</sup> SIERRA, F. eta ALFORJA, I.: *Fuerte de San Cristóbal, 1938. La gran fuga de las cárceles franquistas.*

<sup>579</sup> Espetxeko fitxa (AGA).

<sup>580</sup> Antsoaingo Erregistro Zibila.

<sup>581</sup> LOINAZ ETXANIZ, A.: *Nire Oroitzapenak* (2001).

<sup>582</sup> 1193/38 urgentziatzko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>583</sup> 10212/38 urgentziatzko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>584</sup> Procedimiento sumarisimo de urgencia 2044/39 (AIRMN).

Núm. del sobre 21

**Manifestaciones del presentado**

Jose Antonio Uranga Gurruchaga (A)

Hijo de *Antonio y Jose* nacido en *Bepeña*

Provincia de *Guipúzcoa* el *20* de *Septiembre* de *1914* Estado *Libre*

Casado con *...* en *...* de *...* de *...* por *...*

Vicario de *...* Provincia *...* Calle *...* núm. *...*

Profesión *...* Trabajaba en *...*

Si sirvió en el Ejército, ¿en qué Cuerpo? *...*

¿En qué población? *...* ¿Cuándo? *...*

Filiación político-social antes del Movimiento *...*

Idem después del Movimiento *...*

Idem del padre *...* (¿Es propietario, colono, jornalero, etc?)

**Hermanos varones**

Nombre	Edad	Filiación	Residencia	Cargo político	Edad en que sirvió
<i>...</i>	<i>...</i>	<i>...</i>	<i>...</i>	<i>...</i>	<i>...</i>

Personas que conozcan al eventado, particularmente las que residen en zona liberada y testimonios o documentos que invoque en su garantía

*...*

Fecha de su presentación a nuestras fuerzas *...* Hora *...*

Lugar *...* Sector *...* (¿Cómo lo hizo?) *...*

¿Fue hostilizado? *...* ¿Qué armamento trajo o por qué se presentó sin él? *...*

¿Qué le ha ocurrido a su persona? *...*

¿Dónde le incorporó al Movimiento Nacional? *...*

¿Qué hizo hasta su incorporación a filas? *...*

217 - Jose Antonio Urangari buruzko dokumentua. (AIRMN).

### URANGA ZUBIZARRETA, FELIPE "AZILLERRI"

1936ko abuztuuan, Azpeitian eraturako Euskal Milizien agindupean zebiltzan mila euskal borrokalariaren artean zegoen Felipe<sup>585</sup>. Ondoren, Bizkairantz hedatu ondoren, *Itxarkundia* batailoian arituko zen seguru asko 1937ko erdialdean atxilotu zuten arte. 1938ko ekainaren 4an, Ondarretako espetxean preso zegoela, urgentziatzko prozesu summarisimoan epaitu zuten eta 1940ko urtarilaren 31n auzia artxibatzea eta Felipe behin betiko aske uztea erabaki zuten. Horren aurretik, 1939ko uztailaren 22an, espetxealdi arindua jarria zioten<sup>586</sup>. Bestalde, Feliperen hainbat anaia ibili ziren armada frankistan borrokan, behartuta<sup>587</sup>. Haietako bat, Jose, 1937ko ekainaren 11n hil zen, gerrako frontean. Nicolas, berriz, Azkoitiko Guardia Zibilak galdekatu zuen 1937ko apirilaren soldadugaien zerrendarako deitu ziotenean, azaldu ez zelako<sup>588</sup>.

### URBIETA ARREGUI, JUAN

Loiola auzokoa zen Juan eta hantxe bizi zen. Zurgina zen lanbidez eta Hego Euskal Herrian, gerra garaian, *Aralar* batailoiko borrokalaria izan zen. Teniente izatera iritsi zen. Kantabrian atxilotu zuten 1937ko abuztuaren eta gerra-kontseiluan epaitu zuten Santoñako plazan. 20 urteko espetxe-zigorra jarri zioten urte hartako urriaren 2an<sup>589</sup>. El Duesoko espetxetik, Puerto de Santa Mariako (Cadiz) espetxera eraman zuten 1938ko abuztuaren 24an. 28 urte zituen Juaneke orduan<sup>590</sup>.

### URDALLETA UZCUDUN, IGNACIO "KATRAN"


1915ean jaioa zen eta Eliz kalean bizi zen. 1936ko abuztuaren hasieratik Azpeitian eraturako ezkerreko milizietan erroldatuta egon zen. Ondoren, Azpeititik ihes egin ondoren, JSuren *UHP* batailoira igaro zen eta hainbat frontetan aritu zen Eusko Gudarostearen unitate militar hartan, 1937ko abuztuaren Kantabrian atxilotu zuten arte<sup>591</sup>. Langileen batailoia batera bidali zuten eta 1938ko hasieran, Bilbora eraman zuten, urgentziatzko prozesu summarisimo batean epaitzera. Urte hartako abuztuaren 18an, *Gerra Ikuskaritzak* epaitegi militarren epaia berretsi eta Ignacio langileen batailoia batera bidali zuten berriro "zitu-tuen aurrekariak eta gorrien agintaldian izandako jokabidea kontuan hartuta"<sup>592</sup>. 1940an "aurkarizat" hartu zuten Azpeitiko Udalak 1936ko soldadualdiko mutilak sailkatzeko aktak ixtean. Zaintzapeko askatasunean zegoen garai hartan Ignacio<sup>593</sup>.

### VALVERDE ZUBIARRAIN, JOSE

Donostiarra zen Jose, baina Azpeitian bizi zen. Errepublikak garaiaren zati handi batean, Azpeitiko *Unión Republicana* alderdiaren ordezkari gorenaren izena zen eta Azpeitiko Udalarik hainbat ekimen igorri zizkion; hala nola, 1933ko otsailean, Plaza Nagusiari izena aldatu eta "Errepublikaren plaza" izena jartzea<sup>594</sup>. Badirudi, gerra hasi aurretik ardura postu guztiak utziak zituela eta 1936ko irailean, altxatutako tropak Azpeitian sartzeko zorian zirela, Bilbora eraman zuten ihes. 1937ko amaieratik aurrera auzipetu zuten Donostiako epaile instruktore militarren arabera, Bizkaiko hirian "bankuko kreditu bati esker bizi izan zen"; horretara mugatu zen. Dena den, 1938ko apirilaren 12an, Jose aske uzteko agindu zuten justizia militar frankistak, espetxean prebentzioz egindako egonaldia nahikoa zigor bazela iritzi<sup>595</sup>.

### VIQUENDI OTEGUI, VALENTIN

1908an jaioa zen, Valentín, zurgina. *Damaso Azcue* enpresan aritu zen lanean errepublika-garaian. Gerra hasi ondoren, boluntario ibili zen Azpeitiko Defentsa Batzordearen agindupean. Telegrafo-zerbitzuetan aritu zen Valentín Bizkaira ihes egin zuten arte. Ondoren, Eusko Gudarostean egon zen erroldatuta 1937ko abuztuaren 27an Kantabrian atxilotu zuten arte. El Dueson espetxeratu zuten eta gerra-kontseiluan epaitu zuten, Santoñako plazan. Urte hartako urriaren 20an, 30 urteko espetxealdi handia ezarri zioten<sup>596</sup>, "matxinadarekin bat egitea" leporatuta eta Puerto de Santa Mariako kartzelara eraman zuten 1938ko abuztuaren 11n<sup>597</sup>. 1943ko apirilaren 29an, *Zigorak Aztertze Batzorde Zentralak* kondena 6 urteko espetxealdi txikira murriztu zion<sup>598</sup>.



218 - Valentín Viquendi Otegui buruzko dokumentua. (AIRMN).

<sup>585</sup> CDMH (PS Bilbao 64).

<sup>586</sup> 14973/38 urgentziatzko prozedura summarisimoa (AIRMN).

<sup>587</sup> AUA (Sig. 332-01; Kod. 215).

<sup>588</sup> *Espediente s.n. (1937)* (AIRMN).

<sup>589</sup> 64/37 urgentziatzko prozedura summarisimoa (AIRMN).

<sup>590</sup> *Espetxeko fitxa* (AGA).

<sup>591</sup> AUA (Sig. 472-01; Kod. 215).

<sup>592</sup> 10427/38 urgentziatzko prozedura summarisimoa (AIRMN).

<sup>593</sup> AUA (Sig. 472-01; Kod. 215).

<sup>594</sup> AUA (Sig. 274-02; Kod. 12).

<sup>595</sup> 421/38 Gobernu-informazioa (AIRMN).

<sup>596</sup> *ptem*

<sup>597</sup> *Espetxeko fitxa* (AGA).

<sup>598</sup> AGMG (56641).

### ZABALA ILLARRAMENDI, JOSE

1913an Izarraitz auzoko Badiolegitxo baserrian jaioa zen Jose eta nazionalismoaren aldekoa zen. Ez dugu inon afiliatuta zegoela dioen berririk. Gerra hasi ondoren, zaintza armatuko zerbitzuak egin zituen biziarteko espetxe-zigorra ezarri zion epaiaren arabera, konfiskatzeetan ere parte hartu zuelarik. Horrez gain, 1936ko abuztuaren 5etik 31ra arte, Azpeitian eraturako euskal milizietan ibili zen borrokan<sup>599</sup>. Azpeitia erori eta Kantabrian atxilotu zuten arte, gerrako hainbat frontetan ibiliko zen seguru asko Jose borrokan.

1937ko azaroaren 2an epaile militar inostruktorearen aurrean deklaratu zuen El Duesoko espetxean zegoela. Beste hogeiren bat euskal borrokalari ohirekin batera epaitu zuten eta 1938ko urtarrilaren 8an, gerra-kontseiluak, Santoñan, epaia<sup>600</sup> eman zuen eta abuztuan Puerto de Santa Mariako espetxera eraman zuten<sup>601</sup>.

### ZABALETA GARATE, LUIS

1915ean Azpeitian jaio eta Donostian bizi zen Luis eta errepublika-garaian ELAn afiliatuta egon zen. Moldatzailea zen lanbidez eta gerra hasieran, euskal milizietan sartu zen bere borondatez. Ondoren, eta 1937ko abuztuan atxilotu zuten arte, gerrako hainbat frontetan ibili zen *Aralar* batailoio nazionalistako borrokalari gisa. Horregatik, 1937ko urriaren 12an, Santoñan egin zuten gerra-kontseilu batean biziarteko espetxealdira kondenatu zuten, "matxinadarekin bat egitearen" delitua egin zuelakoan<sup>602</sup>.


### ZABALETA OLAZABAL, GLORIA

Espartingilea zen lanbidez eta *Emakume* erakundeko militantea. Azpeitiko Guardia Zibilak atxilotu eta galdekatu egin zuen 1938ko apirilaren 13an, hainbat herritarrek haren aurka salaketa jarri ondoren. Nuarbe auzoko parrokoaren eta alkate ohiaren etxean 1936ko abuztuan oiloak lapurtzeaz akusatu zuten Gloria. Gloriak aitortenean adierazi zuen Anastasio Errasti "Achero" eta Jose Maria Garmendia "Koipe" azpeitiarrek bera eta Maria Altuna laguna haien aurka sartzera gonbidatu zituztela eta Nuarbe auzora joan zirela. Auzipetuaren arabera, "enkargu bat egitera joan ziren mutilak" eta neskak autoan gelditu ziren, eta ez zekiten konfiskatze haiek gertatu zirenik.

Hala ere, Guardia Zibilak Donostiako instrukzio epaitegiari jakinarazi zion ustez konfiskatzeetan parte hartzeaz gain, mobilizatutako milizianoentzako sukaldari-lanetan ibilia zela Gloria Azpeitian. Azpeitiko Falangeko buru Hilario Bereciartuak eta Roque Astigarraga alkateak ere igorri zituzten txostenak eta auzipetuak nazionalisten aldekoak zirela nabarmendu zuten. "Separatista asaldatuak" zirela adierazi zuten eta atxilotutakoek Nuarbeko konfiskatzeetan parte hartu zutela ziurta zezaketen lekukoak ere proposatu zituzten.

Ondarretako espetxera eraman zuten eta 1938ko azaroan instrukzio-epaile militarren aurrean deklaratu zuten. Salaketaren arrazoi ziren konfiskatzeei buruz aurretik Azpeitiko Guardia Zibilaren aurrean aitortutakoa berretsi egin zuen. Horrez gain, Gloriak aitortu egin zuen *Emakume* erakundeko kidea zela, Mariak bezala, baina milizianoentzat jarritako sukaldeetan lanean aritu besterik ez zuela egin adierazi zuen. Azkenean, 1939ko urtarrilaren 10ean 4 hileko atxiloaldi handira kondenatu zituzten Gloria eta Maria. Hala ere, aske utzi zituzten, epaimahaiak adierazi baitzuen zigorra betea zutela prebentziozko espetxealdia eginda<sup>603</sup>.

219 - Gloria Zabaletari buruzko dokumentua. (AIRMN).



### ZUBIAURRE JAUREGUI, JOSE MARIA

Beste sei azpeitiarrekin batera atxilotu zuten Jose Maria 1936ko abenduaren 2an, haien aurka Donostiako 4. instrukzio-azitegi militarrek ur-gentziatzko auzi sumarisimoa abiarazi ondoren. "Altxamendu militarren" delituaz akusatu zituzten denak. Jose Maria "nazionalisten aldekoa" izateaz akusatu zuten, baina ez zela alderdiko kidea" adierazi zuten. Horrez gain, atxilotutako beste hirurekin batera 1936ko uztailaren 25ean Mandubiko zubia leherrarazteaz ere akusatu zuten, tropa frankistak Azpeitian sartzeko oztopatzeke. Gainera, adierazi zuten, Zarautzik Azpeitira hondar-zakuak garraiatzen ere ibili zela airetiko erasoan aurkako babeslekuak egiteko eta Loiolara gasolina depositu batzuk ere garraiatu zituztela. Hala, 1937ko martxoaren 8an 12 urte eta egun bateko espetxe-zigorra ezarri zioten "matxinadari laguntzearen" delitua leporatuta<sup>604</sup>. Epaia eman ondoren, San Kristobalgotzako gotorlekura eraman zuten 1937ko uztailaren eta han eduki zuten 1938ko irailera arte. Irailean, San Simon (Vigo)<sup>605</sup> uharterako espetxera eraman zuten eta, gero, Astorgakora (Leon). 1939ko abenduaren 2an Lugoko kartzelara eraman zuten eta han egon zen, gutxienez, 1940ko apirilaren 16ra arte<sup>606</sup>.

<sup>599</sup> CDMH (PS Bilbao 64).

<sup>600</sup> 196/37 urgentziatzko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>601</sup> Espetxeko fitxa (AGA).

<sup>602</sup> 96/37 urgentziatzko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>603</sup> 2967/38 urgentziatzko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>604</sup> 685/36 urgentziatzko prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>605</sup> SIERRA, F. eta ALFORJA, I.: *Fuerte de San Cristóbal, 1938. La gran fuga de las cárceles franquistas.*

<sup>606</sup> Espetxeko fitxa (AGA).

## ZUBIMENDI OLAIZOLA, IGNACIO

1917an Oinatz auzoko Larre baserrian jaioa. 1936ko irailaren 19an egin zuen ihes Azpeititik, herrian altxatutako tropak sartzeaz zirenean. Jada Bilbon zela, Lino Lazkano eibartarrak zuzentzen zuen *Loyola* infanteriako batailoi nazionalistan izena eman zuen, bere borondatez. Hainbat frontetan aritu zen borrokan unitate militar hartan. Kantabriako Castro Urdialesen atxilotu zuten azkenean, 1937ko abuztuan, eta handik gutxira El Duesoko kartzelara eraman zuten. Gerrako preso gisa sailkatu zuten. Miranda Ebroko *Presoak Sailkatzeko Batzordeak* sailkatuko zuen seguru asko eta Lizarrako 64. langileen batailoira bidali zuten. Batailoi hartatik auzipetuta atera ziren Ignacio eta gainerako azpeitiarrak Teruelgo frontean izandako Villa Felisako gertakariengatik, 1938ko hasieran denak *San Ignacio* tertzioan erroldatu gelditu ondoren. 1938ko martxoaren 2an, Odriozola Alberdi anaia, Lucas Orbegozo, Tomas Odriozola eta Ignacio preso hartu zituen armada errepublikarrak, utzita zegoen baserri batera oilo bila zihoazela. Baina guztiak desertatu izanaz salatu zituzten, eta gero, ordutik eta gerra amaitu arte "etsaiaren armadari" zerbitzua eman izanaz. Hori dela eta, 1939ko maiatzetik aurrera, Ignacioren eta inplikaturako gainerako azpeitiarren aurkako prozedura sumarisimoa abiatu zen. Epai militarren aurrean eginiko adierazpenean, harrapatu zituzteneko gertaera kontatu zuen Ignaciok. Horrez gain, Ignaciok azaldu zuen harrapatu zutenetik armada errepublikarraren hegazkinen aurkako gorputzean sartu zutela, gerra amaitzean Madrilen entregatu arte. 1941eko maiatzaren 1ean, epaitegi militarrek esan zuen Ignacio nahiz gainerako auzipetuek "ideologia separatista" zutela, baina "jokabide ona", eta ontzat ematen zuen harrapatzearen bertsioa. Hori dela eta, auzipetuak absolbitu eta aske utzi zituzten<sup>607</sup>.

## ZUDUPE ECHEVERRIA, SANTIAGO

Santiago izan zen Azpeitian ELA sindikatua ezartzearen arduradunetako bat, 1931n. Zurgina zen lanbidez eta militante nazionalista hau Azpeitiko Defentsa Batzordearen parte izan zen gerra hasi ondoren. Hala ere, atxilotutako eskuindarrei lagundu zien beti Santiagok. Hala ziurtatu zuten hainbat herritarrek 1940tik 1942ra. Azpeitia erori ondoren, gerrako hainbat frontetan ibili zen Eusko Gudarostearekin borrokan, 1937 erdialdera Asturiasen zauritu zuten arte<sup>608</sup>. El Dueson espetxeratu eta gerra-kontseiluan epaitu zuten Santoñako plazan, 1937ko irailaren hasieran. Heriotza-zigorra ezarri zioten hilaren 21ean. Hala ere, urte hartako urrian, Estatuko Idazkaritza Nagusiak, zigor hura "maila bat beheragokoarengatik" aldatu zion eta, hala, biziarteko espetxe-zigorra ezarri zioten. Kondena jaso ondoren, Burgosko espetxe zentralera eraman zuten eta, handik, 1939ko azaroaren 1ean, Alcalá de Henaresko (Madril) Espetxe Tailerretara eraman zuten. 1940an, han, espetxean, zegoela, indultua eskatu zuen, Ignacio Perez Arregui diputatu ohiak, Azpeitiko Alkatetzak (ordurako Ignacio Egaña Otegui zen buru) eta "Espainiaren aldeko preso ohiak eta Azpeitiko herritarrek" aurkeztutako idatzi ofizialak aurkeztuta. Ignacio Perezek, adibidez, kontatu zuen nola Santiago bila joan zitzaizen berari eta familiari Donostiara, haiek Azpeitira ekartzeko, 1936ko uztailaren 31n, Fronte Popularraren aldekoek atxilotzeko arriskuan zeudelako. "Preso ohiak", berriz, idatzian adierazi zuten Loiolako santutegian preso zeudela, Santiagok askatu egin zituela 1936ko irailean, zeldako "atea hautsita". Hala ere, 1943ko apirilaren 8an zigorra jaitzi eta 14 urteko espetxealdi laburra<sup>609</sup> ezarri zioten eta hilaren 27an, berriz, baldintzapeko askatasuna<sup>610</sup>.



**220 - Santiago Zudupe Echeverria.**  
(Hemendik ateratako argazkia: EGAÑA. I.: 1936, Guerra Civil en Euskal Herria).

<sup>607</sup> 2285/39 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>608</sup> 29/37 urgentziako prozedura sumarisimoa (AIRMN).

<sup>609</sup> AGMG (2279).

<sup>610</sup> Espetxeko fitxa (AGA).







10

5.

# Lekukotzak

Una cosa el otro dia recibí  
 la carta de Gabriel  
 cierto con un alegre discurso  
 era nuestro y es verdad Teníamos  
 con un buenas esperanzas nunca  
 hemos tenido tan buenas desde  
 que ~~escribo~~ el nacimiento  
 le digo al padre que este  
 con un alegre que todos los soldados  
 estan esperando de hin al frente  
 y ahora es la nuestra

Gora Enzkadi

JKatuta

# Aranbarri Kabero

MONTSERAT



*Montserrat Aranbarri Kabero  
Azpeitiko Santiago kalean  
jaio zen orain dela hirurogeita  
zortzi urte.*

« *Nire aitona karlista zen, eta ez zion barkatu aitari errepublikarrekin borrokan aritu izana.* »

## Nor zen zure aita, Montse?

Aitak Inazio Aranbarri Barrutia zuen izena. Arroan jaio zen, eta gero familia Azpeitira etorri zen bizitzera. Ondoren Eibarrera joan zen, han familia zeukalako, eta estazioan lanean aritu zen.

## Han lanean zegoela gerra hasi zen. Zure aitak borrokatzera alde egin zuen. Zein izan zen bere ibilera?

Eibarko ezagun batzuekin alde egin eta "Amuategi Batailoia"-n aritu zen borrokan. Nire aitak "Erreketek" zeukan ezizena, eta batailoiarekin ezkatututa zegoen batean, oinez zihoala, batek galdegin zuen: "Zein doa?" eta beste batek erantzun: "Erreketek". Eta tiroka hasi omen zen pentsatuaz erreketek zirela. Eta bestea oihuka hasi omen zen: "E! Ez, ez, gurea da!". Kontatu zizkidan horrelako anekdota batzuk. Ondoren, gerra amaitzean, bizirik ateratakoek bazkari bat egiten zuten urtero Deban.

Ondoren Gernikan preso hartu eta Castro Urdiales-era eraman zuten. Han zezen plaza edo futbol zelai batean eduki eta Santoñara eraman zuten. Gero Langile Batailoitan aritu zen lanean, Medina de Rio Seco eta Guadalajaran esaterako. Kaleak eta errepideak egin ohi zituzten.

## Noiz itzuli zen etxera eta nolakoa izan zen harrera?

Gerra bukatu eta kartzelatik irten zenean itzuli zen, baina bere aitak ez zuen onartu. Honakoa esan zion: "Nik baneukan seme bat, baina gerran garbitu egin dute". Izan ere nire aitona karlista zen, amona ez, baina aitona eta bi izeba bai, eta ez zioten barkatu bera errepublikarrekin borrokan aritu izana. Ondorioz, nahiz eta Azpeitian lana eduki, Ordiziara egin zuen alde. Han zegoelarik nire ama ezagutu eta ezkondu egin ziren. Denborarekin aitona barkamen eske joan zitzaion, eta etxera itzuli zen. Baina ez zuten asko iraun, nire amak ez baitzekien euskaraz eta hau ez zioten onartzen nire aitona eta. Halere Azpeitian geratu ziren bizitzen.

# Arregi Arozena

XABIER



*Xabier Arregi Arozena Azpeitian jaio zen 1936. urteko abuztuaren 15ean.*

«*Txaiber' hartu, sorora eraman, eta fusilatu egin zuten.*

*Errektoreari 'Oiloa' ezizena jarri genion, oso koldarra izan zelako gai honekin.*

*Mediku donostiarra Urrestillako hilerriko paretan hil zuten, eta bertan lurperatu.*

*Paradoxikoki ez elizak eta ezta santutegiak ere ez zuten inolako ondoriorik jasan, baina bi pertsona hil ziren propaganda faxistaren ekintza izan zen horretan.*»

## Leonardo Goenaga "Txaiber" erreketek batzuek fusilatu zuten Mutrikuko baserri baten kanpoan. Kontaguz gertaera honen inguruan dakizuna, Xabier

Erreketek Azpeitira irailaren 20an sartu ziren, eta ondorioz jende askok alde egin zuen herritik, tartean "Txaiber"-ek. Itxura denez orduan gudarien fronteak Markina inguruan zegoen, eta "Txaiber" ere hara joan zen. Baina emaztea eta urte beteko haurra utzi zituen Azpeitian eta haietaz gogoratuta Markinatik, frontetik, berriro etxera itzultzea pentsatu zuen, oinez, mendiz mendi, badaezpada ere. Baina Mutrikun, gosea, egarria eta dena zituela, baserri bat ikusi zuen nonbait eta bertara joan zen. Esaten zuten baserrian oso ondo hartu zuten, eta jaten ari zirela, kasualitate txarra, erreketen kapitain bat beste sei bat erreketekin edo baserrira sartu ziren. Orduan "Txaiber" hartu, sorora eraman eta han fusilatu zuten. Eta uste dut gainera, lurperatzeko zuloa, bertako nagusiari eginarazi ziotela. Nik laguntasun handia nuen bere semearekin, Bernardorekin, baina sekula ez zuen gai hau aipatu.

## Urte batzuk beranduago, 1970. urte aldera, Bernardo beste adiskide batekin joan zen Mutrikura aitaren gorpua berreskuratzera, ezta hala?

Hala da bai. Bernardo eta berak lan egiten zuen altzari fabrikako nagusia, zeina abertzalea zen, Mutrikuko baserri horretara joan ziren "Txaiber"-i gertatutakoa argitu nahian. Han bertako nagusiak gertaturikoa azaldu omen zien negar artean, eta gorpua non zegoen erakutsi. Bernardok eta nagusiak lurpetik atera zuten, eta hezurrez gain koilara bat eta jertseko kremlera topatu omen zituzten. Ondoren hezurra maleta batean sartu eta Azpeitira ekarri zituzten, Bernardoren izeben etxera. Tartean, nire hiru lagun, Azpeitiko errektorearekin hitz egitera joan ziren "Txaiber"-i meza edo elizkizunen bat egiteko, baina honek ezezkia eman zien. Hilerrian lurperatzea bakarrik onartu zien, baina hori bai, izenik gabe, gurutze batekin soilik. Eta hala lurperatu zuten. Harrezkero koadrilan errektoreari "Oiloa" ezizena jarri genion, oso koldarra izan zelako gai honekin.

## Urrestillan fusilatua izan zen mediku gazte donostiar baten inguruan ere badakizu zerbait, ezta?

Bai, entzuna daukat. Mutil hau Donostiatik ihesi etorri zen seguruenek Azpeitira, baina hemen ere erreketek sartu zirenean hartu eta Urrestillara eraman zuten. Bertako hilerriko paretan hil zuten, eta bertan lurperatu.

## Azpeitian egon ziren bi bonbardaketa gogoan dituzu, baina bi pertsona hil zirela ere eta egiletza errepublikarrei egotzi nahi izan zietela

Bai, gogoan ditut bi, egun berean gertatuak. Bat hilerrirako bidean gertatu zen, eliza ondoan, eta pertsona bat hil eta besteak begi bat galdu zuen. Bestea Loliolako basilikaren inguruan gertatu zen, eta han ere uste dut pertsona bat hil zela. Abioneta txiki bat izan zen bonbak bota zituena. Guztiok dakigu frankistak izan zirela, baina bertsio ofizialak gorriak izan zirela esaten zuen, eta beren helburua eliza eta santutegia suntsitzea zela. Paradoxikoki ez elizak eta ezta santutegiak ere ez zuten inolako ondoriorik jasan, baina bi pertsona hil ziren propaganda faxistaren ekintza izan zen horretan. Ondoren hilerrira bidean plaka bat ipini zuten, non hildakoaren izena eta bertsio ofiziala agertzen ziren, egiletza gorrii egotzen ziena alegia.

## Gogoratzen al duzu aipatu nahi zenukeen beste konturik?

"Txaiber"- en seme Bernardorekin erlazioatutako batekin oroitzen naiz. Gu orduan eskolan maristetan ibiltzen ginen, plazan bertan zegoen eraikina. Eta noizean behin falangeko inspektore bat etortzen zen. Hileko lehen ostirala jai edukitzen genuen, baina ostiral batean inspektore hau etortzekoa zela eta eskolara joan behar izan genuen. Egun horretan bandera espainol berri bat inauguratu behar zen plaza aldeko balakoian. Inspektorea betiko diskurtsoa botatzen hasi zen, eta gu denok Bernardori begiratzen genion, denok triste. Maristari galdetu zion ea zergatik geunden gu horrela eta maristak "Txaiber"-i gertatutakoa azaldu zion, eta semea han zegoela. Orduan berotu eta egundokoak esan zituen. Ondoren, bandera inauguratu behar zen. Gu ginen aularioko zaharrenak, eta erabaki genuen, protesta moduan, "cara al sol" ez kantatzea. Formazioan jarri gintuzten, eta gazteagoek guk ez genuela kantatzen ikustean beraiek ere kantatzeari utzi zioten. Ondoren berez jai genuen arren zigor moduan egun guztia eskolan pasarazi ziguten.

Bestalde oroitzen naiz Uzkudun boxeolariaren inguruko gertakizun batez ere. Gerra hasia zela udaletxera joan omen zen. Orduan Azpeitiko udaletxean alkate jeltzalea zegoen, eta ondo hartua izan zen, baina berehala miliziano batzuk azaldu omen ziren hura hil nahian. Azpeitiko udalak salbatu omen zion bizia, miliziano hauei udaletxera sartzea galarazita. Gero Madrilera joan zen bizitzera Uzkudun, baina pertsona asko denuntziatu omen zituen. Ez zuen gogoan eduki berari bizia salbatu ziotela.

# Azpiazu Gómez

KONTXI



*Kontxi Azpiazu Gomez 1929ko apirilaren 22an jaio zen Azpeitiko Enparan kalean. Aita, Faustino Azpiazu Arrieta, EAJ-koa zen. Ama berriz komunista.*

«*Aitak alde egin zuenean bere karta bat jaso genuen ondo zegoela esanaz, baina ez genuen ezer gehiago jakin berataz.*

*Aitak alde egin zuenez guk ere joan beharra geneukala iritzi zuten.*

*Eskolan, gu, gorriok, aingeru txarrak ginela esaten ziguten, jainkoaren aurka altxatu ginelako.*»

## Gerra hasi zenean zazpi urte zenituen Kontxi. Zer da garai hartatik oroitzen duzuna?

Gogoratzen naiz tropa frankistak Azpeitian sartu baina lehenago, gau batez, nire anaia, Pepe Azpiazu Gomez, CNT-koa zen bera, etxera etorri zela amari esateko etxe aurrean bi fronte ipintzera zihoazela eta erdian harrapatuko gintuztela, eta beraz alde egiteko handik. Orduan nire ahizpa, Carmen Azpiazu Gomez, kalera irten eta CNT-ko kamioi bat bilatu zuen. Kamioi hark Aizarnazabalera eramán gintuen. Han bageneuzkan senide batzuk eta han egon ginen hamabost egunez. Nire anaia Pepek lagun batekin, Txaiiberrekin, alde egin zuen. Ondoren Txaiiber fusilatu egin zuten.

## Azpeitira bueltatu zinetenerako tropak sartuta zeuden jada. Zer topatu zenuten itzultzean?

Iritsi eta berehala erreketek ate joka etorri ziren, aita gurekin etorri al zen galdezka. Ez zela etorri erantzun genien eta alde egin zuten. Baina ez gintuzten bakean utzi. Izan ere handik gutxira herritik alde egin behar genuenaren abisua iritsi zitzaigun. Aitak alde egin zuenez guk ere joan beharra geneukala iritzi zuten. Azkenean osaba baten laguntzaz hemen geratzea lortu genuen. Gero soldaduak bidali zizkiguten gure etxean lo egitera, etxe handia baitzen. Behartuta joandako soldaduak ziren eta beraiekin egon ohi ginen karta jokoan eta horrela.

## Aitak alde egin zuen eta ez zen inoiz etxera itzuli

Alde egin zuenean karta bat jaso genuen ondo zegoela esanaz, baina ez genuen ezer gehiago jakin berataz.

## Zure hiru anaia preso hartu zituzten, ezta hala?

Bai. Anaia zaharrena, Roke Azpiazu Gomez, ertzain sartu zena, segituan harrapatu zuten Bilbon. Lehenengo Zornotzako penalean, ondoren Burgosekoan eta gero Madrilekoan egon zen. Madriletik hona itzuli zen.

Beste anaia, Eleuterio Azpiazu Gomez, Santanderren harrapatu zuten. Ez zuen denbora asko egin preso, soldaduskara joan beharra suertatu baitzitzaion eta Elizondora joan zen soldadu.

Eta bestea, Pepe, Portugal inguruan harrapatu zuten. Langile Batailoi batean egon zen Huescan, eta libratu zenean Madrilera joan zen. Han osaba baten garajejan jardun zuen lanean. Astigaragak, Azpeitiko alkate frankistak, aurretik nire aitaren laguna izanagatik ere informe txarrak bidali zituen Peperentzako, CNT-koa zelako.

## Zure ahizpa Carmenek ere ondorioak jasan zituen

Bai. Behin ilea mozten saiatu ziren. Fusil bat ipini omen zioten aurrean eta ilea mozten hasi omen zitzaizkion. Baina orduan kapitaina sartu omen zen, ilea moztea galarazi eta etxera ekarri zuen.

## Fusilatzen al zuten inor kalean?

"Enparangain" baserriko "Kukubiltxo" Amoko zubi inguruan, Corrugados inguruan, hil zutela gogoratzen naiz. Baita hilerrri aldean bonbaren bat bota zutela ere.

## Eta horren harira, oroitzen zara bonbardaketez?

Oroitzen naiz, bai. Lasterka hasten ginenean soldaduek barre egin eta zera esaten ziguten: "Nondik igotzen da teilatura? Askoz hobeto egongo zinaketete teilatuan hemen baino, etxea eroriko zaizue gainera eta!". Bat alemana zen, oso azkarra.

## Gerra amaitu eta Frankoren diktadura ezarri zen. Nolako izan zen gerra ostea?

Oso gogorra izan zen, gose handia pasa genuen. Ogia egunero jaten genuen, baina haragia astean behin.

Eskolara Esklabetara joaten ginen, eta aingeru onak eta txarrak zeudela esaten ziguten, eta gu, gorriok, aingeru txarrak ginela, jainkoaren aurka altxatu zirenak.

# Bereziartua Arocena

MIRARI



*Mirari Bereziartua Arocena Azpeitian jaio zen 1949. urtean.*

«*Garai hartan frankistek ilea moztu eta rezino olio, purga fuertea, emateko ohitura hartu zuten, nahiz eta izebaren kasuan ez zen hala izan.*

*Beren aurka ez zuten inoiz ezer egin, baina ahaztu ere ez zuten egin.*»

## **Zure izeba Margarita Arocena Izeta-ri ilea moztu zioten, herritar batek gudariei laguntza emateagatik salatu ondoren. Zer dakizu gertaera honen inguruan Mirari?**

Gerra denboran, tropa frankistak Donostiatik sartzen hasi zirenean, itxura denez bertako gudariak Loiolako santutegiaren inguruan zeuden gordeta. Izeba Margarita gudariei jaten ematera joaten zen, laguntzera. Eta hori dela eta salaketa bat jarri zioten. Salaketa horren ondorioz, bertako mutil batzuek ilea moztu zioten Margaritari. Garai hartan frankistek ilea moztu eta rezino olio, purga fuertea, emateko ohitura hartu zuten, baina nik ez dut entzun gure izebari purga fuertetik eman ziotenik, baina bai ilea moztu. Kontatzen dutenez ilea moztuta ere oso ederra geratu omen zen, eta berarekin ondo geratu nahian, moztu zioten pertsona berdinek salaketa nork jarri zuen esan zioten. Beraz guk familian beti jakin izan dugu salaketa zein herritarrek ipini zion, eta noski baita ilea nork moztu zion ere. Gerora arazo psikologikoak eduki zituen Margaritak, baina ezin dugu jakin horren ondorio izan zen edo ez. Salaketa jarri ziotenak ondoren gure aitarengana joaten ziren harremana konpondu nahian afaltzeko gonbidapenak egiten, baina gure amak ez zuen nahi izaten. Beren aurka ez zuten inoiz ezer egin, baina ahaztu ere ez zuten egin.

Bestalde, antza denez, ilea moztu zioten berdinak izan ziren Urrestillan Donostiako mediku gazte bat hil zutenak.

# Bereziartua Arregi

INAXITA



*Inaxita Bereziartua Arregi Azpeitiko "Atxumiaga" baserrian jaio zen 1942ko martxoaren 17an. Bere aitak Pedro Bereziartua Altuna zuen izena. Gerra hasi zenean borrokatzera joan zen, eta ondoren Santoñan preso hartu zuten.*

«*Ezin zuten sinetsi horrelako gizon katoliko bat gerrara joan izana.*

*Konturatzen naiz, garai hartan, ikaragarritzko beldurra ziotela gertatua kontatzeari.*

*Honakoa esaten zien auzokide batek gure ama eta izebari gerrara errepublikaren alde joandakoengatik: Horiek hil egingo dira, hil egingo dituzte, ez duzue gizonik gehiago ikusiko.*

*Diktadura frankista oso gogorra izan zen. Garai ilunak ziren, dena galarazita zegoen.*»

## Nolakoa zen zure aita, Inaxita?

Bertsotarako eta hizketarako abilitadea zeukan nire aitak. Errezilen eta beste leku batzuetan ere aritzen zen bertsotan. Horrez gain, "Potzueta"-ko osabarekin batera, "Baserritarren Elkartea" sindikatuko partaidea ere bazen.

## Bertsolaria eta sindikalista. Baina gerra hasi zen, eta borrokara alde egin zuen

Bai. Izebak kontatzen zuen, jada gerrara joana zela, erreketek Elosiaga aldetik sartu eta "Potzueta" baserrira etorri zirela beragatik galdezka. Etxeko gizona non zegoen galdetu omen zuten, eta laurogeitaka urteko amonak, zeina lau umeren ardurapean geratu zen, gerrara joan zela erantzun omen zien. Erreketek ezin sinetsita geratu omen ziren. Izan ere nire familia oso katolikoa zen, eta tximini gainean errosarioa ikusi zuten nonbait erreketek, eta ezin zuten sinetsi horrelako gizon katoliko bat gerrara joan izana.

## Zer gertatu zen zure aitarekin?

Italiarrek harrapatu zuten Santoñan. Espetxeratu egin zuten, eta orduan ama eta izeba bisitan joan ahal izan zitzaizkion. Ondoren Langile Ba-tailoian ibili zen.

## Itzuli zen etxera, kondizio batzuekin baina. Kontaiguzu nola lortu zuen askatasuna

Azpeitiko familia karlista batek, zeinak oso ezagunak ziren, informe bat egin zuen bere alde, esanaz mutil baserritar katoliko bat zela, bere delitu bakarria baserritarren sindikatuko kide izatea zelarik. Horrela lortu zuen askatasuna, baina bi urtez etxetik irten gabe egotearen kondizioarekin.

## Itzultzean gerran pasa zuenaz zerbait kontatu al zizueten?

Ez, oso isilik eduki zituen kontu horiek, zerbait iluna bezala gogoratzen baitzituen. Konturatzen naiz, garai hartan, ikaragarritzko beldurra zuela, eta horrelako gauzak ez zirela kontatzen umeen aurrean.

## Dena dela ez zen aita izan errepresaliak jasan zituen familiar bakarra

Ez. Kontatzen zutenez izeba Katalin eta Mariari Nafarroara joateko agindua iritsi zitzairen. Beste irtenbiderik ezean ganbaran, belar artean, ezkutatu ziren. Gauaz bakarrik irteten ziren, eta orduan ere beldurrez. Horrela bizi izan ziren denbora batez.

## Nolakoa zen egoera herrian?

Auzokoen artean ezinikusi handia zegoen. Inguruko baserriko batek honakoa esaten omen zien nire ama eta izebei: "Ez pentsatu aurrera joandakoak berriro ikusiko dituzuenik. Horiek hil egingo dira, hil egingo dituzte, ez duzue gizonik gehiago ikusiko".

Frentean erreketaren bat hiltzen zenean baserriko andre batzuk plazara jaisten omen ziren espainiar bandera hartuta. Gure inguruko baserri bateko andre bati "Mola" deitzen zioten.

Bestalde gaur egun 'Hotel Loiola' dagoen lekuan garai hartan 'Hotel Izarra' zegoen. 'Hotel Izarra'-koak oso abertzaleak omen ziren, eta tropa nazionalistak sartu zirenean hotela goitik behera desmuntatu omen zuten. Hoteleko mantak, esaterako, gure etxe inguruko behiak estaltzeko erabili zituzten. Gerra ostean 'Hotel Izarra'n bertan urtero bazkari bat egiten zuten Loiola Batailoitik bizirik atera zirenek.

## Jende askori kendu al zioten etxea edo negozioa?

Bai. Adibidetzat, Gaudencio izena zuen albaiari bati etxea kendu zioten.

## Gerra amaitu eta gerraostea etorri zen, eta berarekin batera errazionamendua. Zer oroitzapen duzu, edo zer da garai hartaz kontatu zizutena?

Gerra ondorena denontzat izan zen gogorra. Errazionamenduari buruz hitz egiten zidaten bai. Bizirauteko elkarren arteko trukeak ere egiten omen zituztela. Esate baterako, herriko arotz batek, guk berari gabonetarako ogia egitearen truke, egurrezko leiho berria egin omen zigun.

Ganadua ere etxean, ezkutuan hiltzen zuten, eta ez zen erraza, guardia zibila beti bueltaka baitzebil. Gainera Azpeitian bazen guardia zibil bat oso ezaguna, Marcelino, etxe guztietara joaten zena eta denek ardoa ematen ziotena, berekin ondo eraman eta arazorik ez edukitzeko.

## Azkenik diktadura frankista ezarri zen. Zer diozu frankismo garaiaz?

Oso gogorra izan zela. Garai ilunak ziren, dena galarazita zegoen.

Eskolan monjetan ibiltzen nintzen ni eta klaseak gazteleraz jasotzen genituen. Nire anaia aldiz, Iñaki, maristetan ibili zen, eta hauek mojak baino okerragoak ziren, zeharo militarrek baitziren. Iñakik komunioa egiteko doktrina ikasi beharra zuen, eta ikasi nahi bazuen gazteleraz izan behar zela esan zioten. Gure aitak baina ez zuela gazteleraz ikasiko erantzun zien, eta Don Lorenzo apaiz euskaltzalearekin hitz egin ondoren, honek maristetan doktrina euskaraz emango zuenaren konpromisoa lortu zuen.

Bestalde Carmen Polo urtero etortzen zen Damaso Azkue jabea zen fabrikara. Egundoko jendetzaz lagunduta etortzen zen, eta han egoten ziren denak zain berari opariak emateko. Ondoren fabrika bera erakutsi eta buelta bat ematen zuten Loiolatik.

## Bazen Azpeitian oso ezaguna zen emakume errepublikar bat, Paulina. Zer kontatu diezagukezu berataz?

Azpeitian, batez ere parroki atze hori, inguru berezia zen, errepublika zale asko baitzeuden bertan, tartean Paulina. Azpeiti katoliko honetan oso arraroa zen hori. Horregatik egin zen famatu Paulina.



# Egibar Etxeberria

KONTXI



«*Duesoko espetxean lur azpi batzuetan eduki zuten aita, eta marea igotzean gerritik behera uretan egoten zen.*

*Aitari, gorria zenez, kartzelatik atera zenean ez zioten lanik ematen Azpeitian.*

*Urtero, uztailearen 18a iritsitakoan, ama bere onetik irtenda egoten zela konturatzen nintzen.*»

## Zure aita gerra garaian tropa frankistei aurre egitera joan zen azpeitiarretako bat izan zen Kontxi. Zer dakizu aitari buruz?

Sozialista zen, berak gorria zela esaten zuen eta gerra langileen alde egin zuela. Atxilotu zutenean Duesoko penalean egon zen preso, Santoñan.

## Zerbait kontatzen al zuen han pasatakoaren inguruan?

Hango bizimodua oso gogorra izan zela esaten zuen. Lur azpi batzuetan edukitzen omen zituzten, eta marea igotzen zenean, bera txikia zenez, gerritik behera uretan egoten zela. Han zorri asko zeudela eta tifusa pasa zuela. Baina badaude kontatu nahi ez zituen gauzak ere. Berarekin egondako batek kontatu zigunez, aitak edaraz hitzik ere ez zekien ezin izan zuen deklaratu, ez zuelako ulertzen esaten ziotena, eta more more eginda laga omen zuten. Ondoren handik Donostiara, Ondarretako kartzelara ekarri zuten.

## Espetxean kondizio gogorretan egon zen beraz. Bitartean nolako zen herrian geratu ziren familiakoen bizimodua?

Ama eta bi umeri, nire anaia eta ahizpa, batek hiru urte eta besteak lau zauzkatenak, desterratuta Azpeititik kanpora irteteko agindua eman zieten. Amaren lehengusu baten baserrian ezkutatuta egon ziren bi urtez, kanpora irten ere egin gabe, etxe barruan. Gero umeak kanpoko zelaira irteten hasi ziren, baina auzoko batzuek ikusi eta salaketa jarri zieten Azpeitiko udaletxean. Orduan alkateak amari deitu zion deklaratzera joateko. Emakume hura bi ume haiekin ikusi zuenean kalean bizitzera etortzeko inor ba al zeukan galdetu zion, eta ama bakarrik zeukala erantzun zion, bi osaba ere gerran zirelako. Horrela, bizitzera kalera etorri eta umeak eskolara eramateko esan omen zioten. Beraz gerra bukatu arte amarekin bizi izan ziren. Gerra bukatu eta osabak itzuli zirenean etxe bat topatu eta han jarri ziren bizitzen. Baina nire amak ez zeukan dirurik. Zeukan diru apurra alpargatak josten ateratzen zuen. Eta bi umeak gizarte zerbitzuetara edo falangera joan behar izaten ziren bazkaldu eta afaltzera. Etxe zurin zegoen lokal hau.

## Nola bizi izan zuen aitak herrira itzulera?

Aitari, gorria zenez, kartzelatik atera zenean ez zioten lanik ematen Azpeitian. Ondorioz Eibarrera joan behar izan zen lanera.

## Egunero joaten al zen Eibarrera?

Egunero ez. Apopilo bizitzen jarri zen han eta asteen behin etortzen zen. Askotan autobusa ordaintzeko dirurik ere ez zuten edukitzen, eta oinez etortzen omen ziren Eibarretik Azpeitira. Larunbatean etorri eta berriro igande iluntzean edo astelehen goizean itzultzen ziren.

## Berak gutxi hitz egiten zuen gai honen inguruan

Ez zuen ia ezer ere kontatzen.

## Eta amak? Zerbait gehiago kontatzen al zizuen?

Amak ere ez. Gaia ateratakoan urduri jartzen zen, ikaragarriak pasa zituztela antzematen zitzaion. Eta urtero, uztailearen 18a iritsitakoan, konturatzen nintzen ama bere onetik irtenda egoten zela.

## Zure anaiak ere jazarpena pairatu behar izan zuen. Zergatik?

Anaia ELA sindikatuan zegoen, eta guardia zibila beti atzetik ibiltzen zitzaion, ELA legez kanpokoak baitzen. Gerora bere bila etorri ziren etxera, baina ez zuten harrapatu, ordurako ihes egina baitzegoen. Hamahiru urte egin zituen herritik kanpo. Oso gaizki pasa genuen kanpoan zegoen bitartean, urteak pasa baikenituen non zegoen jakin gabe. Ezkondu zenean jakin genuen Bilbon zegoela. Lehenengo umea izan zutenean ama joaten zen umea zaintzera, nire anaia klandestinitatean baitzegoen, eta emaztea lanean. Eta nik hara bisitara joateko autobusa hartu baino lehen autobusean zein joaten zen bigilatzen nuen, igo edo ez jakiteko. Eta bide guztia beldurrez egoten nintzen. Bilbora iritsitakoan ere ezkutu ibili behar, inork ez ikusteko.

## Hala eta guztiz ere ikusi eta salatu egin zuten

Azpeitiar batek ikusi zuen Bilbon, lehenengo semea izan zuenean epaitegira inskribatzera joan zenean, eta salatu egin zuen.

# MILAGROS eta BEGOÑA

*Milagros eta Begoña Elias Olazabal Azpeitian jaio ziren 1949. urteko maiatzaren 17an. Aitak Paco Elias Unanue zuen izena, eta amak Juliana Olazabal Aranguren, biak azpeitiarrak. Aitak beste hiru anaia zituen, eta laurak ibili ziren gerran, bi alde batean eta beste bi bestean.*



*«Egoera gogorak pasa zituzten, anaiak bi bandotan banatuta baitzeuden.*

*Aitak esaten zuen ordu jakin batean ateratzen zituztela presoak fusilatzeke, eta behin baino gehiagotan deitu ziotela berari, sufriarazteke.*

*Aitak kontatzen zuen beste Azpeitiar bat ere berarekin zegoela, 'Beltza' esaten ziotena, eta hura fusilatu egin zutela.*

*«Taberna batera sartu eta batzuetan bidali egiten zuten, eta alde egin behar.»*

## **Zuen aitak beste hiru anaia zituen, eta laurak ibili ziren gerran, bi alde batean eta beste bi bestean. Zer dakizue zuen aita eta osaben gerra garaiko ibilerei buruz?**

Saturnino eta Manuel Elias Unanue "Pottin" erreketek ziren. Manuel frentean hil zen, Lemoan. Eta Saturnino erreketen tenientea zen. Eta gero beste aldean zeuden Jose Maria Elias Unanue, Loiolako batailoiarekin borrokatu zuena, eta ondoren Langile Batailoian egon zena Cadizen. Eta gure aita, herritik alde egin zuena. Egoera gogorak pasa zituzten, anaiak bi bandotan banatuta baitzeuden. Esan bezala Manuel hil egin zen, baina ondoren beste anaiak erlazio ona eduki zuten elkarren artean.

## **Beraz aitak alde egin zuen. Zer gertatu zen berarekin?**

Bizkaira alde egin eta Gernikako bonbardaketa bizi izan zuen. Aitak kontatzen zuen Azpeitiko "Potxolo"-rekin, hemen egunkariak saltzen zituena, zegoela Gernikan, eta bonbardaketako sirenak entzun zituenean aita errefugioara sartu zela, baina "Potxolo" estazioa joan zela. Aitak izugarritzko eztanda entzun omen zuen errefugioan zegoela, eta irten zuenean "Potxolo" ikusi zuen beso bat falta zitzaiola.

## **Gernikatik Bilbora joan zen, eta han preso hartu zuten**

Bilbon atxilotu eta "Eskolapioetan" egon zen preso urte batez. Gure aita tapizeroa zen, eta han preso zegoela hango funtzionario batek bere etxeko lan batzuk egiteko eskatu zion. Eliza batetik lapurtutako telak ekarri zizkion tapizatzeke, eta hala egin zuen, baina zati bat gorde zuen. Izan ere elizatik salatu egin zuten funtzionarioa, eta epaiketan tela pusketa hori erabili zuten frogaz bezala. Ondorioz espetxeratu egin zuten. Funtzionario horrek oso fama txarra zeukan eta jende asko poztu zen gertaera honetaz.

## **"Eskolapioetatik" etxera itzuli zen. Nolakoa izan zen herrira itzulera?**

Ordurako ezkondua zegoen eta familia zeukan. Berak beti kontatzen zuen taberna batera joan eta batek nola esan zion: "Etorri al haiz? Laster bidaliko haugu berriro kartzelara". Eta gero handik gutxira denuntzia bat sartu zioten. Despedida bateko argazki bat erabili zuten frogaz bezala eta "por borracho, matón e indeseable" espetxeratu zuten.

## **Eta berriro kartzelara, heriotz zigorra eta guzti**

Oraingo honetan Donostiara eraman zuten, Ondarretara. Han heriotza zigorra ezarri zioten. Eta aitak kontatzen zuen beste Azpeitiar bat ere berarekin zegoela, "Beltza" esaten ziotena, eta hura fusilatu egin zutela. Hura ere denuntzia baten ondorioz zegoen espetxean, ez politika kontuengatik. Aitak esaten zuen ordu jakin batean ateratzen zituztela presoak fusilatzeke, eta behin baino gehiagotan deitu ziotela berari, sufriarazteke. Arreba moja bat zeukan, eta honek Cardenas medikuari idatzi zion, Ondarretan zegoen mediku militarri. Anaia heriotza zigorrean kondenatuta zegoela esanaz idatzi zion, eta hark odol delituri ba al zeukan galdetu eta ezetz erantzutean lagunduko ziela erantzun zion Cardenasek. Heriotza zigorra kommutatu zioten eta urtebeteren ondoren aske geratu zen.

## **Nolakoa izan zen itzulera oraingoan?**

Ez zen erraza izan. Taberna batera sartu eta batzuetan bidali egiten zuten, eta alde egin behar. Gogorra zen hori, beraiek agintzen zuten herrian. Jose Antonio Agirre hil zenean ere pasaporteak kendu zioten hiletara ez joateko.

## **Kontatzen al zizueten aitak edo osabek gerra garaiko konturik?**

Bai. Oroitzen naiz behin Iñaki Goikoetxea, Loiolan egon zen jesuita bat, etorri zela gure etxera, eta haren aita gurearekin batera egon zen "eskolapioetan". Iñakik esaten zion guri ez kontatzeko kontu haiek, gazteak ginela eta, baina gure aitak dena kontatzen zigun. Gernikako bonbardaketaren inguruan kontatzen zuen gehiena, gaizki pasa zuen. Ondarretako kartzelan, hondartza ondoan zegoenez, hezetan handia omen zegoela ere kontatzen zigun. Osaba Jose Mari berriz Langile Batailoian Cadiz-en egon zenean errepedeak egiten zituztela kontatzen zigun.

## **Aitak Ondarretako kartzelan abesten zuten kanta bat ere erakutsi zizuen**

Bazkari guztietan abesten zuten: "Estamos en Ondarreta por ser muy nacionalistas, y gritamos con orgullo que somos separatistas. Nuestro lema es 'jaungoikoa', la doctrina 'lege zaharra' eta gero zutik jarri eta "Y gritamos con arrogancia, gora Euskadi askatuta!".

# Errasti Agirre

# BEGOÑA



**M<sup>o</sup> Begoña Errasti Agirre "Amube" baserrian jaio zen 1939. urtean**

«**Aitari espetxetik etxera itzuli ahal izateko agiria eman zion soldaduaren ahotik honakoa entzun behar izan zuen amak: 'Gustu handiz emango dizugu, hura harrapatzeko zain baikaude fusilatzeko.**

**Erdaraz hitz egin beharra zegoen zigorrik jaso nahi ez bazenuen.**

**Falangista bati honakoa erantzutearren zigortuta egon nintzen: 'Si a su padre no le hubiesen robado toda la hacienda que tenía podría venir vestido de seda.'»**

## Zein ziren zure gurasoak Begoña?

Aitak Francisco Errasti Egiguren zeukan izena. Lasaoko "Trukuman" baserrikoa zen, nahiz eta berezko izena "Palankabi" izan. Amak berriz Juana Agirre Oiarzabal zeukan izena. Biak ezkondu eta berehala hasi zen gerra.

## Gerra hasi eta aita Bilbora joan zen, borrokatzera, ezta?

Bai, amaren anai batekin batera joan zen. Begoñan egon omen zen, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Departamenturako lan egiten zuen. Hemendik ihes egiteko aukera izan omen zuen, "Sota y Andar" Bilboko nabigeroekin. Ramon Sota-k eskaini omen zion aukera, baina orduarako amak haurra izana zuen eta andrea eta haurra bakarrik ez uztearren hemen geratu zen.

## Eta preso hartu zuten

Bilbon preso hartu eta Valladolidera eraman zuten, Santa Espinara, hango penalera. Han zegoen bitartean amari etxea kendu zioten, eta bere gurasoen baserrira joan beharra izan zuen.

## Nola lortu zuen etxera itzultzea?

Aita "la adoración nocturna"-ko partaide zen, eta honek espetxetik lehenago ateratzen lagunduko ziola pentsatuaz Zestoara joan zen ama hau ziurtatzen zuen agiri edo informea eskatzera. Tramite horretaz arduratzen zen gizonak honakoa esan omen zion eskaria entzundakoan: "Gustu handiz emango dizugu, hura harrapatzeko zain baikaude fusilatzeko". Eta amak erantzun: "Ba laster izango duzue ba hemen". Eta halaxe agiria eman, Valladolidera bidali, eta berehalaxe honantz etortzeko moduan izan zen aita.

## Nolakoa izan zen herrira itzulera?

Itzuli zenean sarri sarri komandantzian presentatu beharra izaten zuen, eta beldur ziren komandantzian presentatzera agindutako denak gero Santoñako penalera bidaltzen zituztelako. Baina nire aita aske geratu zen bi kondizioekin: Alde batetik hiru urtez baserrian ezkutatuta egon behar zuen, eta bestetik, aitak Valladoliden praktikante ikasketak burutu baitzituen denbora batez, Frankoren tropetako zaurituak sendatzen lagundu behar zuen. Halaxe hiru urtez. Ondoren bulego bat jarri eta diputazioko eta Urolako praktikante lanetan aritu zen.

## Amari ere iritsi zitzaion zigorra. Denboraldi bat Lazkaon pasa beharra izan zuen

Hasieran Iruñera joateko agindua eman zioten. Zortzi hilabeteko haurdun zegoen, eta ez zeukan ezagunik alde hartan. Lehenengo familiako batzuen baserrian ezkutatu zen, baina Guardia Zibilak berehala harrapatu eta berriro Iruñeara joateko agindua eman zioten. Azkenean Lazkaon ezkontuta zeukan ahizpa baten etxera joan eta han libre ibiltzeko baimena lortu zuen. Eta gero, familia izateko garaia izan zuenean, baimena eman zioten hona itzultzeko. Ez zuen denbora asko pasa Lazkaon.

## Gerra amaitu eta Frankoren diktadura ezarri zen. Zer oroitzen duzu garai hartako eskolaz?


Erdaraz hitz egin beharra zegoen zigorrik jaso nahi ez bazenuen. Ostegunetan falangista bat etortzen zen, eta falangeko liburuxken inguruko galderak erantzun ondoren 'cara al sol' abestu behar izaten genuen.

Egun batean zigortu ere egin ninduten. Izan ere bazen ikasle bat oso familia pobreakoa zena, eta falangista hori beti berarekin sartzen zen. Behin uniformerik gabe etorri zelako kontuak eskatzen hasi zitzaion falangista, eta nik honakoa esan nion: "Si a su padre no le hubiesen robado toda la hacienda que tenía, podría venir vestido de seda". Etxean ere zigortu ninduten hori esateagatik, baina hark entzun beharra izan zuen.

Beste behin berriz, kurtso bukaera zen, eta errektorea, alkatea, kapellaua eta moja superiora etortzen ziren ikasketak, asistentzia eta jarrera onak saritzeko ikasleei banda batzuk jartzera. Astigarraga alkateari gerra denboran nire aitak hanka sendatu zion, erreketea baitzen, eta niri banda ipintzera zihoala honakoa esan zuen: "Para mí es un gran honor ponerle esta banda a una Errasti." Bukatu zuenean jaiki nintzen eta esan nion: "No puedo decir lo mismo. Yo me niego a que me ponga usted esa banda". Eta eseri egin nintzen. Moja superiorak mesedez horrelakorik ez egiteko esan zidan, baina guztiak agurtu eta alde egin nuen. Kapellaua, Don Jose Maria Agirre, gure amaren osaba zen, eta gure etxera joan eta gurasoei dena kontatu zien. Zigor moduan udaran Iruñeara joan behar izan nuen, 'Madres Ursulinas'-era.

# Errasti Odrizozola

BEGOÑA



*Begoña Errasti Odrizozola Oñatz-ko "Olano" baserrian jaio zen. Aitak Jose Antonio Errasti zuen izena, eta amak Maria Odrizozola.*

«*Iritsi zirenerako gizona hila omen zegoen, fusilatu egin zuten. Medikua ote zen zioten.*

*Errentero denak karlista egin zituzten, bestela ez zieten uzten eta errentan jarraitzen.*

«*Andre 'gorrienak', senarra gerran edo hilda zutenak, Lazaretora ekartzen omen zituzten.*»

## Zer kontatu zizun amak gerra aurreko eta gerra hasierako denborez?

Ama, Maria Odrizozola, oso gaztea zela Azpeitira etorri zen lanera Don Antonio medikuaren etxera. Hemen zela Etxe Zuriko Inazioarekin hasi zen irtetzen, zeina oso abertzalea zen, gure amaren familia ez bezala, karlistak baitziren. Amak hemezortzi urte zituela hasi zen gerra, eta gerra hasieran bere mutil lagunak egin zituen ekintza batzuen ondorioz (Jesusen Bihotzaren estatua bat hautsi, eta Roke Astigarraga alkate karlistaren "Astigarraga" tabernaren almazenean zeuden Nafarroako ardo zaragiak fusilekin zulatu, besteak beste) erreketek, Azpeitira sartu zirenean, Etxe Zuriko etxera sartu, gauzak errekiatu eta dena puskatuta utzi zieten. Honen jakitun ziren baina aurretik, eta gauza baliotsuenak Don Antonioren etxeko ganbaran ezkatuta utzi zituzten. Izan ere, Don Antoniok, etxera laguntza eske joaten zitzaionari esku bat botatzen zion beti, edozein alderditakoa izanda ere. Orain tren museoa dagoen lekuan gerra garaian Urola estazioa zegoen. Soldaduak estazio horretatik etorri eta joaten zirela kontatzen zuen amak. Etortzen ziren soldaduak etxe ezagunenetara bidaltzen zituzten ofizialek, bertan jan eta lo egin zezaten. Don Antonioren etxean ere egon omen ziren. Etxeko nagusiarekin oso edukatuak baziren ere neskekin nahiko lotsaga-beak zirela esaten zuen amak.

## Aitak ere hainbat gertaera kontatu zizkizun, tartean fusilamendu batzuen inguruak

Aitak fusilamentuak izaten zirela kontatu zidan, eta egun batean "Zamaie" baserrian, Aratz Erreka bidean, gizon bat fusilatu behar zutela jakin zutela. Aita eta Facundo ikustera joan omen ziren, baina iritsi zirenerako gizona hilda omen zegoen. Medikua ote zen zioten. Traje marroia eta zapata zuri marroiekin jantzita zegoela esaten zuen nire aitak. Eta gizona han zegoela tiroz hila, "Zamaie" baserrian.

## Zuen etxean errentan jarraitzekotan aita karlista egin behar izan zen, ezta?

Halaxe da. Gure baserriaren jabeek Urrestillan beste etxe eta baserri asko zituzten errentan jarrita. Eta beraien errentero denak karlista egin zituztela oroitzen naiz, tartean gure aita, bestela ez omen zieten eta errentan jarraitzen uzten. Izan ere beren Bilboko iloba bat, hamalau bat urtekoa, anarkistek bortxatu eta hil zutela esaten zuten, eta hortik zetorrela beren amorrua.

## Bestalde auzokideen artean ezinikusi handia sortu omen zen gerra zela eta

Bai, ezinikusi hori islatzen duten kasu bat baino gehiagoz oroitzen naiz gainera. Nire gizonaren aitari esaterako, "Etxeberri" baserriko Jose Ignazio Aranguren, zeina auzoko alkatea izan zen, egun batean Aratz Erreko nazionalista batzuk etorri zitzaizkion bila, auzoko alkate izateagatik soilik, ez baitzuten behin ere ezer txarrik egin. Beste adibide bat nire amaren "Txokolate" baserrian lana egiten zuen Facundo izeneko gizon bati gertaturikoa da. Espia izatea leporatuta atxilotu eta Loiolako kartzelara eraman zuten. Han egun batzuk pasa zituen, ahalik eta nire ama, bi oilo eta baserriko ogi bat hartuta, hara joan eta han zeuden soldaduekin trukea egin ondoren aske geratu zen arte. Nire izeba bat berriz, Josepa Antoni, Landetan bizi zena, Oñatz-ko baserrira familiako bat bisitatzen joan eta atzera jaiotetxera, "Txokolate"ra bueltatu zenean auzokoei denuntzia sartu eta Loiolako kartzelara eraman zuten hura ere. Lau edo bost ume zeuzkan eta kartzelara eraman zuten. Josepa Antonioren gizonak esnea banatzen zuen etxeetara, eta horietako batzuk abertzaleak ziren. Baten etxera joan omen zen gertaturikoa kontatzen eta haren laguntzaz askatu omen zuten. Aranguren ahizpez ere gogoratzen naiz. Maritxu, Jesusa eta Juana, Azauraza baserrikoak, oso abertzaleak ziren. Jesusak klaseak ematen zituen Olazko mojetan, eta euskaraz irakasten zuen. Beren auzokideak baina, "Kaminburu" baserrikoak, karlistak ziren, eta bizitza ezinezkoa egin zieten, beti kontrolatuta edukitzen zituzten. Horrela, egun batez, Jesusak ibilaldi bat antolatu omen zuen mojekin batera eskolako umeentzako. Ibilaldi horretarako dirua batu zuten, eta mojek esanda Jesusak bere etxean gorde zuen diru hori. Egund batean etxea erregistratzen etorri zitzaizkion soldaduak, eta ibilaldirako diru guztia errekiatu zioten. Beste bi ahizpak kartzelan egon ziren. Bizitza oso oso zaila egin zioten.

## Halere bazen alde egin aurretik agurtzera zuen baserrira joan zenik

Nire aitaren lagun handi bat zen, ezkertiarra, Agustin, Oñatz-ko "Etxeberri" baserrikoa. Etxera etorri zen gau batez, alde egiteri zihoala eta beldurra zeukala esatera. Alde egin zuen eta ez zen gehiago azaldu. Esaten dute Bizkaia aldean hil zutela, baina bere aztarnarik ez dago.

## Azpeitian errepublikaren alde borrokatzen joandako gizonen emazte eta haurrak espetxeratuta eduki zituztela ere entzun izan duzu. Zer dakizu horri buruz?

Andre "gorrienak", senarra gerran edo hilda zutenak, Lazaretora ekartzen omen zituzten. Ez ziren Azpeitiarrak, kanpokoak ziren, eta hor bizitzen ziren beren umeekin batera. Kartzela bat bezalakoa zen, eta ez ziren ondo ikusiak. Ez zeukaten ezer ere, baina mediku zerbitzua bai. Hain zuzen ere Don Antonio, nire ama neska zegoen etxekoa, zen beren medikua.

# Garmendia Altuna

MIREN



*Miren Garmendia Altuna 1959. urteko abuztuaren 26an jaio zen Azpeitian. Aitak Jose Mari Garmendia Errasti zeukan izena, eta amak Maria Altuna Astigarraga. Biak espetxean egon ziren.*

« *Nuarbeko parrokoari berrogei oilasko harrapatzea leporatzen zioten amari, ondoren gudariarentzat prestatzeko.*

*Aitak zioenez izugarrizko gosea pasa zuten Ondarretan.* »

## Zure aita eta ama auzitegi militar frankistak epaituak eta ondoren espetxeratuak izan ziren, Miren

Hala da. Ez genuen aukera askorik izan beraiekin gai honetaz hitz egiteko, ama berrogeita hamazazpi urterekin hil baitzen, nik hamahiru urte nituela, eta aita hirurogeita bederatzirekin, nik hamazazpi urte nituela. Aitari entzun izan zion Burgoseko espetxean egon zela, baina gainontzean ez zuen gauza handirik kontatu. Amak aldiz ez zuen inoiz ere ezer kontatu gertaturikoaz. Baina zerbait sumatzen genuen, horregatik hasi baikin informazioa bilatzen. Aranzadiren bitartez informazio asko iritsi zaigu. Azpeitiko proiektua martxan jarri zenean harremanetan jarri ginen beraiekin, eta dokumentazio asko jaso dugu, nahiz eta datu batzuk ez diren garbi ikusten. Oso informazio interesgarria iruditu zait. Amaren inguruko nahikotxo dokumentazio iritsi zaigu, gauza asko ez genekizkienak gainera.

## Dokumentazio horren bitartez zein informazio jakin ahal izan duzue?

Aitaren ingurukoa ez dut gehiegi jaso, dokumentu batzuk ez dira oso argi ikusten eta. Aita errepublikaren alde borrokan aritu zen gerran, eta harrapatu ondoren espetxeratu eta hiru urte pasa zituen Burgoseko kartzelan, aharik eta Bilbon askatu zuten arte.

Baina amari buruz jaso dugun informazioa harrigarria egin zait. Azpeitian EAJ-k "emakumeak" izeneko talde bat omen zeukan, eta bere aurkako akusazioa talde honetako partaide izatea zen. Gudariei komedorean jatekoa preparatzea zen beraien egin beharretako bat. Horrela, Nuarbeko parrokoari berrogei oilasko harrapatzea leporatzen zioten amari, ondoren gudariarentzat prestatzeko. Kalera etortzen ziren baserri-tarrei ere arrautzak eta esnea harrapatzea leporatzen zioten. Informazio horrekin harridura geratu naiz.

## Horren akusaziopean non espetxeratu zuten ama?

Donostiako kartzelan, Ondarretan. Bi hilabete inguru pasa zituen han.

## Aitak, itzultzean, zerbait kontatu al zizueten?

Ez, berari entzundako datu bakarra daukat buruan, izugarrizko gosea pasatzen zutela espetxean, eta arratoien haragia ere jateko prest zezudela, nahiz eta ez dudan uste inoiz jan zutenik. Pentsa gosea zenbaterainokoa zen. Horrez gain etxean gudarien txapa bat, "Intendencia militar de Euskadi" edo jartzen duena, eta kartzelan egindako gurutze bat, non "bihotzez espetxetik" jartzen duen aurkitu ditugu. Azken hau, ziur jakin ez arren, aitak amari espetxetik bidalitakoa dela uste dugu.

## Zer sentazio sortarazi dizu horrenbeste denbora eta gero informazio hori jasotzeak?

Amarenak harridura sortu dit, aitarenak ez horrenbeste, gauza gehiago genekizkielako.

## Garrantzitsua iruditzen al zaizu horrelako proiektuak martxan jarri eta informazioa azalaraztea?

Bai, niri baietz iruditzen zait. Beti alde batekoa soilik jakin izan dugu, eta beste aldekoaren informazioa edukitzea ere oso garrantzitsua dela deritot, zer gertatu den jakiteko.

# Iturzaeta Mendia

JOXEMARI



*Joxemari Iturzaeta Mendia Urrestillako "Altuna - erdi" baserrian jaio zen 1957. urtean. Aitak, Joxe Inaxio Iturzaeta Zubizarretak, (1905) tropa frankistak Azpeitira sartzean ihes egin zuen Bizkaia aldera. Osaba, Zelestino Iturzaeta Zubizarreta berriz Bizkaiko frentean erail zuten fusilatuta.*

“*Aitak askotan kontaktzen zuen Gernikako mendixka batetatik ikusi zutela Alemanek Gernika nola bonbardatzen zuten azoka eguna zen astelehen horretan.*”

*Gertatutakoaren egia jakitea eta beren gorpuk berreskuratu eta egon behar duten lekuan lurperatzea zor diegu.*”

## **Tropa frankistak Azpeitira sartzean zure aitak Bilbora alde egin beharra izan zuen. Ondoren etorri ziren atxiloteta eta Langile Batailoian gatibu lanak egin beharra**

Bilbora alde egin beharra izan zuen bai, baina badakit hara iritsi aurretik Gernika inguruan ere ibili zela, askotan kontaktzen baitzuen Gernikako mendixka batetatik ikusi zutela Alemanek Gernika nola bonbardatzen zuten azoka eguna zen astelehen horretan. Bilbon hilabete bastante pasa zituen, eta han zeudela menditik egurra eramaten zuten, egur horrekin lortzen zuten diruarekin elikatzen baitziren. Bilbotik ere alde egin beharra izan zuten, eta Santanderren atxilotuak izan ziren, El Sardinero-n, orain futbol zelaia dagoen lekuan. Han atxilotu eta Bilbora ekarri zituzten berriro, zezen plazara. Bere arrebek janaria ematen zioten bertan zegoelarik. Ondoren Gallartako minetara eramaten zuten, Langile Batailoira. Bertan, nire aita eta gainontzeko presoek, Gallartatik Bilboko labe handietara zihoazen burdin mineralez betetako tren bagoiak kargatzen zituzten. Berak kontaktzen zigun egunero lan bat zeukatela egiteko, eta momentu bat iritsi zitzaion ezin zuela bete eguneroko lana. Egoerari aurre egiteko eskuineko behatz potoloa lehertu zuen harri batekin, horrela egun batzuk pasa zituen erizaintzan mineral harririk kargatu gabe tren bagoietan.

## **Hori dena aitak berak kontatuta dakizue?**

Bai, berataz gauza asko kontaktzen zizkigun, baina bere anaia Zelestinotaz ezer ere ez. Pentsatzen dugu gu babesteagatik egingo zuela. 1976. urtean izan genuen aukera bere anaiaz galdetzeko, denok baserrian bazkaltzen geunden batean harri artean ezkutatuta zeukan herdoildutako menbrilo kaxa batetatik dokumentu pila bat atera baitzituen, errepublika garaiko dirua, Gallartako Langile Batailoitik etxera bueltatu ahal izateko baimen agiria, gudari bezala zeukan zedula militarra, eta baita anaia Zelestinoren hil errekor-datorioa ere. Baina guk momentu hartan ez genion ezer galdetu bere anaia Zelestinotaz, eta orain daukagun damu handiena hori da.

## **Eta aitak ez kontatu arren ba al dakizu zerbait zure osaba Zelestinori gertatutakoari buruz?**

Bere hil errekor-datorioan agertzen da 37an Bizkaiko frentean hil zutela. Urrestillan testiguak daude esaten dutenak Zalla inguruan hil zutela. Osaba soinu-jolea zen, eta batzuk esaten zuten bere eskusoinu eta guzti hil eta lurperatu zutela, eta besteek hil aurretik kendu ziotela. Bestalde Azpeitiko udaleko artxiboko dokumentu batean agertzen da Loiola batailoira inkorporatu zela. Beraz ez daukagu informazio argirik gertatu zitzaionaren inguruan.

## **Zein iritzi duzu 1936-1945 urte bitarteko errealtatea ikertzea helburu duen proiektu honen inguruan?**

Aranzadi egiten ari den lanari buruz esango nuke lehenaldia edo pasatako historia ikertu eta kontaktzen ez duen herriak oso zaila daukala bakera iristea. Bestetik uste dut nire aita, ama, osaba, denei zor diegula gertatutakoaren egia jakitea, eta beren gorpuk berreskuratu eta egon behar duten lekuan lurperatzea. Eta azkenik uste dut inoiz ez dela berandu ikerketa hau egiteko.

# Larrañaga Orbegozo

INAXIO



*Inixio Larrañaga Orbegozok 86 urte dauzkat. Bere aitak Rufino Larrañaga Iriarte zuen izena, eta amak Maria Orbegozo Arzuaga, biak azpeitiarrak.*

« Erreketeak eta margaritak edozein egunetan etortzen ziren gure etxea erregistratzera. Gure amari tratu txarra ematen zioten. Ez dakit jo zuten, ez nintzen inoiz galdetzera ausartu.

Maistrek 'Gipuzkoa debe todo lo que es a España' idazten zuten ikasgelan. »

## Gerra hasierako zein oroitzapen dituzu zuk, Inixio?

Pelota lekuan jaio nintzen ni. Han behean nazionalisten batzokia zegoen, eta gure ama arduratzen zen hura garbitzeaz. Ondoren batzokia lekuz aldatu zuten, eta gu ere eliz atarira joan ginen bizitzera. Eliza aurrean geneukan, eta gerran hildako erreketei han egiten zieten hileta elizkizuna. Gure familiaren berri bazuten errekete eta margaritek, eta hileta bat zegoen bakoitzean gure balkoira begira egoten ziren. Ondoren gure etxera igo eta amari oso tratu txarra ematen zioten. Gure ama jostuna zen, eta beren praktikak zein alkandorak ekartzen zizkioten josteko.

## Ondoren eskutitz bat iritsi zitzaion amari. Zer jartzen zuen eskutitz hartan?

Udaletxeko langile bat etorri zen eskutitza ekartzera. Bertan, zigor moduan, Etxalarrera joateko agindua ematen zitzaion. Baina azkenean Oriora joan zen alaba gazteenarekin, Jonerekin, aitaren anai baten etxera, eta han egon ziren ezkatututa. Aita gerran eta ama Orion ezkatututa zegoenez, gu, hiru anaiok, gure aitaren arreba baten etxera joan ginen bizitzera, goiko kalera.

## Bitartean, esan duzun moduan, zure aita gudari bezala zebilen gerran

Bai, askok alde egin zuten, eta gure aitak ere hala egin zuen.

## Zer pasa zen berarekin?

Laredoko kartzelan egon zen denboraldi batez, eta ondoren etxera itzuli zen. Ez zuen pasa zuenaren inguruko gauza askorik kontatu. Laredoko espetxean azpeitiar askorekin egon zela, eta ezer gutxi gehiago.

## Nolakoa izan zen zuen bizitza ordutik aurrera?

Erreketeak eta margaritak edozein egunetan etortzen ziren gure etxea erregistratzera. Gure amari tratu txarra ematen zioten. Ez dakit jo zuten, ez nintzen inoiz galdetzera ausartu.

## Beldurrez egongo zineten, ezta?

Bai, eta kalean ere bai, "nazionalista traidorea" esaten ziguten.

## Eta eskolan?

Eskola plazan zegoen. Joandakoan "cara al sol" kantatu behar izaten genuen besoa igota. Maristek "Gipuzkoa debe todo lo que es a España" ipintzen zuten ikasgelan, gurutze handiak ere bai, eta egurra ematen zuten.

## Eta dena erdararaz

Beharko, bestela... Zuzendaria Burgoskoa zen, hura falangista izango zen.

# Nazabal Arrieta



*Koro Nazabal Arrieta Azpeitian jaio zen 1948. urteko urriaren 6an. Bere aitak Jose Nazabal Carpentier zuen izena, eta amak M<sup>o</sup> Teresa Arrieta, Donostiarra. Aita EAE-ANVko zinegotzia izan zen Azpeitian. Gerra garaian salaketa baten ondorioz espetxean egon zen heriotza zigorrera kondenatuta.*

“ Jendeak zer pasa zen jakin behar du.

Herritar batek salaketa jarri zion aitari norbait hiltzea leporatuta, eta horregatik espetxeratu eta heriotza zigorra ezarri zioten.”

## **Zure aita gerra garaian espetxean egon zen heriotza zigorrera kondenatuta salaketa baten ondorioz. Zer dakizu gertaera honen inguruan Koro?**

Herritar batek salaketa jarri zion norbait hiltzea leporatuta, eta horregatik espetxeratu zuten. Kartzela asko pasa zituen lau urtetan, horietako bat Santoña, eta heriotza zigorra ere ezarri zioten. Nire izebek, bere arrebek alegia, zituzten kontaktu batzuei esker lortu zuen espetxetik irteeta. Baina han pairatutako hezetasunak ondorioak utzi zizkion, eta gerora birika bat kendu behar izan zioten. Azkenean bihotzekoak jota hil zen ni gaztea nintzela. Amak kontatzen zidanez nire aita oso pertsona ona zen, eta nahiz eta jakin salatzailea nor izan zen, ez zion inolako gorrotorik eduki.

## **Itzultzean berak zerbait kontatu al zizuen?**

Ez, niri behintzat ez. Oso gaztea nintzen ama eta aita hil zirenean eta ez nuen gai honetaz hitz egiteko aukerarik eduki. Ondorioz ez ditut datu asko. Dakidana da amak aita bisitatzera kartzelara joan ahal izateko ezkonduarenak egiten zutela, nahiz eta kartzelatik irten ondoren ezkondu ziren. Seme bat ere bazutela esaten zuten, Ramon, eta hain zuzen ere ondoren eduki zuten lehenengo semeari izen horixe jarri zioten.

## **Zer iritzi duzu urte horietan gertatutakoa ikertzeko proiektu honen inguruan?**

Garrantzitsua dela iruditzen zait, jendeak zer pasa zen jakin behar du.



# KONTXI Odriozola Uzkudun

MIREN eta



*Miren eta Kontxi Odriozola Uzkudun Azpeitiko "Gerra Haundi" baserrian jaio ziren, beste sei anai - arrebekin batera. Ama, Encarnacion Uzkudun Oiarzabal, Errezilgo "Gurutzaga" baserrikoa zen. Beren aita, Jose Ramon Odriozola Alberdi, eta osaba bat, Inazio Odriozola Alberdi, Frankoren tropen aurka aritu ziren borrokatzen errepublikarren aldean.*

« *Gernikako bonbardaketa: 'Hirurogei hegazkin baino gehiago zirela esaten zuen, bat bestearen atzetik bonbak bota eta bota, izugarria izan zela.*

*Esaten zuen Ebroko ibaia gorria zegoela, hainbeste odol isuri izanaren ondorioz.*

*Aitzolek gurutze bat omen zeukan, eta gurutzea hartu, begian jo, eta begia atera omen zioten Hernanira fusilatzerara eraman baino lehen.*

*Hiru hilabetez egon zen heriotza zigorrarekin gauero ea bere izena noiz esango zuten zain. »*

## Zer kontatzen zizuen amak gerra hasi zeneko garaiaz?

Kontatzen zigun Nafarroatik zetozen karlista eta erreketeez tiroak botatzen zituztenean, beraiek sukaldean egoten zirela oheko koltxoi bat lehoan jarrita balak sukaldera sar ez zitezen.

## Zuen aita, gerra hasi zenean, tropa frankisten aurka borrokatzerara joan zen. Ordurako ama eta aita elkarrekin zebiltzan, ezta?

Hala da, eta aitak alde egin zuenean ama bere zain geratu zen zazpi urtez. Etxetik Bizkaian botatzen zituzten bonbak entzuten zituztela esaten zuen, gauzez ere bai, eta bera beldurrez esnatzen zela beti, gure aita nola egongo ote zen pentsatzen.

## Zergatik joan zen aita gerrara?

Abertzalea zelako joan zen. Euskalduna eta abertzalea zen, eta gainera ezkertiarra. Eta orduan errepublikarrekin batera joan zen gerrara, Euskal Herria defendatzera.

## Nondik ibili zen?

Bere anaia Inazio eta Azpeitiko beste lagun batzuekin batera, Inaxio Zubimendi tarteko, Bizkaira joan zen herria defendatzera, aberria defendatzera. Bertan denboraldi batez egon ziren. Beraiek ez zuten abiazioaren laguntzarik, eta mendi bat hartzen zuten bakoitzean Frankoren abiazioak bonbardatu egiten zuten, eta ondorioz beraiek atzera egin behar izaten zuten. Baina gauzez berriz ere mendi hori hartzen zutela kontatzen zuen, eta horrela askotan.

## Gernikako bonbardaketa ere gertutik bizi izan zuten

Bezperan Gernikan egon ziren, eta iluntzean beraiek zeuden menditik ikusi zuten bonbardaketa guztia. Hirurogei hegazkin baino gehiago zirela esaten zuen, bat bestearen atzetik bonbak bota eta bota, izugarria izan zela. Eta beraiek mendira alde egin zutelako salbatu zirela. Han

gelditu ziren asko, Gernikan, hil egin ziren. Bazen gizon bat, Azpeitiarra, egunkariak saltzen egoten zena, han gelditu eta besoa moztuta geratu zen, aspaldi hil zen.

### Zer gertatu zen tropa frankistek Bilbo hartu zutenean?

Ordurarte nire aitarekin borrokan ibilitako batek, izenaz ez naiz gogoratzen, saldu egin zituztela. Beste aldera pasa eta beren plan guztiak jakinarazita traizionatu egin zituen.

### Eta ondoren preso hartu zuten

Hori da. Laredon erreketeeek preso hartu eta Teruelera eraman zuten. Bertan sekulako hotza egiten zuela esaten zuen. Egun batean esnatu eta gainean kristoren pisua sentitu zutela, eta gainean elurra zeukatela. Erreketeek frontera bidali zituzten, eta han egun batzuetan egon ondoren beraien lagunek erabaki zuten errepublikaren aldera pasatzea. Baina noski, pasatzea ez zen erraza. Horrela, egun batean, inguruan zegoen baserri batean oiloak eta animalia batzuk utzi omen zituzten, eta Antonio izena zuen erreketete batekin hitz egin zuten oilo horiek ekartzera joateko baserri horretara. Bila joatearen aitzaki horrekin egin zuten ihes errepublikarren aldera.

### Ebroko borrokan ere hartu zuen parte

Bai. Esaten zuen Ebroko ibaia gorria zegoela, hainbeste odol isuri izanaren ondorioz.

### Bigarren aldiz harrapatu zuten ordea, oraingoan "moreok"

Aitak esaten zuen erreketeeek harrapatu balute hil egingo zutela, baina "moreok" harrapatu zutelako salbatu zela. Espetxera eraman zuten, Tarragona, Reus, ez dakit nora. Trenean eraman zituzten, eta iritsi zirenean eta handik jaisten hasi, jende pila bat zegoen begira. Eta andre bati entzun omen zion: "A ze dezepzioa, nik uste nuen hauek buztana eta adarrak zituztela, eta gu bezalakoak dira".

Kartzelan zegoela heriotza zigorra ezarri zioten, eta hiru hilabetez egon zen horrela kondizio berdinean zeuden presoekin. Gauero joaten omen ziren norbaiten bila, ateak ireki eta izenak esaten omen zituzten, hartu eta fusilatzea eramateko. Eta orduan hiru hilabetez gauero zain egon zen ea bere izena noiz esango. Azpeitiko Xiriako Agirre omen zegoen han preso, baina berak administrari lanak egiten zituen. Eta hiru hilabete horiek pasa eta gero, San Jose egunez edo esaten zuen berak, Xiriakok abisatu ziola: "Aizak, heriotza zigorra altxatu diate!". Gero epaiketa egin zioten eta hogeita hamar urtetara zigortu, traizio handia egin izana leporatuta, separatista eta euskalduna izateagatik. "Nanclares de la Oca"-ra eraman zuten eta kartzela askotatik pasa ondoren, Donostiara, Ondarretako espetxera, eraman zuten.

### Nolakoa zen bizimodua Ondarretako espetxean?

Han goseak egon ziren, jatekorik ez zegoen eta ia. Jateko bakarra tipula egosia edo zorritz betetako baba handiak ziren. Izugarritzko gosea pasa zuten. Jendea gosez hiltzen hasi zenean mojak eraman omen zituzten Ondarretara sukaldatzeko, eta orduan behintzat askoz hobeto jaten zuten. Haiengatik salbatu ziren. Gero etxekoak bisitak baimentzen hasi ziren, eta bisita horietan jana ematen uzten zuten. Baina askotan etxekoek eramaniko gauzak, oiloak, menbriloa, edo etxean egindako jakiak esaterako, funtzionarioek beraiak hartzen zituzten. Askotan ez ziren iristen beraiengana. Gure amak Donostian osaba bat zuen taberna bat zeukana. Taberna hartatik egundoko janari kazuelakadak bidaltzen zizkieten. Baina esan bezala batzuetan ez ziren iristen.

### Aitzol apaiza ere Ondarretako kartzelan egon zen fusilatua izan baino lehen, eta aitak bere inguruko istorioen bat kontatu zizuen

Aitzolek gurutze bat omen zeukan, eta gurutzea hartu, begian jo, eta begia atera omen zioten Hernanira fusilatzea eraman baino lehen.

### Ondarretako espetxealdian tifusarekin ere egon zen zuen aita, ezta?

Hala da. Bere anaia bat ere han egon zen berarekin preso, eta esaten zuen han pentsatu zutela: "Hau hementxe hilko da". Oso gaizki irten zen handik, eta denbora pasa zen gutzit sendatu zen arte.

### Noiz irten zen espetxetik?

Hogeita hamar urte horiek kommutatu egin zizkieten. Frankok amnistia antzerako zerbait eman zuen eta sei urte eta egun bateko zigorra geratu zitzaion. Horrela, egun batez, kartzelan meza ematen zuen apaizak, abertzalea omen zenak, esan zion: "Begira, nik egunero meza eman behar dut, eta zuk laguntzaile lana egin zenezake. Gainera lan bat egingo duzu. Kartzelan dauden zure lagunak kartak niri ekarriko dizkidazu ezkutuan eta nik kanpora aterako ditut. Eta kanpokoak ere ekarriko ditut eta zuk banatu egingo dituzu". Eta "hori egin behar bada prest nago" erantzun omen zion aitak. Hiru egunetan ikasi omen zuen meza laguntzen latinez, eta berak egiten zuen akolito lana. Horrela lagunak kartak eta abisuak apaizari ematen zizkion, bota batean sartuta. Baina denborarekin konturatu egin ziren, eta kontatzen zuen egun batean hartu zutela, gela batera eraman eta ezkerreko bota erantzeko esan ziotela. Erantzi zuen eta ezer ere ez zen azaldu, beste botan baitzeramkien karta. Bestea kentzekorik ez zioten agindu eta libratu egin zen. Baina izugarritzko beldurrarekin ibiltzen zen. Baina beno, horrekin lan handia egin zuten, bai kanpotik barrura eta barrutik kanpora kartak eta gauzak pasatzen. Uste dut berrogeita batean libratu zela. Akolito lana egiteagatik bi egunetik bat barkatu egin zioten. Orduan kartzelatik atera eta etxera etorri zen.

### Baina ezin izan zuen denbora luzez egon etxean

Ez. Etxera itzulitakoan auzoko erreketeeek denuntzia bat sartu zioten, eta Langile Batailoira eraman zuten, Errenteriara, hamaika hilabetez egon zelarik bertan. Errepideak egiten aritzen omen ziren. Lanean ari ziren egun batean hango komandanteak esan omen zion bere asistentzat nahi zuela hartu, eta horretan aritu omen zen, etxeko lanak, erosketak, garbiketak eta antzerako lanak egiten. Esaten zuen komandantea Frankoren aldekoa zela, baina nahiko gizon zuzena aldi berean. Gure aitarekin harreman ona egin zuen. Askotan galdetzen omen zion: "Zergatik nahi duzue Euskal Herria independente izatea?". Eta aitak erantzun: "Gure herria delako, gure historia, gure hizkuntza dauka-gulako, eta gu ez garelako espainolak sentitzen". Eta gai honen inguruan beste anekdota bat ere kontatzen zuen. Preso zegoela hango teniente batek esan omen zuen: "Baina zuek zertarako nahi duzue independentzia? Hiru mendi eta lau berza!" Hori esan ziotela, eta bai, horrelako anekdotak ere kontatzen zituen. Beraz hamaika hilabete egon zen Errenterian eta ondoren etxera itzuli zen.

---

### Nolakoa izan zen herrira itzulera?

Kuartelera aurkeztu behar izaten zuen oso sarri.

Gero amarekin ezkondu zen eta eztei bidaietara joateko baimenik ez zioten eman. Baina joateko erabakia hartu zuen eta Bilbora joan ziren, eta handik Gernikara, amari erakutsi nahi ziola eta, eta hiru egun egin zituzten eztei bidaiari.

---

### Zein oroitzapen duzue gerra ostean?

Oso gogorra izan zen. Errazionamenduaz oroitzen naiz. Zenbat lagun bizi familian ba horrenbeste janari ematen ziguten. Guk ez genuen gosarik pasatu, baserrian beti baitzegoen ogia, babarruna edo esnea. Kanean bizi zirenek gose gehiago pasa behar izan zuten baserrian bizi ginenok baino.

Bestela familian bizitza normala egin genuen, gustura bizi ginen. Halere auzoan gerran Frankoren aldean ibilia zen jendea zegoen, erreke-teak. Gu bertako umeekin jolasean ibiltzen ginen, beraien etxera joaten ginen eta erlazio normala geneukan. Baina konturatu ginen gure gurasoek beraien gurasoekin ez zutela hitzik egiten. Eta orduan amonak askotan kontatzen zigun ondorengoa: "Begira, horiek erreke-teak ziren, Frankoren alde egin zuten gerran, eta aita gerratik etorri zenean kartzelatik, berriro denuntzia sartu eta berriro langile batailoira lanera joan zen". Horrez gain istorio asko kontatzen zizkigun. Esate baterako etxe batean josteko lau makina zeuden, eta zergatia galdetzen genuenean gerra denboran harrapatutakoak zirela azaltzen zigun, beste etxeetatik errekeisatutakoak. Beraz gu umeok elkarrekin ibiltzen ginen arren gure amek eta aitek zenbait denboratan ez zuten elkarrekin hitz egin. Halere egun batean, gogoratzen naiz, aitak eta amak esan zutela: "Beno, bizi guztian ezin gara horrela bizi hitz egin gabe. Hau aldatu egin behar da". Horrela hasi ziren agur egiten, kasu egiten, eta gauzak normalizatzen.

Baserriko lanak zeudenean ere, garia jasotzea eta horrelakoak, denborarekin auzokook elkar laguntzen hasi ginen. Baina denbora behar izan zen gauza hauetarako, urteak pasa ziren.

---

### Aitak gerrako istoriorik kontatzen al zizuen?

Bai, iluntzetan kontatzen zizkigun istorioak, afal ondoren. Txikiak ginen eta artean gauza asko ez genituen ulertzen, baina gero joan ginen gauzak ulertzen.

---

### Zein garrantzi du zuentzat memoria historikoa berreskuratzea helburu duen proiektu honek?

Miren: Neretzat oso garrantzitsua da, eta uste dut hau lehenago egin behar zela. Hirurogeita hamar urte pasa dira, baina jendeak beldurra zeukan aurretik. Poliki poliki hasi da hitz egiten eta nik uste dut beharrezkoa dela, gaurko gazteek ere jakin dezaten zer pasa zen, askok ez baitakite. Nik uste dut jende asko poztu egingo dela. Eta uste dut zor zaiola hori gure herriari eta gure herria defendatzeko hil zirenei eta hor borrokan ibili zirenei. Nik uste dut zor zaiela.

Kontxi: Bai, niri ere hala iruditzen zait, eta gainera oraindik gehiago sakondu beharko litzatekeela uste dut. Halere uste dut batzuk ez dutela nahi herriaren aurrean gai hau berriz ere ateratzea, lehengo gauzak direnaren iritzian. Alde bat bakararra dago erakutsita, eta bera gaizki. Bat dago gaizki erakutsita, eta bestea oso ezkutatuta. Baina pasatzen dena da gure atzetik datozenak ez direla konturatzen gauza hauekin, eta kontatuta ere zer? Nola ez duten horrelako gauzarik pasa ez diote garrantzia hori ematen.

ROSARIO

# Olaizola Alegria



*Rosario Olaizola Alegria 1921eko abuztuaren 11an jaio zen Azpeitian.*

«*Amatxok ohera joandakoan negar egiten du´ esan zigun behin neba txikiak.*

*Egun batean aguazila etorri zitzaigun, esanaz Bilbon zeuden familiarrak itzultzen ez baziren gu Nafarroara joan beharko ginela.*

*Ezer gabe geratu ginen, dena kendu ziguten.*

*Puerto de Santa Mariako hezetasunak ondorioak utzi zizkion aitari, eta gazte hil zen, hirurogeita hiru urte zituela, pneumoniarekin*»

## **Nolakoa zen bizimodua errepublika garaian Rosario?**

1931. urtean errepublika aldarrikatu zen, eta eskolan bandera errepublikarra jarri zutenean mojak negarrez ikusi eta haiekin batera negar egin genuen. Baina errepublika garaian guk bizimodu normala egin genuen, ondo bizi izan ginen. Aitak zapatarri bezala egiten zuen lan, zapatak neurrira egiten zituen. Batzokiko lehendakaria ere bazen garai hartan, eta "Euzkadi" eta "Argia"ko korrespondentsala ere izan zen. Horrez gain alkateorde lanetan ere aritu zen. Izan ere, alkateak, Xiriako Agirrek, familia izan zuen, eta denbora horretan aita geratu zen alkate lanak egiten. Ondoren, gerra hasi zenean, aita Bilbora joan zen eta Xiriakok bete zuen berriz alkate postua.

## **Gerra hasi zenean hamabost urte zenituen. Irailaren 20a zen tropa frankistak Azpeitira sartu zirenean. Zer oroitzen duzu?**

Irailaren 20an, eguerdiko hamaiketatik hamabietara bitartean sartu ziren erreketek Azpeitian. Fusilak eskuan zituztela sartu ziren, kalean ez zebilen inortxo ere. Batzokia gure etxe aurrean zegoen, eta arratsalde partean zarata handi bat entzun genuen bertatik zetorrena, zerbait erori izan balitz bezala. Begiratzerara joan ginenean Eusko Etxeko errotilua bota zutela ikusi genuen. Su eman zioten denari, ikurrinak tarteko. Komertzio batzuk ere sakeatu zituzten. Hurrengo egunean, goizeko zortzietan, gure etxera etorri ziren aldabatxoa joaz, bost erre-kete azpeitiar eta hiru kamiseta urdin, nafarrak. Etxea ikustera etorri ziren, errebisatzera. Gerora ere sarritan etortzen ziren, nahi zutenean. Behin Solchaga jeneralaren bi iloba etorri ziren etxea erregistratzera. Ama eta biok geunden etxean, eta egongelara sartu, butaka batean eskua sartu eta bi bala atera zituzten, aurretik han baleude bezala. Norenak ziren galdetu eta nire amak, serenidade guztiarekin, ez zekiela erantzun zuen, beraiek ekarriak izango zirela. Horrelakoengatik etxean gordetzea arriskutsua zen materiala, liburuak eta horrelakoak, izaba Lolaren etxean gordetzen genituen. Halere behin susto bat izan genuen, ia harrapatu baikintuzten, eta azkenean denak erre beharra izan genuen. Amak esaten zuen gauzez bakarrik egoten zela lasai. Ez genuen ama inoiz negarrez ikusi, baina txikiak amarekin egiten zuen lo eta behin honakoa esan zigun: "Amatxok ohera joandakoan negar egiten du".

## **Amak asko sufritu zuen beraz. Eta bitartean aita, anaia eta ahizpa Bilbora ihesi joanak ziren**

Aitak, Antonio Olaizola Echeverriak, irailaren 19an egin zuen alde Azpeititik, semea, Imanol Olaizola Alegria, eta alaba M<sup>a</sup> Dolores Olaizola Alegriarekin. M<sup>a</sup> Dolores gudarienezko alkandorak josten ibili izan zen, eta horren ondorioz errepresioaren bat jasango zuen beldurrez egin zuen ihes. Etxetik atera zirenean amak esan zion aitari: " Zer egin behar dut nik bakarrik famili honekin, hauek denekin?". Eta aitak erantzun:

"Ene! Zortzi egunetan hemen gaude". Bilbora egin zuten ihes, eta noizik behinean eskutitz bat iristen zitzaigun ondo zeudela esanaz. Egun batean aguazila etorri zitzaigun, esanaz Bilbon zeuden familiarrak itzultzen ez baziren gu Nafarroara joan beharko ginela. Honetaz konturatu eta beheko bizilagunak, gizona karlista baitzuen, abisatu zigun hurrengo egunean ez irteteko kalera, eta ez ginen atera, eta horrela salbatu ginen. Izan ere egun horretan ihes eginda zeudenen familiarrak plazatik eraman zituzten. Aita egin ziguten mehatxuaz enteratu omen zen Bilbon eta Eibarreraino inguratu omen zen. Gero jakin zuen salbatu ginela, nire anaiaren andregaiaren bitartez.

### Zer gertatu zitzaizen zure ahizpa M<sup>a</sup> Dolores eta anaia Imanoli?

Ahizpa etxera itzuli zen beste bi azpeitiarrekin batera, Arrieta ahizpak. Hurrengo egunean baina, etxepeko batek denuntzia sartu ziola eta aguazila beregatik galdezka etorri zen etxera, eta hiru neskak atxilotuta Donostiara eraman zituzten. Ahizpa hogeita bi hilabetez egon zen preso Ondarretako espetxean. Ama ostiralero joaten zitzaion bisitatzerara. Hango funtzionario baten alabak ezagutu egin zuen eta bulegoa garbitzen, eskutitzak banatzen, eta antzerako zereginetan ipini zuten lanean. Ondoren epaiketa egin zioten, zortzi gizonen artean bera bakarik zen emakumezkoa. Denuntziatu zutenen artean ez zen inor ere aurkeztu epaiketara, eta hamabost egunen buruan etxera itzuli zen. Anaia Imanol aldiz, Kantabriar, Laredon edo harrapatu zuten, eta Iruñeara eraman, Ezkabako presondegira, bertan hiru urte pasa zituelarik.

### Aitak aldiz Puerto de Santa Mariako espetxean amaitu zuen

Halaxe da. Bilbotik Balmasedaraino joan zen, ihesi. Ez dakit non harrapatu zuten, baina Logroñoeko zezen plazan pasa zuen gau bat, eta handik Puerto de Santa Maria-ra eraman zuten. Lau - bost urtez espetxean egon zen, eta heriotza zigorra ezarri zioten. Halere lortu zuen heriotza zigoretik libratzea, bere arreba moja batek errekurtsioa jarri izanaren ondorioz.

### Jasan al zenuten errepresio ekonomikorik?

Jasan genuen, bai. Aitak zapata-denda errentan zeukan hartuta. Egun batean, Eugenio, aguazila, etorri zen dendako giltza eske, eta amak eman zidan agindua giltza nik eramateko eta bukatzen zutenean berriro etxera itzultzeko. Gure aita "Euzkadi" eta "Argia"ko korrespontsala ere bazen, eta dendan euskarazko liburu asko zeuzkan. Haiek denak usmatzen ibili ondoren aguazilak esan zidan etxera joateko, eta giltza berak hartuko zuela. Horrela soldaduak beren zapatak konpontzera sartu ziren, eta aitak zeukan material guztia erabili zuten. Ezer gabe geratu ginen, dena kendu ziguten.

### Nolakoa izan zen gerra ondorena zuen etxean?

Puerto de Santa Mariako hezetasunak ondorioak utzi zizkion aitari, eta gazte hil zen, hirurogeita hiru urte zituela, pneumoniarekin. Itzuli zenean ez zuen deus ere kontatu nahi izan, baina guk ikusi genuen itzuleran batzuek ondo hartu zutela baina beste batzuek ez. Guk goserik ez genuen pasatu, baina inguruan gosete handia zegoen. Errazionamenduan ematen ziguten kafea arto irinagatik aldatzen genuen, errotakoa laguna baikenuen. Ondoren irin horrekin taloak egiten genituen, barruan txorizoa edo gazta jarrita. Horrela betetzen genuen tripa. Txotxoloren batek "rojo separatista" deitzen zigun arren kalean euskaraz hitz egiten genuen.

### Garrantzitsua al da zuretzat memoria historikoa berreskuratzea helburu duen proiektu hau gauzatzea?

Garrantzitsua da bai, hau guztia bizi izan genuen pertsona gutxi geratzen garelako bizirik eta oraingo gazteek ez dakitelako zer pasatu zen. Ni bizi naizen artean ez dadila beste gerrarik egon, hura beldurgarria izan zen.

# Olazabal Bereziartua

MARIA



*Maria Olazabal Bereziartua 1926. urtean jaio zen "Potzueta" baserrian. 26 urte zituela Azpeitira ezkondu zen, nahiz eta gero Errezilen ere bizi izan.*

«*Hilak udaletxera ekarri eta egun batez edukitzen zituzten, ondoren lurperatzeko. Etxeko familiako batek alde egin beharra zuela eta gure etxetik ama eraman zuten.*»

## Nolako zen bizitza errepublika garaian Maria?

Nik hamar urte nituela hasi zen gerra, eta aurretiko bizitza normala zen. Baserriko lanak egiten genituen eta baserri batetara joaten ginen eskolako klase batzuk hartzera. Nere aita kontzejala zen. Bi alderdietakoak, karlistak eta nazionalistak, joan ziren bereganaren beren alderdikide izateko eskatuaz, eta bat erabaki behar zuten eta nazionalisten alderdian sartu zen kontzejal. Esaten zuten, ikasketarik ez edukiarren, balio zuten lan horretarako, asko inplikatzeko zelako.

## Baina 1936. urtean gerra iritsi zen. Nolako zen bizitza herrian?

Elkarren arteko borroka izugarriak izan ziren.

## Bonbardaketak ere izan ziren ezta?

Bai. Bonbardaketetan hil zirenez ez naiz oroitzen, baina frontean bai. Frontea Eibarren zegoenean.

## Inguruko baserriko bat hila suertatu zen gerran, oroitzen al zara nola jakin zenuen horren berri?

Hila, bai. Garai hartan ohitura zen baserri bakoitzeko santu bat pasatzen joatea, baserri bakoitzean egun batzuk egoten zelarik. Goiz batean santu bat hartuta nioan ni baserri batetara, eta batek esan zidan: "Ausartzen al zara baserri horretara joaten?" "Zergatik?" esan nion eta "Ez, ezer ere ez, joan joan!". Atea jo nuen eta emakume bat negarrez irten zitzaidan. "Maria" esan zidan "Amari esan gaur zazpietan dela nire semearen hileta. Semea hil da, Joxe". Jose Olaizola zen, nire auzokoa, Lepasoro baserrikoa. Horrela zen, hilak udaletxera ekarri eta egun batez edukitzen zituzten, ondoren lurperatzeko. Horrela Azpeitiar asko hil ziren.

## Tropa frankistak iritsi zirenean zure aitak, Manuel Olazabal Gurruchagak, alde egin zuen

Iritsi zirenerako joana zen. Izan ere Beasaindik iritsi zitzaigun gure aita hilko zutenaren berria. Frankoren tropak handik Azpeitirantz zetozela eta azkar Bilbora alde egiteko esan zioten. Hiru urte pasa ziren berriro etxera itzuli zen arte. Dena den hiru urte horien amaiera aldean, ama, familiako beste batzuen laguntzaz, aita bisitatzera joaten zen Bilbora, kartzelara.

## Aitak alde egin beharra izan zuen. Zuek etxean geratu zineten, baina ez zintuzteten bakean utzi

Etxean geratu ginen bai, amonarekin. Hamabi urte zituen zaharrenak eta sei txikiak. Ezkutatu ez, baina beti beldurrez bizi ginen. Eta gero ama kendu ziguten. Etxeko familiako batek alde egin behar zuela eta gure etxetik ama eraman zuten. Nire amona lau ume txikiarekin geratu zen. Baina nire ama, berez Bilbora joateko agindua zeukan arren, ganbaran ezkutatu zen bere ahizparekin, eta han egon ziren ezkutatu denboraldi batez.

## Aitak hiru urte pasa zituen kanpoan. Nolako izan zen itzulera?

Beti beldurrez egoten ginen baten bat etorriko ote zen bere bila, baina ez zen hala izan, bizitza normala egin zuten.

## Nola aldatu zen bizitza errepublika garaitik gerra ondorengo lehenengo frankismora?

Guretzat ez zen aldaketa handirik egon. Hasieran herrian elkarrekiko ezinikusia zegoen, baina gerra amaitu zenean normaltzen joan zen.

## Zuretzat garrantzitsua al da jendeak zer gertatu zen jakitea?

Bai, nik uste dut baietz.

# Otaegi Alberdi

BITTOR



*Bittor Otaegi Alberdi Azkoitiarra da jaiotzez, naiz eta haurra zela familiarekin Azpeitira bizitzera etorri zen.*

« *Doktrina erdaraz eman behar izaten zen arren Don Lorenzok euskaraz ematen zuen, oso euskaltzalea baitzen.* »

## Nor zen zure aita, Bittor?

Nire aitak Vitoriano Otaegi Azurmendi zeukan izena. Gerrara joan zen borrokatzera, ez dakit zein datatan. Mutriku aldetik ibili zen harik eta preso hartu zuten arte. Gero Langile Bataloian egon zen Nanclares de la Ocan. Ekonomatoan egon zen lanean.

## Itzuli zenean gerrako konturik kontaktzen al zizuen aitak?

Ez zigun gauza askorik kontatu. Zeuk esanda dakit UGTko afiliatua zela, nik hori ez nekien.

## Aitak kontatu ez arren zuk gerra denborako oroitzapenik ba al duzu?

Baditut hainbat oroitzapen. Txaiher-etaz gogoratzen naiz. Baserri batera joan omen zen zerbait eskatzera eta ez zuten gehiago ikusi. Gerora bilobak esan zidan gorputza non edo non topatu eta ekarrita zeukatela.

Gogoratzen naiz Azpiazu apaizari Guardia Zibilak etxera etorri zitzaizkionekoaz ere.

Baita pertsona edadetu batek azaldu zidala hiru gaztek apaiz bat bahitu zutela fusilatzeke asmoz. Baina "Hirutxiki" deitzen zioten falangista batek ikusi eta egitera zoazenaz ondo pentsatzeko aholkatu zien. Azkenean aske laga eta apaizari barkamena eskatu omen zioten.

## Eta gerra osteaz? Zer gogoratzen duzu?

Doktrina erdaraz ematen zutela gogoratzen dut. Halere hemen Don Lorenzo, izatez Lizartzakoa zen apaiz bat zegoen, eta hark euskaraz ematen zuen, oso euskara zalea baitzen.

Errazionamendua ere ezagutu nuen.

## Zer iritzi duzu memoria historikoa berreskuratzea helburu duen proiektu honen inguruan?

Memoria historikoa berreskuratzea garrantzitsua dela deritzot. Batzuek agian ez dute nahiko, baina beharrezkoa da.

# Otegi Imaz

MIKELTA



*88 urte ditu, eta Iruñean, Txantrean bizi da, izatez Azpeitiarra bada ere. Jaioberria zela Antonia Razkin Ondueza eta Manuel Torrano Senar gizon emazteek adoptatu zuten.*

«*Ez genuen jakin aitaren gorpuarekin zer egin zuten, eta ezin izan genion ez azken agurrik ez lurperatze duinik eman.*»

*Amak, batere errurik eduki gabe, izugarriak pasa behar izan zituen.*»

## Gerra garaian zure aita atxilotua eta espetxeratua izan zen. Zergatik?

Nire aita, Manuel Torrano Senar, kapataza zen, eta hori zela eta zubi bat botatzera behartu zuten, horrela tropa kolpistak geldiarazteko asmoz. Hori izan zen bera espetxeratzeko arrazoia.

## Nola jakin zenuten bere espetxeratzearen berri?

Aita egunero moduan kalera irten zen buelta bat ematera. Erdi kalean, "Napar txikiye" esaten zioten taberna batean batu ohi ziren lagunak, zerbait hartu eta ondoren etxera itzuli ohi zelarik. Baina egun horretan ez zen itzuli. Orain nor zen oroitzen ez dudan norbait etorri zen gure etxera aita Azpeitiko kartzelara eraman zutela esatera. Handik Donostiara, Ondarretako kartzelara eraman zuten, eta han denbora bat pasa ondoren Ezkaba edo San Kristobalera eraman zuten. Hura oso urruti zegoen Azpeititik, eta ezin izan genuen behin ere bisitatu.

## Eta hantxe hil zen Manuel

Hantxe hil zen aita, bai. Ez genuen bere heriotzaren berririk izan harik eta eliz kalean bizi zen gizon batek, "Eper haundiye" deitzen ziotenak, zeina ere San Kristobalen egon zen, berri eman zigun arte. Ez genuen jakin gorpuarekin zer egin zuten, eta ezin izan genion ez azken agurrik ez lurperatze duinik eman.

## Aita espetxean hil zen, eta bitartean zuen amak, Antoniak, hiru ume txiki aurrera atera behar izan zituen, bakar bakarrik

Aitarena gertatu zenean ni txikia nintzen eta ondorioz ez daukat berari buruzko oroitzapen handirik. Baina bai amarena. Amak, batere errurik eduki gabe, izugarriak pasa behar izan zituen. Eskera joaten zen, baserri baserri, hiru ume txiki jaten emateko. Nik ere lagundu ohi nion. Zestoako baserrietaraino ere joaten ginen baba, gari edo zeukaten genero eske, eta hura kargatu eta etxeraino itzuli ohi ginen. Gose handia pasa genuen. Ni neu ere, aita kartzelan zeukan beste lagun batekin batera, patatak lapurtzera joan nintzen behin, eta hura poza amarena etxera patata batekin joan nintzenean. Zuritu eta berehala egosi zuen, frijitu ezin baitzen egin, oliorik ere ez baikeneukan.

Gosea gutxi ez, eta bizi ginen eliz kaleko etxetik bota gintuen bertako nagusiak, moja izana bera, eta sanjuandegi auzunera joan ginen bizitzera. Bidali egin gintuen, nire aita espetxean eta ama hiru ume txiki aurrera ateratzeko izugarriko ahaleginak egiten ari zen bitartean.



# Sarasua Uranga

ANASTASIA



Anastasia Sarasua Uranga Azpeitiko "Enparangain" baserrian jaio zen 1920. urtean

« Joandako asko ez ziren itzuli. Ezagun asko hil ziren gerran.  
Nire anaia Joxe CNT-koek hil zuten beste aldekoa zela pentsatuaz.  
Azpeitiko bonbardaketetan bi Azpeitiar hil zituzten. »

## Gerra hasi zenean zuk hamasei urte zenituen Anastasia. Kontaiguzu gerra hasiera hartaz gogoratzen duzuna

Gogoratzen naiz herriko jende askok egin zuela alde gerra hasi zenean, eta joandako asko ez zirela itzuli. Zoritxarrez ezagun asko hil ziren gerran.

## Zure anaia Joxe, esaterako

Nire anaiak, Joxe Sarasua Uranga, ezizenez "Kukubiltxo", hamaika urte zituen bere lagun Nicolas Agirrerekin San Pedro izena duen mendira joan zenean CNT-koak ikustera. Anaiak kamiseta urdin bat zeramkien soinean, eta aurkaria zela pentsatuaz tiroka hasi zitzaizkion eta bertan hil zen. Nicolas hankan zauritu zuten.

## Bestalde bonbardaketak ere izan ziren Azpeitian. Oroitzen al dituzu?

Bai. Bi azpeitiar hil zituzten. Bat alberge atzean bizi zena, Ormaetxea. Eta bestea Loiolako indar etxekoa.

## Gerra amaitzean Frankoren diktadura ezarri zen. Zer gogoratzen duzu garai hartaz?

Euskaraz hitz egitea galarazita zegoela eta gose handia pasa genuela oroitzen naiz. Ihesi joan zen lehengusu batek kontatu zidan guraizeekin belarra ebaki, egosi eta hura jaten zuela, ahal zen moduan gosea asetzen saiatzeko. Hortik atera kontuak.

# Urbistondo Lasa

BASILIO



*Anaia Dionisio Otxandioko konbatean hil zen.*

*Ni espetxean gatibu eduki ondoren Afrikako Langile Batailoira eraman ninduten.*



## Non eta noiz jaio zinen Basilio?

1917. urtean jaio nintzen, "Txarabarrena" baserrian, Urrestillan.

## Zer oroitzen duzu gerra hasieraz?

1936ko gerra hasi zenean 18 urte nituen nik, eta beste gudari batzuekin batera alde egin nuen Urrestillatik, errepublikaren alde borrokatzera.

## Urrestillatik Zumaiara, handik Ondarroara, eta Ondarroatik Lekeitiora joan zineten, ezta?

Bai, Lekeition hogeitabat egunez egon ginen eguneko hamar erreal kobratzen ziguten pentsio batean. Hiru anai egon ginen bertan, laugarrenak kintoa zeukanez nazionalisten batailoi batera joan zen eta boluntario. Lekeition geundela "cinturón de hierro" egitera joan ginen hiru anaiok Sodupera.

## Zer zen "cinturón de hierro", edo burdinazko gerrikoa?

Bilbon ipini zen defentsa. Tropa frankistak inguratzen zirenean "inexpugnablea" izango zela pentsatzen zen, hau da ezingo zirela bertatik pasa, nahiz eta gero aise pasa zuten zeuzkaten arma guztien laguntzaz. Itsasotik hasi, eta Sodupetik bueltan Urduña aldetik Mungia egin zen gerrikoa. Berrogeita hamalauren bat kilometrotakoa izan zen. Gu Sodupen egon ginen borrokan, eta egunero Bilbora joaten ginen lotara.

## Zuek burdinazko gerrikoa prestatzen ari zineten bitartean anaia Dionisio hil zen Otxandion. Kontaiguzu gertatua

Nire anaia Dionisio Otxandioko konbatean hil zen. 1936ko abenduaren 1a zen, eta Gasteiz hartzeko asmotan ziren, nahiz eta ez zuten lortu.

## Eta zu preso hartu zintuzten

Bizkaian ibili nintzen borrokatzen nire beste bi anaiekin batera. Gernika sutan ere ikusi genuen, Markinatik Gernikara ihesi gindoazela. Ni 1937an preso hartu ninduten bai, eta gatibu egon nintzen Santanderren, Miranda de Ebron eta Zaragozan. Ondoren, 1940tik 1943ra, Afrikako langile batailoian eduki ninduten.



Señor Jefe de la Prisión P de San Sebastián

6.

**Iturriak eta Bibliografía**

Mi Señor mío, ante todo le pido que me pida perdón por el atrevimiento de dirigirme a usted, pero como que me desahucen mis cartas, por que mi marido falleció el 15 del corriente, quisiera que tuviera el favor de decirme la forma de poder recoger los pocos trajes viejos o lo que fuere favor que es pero del bondadoso corazón de V. F.

G. F. M.

Amalia Piarrero

Vale

En caso que V. viera que facturarlos era lo mejor menos la borra del colchón yo le mandaría el importe o si tomara la molestia de mandarlo aparte devido el Señor se lo recompensará.

**AGIRITEGIAK**

- Azpeitiko Udal Artxiboa
- Azpeitiko Erregistro Zibila
- Burnibidearen Euskal Museoaren Artxiboa
- Gipuzkoako Probintzia-Artxibo Historikoa
- Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa
- Bizkaiko Probintziako Agiritegi Historikoa
- Euskadiko Artxibo Historikoa
- Aranzadi Zientzia Elkarte
- Memoria Historikoaren Zentro Dokumentala
- Espainiako Artxibo Historikoa
- Administrazioaren Artxibo Orokor Militarra
- Guadalajarako Artxibo Militar Nagusia
- Ferroleko Agiritegi Militarra
- Ávilako Artxibo Orokor Militarra
- Defentsako Artxibo Orokor eta Historikoa
- Euskal Memoria Fundazioa
- Sabino Arana Fundazioa
- Zangozako Erregistro Zibila

**HEMEROTEKA**

- Donostiako Udal Liburutegia Nagusia. Hemeroteka Digitala
- Koldo Mitxelena kulturunea. Hemeroteka digital
- Bizkaiko Foru Aldundia. Hemeroteka Digitala
- Lazkaoko Beneditarren Fundazioa. Hemeroteka
- Espainiako Nazional Liburutegia. Hemeroteka Digitala
- ABC. Hemeroteka Digitala
- La Vanguardia. Hemeroteka Digitala

**AHOZKO ITURRIAK**

AIZPITARTE ITURZAETA, BEGOÑA  
 AIZPURU ETXEBERRIA, KARMEN  
 AIZPURU ZUBITUR, PEDRO JOSE  
 ALTUNA, NEREA  
 ARAMBARRI, JOSE LUIS "LARRUMBE"  
 ARAMENDI, IGOR  
 ARANBARRI KABERO, MONSERRAT  
 ARANBURU, OLATZ  
 ARREGI AROZENA, XABIER  
 ARRIZABALAGA ARAMENDI, JEXUX  
 ASTIGARRAGA, JOSU  
 AZPIAZU BEREZIARTUA, ANA MARIA  
 AZPIAZU GOMEZ, KONTXI  
 AZPIAZU GURRUTXAGA, PEDRO "BELTZA"  
 AIZPITARTE ITURZAETA, BEGOÑA  
 BEREZIARTUA AROZENA, MIRARI  
 BEREZIARTUA ARREGI, INAXITA

BEREZIARTUA ARREGI, JUANITA  
 BORDA EGIA, MARIA ROSARIO  
 CAMPOS, MAITE  
 EGIBAR ETXEBERRIA, KONTXI  
 ELIAS OLAZABAL, BEGOÑA  
 ELIAS OLAZABAL, MILAGROS  
 ELIAS URIA, ITZIAR  
 ERRASTI AGUIRRE, BEGOÑA  
 ERRASTI ODRIUZOLA, BEGOÑA  
 ETXEBERRIA, LINA  
 GARMENDIA ALTUNA, MAITE  
 GARMENDIA ALTUNA, MIREN  
 GOENAGA MERKETEGI, JON  
 IBARGUREN ELUSTONDO, JOXE MARIA  
 ITURRALDE BEREZIARTUA, IÑAKI  
 ITURZAETA MENDIA, JOXEMARI  
 LANDA AROZENA, MILAGROS

LARRAÑAGA ARANGUREN, MIREN  
 LARRAÑAGA ORBEGOZO, INIXIO  
 MURU NAVALLAS, SALOME  
 NAZABAL ARRIETA, KORO  
 ORBEGOZO CIMORRA, KARMELE  
 ODRIUZOLA UZKUDUN, KONTXI  
 ODRIUZOLA UZKUDUN, MIREN  
 OLAIZOLA ALEGRIA, ROSARIO  
 OLAZABAL BEREZIARTUA, MARIA  
 OTAEGI ALBERDI, BITTOR  
 OTEGI IMAZ, MIKELITA  
 SARASUA URANGA, ANASTASIA  
 URBISTONDO, JOXE  
 URBISTONDO LASA, BASILIO  
 URTUZAGA OTAEGI, MERTXE  
 ZUBIMENDI BEREZIARTUA, MARIA JOSE

**KOLABORATZAILEAK**

Azpeitiko Udal Liburutegia  
 Uztarría albistea  
 Antonio Loinazen familia  
 Joxemari Galarraga Esnaola  
 Imanol Olazabal Oizartabal  
 Juanjo Olaizola Elordui  
 Juan Antonio Aizpuru Aizpuru  
 Lourdes Montecelo Fuentesfría  
 Mikel Aizpuru Murua  
 Yolanda Etxezarreta Aizpuru  
 Salomé Muru Navallas  
 Miel Elustondo

## BIBLIOGRAFÍA

### AGUIRRE SORONDO, A.

1997 Los últimos torneros de madera. *Zainak* 14: 141-171.

### AIZPURU, M. (Koord.)

2007 El otoño de 1936 en Guipúzcoa: Los fusilamientos de Hernani. Alberdania. Irún.

2011 Antzinako Azpeititik Azpeiti berrira. Azpetiako Udala. Azpeitia.

2013 Los otros agrarios. Campesinos, caseríos y nacionalistas vascos. En: XIV Congreso Internacional de Historia Agraria. Badajoz. Disponible en: <http://seha.info/congresos/articulos/P.II.%20Aizpuru.pdf>.

### ALKAIN, I., ZAVALA, A.

1981 Gerrateko ibillerak. Auspoa. Disponible en: [http://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker\\_jagon\\_tegiak/auspoa/9117.pdf](http://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/auspoa/9117.pdf).

### ALONSO CARBALLÉS, J. J.

2007 El primer exilio de los vascos, 1936-1939. Disponible en: <http://www.ehu.es/ojs/index.php/HC/article/viewFile/4117/3667>.

### ANSEL D.

2009 Del Congreso de Vitoria a la evolución sindicalista de Solidaridad de Trabajadores Vascos. 1933-1936. *Sancho el Sabio* 31: 81-116.

### ARTECHE, J.

1970 El abrazo de los muertos. Icharopena. Zarautz.

1977 Un vasco en la posguerra. *Diario 1939-1971*. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao.

### AZPIAZU OLAIZOLA, I.

1964 7 meses y 7 días en la España de Franco. Ediciones Gudari. Caracas.

### BADIOLA ARIZTIMUÑO, A.

2011 Cárceles y campos de concentración en Bizkaia. Txertoa. Donostia.

### BARRUSO BARES, P.

1994 El movimiento obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936). *Gipuzkoako Foru Aldundia*. Donostia.

1995 El intento autonómico de verano de 1934. La actitud del Ayuntamiento de San Sebastián. *Cuadernos de Sección. Historia-Geografía* 23: 375-403.

Verano y Revolución. *La Guerra Civil en Gipuzkoa*. Disponible en: <http://www.gipuzkoa1936.com/verano-e.php>.

### BOMBIN, L.

1946 Historia, Ciencia y Código del juego de Pelota. Lauro. Barcelona.

### BUCES CABELLO, J.

2014 Leioa 1936-1945. *Arantzadi Zientzia Elkarte*. Donostia.

### CHUECA, J.

2007 Gurs: El campo vasco. Txalaparta. Tafalla.

### DEIA (Ed.).

1987 *La Guerra Civil en Euskadi: Eusko Gudariak*. Deia. Bilbo.

### ECHEANDIA, J.

1945 La persecución roja en el País Vasco. Fidel Rodríguez. Barcelona.

### EGAÑA, I. (Dir.)

2004 1936, guerra civil en Euskal Herria. Aralar liburuak. Andoain.

2011 *El franquismo en Euskal Herria: La solución final*. Euskal Memoria Fundazioa. Andoain

### ELIAS ODRIOZOLA, I.

1997 Azpeitian historian zehar. Azpeitiko Udala. Azpeitia.

2003 Azpeitiko efemerideak, Herria historian zehar. Uztarría Kultur Koordinadora. Azpeitia.

2004 Azpeitia, 500...: Azpeitiarrak eta herriarekin bat eginak. Azpeitiko Udala. Azpeitia.

### ERRAZKIN AGIRREZABALA, M.

2013 Los nombres de la memoria, Tolosa 1936-1945. *Arantzadi Zientzia Elkarte*. Donostia.

**ETXANIZ MAKAZAGA, J.M.**

2003 De Albéitares y Veterinarios municipales en el Valle del Iraurgi 1861 – 1990. Ilustre Colegio Oficial de Veterinarios de Gipuzkoa. Donostia.

**FERNANDEZ LOPEZ, J.A.**

2003 Historia del campo de concentración de Miranda del Ebro (1937-1947).

**GAMBOA, J.M. de, LARRONDE, J.C.**

2005 La guerra civil en Euzkadi: 136 testimonios inéditos recogidos por Jose Miguel de Barandiaran. Instituto de Historia Contemporánea. Villefranche.

**GORROTXATEGI NIETO, M.**

2006 Errepublikara garaiak eta 1939ko dekretua. Fontes linguae vasconum: Studia et documenta 102 (Año 38): 321-352.

**GRANJA SAINZ, J. L. de la 2004**

1934 Un año decisivo en el País Vasco. Nacionalismo, socialismo y revolución. Sancho el Sabio 21: 11-25.

**GUTIERREZ AROSA, J.**

2007 La Guerra Civil en Eibar y Elgeta. Eibarko Udala. Eibar.

**GUTIÉRREZ FLORES, J.**

2006 Guerra Civil en Cantabria y pueblos de Castilla. Libros en Red ([www.foroporlamemoria.info](http://www.foroporlamemoria.info)).

**IBAÑEZ, M., ZABALA, M.**

2010 Azpeitiko industria-lanaren oroimena. Azpeitiko Udala. Azpeitia.

**IRAZABAL AGIRRE, J.**

2012 La Guerra Civil en el Duranguesado 1936-1937. Gederiaga Elkartea. Durango.

**JIMENEZ DE ABERASTURI CORTA, L.**

2003 Crónica de la guerra en el norte. 1936-1937. Txertoa. Donostia.

**LARRAZ, P.**

1974 Requetés, de las trincheras al olvido. La Esfera de los libros. Madrid.

**LOINAZ ECHANIZ, A.**

2001 Nire Oroitzapenak.

**MENDIOLA, F., BEAUMONT, E.**

2006 Esclavos del franquismo en el Pirineo. Txalaparta. Tafalla.

**MENDIZABAL, J.M.**

2004 Gudaris y rehenes de Franco (1936-1945). Alberdania. Irún.

**MENDIZABAL ELIAS, A.**

2006 Azpeitiarrak Espainako gerran. Asentxio Zubillaga testigantza: "Francoren matxinoek herri garrantzitsu bat hartzen zuten bakoitzean, ospakizuna egiten zen Azpeitiko plazan". Disponible en: [http://uztarria.eus/azpeitia/liburuak/09e\\_Azpeitiarrak\\_Espainiako\\_Gerran/09c/index\\_html](http://uztarria.eus/azpeitia/liburuak/09e_Azpeitiarrak_Espainiako_Gerran/09c/index_html)

**OLAIZOLA ELORDI, J.**

2009 1936. Represión y reconversión. El ferrocarril del Urola. Actas del V Congreso de Historia Ferroviaria. Fundación de los Ferrocarriles Españoles. Palma de Mallorca.

**OLAZABAL ESTECHA, C. M.**

2009 Pactos y traiciones. Los Archivos Secretos de la Guerra en Euzkadi. Fundación Popular de Estudios Vascos. Bilbao.

**PABLO CONTRERAS, S. de**

1988 El Estatuto Vasco y la cuestión foral en Navarra durante la Segunda República. Gerónimo de Uztáriz. Boletín 2: 42-48.

**PÉREZ, C. A.**

2007 Aproximación a la génesis y formación del «Ejército de Euzkadi», julio 1936 - mayo 1937. Disponible en: [http://www.belliludi.com/historia\\_aproximacion.html](http://www.belliludi.com/historia_aproximacion.html).

**RENOBALES, E.**

2005 ANV, el otro nacionalismo: Historia de Acción Nacionalista Vasca. Txalaparta. Tafalla.

**RODRIGO, J.**

2005 Cautivos: campos de concentración en la España franquista, 1936-1947. Crítica. Barcelona.

**RODRIGUEZ TEIJEIRO, D.**

2012 Instituciones de control postcarcelario en el primer franquismo: el servicio de libertad vigilada. HAO 28: 49-60.

**SEBASTIÁN GARCÍA, L.**

1999 La represión económica bajo el primer Gobierno Vasco. La Junta Calificadora Central (1936-1937). Vasconia 29: 169-184.

**SERRALLONGA URQUIDI, J.**

2007 El aparato provincial durante la Segunda República: Los gobernadores civiles, 1931-1939. Hispania Nova 7. Disponible en:  
<http://hispanianova.rediris.es/7/articulos/7a008.pdf>.

**SIERRA, F. y ALFORJA, I.**

2006 Fuerte de San Cristóbal, 1938: La gran fuga de las cárceles franquistas. Pamíela. Iruñea.

